Uztailaren 4ko 7/1996 FORU ARAUA, Sozietateen gaineko Zergarena.[1]

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Arau osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru arauaren zenbat artikulu aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

I. TITULUA: ZERGAREN IZAERA ETA APLIKAZIO EREMUA 9

1. artikulua. Izaera. 9
2. artikulua. Aplikazio subjetiboaren eremua, Zergaren ordainarazpena eta zerga helbidea. 9
2.bis artikulua. Eragiketen eginlekua. 12
3. artikulua. Itunak eta hitzarmenak. 13

II. TITULUA: EGITATE EZARGARRIA 13

4. artikulua. Egitate ezargarria. 13
5. artikulua. Errentak zenbatestea. 14
6. artikulua. Errentak esleitzea. 14

III. TITULUA: SUJETU PASIBOA 14

7. artikulua. Sujetu pasiboak. 14
8. artikulua. Sujetu pasiboak, zergak ordaintzeko betebehar pertsonalagatik. 15
9. artikulua. Salbuespenak. 16

IV. TITULUA: OINARRI EZARGARRIA 16

10. artikulua. Oinarri ezargarriaren kontzeptua eta zehaztapena. 16
11. artikulua. Balio zuzenketak: amortizazioak. 17
12. artikulua. Balioa zuzentzea: ondare elementuen balioaren narriaduragatik izandako galera. 20
13. artikulua. Hornikuntzak. 23
14. artikulua. Kenkaritzat hartuko ez diren gastuak. 25
15. artikulua. Balorazio arauak: arau nagusia eta arau bereziak irabazi asmoa duten eskualdaketetan eta sozietate eragiketetan. 29
16. artikulua. Balorazio erregelak: Eragiketa lotuak. 33
17. artikulua. Balorazio arauak: egoitza aldaketak, establezimendu iraunkorren jarduerari uztea, paradisu fiskaletan egoitza duten pertsona edo entitateek nahiz beraiekin batera burututako eragiketak, eta atxiki beharreko kopuruak. 39
18. artikulua. Kontabilitatezko balioaren ordez merkatuko ohiko balioa jartzearen ondorioak. 40
19. artikulua. Nazioarteko ezarpen bikoitzaren tratamendua dibidenduetan, mozkin partaidetzetan eta establezimendu iraunkorrek lortutako errentetan. 40
20. artikulua. Aldi baterako egozpena. Sarrera eta gastuak kontabilitatean inskribatzea. 45
21. artikulua. Subkapitalizazioa. 47
22. artikulua. Aparteko mozkinen berrinbertsioa. 48
22 bis artikulua. Jabetza intelektual edo industrialetik datozen sarreren murrizketa. 50
23. artikulua. Aurrezki kutxen onura eta gizarte ekintzak. 50
24. artikulua. Oinarri ezargarri negatiboak konpentsatzea. 51

V. TITULUA: OINARRI LIKIDAGARRIA 52

25. artikulua. Oinarri likidagarriaren kontzeptua eta zehaztapena. 52
26. artikulua. (indargabetua) 52

[1] Azaroaren 27ko 1.202/2001 Foru Aginduak, hainbat zerga arautan jasotako zenbatekoak pezetatik eurora aldatu eta aldaketa horri buruzko arauak ematen dituenak, xedatutakoari jarraiki, Foru Arau honek pezetatan jasotzen dituen zenbateko guztiak eurotara aldatuak geratzen dira. (Abenduaren 13ko GAO, 238. zk.a)

VI. TITULUA: ZERGALDIA ETA ZERGAREN SORTZAPENA 52

27. artikulua. Zergaldia. 52
28. artikulua. Zerga sortzea. 53

VII. TITULUA: ZERGA ZORRA 53

I. KAPITULUA: KARGA TASA, KUOTA OSOA, KUOTA LIKIDOA ETA KUOTA EFEKTIBOA 53
29. artikulua. Karga tasa. 53
30. artikulua. Kuota osoa. 57
31. artikulua. Kuota likidoa. 57
32. artikulua. Kuota efektiboa. 57
II. KAPITULUA: EZARPEN BIKOITZA SAIHESTEKO KENKARIAK 57
33. artikulua.Barruko ezarpen bikoitza saihesteko kenkaria: atzerrian sortu ez diren dibidenduak eta gainbalioak. 57
34. artikulua. Nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko kenkaria: sujetu pasiboak jasandako zerga. ... 61
34 bis. Kenkaria nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko: dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak. 61
III. KAPITULUA: HOBARIAK 62
35. artikulua. (indargabetua) 63
36. artikulua. Hobariak esportazioko eta zerbitzugintza publiko lokaleko ihardurerengatik. 63
IV. KAPITULUA. AKTIBO EZ-KORRONTE BERRIETAN INBERTSIOAK PIZTEKO KENKARIAK. 64
37. artikulua. Kenkaria aktibo ez-korronte berrietan inbertitzeagatik. 64
37 bis artikulua. (indargabetua) 67
38. artikulua. Kultur Ondarea babesteko eta hedatzeko jarduketengatiko kenkariak; halaber, zinemagintzan eta liburuen argitalpenetan inbertitzeagatiko kenkaria. 67
V. KAPITULUA: ENPRESEN FINANTZAKETA SUSTATZEKO KENKARIAK 69
39. artikulua. Inbertsio Produktiboetarako Erreserba. 69
VI. KAPITULUA: ZENBAIT IHARDUERA SUSTATZEKO KENKARIAK 70
40. artikulua. Kenkaria ikerkuntza eta garapenarengatik. 70
41. artikulua. Kenkaria berrikuntza jarduerengatik. 72
42. artikulua. Ikerkuntza eta garapen kontzeptutik eta berrikuntza teknologikoarenetik kanpo geratzen diren jarduerak, eta kenkarien aplikazioa. 74
43. artikulua. Kenkaria garapen iraunkorra, ingurumenaren zaintza eta hobekuntza eta energia iturrien baliakuntza eraginkorragoa lortzera zuzentzen diren proiektuekin loturiko inbertsio eta gastuengatik. 75
44. artikulua. Kenkaria lanbide heziketako gastuengatik. 76
44 bis artikulua. Kenkaria enpresaren gizarte aurreikuspeneko tresna gisa diharduten gizarte aurreikuspeneko sistemetara enpresak egindako ekarpenengatik. 77
44.ter artikulua. Kenkaria familia enpresaren protokoloa egilesteagatik. 78
45. artikulua. [Kenkaria enplegua sortzeagatik.] 79
45bis. artikulua. Kenkaria berdintasun planak egin eta ezartzeagatik. 80
VII. KAPITULUA: ARAU AMANKOMUNAK 80
46. artikulua. Titulu honetako IV., V. eta VI. kapituluetan aurreikusitako kenkari guztien arauak. 80
VIII. KAPITULUA: KONTURAKO ORDAINKETEN KENKARIA 83
47. artikulua. Atxikipen, konturako sarrera eta ordainketa zatikatuen kenkaria. 83

VIII. TITULUA: ZERGA ERREGIMEN BEREZIAK 83

I. KAPITULUA: DEFINIZIOA 83
48. artikulua. Definizioa. 83
II. KAPITULUA: ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK 84
49. artikulua. Enpresa txiki eta ertainaren kontzeptua. 84
50. artikulua. Ibilgetu material berria amortizatzea. 85
51. artikulua. Zordunen balizko kaudimengabezien ondorioz kredituen narriaduragatik izandako galerak. 86
52. artikulua. (indargabetua) 86
III. KAPITULUA: ATZERRIKO BALOREEN ENTITATE EDUKITZAILEEN ARAUDIA 87
53. artikulua Atzerriko baloreen entitate edukitzaileak. Araudiaren aplikazioa. 87
54. artikulua. Espainian egoitza ez duten entitateen fondo propioen balore errepresentagarrien edukitzatik eratorritako errentak. Mozkinen banaketa. Partaidetzaren eskualdaketa. 88
IV. KAPITULUA: ESPAINIAKO ETA EUROPAKO INTERES EKONOMIKOKO TALDEAK 89
55. artikulua. Interes ekonomikoko talde espainiarrak. 89
56. artikulua. Interes ekonomikoko talde europarrak. 90
57. artikulua. Taldea eratzeko ekarpenen araudia. 91
57 bis. artikulua.Egozpenerako irizpideak eta bazkideen identifikazioa. 91
V. KAPITULUA: ENPRESEN ALDI BATERAKO ELKARTEAK 92

58. artikulua. Enpresen aldi baterako batasunak. ... 92
58 bis.artikulua. Egozpen irizpideak. ... 92
58.ter artikulua. Bazkide edo empresa kideen identifikazioa. ... 93
VI. KAPITULUA: KAPITAL-ARRISKUKO SOZIETATE ETA FONDOAK ETA ESKUALDEKO INDUSTRIA GARAPENERAKO SOZIETATEAK ... 93
59. artikulua. Kapital-arriskuko entitateak. ... 93
60. artikulua. (indargabetua). ... 95
61. artikulua. Eskualdeko industri garapeneko sozietateak. ... 98
VII. KAPITULUA: INBERTSIO KOLEKTIBOKO ERAKUNDEAK ... 98
62. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeek zerga ordaintzea. ... 98
63. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide edo partaideek zerga ordaintzea. ... 98
64. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzengatik kontabilizatutako errentak. ... 99
65. artikulua. Erregelamenduz paradisu fiskaltzat hartutako herri edo lurraldeetan eratu diren inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide edo partaideek zerga ordaintzea. ... 99
VIII. KAPITULUA: ONDARE SOZIETATEAK. ... 100
66. artikulua. Ondare sozietateen konteptua. ... 100
67. artikulua. Oinarri ezargarria zehaztea. ... 101
68. artikulua. Kuota zehaztea. ... 102
69. artikulua. Ondare sozietateen mozkinak banatzea eta haien partaidetzak eskualdatzea Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari dagokionez. ... 102
70. artikulua. Partaideen identifikazioa. ... 102
IX. KAPITULUA. ZERGA KONTSOLIDAZIOKO ERREGIMENA. ... 103
71. Artikulua. Definizioa. ... 103
72. artikulua. Subjetu pasiboa. ... 103
73. artikulua. Zerga kontsolidazioko erregimena aplikatzetik eratorritako zerga erantzukizunak. ... 103
74. artikulua. Talde fiskalaren definizioa. Sozietate nagusia. Menpeko sozietateak. ... 104
75. artikulua. Sozietateak talde fiskalean sartzea edo hortik ateratzea. ... 106
76. artikulua. Zeharkako jabaria zehaztea. ... 106
77. artikulua. Zerga kontsolidazioko erregimenaren aplikazioa. ... 107
78. artikulua. Talde fiskalaren oinarri ezargarriaren zehaztapena. ... 108
79. artikulua. Deuseztapenak. ... 108
80. artikulua. Txertaketak. ... 109
81. artikulua. Oinarri ezargarri negatiboen konpentsazioa. ... 109
82. artikulua. Berrinbertsioa. ... 109
83. artikulua. Zergaldia. ... 110
84. artikulua. Talde fiskalaren kuota osoa. ... 110
85. artikulua. Talde fiskalaren kuota osoaren kenkariak eta onurak. ... 110
86. artikulua. Informazio betebeharrak. ... 110
87. artikulua. Zerga kontsolidazioko erregimenaren aukera galtzeko arrazoiak. ... 111
88. artikulua. Zerga kontsolidazioko erregimena galtzeak eta talde fiskala amaitzeak dakartzaten ondorioak. ... 111
89. artikulua. Talde fiskalaren aitorpena eta autolikidazioa. ... 112
X. KAPITULUA: BATEGITEAK, ZATIKETAK, AKTIBOEN EKARPENAK, BALORE TRUKEAK, AKTIBO NAHIZ PASIBO OSOAREN LAGAPENAK ETA EUROPAR SOZIETATE BATEN EDO EUROPAR SOZIETATE KOOPERATIBO BATEN SOZIETATE HELBIDEA EUROPAR BATASUNEKO ESTATU BATETIK BESTE ESTATU BATERA ALDATZEA ARAUTZEN DITUEN ARAUBIDE BEREZIA. ... 113
90. artikulua. Definizioak. ... 113
91. artikulua. Eskualdaketan sortutako errenten araudia. ... 115
92. artikulua. Ondasunak zerga ondorioetarako baloratzea. ... 117
93. artikulua. Ekarpenaren kontraprestazioan jasotako akzio edo partaidetzak zerga ondorioetarako baloratzea. ... 117
94. artikulua. Balore trukearen zerga erregimena. ... 117
95. artikulua. Bategin, zurgatu eta osorik edo zati batean bereizteko eragiketak direla-eta bazkideek zerga ordaindu beharra. ... 118
96. artikulua. Entitate eskualdatzailearen eta entitate eskuratzailearen kapitalean parte hartzea. ... 119
97. artikulua. Zerga eskubide eta betebeharretan subrogatzea. ... 120
98. artikulua. Errentak egoztea. ... 121
99. artikulua. Establezimendu iraunkorraren galerak. ... 121
100. artikulua. Kontabilitatezko betebeharrak. ... 122
101. artikulua. Diruzkoak ez diren ekarpenak. ... 123
102. artikulua. Aktibo eta pasibo osoa lagatzea. ... 124
103. artikulua. Ezarpen bikoitza saihesteko arauak. ... 124
104. artikulua. Zerga araubidea aplikatzea. ... 125
XI. KAPITULUA: MEATZARITZAREN ZERGA ARAUDIA ... 127
105. artikulua. Meatzaritza entitateak: amortizazio askatasuna. ... 127

106. artikulua. Agortze faktorea: aplikazio eremua eta modalitateak. 127
107. artikulua. Agortze faktorea: inbertsioa. 128
108. artikulua. Agortze faktorea: beharkizunak. 129
109. artikulua. Agortze faktorea: beharkizunak ez betetzea. 129
XII. KAPITULUA: HIDROKARBUROAK IKERTZE ETA USTIATZEAREN ZERGA ARAUDIA 130
110. artikulua. Hidrokarburoak miatu, ikertu eta ustiatzea. 130
111. artikulua. Agortze faktorea: baldintzak. 130
112. artikulua. Agortze faktorea: beharkizunak ez betetzea. 131
113. artikulua. Titularitate banatua. 132
114. artikulua. Inbertsio ukiezinak eta ikerketa gastuak amortizatzea. Oinarri ezargarri negatiboak konpentsatzea. 132
XIII. KAPITULUA: NAZIOARTEKO GARDENTASUN FISKALA 133
115. artikulua. Entitate ez-egoiliarrek lortutako errenta positibo jakin batzuk oinarri ezargarrian sartzea. 133
XIV. KAPITULUA: ERRENTAMENDU FINANTZARIOKO KONTRATU BATZUEN ZERGA ARAUDIA 137
116. artikulua. Errentamendu finantzarioko kontratuak. 137
XV. KAPITULUA: ZATI BATEAN SALBUETSITAKO ENTITATEEN ARAUDIA 139
117. artikulua. Aplikazio eremua. 139
118. artikulua. Salbuetsitako errentak. 140
119. artikulua. Oinarri ezargarria zehaztea. 141
XVI. KAPITULUA: ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMATEN DITUZTEN ENTITATEAK 142
119 bis artikulua. Aplikazio eremua. 142
119 ter artikulua. Zerga araubidea. 143
XVII. KAPITULUA: HIGIEZINEN MERKATUAN INBERTITZEKO SOZIETATE ANONIMO KOTIZATUAK 143
119. quáter artikulua. Higiezinen Merkatuan Inbertitzeko Sozietate Anonimo Kotizatuen erregimenaren aplikazioa. 143
119. quinquies artikulua. Oinarri ezargarria zehaztea eta zergaren sortzapena. 144
119. sexies artikulua. Karga tasa. 145
119. septies artikulua. Autolikidazioa. 145
119. octies artikulua. Atxikipenak eta informazio obligazioak. 146
119. nonies artikulua. Zigor araudia. 147
119. decies artikulua. Zerga erregimen berezi honetan sartu zein bertatik irteteko zerga erregimena. 148
119. undecies artikulua. Erregimen berezia galtzea. 150
119. duodecies artikulua. Bazkideen zerga erregimen berezia. 150

IX. TITULUA: ZERGAREN KUDEAKETA 151

I. KAPITULUA: ENTITATEEN AURKIBIDEA 152
120. artikulua. Entitateen aurkibidea. 152
121. artikulua. Entitateen aurkibidetik ateratzea. 152
122. artikulua. Laguntzeko betebeharra. 152
II. KAPITULUA: KONTABILITATEZKO BETEBEHARRAK.KONTABILIZATU GABEKO ONDASUN ETA ESKUBIDEAK.BORONDAREZKO BIRBALORAZIOAK 152
123. artikulua. Kontabilitate obligazioak. Administrazioaren ahalmenak. 152
124. artikulua. Kontabilizatu edo aitortu gabeko ondasun eta eskubideak: errentak lortutzat hartzea. 153
125. artikulua. Borondatezko kontabilitate-birbalorazioak. 154
III. KAPITULUA: AITORPENA, AUTOLIKIDAZIOA ETA BEHIN-BEHINEKO LIKIDAZIOA 154
126. artikulua. Aitorpenak. 154
127. artikulua. Zerga zorraren autolikidazioa eta ordainketa. 156
127 bis artikulua. Zergaren kudeaketa, zerga administrazio batean baino gehiagotan ordaintzekotan. 157
128. artikulua. Behin-behineko likidazioa. 157
IV. KAPITULUA: OFIZIOZKO ITZULTZEA 157
129. artikulua. Ofiziozko itzulketa. 157
V. KAPITULUA: KONTURAKO ORDAINKETAK 158
130. artikulua. Konturako ordainketak. 158
131. artikulua. Subjektu pasiboek zerga helbideari buruz dituzten betebeharrak. 160
VI. KAPITULUA: ADMINISTRAZIOAK OINARRI EZARGARRIA ZEHAZTEKO DAUZKAN AHALMENAK 160
132. artikulua. Administrazioak oinarri ezargarria zehazteko dituen ahalmenak. 160
132 bis artikulua. Zergari lotutako ikuskaritza. 160

X. TITULUA: ORDENA JURISDIKZIONALA 161

133. artikulua. Jurisdikzio eskuduna. 161

XI. TITULUA: ZIGOR ARAUAK.....162

134. artikulua. Urraketak eta zigorrak.....162
XEDAPEN GEHIGARRIAK.....162
Lehenengoa. Dibidenduen ezarpen bikoitzagatiko kenkaria ez aplikatzea.....162
Bigarrena. Aktibo finantzarioen eta bestelako balore higigarrien atxikipen, eskualdaketa eta obligazio formalei buruzko arauak.....162
Hirugarren xedapen gehigarria. Kontseiluaren 90/434/EEE Zuzentarauari buruzko aipamenak...164
Laugarren xedapen gehigarria. Lege mailako xedapenak eta lehiakortasunaren aldeko araudia betez egindako aktibo eskualdaketen zerga araubidea.....164
Bosgarrena.. 98/1992 Foru Dekretua, abenduaren 9koa, bategite, zatiketa, aktibo-ekarpen, balore-truke eta sozietate matrize nahiz filialen zenbait alderdi arautzen dituena. Dekretu honekiko erreferentziak. Hiri Izaerako Terrenoen Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren erregimena zenbait eragiketatan.(indargabetua).....165
Seigarrena. Monetaren koefiziente zuzentzailea 1996rako.....165
Zazpigarrena. Europako nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza politikarako laguntzak.....166
Zortzigarrena. Ordainketa zatikatua.....167
Bederatzigarrena. Balantzeak eguneratzea.....168
Hamargarrena. Kanarietako Ekonomia eta Zerga Araubidea.....168
Hamaikagarrena. (Edukirik gabe).....168
Hamabigarrena. (Edukirik gabe).....168
Hamahirugarrena. Alderdi politikoei bahitutako ondasun eta eskubideak itzultzea edo konpentsatzea.....168
Hamalaugarrena. Merkataritzako flota berritzeko zerga pizgarriak.....168
Hamabosgarrena. Esne kuota saltzearen ondorioz lortutako errentak.....171
Hamaseigarrena. Errentamendu finantzarioaren kuoten urteko zenbatekoa, ondasunaren kostua berreskuratzeari dagokiona.....171
Hamazazpigarrena. Kreditu erakundeek egindako eragiketa jakin batzuei aplikatzeko zerga erregimena.....171
Hemezortzigarrena. Ekarpenak itzuliz eta jaulkipen-prima banatuz gauzatutako kapital murriztapenak, Sozietateen gaineko Zergako karga tasa orokorraren mendean ez dauden kapital aldakorreko inbertsio sozietateek eginak.....172
Hemeretzigarren xedapen gehigarria. Ondasun higiezinen errentamendua ustiapen ekonomikotzat hartzea.....173
Hogeigarren xedapen gehigarria. Enpresa emakidadunek eraiki edo eskuratutako azpiegituretan egiten diren inbertsioak.....173
XEDAPEN IRAGANKORRAK.....174
Lehenengoa. Kontabilitatez kanpoko doiketak erregularizatzea.....174
Bigarrena. Hidrokarburoen ustiapenari lotutako elementuak amortizatzea.....174
Hirugarrena. Agortze faktorearen zuzkiduretan inbertitu gabe gelditu diren saldoak. 21/1974 Legearen bidez araututako hidrokarburoen ikerkuntza eta ustiapen lanak.....174
Laugarrena. Salbuespena berrinbertitzeagatik.....174
Bosgarrena. Birmoldaketa eta berrindustrializazioaren zerga-onurak.....175
Seigarrena. 12/1988, 5/1990 eta 30/1990 Legeen zerga-onurak.....175
Zazpigarrena. Finantza errentamenduak.....175
Zortzigarrena. Foru Arau honek ondorioak sortu baino lehen eskuratutako merkataritza fondoak, markak, traspaso eskubideak eta ibilgetu inmaterialaren beste elementu batzuk.....175
Bederatzigarrena. Abenduaren 26ko 76/1980 Legean, Enpresak Bategiteko Zerga-Erregimenari buruzkoan, sartzen diren bategiteak.....176
Hamargarrena. Berrinbertsioagatiko kenkaririk izan ez duten saldoak.....176
Hamaikagarrena. Foru Arau honek ondorioak sortu baino lehen negatiboak diren oinarri ezargarriak.....176
Hamabigarrena. Estatuaren erregimen tributarioa edo beste edozein entitate salbuetsirena asimilatzeko arau bat dela medio salbuesten diren entitateak.....176
Hamahirugarrena. Kaudimengabeziari aurre egiteko urriaren 15eko 2631/1982 Erret Dekretuaren 82. artikuluan jasotzen diren hornidura-saldoak.....176
Hamalaugarrena. Aitorpen kontsolidatuaren erregimena.....177
Hamabosgarrena. Onuren erregimen iragankorra finantza eragiketetan.....177
Hamaseigarrena. Inbertsio kolektiboko erakundeen partaidetzen balio fiskala.....177
Hamazazpigarrena. Eguneratze kontuak.....177
Hemezortzigarrena. Kenkaria nazioarteko ezarpen bikoitzagatik.....178
Hemeretzigarrena. Entitate gardenen tributatzea.....178
Hogeigarrena. Kenkaria partaidetza-kontuetako dibidenduen ezarpen bikoitzagatik.....178
Hogeita batgarrena. Otsailaren 16ko 1/1995 Foru Arauan Produkzio-Inbertsioetarako aurrikusten den Erreserba Berezia gauzatzea.....178
Hogeita bigarrena. Bategiteak eta zatiketak.....178
Hogeita hirugarrena. Ganbararen baliabide iraunkorra.....179

Hogeita laugarrena. Foru Arau honetan ezartzen diren zerga onura jakin batzuen aplikazioa. 179
Hogeita bosgarrena. Kuota txikiegia izateagatik aplikatu ez diren kenkariak. 179
Hogeita seigarrena. Kenkaria esportazio jarduerengatik. 179
Hogeita zazpigarrena. Ondare sozietateen oinarri ezargarri negatiboak eta kentzeko dauden saldoak. 180
Hogeita zortzigarrena. Ondare sozietateen araubide iragankorra. Araubide orokorraren arabera tributatzea..... 180
Hogeita hamargarrena. Ondare sozietateen desegitea eta likidazioa. 182
Hogeita hamargarrena. Kentzeko dauden saldoak..... 184
Hogeita hamaikagarrena. Kenkariak eta beste zerga onura batzuk aldi baterako aplikatzea. 184
Hogeita hamabigarren xedapen iragankorra. Ustezko errenten egozpena. 185
Hogeita hamahirugarren xedapen iragankorra. Finantza errentamenduko zenbait kontraturen zerga araubidea. 185
Hogeita hamalaugarren xedapen iragankorra. Ibilgailu jakin batzuen eskualdaketa. 185
XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA 186
AMAIERAKO XEDAPENAK..... 188
Lehenengoa. Martxoaren 24ko 5/1995 Foru Arauak -Fundazioei buruzkoak eta ekimen pribatuari interes orokorreko ihardueretan parte hartzeagatik pizgarri fiskalak emateari buruzkoak- ezartzen duenera bildutako entitateak..... 188
Bigarrena. Abenduaren 27ko 13/1991 Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa, aldatzea..... 189
Hirugarrena. Abenduaren 27ko 14/1991 Foru Araua, Ondarearen gaineko Zergari buruzkoa, aldatzea. 196
Laugarrena. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontuen Foru Araua gaitzea..... 197
Bosgarrena. Ahalmen arauemailea..... 197
Seigarrena. Indarrean sartzea. 197

HITZAURREA

Sozietateen gaineko Zerga Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren osagarri bat da sortutako errentari kargak ezartzerakoan, eta atxikipen mekanismo bat eskaintzen du atzerriko inbertsoreek gure lurraldean dituzten sozietateen bidez lortutako mozkinei aplikatzeko.

Helburu horiek tinko mantentzen baditu ere, Foru Arau honek aldaketa sakonak dakarzkio Sozietateen gaineko Zergari. Merkataritza arloko legeriaren erreforma, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren erreforma, ekonomia nazioartekotzearen ondorioz gertatzen diren mugaz gaindiko joan-etorriak, eta azken erreforma integralaz geroztik ia hogei urteren buruan zerga honek duen arau-sakabanatzea dira, besteak beste, aldaketa horien arrazoiak.

Oinarri ezargarria kontabilitate emaitzara hurbiltzea, Zerga honetan atxikipen mekanismo bat ikustea pertsona fisikoek entitate juridikoetan parte hartuz lortzen dituzten kapital errenten sorburuan erabiltzeko, ezarpen bikoitza saihesteko metodoak hobetzea, nazioarteko gardentasun fiskala izenekoa, nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko metodoak hobetzea, eta erregimen berezi gehienak lege-multzo bakar batean biltzea (kooperatibak eta irabaz asmorik gabeko entitateak salbuetsiz, dauzkaten berezitasunak direla eta), ezinbesteko baldintza dira goian aipaturiko helburuak Foru Arau honek bete ditzan.

Guztiarekin ere, helburu orokor horietaz gain, Foru Arau honetan beste eratako helburuak ere jasotzen dira, beste aldi batzuetan lehentasunezkotzat jo direnak eta honela laburbildu litezkeenak:

- Enpresei tributazio-maila egoki eta lehiakorra bermatzea.

- Bideak jartzea enpresa ihardueraren zenbait alderdi fiskalki zigortzea saihesteko.

- Enpresen egitura eta kapitalizazioa indartzea.

- Ekimen enpresarial berrien agerpena sustatzea.

- Enpresek atzerrian duten lehiakortasuna hobetzea.

- Aurrezkia ekimen enpresarialak bideratzeko erabiltzea.

- Pizgarri fiskalak egitura arloko gabeziak daudenean bakarrik aplikatzea.

- Enpresa txiki eta ertainari lagunduko dion zerga-araudi egokiago bat garatzea.

- Nazioarte mailako fiskaltasunaren alderdiak aldatzea atzerriko kapitalak presentzia handiagoa izan dezan.

Aipatu helburu horiek betetzeko funtsezkoak diren bi irizpide hartu dira kontuan: batetik, maiatzaren 13ko 12/1981 Legearen bidez onartutako Ekonomi Itunak 3. eta 4. artikuluetan ezartzen dituen printzipio orokorrak eta armonizazio fiskalari buruzkoak errespetatzea -horretarako, Foru Arau honek erregimen amankomuneko lurraldean indarrean dagoen Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legeak duen eskema berdintsua jarraitu du-, eta bestetik, gure Lurralde

Historikoaren ekonomiak dituen berezitasunak kontuan hartzea, asko baitira behar dituen berrikuntza neurriak, neurri ausartak eta indarberritzaileak, gure ekonomiari behar besteko lehiakortasuna emango diotenak etorkizunak enpresari dakarkion erronkaren aurrean.

Hortaz, jada ezagunak diren neurriak jasotzeaz gainera, hala nola, errenta kategoria desberdinak abandonatzea, subjektu pasiboaren figura hobeto zehaztea, gutxieneko tributazioa ezabatzea, zerga honengatik sozietate gardenek tributatzea, ibilgetu materialaren elementuak eskualdatuz lortzen diren irabaziak berrinbertitzean salbuespen sistemaren ordez gerorapenarena erabiltzea, edo irabazi horien diru-balioa zuzentzea, Foru Arau honek bestelako neurriak ere biltzen ditu, kasu guztietan duten garrantziagatik eta, zenbaitetan dakarten berritasunagatik, aipatuak izatea merezi dutenak:

a) Merkataritza Fondoa eta beste aktibo inmaterial batzuk 5 eta 10 urte bitarteko epean amortizatzeko aukera ematen da, merkataritza arloko legeriari hobeto egokitzen zaiolako. Merkataritza Fondo Finantzarioa delakoaren amortizazioa ere onartzen da.

b) Ibilgetuaren elementuak amortizatzeko taula xinplea eta eskuzabala da, orain arte izan dena bezalakoa.

c) Aukera ematen da galerak izan eta hurrengo 15 urteetan haiek konpentsatzeko.

d) Atzerrian dauden entitateetatik jasotako dibidenduak eta mozkin-partaidetzak salbuesteko metodoa ezartzen da. Partaidetzak taxuzkoa izan beharko du, hots, partaidetzaren % 5etik gorakoa, urtebeteko edukitze-aldiarekin.

e) Kuota nahikoa ez den kasuetan izaera orokorrez 15 urteko epea ezartzen da ezarpen ekonomiko bikoitza saihesten duen metodoa aplikatu ahal izateko, salbuespen metodora gehiago hurbiltzen delarik horrela.

f) Zergaren tasa orokorra % 32,5era jaisten da.

g) Oinarri likidagarria lortzeko, enpresa berriek, hurrenez hurren, % 90, 75, 50 eta 25eko murrizketa egin ahal izango dute oinarri ezargarrian beren ihardunaren lehen lau ekitaldietan, baldintza jakin batzuk betez gero.

h) Enpresaren inbertsioari pizgarriak ematen zaizkio kenkari bat ezarriz aktibo finko material berrietan inbertitseagatik.

i) Pizgarriak ezartzen dira gure ekonomiarako lehentasunezkoak diren zenbait iharduera laguntzeko: kenkariak ikerkuntzan eta garapenean inbertitzeagatik, ingurugiroa hobetu eta kontserbatzeagatik, esportazio iharduerengatik, liburuak eta ikusentzunezkoak argitaratzeagatik, enpresako pertsonalari lanbide heziketa emateko gastuengatik eta enplegua sortzeagatik.

j) Enpresen finantzaketa hobetzeko pizgarriak jasotzen dira. Finantzaketa propioan, esate baterako, kenkari bat ezartzen da Inbertsio Produktiboetarako Erreserba izeneko erreserba berezia dotatzeagatik, eta besteren finantzaketan, beste kenkari bat aurrikusten da errenta aldakorreko baloreak eskuratzeagatik.

k) Hiru neurri hartzen dira Bilboko Burtsaren susperketa lortzeko: kenkari-portzentaia handiago bat aplikatzea inbertsioak bertan kotizatzen diren

baloreetan egiten direnean; Bilboko Burtsan kotizatzera ateratzen diren enpresei % 25a jaistea karga-tasa hiru zergalditan zehar; eta baloreen sozietate errektoreei % 20ko tasa ezartzea.

l) Enpresa txiki eta ertainak bultzatzen dira beraientzat propio izango den erregimen berezia ezarriz. Honen arabera, enpresa txikiek amortizazio askatasuna izango dute, eta enpresa ertainek, ordea, 1,5eko amortizazio indizea izango dute. Gainera, beren ibilgetuaren elementuak inorenganatzean lortzen dituzten plusbaliek gerorapen tratamendu orokorraren ordez salbuespen tratamendua jasotzen dute beren kopurua 300.506,05 eurotik gorakoa ez denean.

m) "Zuzenketa, koordinazio eta finantza zentruak" izeneko figura berria agertzen da, honako berezitasuna hau duela: ihardueratik sortzen diren gastuen arabera tributatzea.

n) Merkatal nahiz itsas nabigazioan diharduten untziei erregimen berezi bat aplikatzen zaie. Erregimen honen arabera, berrinbertsioen kasuan, gerorapen metodoaren ordez, salbuespen metodoa aplikatzeko aukera ematen da, eta posibilitatea ere ezartzen da untziak eskualdatzean lortzen diren errentak Zergaren oinarrian sar ez daitezen baldin eta erosleak hondakinetara eramaten baditu untzi berriak erosteko.

Amaitzeko, Foru Arau honek, hartutako konpromisuarekin bat etorriz, lau hilabeteko epea ematen dio Diputatuen Kontseiluari Foru Arau hau indarrean sartzen denetik kontatzen hasita, Balantzeen Egunerapenari buruzko Foru Arau bat bidal dezan Batzar Nagusietara, honek onar dezan. Enpresek 1996ko abenduaren 31n duten ibilgetu materialaren elementuak egunean jartzea izango da haren helburua.

I. TITULUA: ZERGAREN IZAERA ETA APLIKAZIO EREMUA

1. artikulua. Izaera.[2]

Sozietateen gaineko Zerga zuzeneko tributua da eta izaera pertsonala du, eta sozietateen nahiz gainerako entitate juridikoen errenta kargatzen du foru arau honetan jasotako moduan.

2. artikulua. Aplikazio subjetiboaren eremua, Zergaren ordainarazpena eta zerga helbidea.[3]

[2] 1.artikulu hau uztailaren 5eko 4/2000 Foru Arauak, zenbait zerga neurri onartzen duenaren 3. artikuluko Bat apartatuak aldatzen du. 2000ko uztailaren 13an sartzen da indarrean, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriorekin.

[3] Artikulu hau otsailaren 11ko 1/2008 FORU ARAUAren 1. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak Gipuzkoako zerga araudia 2007ko urriaren 25eko 28/07 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldaketetara, eta Alderdi politikoen finantzaketari buruzko 2007ko uztailaren 4ko 8/07 Lege Organikoan eta Estatuaren 2008ko Aurrekontu Orokorrei buruzko 2007ko abenduaren 26ko 51/07 Legean jasotako aldaketetara egokitzen du. Aldaketa 2007ko urriaren 27an jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da. (2008-02-15ko GAO).

1.[4] Foru arau honetan xedatutakoa aplikatuko zaien subjektu pasiboak honakoak dira:

a) Egoitza fiskala Gipuzkoan dutenak; salbuespena izango dira ondoren aipatzen diren bi zertzelada hauek betetzen dituztenak:

— Aurreko ekitaldian izandako eragiketa bolumena 7 milioi eurotik gorakoa izatea.

— Ekitaldi horretan, lurralde erkidean beren eragiketa bolumenaren 100eko 75 edo gehiago edo, beste kasu batean, beste bi lurralde historikoetako batean Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketen zenbateko osoa gauzatu izana.

b) Egoitza fiskala Araba edo Bizkaian dutenak, baldin eta ondoko baldintza hauek betetzen badira:

— Aurreko ekitaldian izandako eragiketa bolumena 7 milioi eurotik gorakoa izatea.

— Ekitaldi horretan, beren eragiketa bolumenaren 100eko 75 edo gehiago lurralde erkidetik at gauzatu izana.

— Ekitaldi horretan, Euskadin egindako eragiketa bolumen osoa Gipuzkoan gauzatu izana.

c) Egoitza fiskala lurralde erkidean dutenak, baldin eta ondoko hiru baldintza hauek betetzen badira:

— Aurreko ekitaldian izandako eragiketa bolumena 7 milioi eurotik gorakoa izatea.

— Eragiketa guzti-guztiak Euskadin egin izana.

— Gipuzkoan egindako eragiketen bolumenaren proportzioa handiagoa izatea beste Lurralde Historikoetako bakoitzean eginarena baino.

2. Foru arau honek jasotakoa aplikaziozkoa izango zaie interes ekonomikoko taldeei eta enpresen aldi baterako elkarteei, baldin eta haiek osatzen duten guztiak lotuta badaude edozein lurralde historikotako foru araudiari, eta zerga helbidea Gipuzkoan badute edo, lurralde erkidean izan arren, Gipuzkoan eragiketa bolumen handiagoa gauzatzen badute beste lurralde historikoetako bakoitzean baino.

Entitate horiek bazkideei egotziko diete lurralde batean zein bestean egindako eragiketetan dagokien zatia, eta bazkideek kontuan hartuko dute egotzi zaien zati hori, euren eragiketen proportzioa zehazterakoan.

3. Foru arau honek araututako talde fiskalen tributazio erregimena aplikatu behar zaie aurreko 1. apartatuan xedatutakoaren arabera haien sozietate nagusiari foru

[4] Apartatu hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUAren 2. artikuluaren ordinal bosgarrenaren bat apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean. Aldaketak 2011-1-1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ditu ondorioak. (2010-12-28ko GAO)

arau honi lotuta dauden taldeei, baldin eta menpeko sozietate guztiei edozein lurralde historikotako Sozietate Zergaren araudia aplikaziozkoa bazaie.

Hori dela eta, talde fiskaletik kanpokotzat joko dira lurralde erkideko araudiari lotutako sozietateak.

4. Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainaraziko du zerga:

a) Oso-osorik, zerga helbidea Gipuzkoan dutenean eta aurreko ekitaldiko eragiketa bolumena 7 milioi eurotik gorakoa izan ez denean.

b) Gipuzkoan egindako eragiketa bolumenaren arabera, baldin eta aurreko ekitaldiko eragiketa bolumena 7 milioi eurotik gorakoa izan denean.

5. Talde fiskalek Gipuzkoan izandako eragiketa bolumenaren arabera ordainduko diote zerga Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Ondorio horietarako, Gipuzkoan lortutako eragiketa bolumena kalkulatzeko, talde fiskaleko sozietate bakoitzak talde arteko deuseztatzeak egin aurretik lurralde horretan egin dituen eragiketak batu edo gehituko dira.

6. Subjektu pasiboak lurralde jakin batean diharduela uste izango da lurralde horretan ondasunak saldu edo zerbitzuak ematen dituenean, ondoko artikuluan jarritako irizpideei jarraituaz.

Ondasun salmenta eta zerbitzu prestaziotzat joko dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga araupetzen duen legerian hala definituta dauden eragiketak.

7. Eragiketa bolumentzat honakoa joko da: subjektu pasiboak, bere jardueran egindako ondasun salmentak eta zerbitzu prestazioak direla-eta, ekitaldi batean lortutako kontraprestazioen zenbateko osoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun-errekargua kenduta, halakorik badago.

Ekitaldian lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren proportzioa kalkulatzeko, hurrengo artikuluko arauak erabiliko dira, eta proportzioa ehunekoetan emango da, bi zenbaki hamartarrekin biribilduta.

Aurreko ekitaldia urtebetea baino laburragoa bada, eragiketa bolumena kalkulatzeko, urte osoari dagokiona kalkulatuko da ekitaldian egindako eragiketetatik abiatuta.

8. Ekitaldian jarduera hasi berria denean, lehenengo ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoari begiratuko zaio, eta lehenengo ekitaldia urtebetea baino laburragoa izan bada, urte osoari dagokiona kalkulatuko da, dena ekitaldian egindako eragiketetatik abiatuta. Harik eta ekitaldi horretako eragiketak zenbatekoak izan diren eta non egin diren jakin arte, halakotzat hartuko dira, ondorio guztietarako, subjektu pasiboak aurrez kalkulatzen dituenak jardueraren hasierako ekitaldian ustez egingo dituen eragiketen arabera.

9. Subjektu pasiboen zerga helbidea eta haien sozietatearen helbidea bat etorriko dira, baldin eta azken horretan administrazio kudeaketa eta negozioen zuzendaritza benetan zentralizatuta badaude. Bestela gertatuz gero, kudeaketa edo zuzendaritza horien tokiari kasu egingo zaio.

Aurreko irizpideen arabera ezin denean zehaztu zerga helbidea non den, entitateek zerga helbidea Gipuzkoan dutela ulertu beharko da, ibilgetuaren

baliorik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan izanik, Gipuzkoan ibilgetuaren balio handiagoa dutenean beste bi lurralde historikoetako bakoitzean baino.

10. Kontrako frogarik izan ezik, pertsona juridikoen zerga helbidea ez dela aldatu ulertuko da baldin eta aldaketaren aurreko edo ondoko urtean batere jarduerarik egiten ez badute edo jarduerari uzten badiote.»

2.bis artikulua. Eragiketen eginlekua.[5]

Ondoko eragiketak Gipuzkoan egin direla ulertu behar da:

1. Ondasun salmentak.

A) Ondasun higikor gorpuztunen salmentak, Gipuzkoatik eroslearen esku jartzen denean.

Baldin eta ondasunak garraiatu behar badira eroslearen esku jartzeko, ondasunak Gipuzkoan daudenean igorpen edo garraioa hastean. Arau horrek honako salbuespenak izango ditu:

a) Ondasunen saltzaileak eraldatu baditu, ondasunak eraldatzeko azken prozesua Gipuzkoan egin denean.

b) Salmentak direla-eta, Gipuzkoatik kanpo industriako elementuren batzuk instalatu behar badira, prestatu eta fabrikatzeko lanak lurralde horretan egin direnean eta instalatu edo muntatzeko kostua handiagoa ez denean kontraprestazio osoaren 100eko 15 baino handiagoa.

Era berean, Gipuzkoan instalatutako elementu industrialen salmentak ez dira lurralde horretan egindakotzat hartuko, prestatu eta fabrikatzeko lanak hortik kanpo egiten badituzte eta instalatu edo muntatzeko kostua kontraprestazio osoaren 100eko 15 baino handiagoa ez bada.

B) Elektrizitate energia ekoizten dutenek egindako salmentak, energia hori sortzen duten zentroak Gipuzkoan direnean.

C) Ondasun higiezinen salmentak, ondasun horiek Gipuzkoan kokatuta daudenean.

2. Zerbitzu prestazioak.

A) Zerbitzu prestazioak, Gipuzkoan egiten direnean.

B) Ondasun higiezinekin zuzenean erlazionatutako zerbitzu prestazioak aurreko letran xedatutakotik kanpo geratzen dira. Prestazioak Gipuzkoan egin direla ulertuko da ondasunak lurralde horretan kokatuta daudenean.

[5] 2.bis artikulu hau Gipuzkoako zerga araudia Ekonomia Itun berriaren xedapenetara egokitzen duen urtarrilaren 29ko 1/2003 FORU ARAUAren II.Kapituluko 3.artikuluaren bi zenbakiak gehitu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-02-06).

C) Era berean, aurreko apartatuetan jasotako horretatik salbuetsita geratuko dira aseguru eta kapitalizazio eragiketak. Horiei aplikatuko zaizkie, hain zuzen, urriaren 21eko 70/1997 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Zerga, administrazio eta gizarte alorreko neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legean Aseguru Primen gaineko Zergari dagokionez emandako xedapenetara egokitzen duenak, 4. artikuluan Aseguru Primen gaineko Zergari dagokionez jasotako arauak.

3. Aurreko 1) eta 2) zenbakietan xedatutakoa kontuan hartu behar bada ere, honako eragiketak Gipuzkoan egindakotzat hartuko dira, baldin eta eragiketak egiten dituen subjektu pasiboak zerga helbidea Gipuzkoan badu:

A) Nekazaritza, basogintza, abeltzaintza edo arrantzako ustiapenek edo arrantzontzien armadoreek egindako produktu salmentak, baldin eta eraldatzeko prozesurik jasan duten produktu naturalak badira eta labore, ustiapen edo harrapaketetatik badatoz zuzenean.

B) Garraio zerbitzuak, baita etxez aldatzeko zerbitzuak, atoi-zerbitzuak eta garabi-zerbitzuak ere.

C) Garraiobideak alokatzea.

4. Artikulu honetan zehaztutako irizpideen arabera atzerrian egindakotzat hartzen diren eragiketak Gipuzkoako Zerga Administrazioari esleituko zaizkio, gainerako eragiketetan erabiltzen den proportzio berean.

5. Ondasun salmentarik edo zerbitzu prestaziorik egiten ez duten entitateek, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudian halakotzat harturik, Gipuzkoako Foru Aldundiari ordainduko diote zerga, haien zerga helbidea Gipuzkoan dutenean.

3. artikulua. Itunak eta hitzarmenak.

Aurreko artikuluan jasotakoa Espainiako ordenamenduan sartu diren nazioarteko itun eta hitzarmenek ezarritakoa eragotzi gabe ulertuko da.

II. TITULUA: EGITATE EZARGARRIA

4. artikulua. Egitate ezargarria.

1. Sujetu pasiboak errenta lortzea izango da egitate ezargarria, haren sorburua edo jatorria edozein direla ere.

2.[6] Interes ekonomikoko talde espainiar eta europarrei eta enpresen aldi baterako batasunei aplikagarri zaien erregimen berezian, errenta lortzea erregimen horretara bildutako entitateen oinarri ezargarriak edo irabazi zein galerak subjektu pasiboari egoztea izango da.

[6] 2.apartatu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 57.artikuluak aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

Nazioarteko gardentasun fiskalaren erregimenean, berriz, entitate ez-egoiliarrak lortutako errenta positiboak oinarri ezargarrian sartzea dakarten zirkunstantziak betetzea izango da errenta lortzea.

5. artikulua. Errentak zenbatestea.

Ondasun eta eskubideak modalitate desberdinetan lagatzen direnean, zergaren sujetu pasiboaren kontabilitatetik ondoriotzen den zenbatekoan ordaindu direla suposatuko da. Kontabilitate akatsengatik, sujetu pasiboaren ondare egoera zehatz-mehatzazalduko ez balu, ordainketa hori merkatuan daukaten ohiko balioaren arabera hartuko da kontutan, kontrakoa frogatzen ez den bitartean.

6. artikulua. Errentak esleitzea.

1.[7] Sozietate zibilei –nortasun juridikoa izan edo ez–, banatu gabeko herentziei, ondasun komunitateei eta Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluaren 3. apartatuan jasotako gainerako entitateei dagozkien errentak eta, era berean, jasandako atxikipenak eta konturako sarrerak esleituko zaizkie, hurrenez hurren, bazkide, oinordeko, komunero edo partaideei, 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, IV. tituluaren VI. kapituluko 2. sekzioan ezarritako eran.**2**. Errentak esleitzeko erregimena ez da erabiliko zerga honetan tributatuko duten eraldakuntzako nekazal sozietateekin.

3. Errentak esleitzeko erregimenean dauden entitateek ez dute zerga hau ordainduko.

III. TITULUA: SUJETU PASIBOA

7. artikulua. Sujetu pasiboak.

1. Ondoko hauek izango dira sujetu pasiboak:

a) Foru arau honek 6. artikuluan jasotakoaren arabera errentak esleitzeko erregimena aplikaziozkoa zaien pertsona juridikoak, sozietate zibilak izan ezik.

b) Inbertsio fondoak, Inbertsio kolektiboko erakundeak arautzeko abenduaren 26ko 46/1984 Legearen bidez erregulatuak direnean.

c) Enpresen aldi baterako bateratzeak, maiatzaren 26ko 18/1982 Legeak, Enpresen aldi baterako elkartze eta bateratzearen nahiz eskualdeko industri garapeneko sozietateen zerga araudiari buruzkoak, erregulatuak direnean.

d)[8] Kapital-arriskuko fondoak, azaroaren 24ko 25/2005 Legean, kapital-arriskuko entitateei eta beren sozietate kudeatzaileei buruzkoan, araututakoak.

---

[7] 1. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 16.Bigarrena.Bat artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[8] d) letra hau, abenduaren 1eko 8/2006 FORU ARAUAk, zerga alorreko zenbait neurri onartzen dituenak, aldatzen du bere 2. artikuluko lehenengo apartatuan. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu (GAO 2006-12-

e) Pentsio fondoak, Pentsio plan eta fondoei buruzko ekainaren 8ko 8/1987 Legearen bidez arautuak direnean.

f) Merkatu hipotekarioa arautzeko fondoak, Merkatu hipotekarioa arautzeko martxoaren 25eko 2/1981 Legearen bidez erregulatuak direnean.

g) Titulazio hipotekarioko fondoak, Inbertsio higiezineko sozietate eta fondoen araudiari eta titulazio hipotekarioko fondoei buruzko uztailaren 7ko 19/1992 Legearen bidez erregulatuak direnean.

h) Apirilaren 14ko 3/1994 Legeak, Espainiako legeria kredituaren alorrean Diruetxeen Koordinazioko Bigarren Arteztarauari eta finantza sistemaren beste aldaketa batzuei egokitzekoak, 5.2 xedapen gehigarrian jasotako aktiboen titulazioko fondoak.

i) Foru arau honek VIII. tituluko IX. kapituluan araututako erregimenaren arabera zergak ordaintzen dituzten sozietate taldeak.

j) Inbertsioen bermerako fondoak, Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legean araututa daudenak[9].

2. Zergaren sujetu pasiboei sozietate nahiz entitate deituko zaie, modu laburrean, foru arau honetan.

8. artikulua. Sujetu pasiboak, zergak ordaintzeko betebehar pertsonalagatik.

1. Foru arau honek 2. artikuluan aipatutako Espainiako lurraldean egoitza duten entitateak behartuta daude Gipuzkoako Foru Aldundiari zergak ordaintzeko betebehar pertsonalarengatik.

2. Zergak ordaintzeko betebehar pertsonala duten sujetu pasiboei haiek lortzen duten errenta osoa kargatuko zaie, errenta non sortu den eta ordaintzailearen egoitza zein den kontuan hartu gabe.

3.[10] Entitateen egoitza lurralde espainiarrean dagoela joko da baldintza hauetako bat betetzen dutenean:

a) Espainiako legeen arabera eratuta egotea.

b) Sozietate helbidea Espainian izatea.

c) Benetako zuzendaritzaren egoitza lurralde espainiarrean izatea. Ondorio horietarako, ulertuko da entitate baten benetako zuzendaritzaren egoitza lurralde

---

12) ondorengo egunean sartzen da indarrean. Hala ere, aldaketa honek 2005ko abenduaren 25etik aurrera ditu ondorioak.

[9] Apartatu hau Zerga Neurriei buruzko apirilaren 27ko 3/1999 Foru Arauaren 3. artikuluak gehitu du. 1999ko maiatzaren 3an sartu zen indarrean.

[10] 3. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 16.Lehena.Bat artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

espainiarrean dagoela bere jarduera guztiak lurralde horretan zuzendu eta kontrolatzen direnean.

Zerga Administrazioak zilegi izango du pentsatzea tributazio deusezeko herrialde edo lurralde batean, Gipuzkoako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren hamargarren xedapen gehigarrian definitutakoaren arabera, kokatutako entitate batek, edo paradisu fiskaltzat kalifikatutakoetan kokatutakoak, lurralde espainiarrean duela bere egoitza, baldin eta bere aktibo nagusiak, zuzenean zein zeharka, lurralde espainiarrean kokatutako ondasunek edo lurralde horretan bete edo erabiltzen diren eskubideek eratzen badituzte edo bere jarduera nagusia bertan egiten bada, non eta entitate horrek ez duen frogatzen zuzendaritza eta benetako kudeaketa herrialde edo lurralde horretan gertatzen direla, eratu eta jarduteko arrazoiak ekonomiko baliodunak dituela, eta funtsezko arrazoi enpresarialak baloreen edo bestelako aktiboen kudeaketa hutsetik haratago doazela.

9. artikulua. Salbuespenak.[11] [12]

Ondoko hauek daude zergatik salbuetsita:

a) Lurraldeetako herri administrazioak.

b) Aurreko a) letran jasotako administrazioetako organismo autonomoak eta antzeko izaerako zuzenbide publikoko entitateak.

c) Gizarte Segurantza kudeatzeko entitate publikoak.

d) Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia eta Euskal Herriaren Adiskideen Elkartea.

e) Gordailuen bermerako fondoak eta inbertsioen bermerako fondoak.

f)[13] Portu agintaritzak.

IV. TITULUA: OINARRI EZARGARRIA

10. artikulua. Oinarri ezargarriaren kontzeptua eta zehaztapena.[14]

[11] 9. artikulu hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Bat Zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

[12] Bide azpiegiturak erabiltzeko kanona eta «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia,S.A.»foru sozietate publikoaren zerga arloko zuzenbide arauen alderdi batzuk arautzen dituen urriaren 3ko 7/2002 FORU ARAUAk Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia,S.A.foru sozietate publikoa entitate salbuetsitzat hartzen du.

[13] f) letra hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 59.artikuluak gehitu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

[14] 10. artikulu hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Bi Zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

1. Oinarri ezargarria zergaldiko errentaren zenbatekoaz osatuta dago, behin aurreko zergaldietako oinarri ezargarri negatiboen konpentsazioa gutxitu eta gero, hala behar denean.

2.[15] Oinarri ezargarria zehaztu behar da zenbatespen objektiboaren erregimenaren bitartez, zeharkako zenbatespenaren erregimenaren bitartez foru arau honek hori aplikatzea xedatzen duenean eta, subsidiarioki, zeharkako zenbatespenaren erregimenaren bitartez, Zergen Foru Arau Orokorrak 52. artikuluan jasotakoaren arabera.

3. Zuzeneko zenbatespenaren erregimenean oinarri ezargarria kalkulatzeko, Merkataritza Kodearen arauei, zehaztapen horri buruzko gainerako legeei eta arau horiek garatzeko ematen diren xedapenei jarraiki zehaztutako kontabilitate emaitza zuzendu behar da, foru arau honek agindutakoa aplikatuz.

4. Zenbatespen objektiboaren erregimenean, zeinu, indize edo moduluak foru arau honek finkatutako jarduera sektoreei aplikatuta zehaztu ahal izango da, osorik edo zati batean, oinarri ezargarria.

11. artikulua. Balio zuzenketak: amortizazioak.[16]

1. Kenkaritzat har daitezke ibilgetu materialaren, ibilgetu ukiezinaren eta inbertsio inmobiliarioen amortizazio kontzeptuan, funtzionamendu, erabilpen, gozatze edo zaharkitzea dela-eta elementu desberdinek izaten duten benetako balio-galerari dagozkion zenbatekoak.

2. Honako kasuetan benetakotzat hartuko da ibilgetu materialaren eta inbertsio inmobiliarioen balio-galera:

a) Arauz onartzen diren amortizazio koefiziente eta metodoak aplikatzearen emaitza denean.

b) Subjektu pasiboak aurkeztu ondoren Administrazioak onartu duen plan bati egokitzen zaionean.

c) Subjektu pasiboak balio-galeraren zenbatekoa justifikatzen duenean.

3. Amortizazioa kalkulatzeko arau bereziak ezarri ahal izango dira erregelamendu bidez.

4. Inolako murrizpenik gabe amortizatu ahal izango dira honako hauek:

a) Ibilgetu material eta ukiezinaren elementuak, baldin eta beren balio unitarioa 600 eurotik gorakoa ez bada.

---

[15] 2. apartatu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako hirugarren xedapenaren 2 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jarriko da indarrean (2005-03-17 GAO).

[16] 11. Artikulu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Bat artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

b) Sozietate anonimo laboralen edo erantzukizun mugatuko sozietate laboralen ibilgetu materialaren, ibilgetu ukiezinaren eta inbertsio inmobiliarioen elementuak, horien jarduerei lotuta daudenean eta sozietate laboral gisa kalifikatu ondorengo lehen bost urteetan erosiak direnean.

c) Meatzaritzako aktiboak, foru arau honek 105. artikuluan jasotakoaren arabera.

d) Ibilgetu material eta ukiezinaren elementuak, eraikinak izan ezik, ikerketa eta garapenari lotuak direnean.

Eraikinak zati berdinetan amortizatu ahal izango dira hamar urtetan, ikerketa eta garapenari lotuta dauden zatian.

e) Ibilgetu ukiezin moduan aktibatutako ikerketa eta garapen gastuak, amortizazio askatasuna duten elementuen amortizazioak izan ezik.

f) Uztailaren 4ko 19/1995 Legeak, Nekazaritzako ustialekuak modernizatzekoak, xedatutakoari jarraikiz lehentasunezko ustialeku elkartuen kalifikazioa duten entitateen ibilgetu materialaren eta ukiezinaren elementuak, baldin eta lehentasunezko ustialekuaren aitorpen egunetik lehen bost urteetan erosi badira.

g) Ibilgetu materialaren elementu berriak, baldin eta enpresaren jardueraren kutsagarritasuna murrizteari eta zuzentzeari zuzenean lotuta badaude.

h) Lurzoru kutsatuak garbitzearekin zuzenean lotutako ibilgetu materialaren eta ukiezinaren elementuak, Euskal Autonomia Erkidegoko organismo ofizialek onartu dituzten proiektuetan.

i)[17] Amortizazio askatasuna 2009 eta 2010 urteetan eskuratutako ibilgetuen elementu berrientzat.

Subjektu pasiboak eskatu beharko du aurreko g) eta h) letrek aipatutako amortizazio askatasuna aplikatzeko eta, halaber, Zerga Administrazioak onartu beharko du, gaiaren arabera eskudunak diren organoek txostena aurkeztu ondoren.

Amortizazio askatasunari aplikatutako zenbatekoek oinarri ezargarria gehituko dute, askatasun hori gozatu izan zuten elementuen amortizazio, eskualdaketa edo, hala behar denean, desatxikipena dela-eta.

5. Erosi edo berritzeko aukera duten aktiboen erabilpena lagatzekotan, ulertuko da aukera bata edo bestea etorkizunean gauzatzeari buruzko arrazoizko zalantzarik ez dagoela hura gauzatzeagatik ordaindu beharreko zenbatekoa txikiagoa denean aktiboaren balioa hari lagapen-aldiaren barruan legozkiokeen gehieneko amortizazio-kuoten baturari gutxitzean aterako litzatekeen zenbatekoa baino; eta eragiketa errentamendu finantzariotzat hartuko da.

Errentamendu finantzarioko kontratuetan, erosteko aukera eman edo ez, entitate lagatzailearentzat kenkariduna izango da aurreko 1. apartatuan jasotakoaren arabera lagatako aktiboei dagozkien amortizazio kuoten zenbatekoa.

[17] Letra hau abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren 18. artikuluak gehitu du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean (2008-12-30ko GAO).

Karga finantzario osoa errentamendu epean zehar banatuko da sortzapen irizpideari jarraituta.

Lagapen hartzaileak lagatzaileari aurretik aktiboa eskualdatu dionean, eragiketa finantzatzeko metodotzat hartuko da, eta lagapen hartzaileak hura amortizatzen jarraituko du baldintza berdinetan eta eskualdkaetaren aurreko balio beraren gainean.

Apartatu honetan aipatutako aktiboak askatasun osoz ere amortizatu ahal izango dira aurreko apartatuan jasotako kasuetan.

6. Kengarriak izango dira, urtean gehienez beren zenbatekoaren bosteneraino, bizitza erabilgarri mugatuko ibilgetu ukaezinaren amortizaziorako zuzkidurak, baldintza hauek betetzen badira:

a) Aktiboa kostu bidez egindako eskurapen baten ondorioz agerian jartzea.

b) Erosten duen entitatea eta saltzen duena ez izatea sozietate talde berekoak Merkataritza Kodeak 42. artikuluan jasotako irizpideei jarraituta, alde batera utzita egoitza eta urteko kontu kontsolidatuak egiteko obligazioa. Entitate biak talde berekoak badira, eskualdatzen duen entitateak ordaindutako ibilgetuaren erosketa prezioari dagokionez aplikatuko da kenkaria, elkarri lotu gabeko pertsona edo entitateei erosi dienean.

Dena den, ibilgetuaren elementu ukiezinaren bizitza erabilgarri mugatua bost urtetik beherakoa bada, horri dagokion amortizazioaren zuzkidura izango da kenkariduna.

Ibilgetu ukiezina amortizatzeko zuzkidurek aurreko a) eta b) letretan ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenean, kenkaridunak izango dira baldin eta haren balio-galera berreskuraezinari aurre egiteko direla frogatzen bada.

Aplikazio informatikoak amortizatzeko bi eta bost urte bitarteko epean linealki egiten diren zuzkidurak kengarriak izango dira.

7.[18] Foru arau honek 14. artikuluaren 3. apartatuan aipatutako ibilgailuak direnean, artikulu honetan xedatutakoa erregela hauei jarraituz aplikatuko da:

a) Amortizazio oinarria apartatu horretan kasu bakoitzerako jasotako balio galeragatiko mugak, hala badagokio, aplikatzeak dakarrena izango da.

b) Amortizazio askatasuna aplikatu ahal izango da, hala dagokionean, bakarrik aipatutako 3. apartatuaren b) letran, c) letraren lehen paragrafoan eta e) letran jasotako ibilgailuei dagokienez. Kasu horietan, letra horietan jasotako mugak ere errespetatu beharko dira, hala dagokionean.

8. [19] Aipatutako 14. artikuluaren 4. apartatuan aipatutako garraio elementuak direnean, artikulu honetan xedatutakoa erregela hauei jarraituz aplikatuko da:

[18] Apartatu hau 2013ko uztailaren 17ko 5/2013 Foru Arauaren 3. artikuluko bat apartatuak gehitu du. Aipatu Foru Araua, zerga iruzurraren aurkako neurriei, krediuak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzkoa, argitaratu eta beharamunean jarri da indarrean (GAO 2013-07-22). 3. artikuluak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ditu ondorioak.

a) Aipatutako 4. apartatuaren lehen paragrafoan jasotako elementuengatik, inongo kopururik ez da kengarria izango amortizazio kontzeptuan.

b) Aipatutako 4. apartatuaren bigarren paragrafoan jasotako elementuengatik, artikulu honetan aipatutako metodoak eta sistemak aplikatuko dira, salbu amortizazio askatasuna. Letra honetan xedatutakoa aplikatzeak dakarren aplikazioa konputatuko da aipatutako bigarren paragrafoan jasotako urteko mugaren ondorioetarako.

c) Aipatutako 4. apartatuaren hirugarren paragrafoan jasotako elementuengatik, artikulu honetan aipatutako metodoak eta sistemak aplikatuko dira, amortizazio askatasuna barne.

12. artikulua. Balioa zuzentzea: ondare elementuen balioaren narriaduragatik izandako galera.[20]

1. Kengarriak izango dira produkzio lana egiten duten entitateen fondo editorial, fonografiko eta ikus-entzunezkoen narriaduragatik izandako galerak, produkzio horiek merkaturatu direnetik bi urte iragan ondoren. Epe hori amaitu aurretik, narriadura egon dela frogatuz gero ere kengarriak izango dira.

2.[21] Zordunen balizko kaudimengabezien ondorioz kredituen narriaduragatik izandako galerak kengarriak izango dira, baldin eta zergaren sortzapenaren unean zirkunstantzia hauetako bat gertatzen bada:

a) Obligazioaren mugaegunetik sei hilabete igaro izana.

b) Zorduna konkurtso egoeran izatea.

c) Zorduna edo, zordun hori entitatea izatekotan, haren administratzaile edo ordezkarietakoren bat ondasunak ostentzeagatik auziperatuta egotea.

d) Obligazioak auzitegietan erreklamatuta egotea, edo haiek kobratzeko bide judizial bat edo arbitraje prozedura bat irekita izatea.

3. Jarraian aipatuko diren kredituen galerak ez dira kenkariduntzat hartuko, salbu horien esistentziari edo zenbatekoari buruz arbitrajezko edo epailearen jardunbidean badaude:

a) Zuzenbide publikoko entitateek zor edo fidantzatu dituztenak.

---

[19] Apartatu hau 2013ko uztailaren 17ko 5/2013 Foru Arauaren 3. artikuluko bat apartatuak gehitu du. Aipatu Foru Araua, zerga iruzurraren aurkako neurriei, krediuak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzkoa, argitaratu eta beharamunean jarri da indarrean (GAO 2013-07-22). 3. artikuluak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ditu ondorioak.

[20] 12. artikulu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Bi artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[21] Apartatu hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAren 3. artikuluko lehen ordinaleko bat apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaket jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko den. (2009-12-28ko GAO).

b) Kreditu entitateek edo elkarrekiko bermerako sozietateek fidantzatutakoak.

c) Eskubide errealez, jabariaren erreserbarako itunaz edo atxikipen eskubideez bermatuak, salbu bermea galdu edo depreziatzen denean.

d) Kreditu edo kauzioko aseguru-kontratu baten bidez bermatutakoak.

e) Espresuki berritu edo luzatu direnak.

4. Ez dira kenkariduntzat hartuko hartzekodunarekin lotutako pertsona edo entitateen balizko kaudimengabezien ondorioz kredituen narriaduragatik izandako galerak, salbu epaileak aitortutako kaudimengabezia bada, ez eta bezero eta zordunen kaudimengabezia arriskuaren estimazio orokorretan oinarritutako galerak ere.

5. Finantza entitateei dagokienean, Espainiako Bankuaren araudia erabiliko da, salbu Gipuzkoako Foru Aldundiak berariaz erabakitzen duen alorrean. Zordunen multzoaren egoera zein den ikusirik haiek kaudimengabe deklaratzea ekar dezaketen baldintzak jarri ahal izango dira erregelamendu bidez.

6.[22] Merkatu arautu batean kotizatzen ez duten edo, kotizatu arren, merkataritza legerian jasotakoari jarraituz taldekoak, multitaldekoak edo elkartuak diren entitateen kapitalean parte hartzea adierazten duten baloreen narriaduragatik izandako galerak direla-eta egindako kenkariak ezingo du gainditu fondo propioek ekitaldiaren hasieran eta amaieran dituzten balioen arteko diferentzia, balio horiek partaidetzaren proportzioan kalkulatuta. Konputu horretan ekitaldian egindako ekarpenak eta ekarpenen itzulketak hartu beharko dira kontuan.

Diferentzia hori kalkulatzeko, ekitaldiaren amaierako balioak erabiliko dira, betiere organo eskudunak egindako edo onartutako balantzeetan jasota badaude.

Aurreko paragrafoetan jasotakoa jasota ere, entitate horien kapitalean dagoen partaidetza portzentajea gutxienez %5ekoa denean, kenkari horrek ezingo du gainditu partaidetza horien erosketa prezioaren eta entitate partaidetuaren ondare garbiaren arteko diferentzia; ondare garbia, jakina, partaidetzaren proportzioan hartuko da kontuan, balorazioaren egunean dauden gainbalio tazituekin zuzenduta. Balio hori zehazteko, eta enpresak aldi berean beste batean parte hartzen badu, kontuan hartu beharko da zer ondare garbi ateratzen den urteko kontu bateratuetatik Merkataritza Kodean eta berau garatzen duten arauetan jasota dauden irizpideak aplikatuta.

Paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldeetan egoitza duten entitateetako partaidetzak narriatzeagatik gertatutako galerak ez dira kengarriak izango, non eta entitate horiek ez dituzten beren kontuak bateratzen partaidetzaren entitate titularraren kontuekin, Merkataritza Kodeak 42. artikuluan jasotako zentzuan, edo, non eta haien egoitza ez dagoen Europar Batasuneko herrialde batean eta subjektu pasiboak ez duen frogatzen bertan eratzeko eta jarduteko arrazoi ekonomiko baliodunak izan direla eta jarduera enpresarialak egiten dituela.

[22] Apartatu hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAren 3. artikuluko lehen ordinaleko bat apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaket jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko den. (2009-12-28ko GAO).

7. Kengarriak izango dira merkatu arautuetan kotizaziora onartutako zorrei dagozkien baloreen narriaduragatik izandako galerak; zergaldian eta subjektu pasiboak dauzkan eta merkatu horietan kotizaziora onartuta dauden balio horien multzoak izan duen galera osoaren mugapean, balio aldakuntza positibo eta negatiboak kontuan hartuta.

Ez dira kengarritzat hartuko, ordea, itzulketa balio jakina izanik merkatu arautuetan kotizaziora onartuta ez dauden edo paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldeetako merkatu arautuetan kotizaziora onartuta dauden baloreen narriaduragatik izandako galerak.

8. Aurreko 6. apartatuko hirugarren paragrafoan aipatutako partaidetzak erosten direnean, partaidetzaren erosketa prezioaren eta entitate partizipatuak erosketa datan zeukan ondare garbiak partaidetzaren proportzioan zuen balioaren arteko diferentziaren zenbatekoa egotziko zaie azken entitate horren ondasun eta eskubideei, Merkataritza Kodeak 46. artikuluan eta hura garatzeko gainerako arauek jasotako irizpideei jarraituta; era berean, egotzi gabe geratu den diferentziaren zatia kendu daiteke oinarri ezargarritik, urteko gehieneko muga zenbatekoaren bostena izanik, salbu kenkariaren oinarrian sartu bada foru arau honek hogeita seigarren xedapen iragankorrean jasotako esportazio jarduerengatik, aplikaziozko kontabilitate araudian jasotakoa eragotzi gabe.

Diferentzia horren kenkaria bateragarria izango da, hala badagokio, artikulu honen 6. apartatuan jasotako narriaduragatiko galerekin.

Partaidetzak erosten zaizkion entitateak aldi berean beste batean parte hartzen duenean, kontuan hartu beharko dira Merkataritza Kodean eta hori garatzeko arauetan jasotako irizpideak erabiliz prestatu diren urteko kontu kontsolidatuen ondorioz dagozkion ondare garbia eta ondasun eta eskubideak.

Lurralde espainiarrean egoiliar ez diren entitateen fondo propioetako partaidetzari dagozkion baloreak direnean, apartatu honetan jasotakoa aplikatzeko, beharrezkoa izango da balore horietatik eratorritako errentak foru arau honek 19. artikuluan araututako ez-integraziora bildu ahal izatea.

Merkatu arautu baten bidez erosi ez diren partaidetzei dagokienez, apartatu honetan xedatutakoa aplikaziozkoa izango da baldin eta partaidetza erosten duen entitatea ez bada sartzen, pertsona edo entitate eskualdatzaileari dagokionez, Merkataritza Kodeak 42. artikuluan jasotako kasuetako batean.

Aurreko paragrafoan jasotako baldintza ez da pertsona edo entitate eskualdatzaileak partaidetza erosteko ordaindutako prezioari dagokionez aplikatuko, aldi berean Merkataritza Kodearen 42. artikuluan jasotako kasuetako batean sartuta ez dauden pertsona edo entitateei erosi dienean.

Apartatu honetan jasotakoaren arabera kendu diren kopuruek oinarri ezargarria gehituko dute apartatu honetan aipatutako diferentziak eragin dituen narriaduragatiko galerak izatean edo partaidetzak eskualdatzean, eta inoiz ezin izango dira foru arau honek 19. artikuluan jasotara bildu.

Partaidetzak eskualdatzean foru arau honetako 22. artikuluan aparteko mozkinak berrinbertitzeko jasotako xedapenetara biltzen diren errentak sortzen badira, apartatu honetan jasotakoaren arabera kendu diren kopuruak ez dira sartuko oinarri ezargarrian integratu ez diren errenten barruan.

9. Kenkariduna izango da merkataritza fondoen ibilgetu ukiezinaren jatorrizko erosketa prezioa, urteko muga gehienez haren bostena izanik, baldintza hauek betetzen badira:

a) Aktiboa kostu bidez egindako eskurapen baten ondorioz agerian jartzea.

b) Erosten duen entitatea eta saltzen duena ez izatea sozietate talde berekoak Merkataritza Kodeak 42. artikuluan jasotako irizpideei jarraituta, alde batera utzita egoitza eta urteko kontu kontsolidatuak egiteko obligazioa. Entitate biak talde berekoak badira, entitate eskualdatzaileak merkataritza fondoa erosteko ordaindu duen prezioari dagokionez aplikatuko da kenkaria, elkarri lotu gabeko pertsona edo entitateei erosi dienean.

c) Merkataritza legeriaren arabera erabilezina den erreserba bat zuzkitzea. Erreserba hori ezin bada zuzkitu, kenkaria egiteko baldintza izango da hura ondorengo ekitaldietako lehen mozkinen kargura zuzkitzea.

Aurreko a) eta b) letretan jasotako baldintzak betetzen ez direnean, merkataritza fondoaren balioaren narriaduragatik izandako galerak bakarrik izango dira kengarriak, horiek frogatu badaitezke.

Apartatu honetan jasotako kenkaria egiteko, aurreko paragrafoan araututako kenkaria kanpoan utzita, ez da jarriko galera eta irabazien kontuan haren kontabilitate egozpena egiteko baldintza. Apartatu honetan jasotakoaren arabera kendutako kopuruek oinarri ezargarria gehituko dute narriaduragatiko galerak izatean edo merkataritza fondoa eskualdatzean.

10. Aurreko apartatuko a) eta b) letretan jarritako baldintzak betetzen direnean, bizitza erabilgarri mugagabea duen ibilgetu ukiezina kenkariduna izango da, urteko muga gehienez horren zenbatekoaren bostena izanik.

Beste kasu batean, ordea, bizitza erabilgarri mugagabea duen ibilgetu ukiezinaren balioan narriaduragatik izandako galerak bakarrik izango dira kengarriak, horiek frogatu badaitezke.

Apartatu honetan jasotako kenkaria egiteko baldintza ez da izango, aurreko paragrafoan araututako kenkaria kanpoan utzita, galera eta irabazien kontuan haren kontabilitate egozpena egitea. Apartatu honetan jasotakoaren arabera kendutako kopuruek oinarri ezargarria gehituko dute narriaduragatik izandako galerak izatean edo aktibo ukiezina eskualdatzean.

13. artikulua. Hornikuntzak.[23]

1.[24] Jarraian aipatzen diren gastuak ez dira kengarriak izango:

---

[23] 13. artikulu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Hiru artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[24] Apartatu hau abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren 19. artikuluak aldatu du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eta 2007an hasi eta 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera bukatutako zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

a) Betebehar inplizitu edo tazitoei dagozkienak.

b) Langileen epe luzeko ordainsariei dagozkiena. Dena dela, azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legislatiboak onartutako Pentsio plan eta fondoen lege arautzailearen testu bateratuan arautzen diren pentsio-planen sustatzaileen kontribuzioak eta borondatezko aurreikuspen sozialerako erakundeen bazkide babesleek egindako ekarpenak deduzitu ahal izango dira, baita enpresen aurreikuspen sozialetarako planei egindakoak ere. Kontribuzioa edo ekarpen horiek parte hartzaile bakoitzari egotziko zaizkio, aseguratu edo zenbakidun bazkidea edo ohikoari dagokion zatian, ez ohiko moduan pentsio planei egindakoak izan ezik, Pentsio plan eta fondoak arautzen dituen legearen testu bateratuaren 5. artikuluko 3. ataleko c) letra aplikatuz. Deduzigarriak izango dira pentsio planen kontingentzia estaldura bera duten kontribuzioak, beti ere baldintza hauek betetzen badituzte:

a') Prestazioak jasotzen dituzten pertsonei egoztea, fiskalitateari dagokionez.

b') Etorkizuneko prestazioak jasotzeko eskubidea modu ezeztaezinean transmititu dadila.

c') Kontribuzio horien baliabideen jabetza eta kudeaketa transmititu dadila.

Era berean, Europako Parlamentuak eta Bertako kontseiluak 2003ko ekainaren 3an enpleguko pentsio funtsen jarduerei eta ikuskapenari buruz emandako 2003/41/CE zuzentarauean aurreikusitako enpresa sustatzaileek egindakoak, beti ere aurrez aipatutako baldintzak betetzen badira eta estalitako kontingentziak Pentsio plan eta fondoen Lege Arautzailearen testu bateratuaren 8.6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

c) Kontratuak betetzeko gastuak jasotzea espero den etekin ekonomikoa baino handiagoa direnean.

d) Berregituraketetik eratorritakoak, legearekin edo kontratuarekin zerikusia duten eta tazitoak ez diren betebeharrei dagozkienean izan ezik.

e) Salmenten itzulketa arriskuari dagozkienak.

f) Ondare tresnetan oinarritzen diren ordainketei dagozkien pertsonalekoak, langileei ordaintzeko formula gisa erabiltzen direnak, bai esku-dirutan bai tresnak entregatuz.

2. Ingurumen alorreko jarduketei dagozkien gastuak kenkaridunak izango dira subjektu pasiboak egindako plan bati egokitu eta Zerga Administrazioak hori onartzen duenean.

3. Aurreko bi apartatuen arabera fiskalki kenkaridunak izan ez diren gastuak hornikuntza bere helburuari aplikatzen zaion zergaldiklo oinarri ezargarrian sartuko dira.

4.[25] Aseguru entitateek egindako horniketa teknikoei dagozkien gastuak, aplika daitezkeen arauek ezartzen dituzten gutxieneko zenbatekoak arte deduzitu ahal izango dira. Muga horrekin berarekin, egonkortze erretserbarako ariketan ekarpenaren zenbatekoa zerga oinarria zehazteko deduzitu ahal izango da. Nahiz eta galera eta irabazien kontuan ez sartu. Erretserba horren edozein aplikazio gertatzen den zerga-aldiaren zerga-oinarrian sartuko da.

Kobratzeko dauden prima edo kuoten kalteen zuzenketak bateraezinak izango dira, saldo beretan, zordunen kaudimengabezietatik eratorritako kredituen kalteek eragindako galerak.

5. Kenkaridunak izango dira elkarrekiko bermerako sozietateek galera eta irabazien kontuaren kargura egindako hornikuntza teknikoei lotuta dauden gastuak, harik eta aipatu fondoa 1994ko martxoaren 11ko 1/94 Legeak, elkarrekiko bermerako sozietateen araubide juridikoari buruzkoak, 9. artikuluan aipatutako derrigorrezko gutxieneko kopurura iritsi arte. Derrigorrezko kopuruetatik gorako zuzkiduren %75 izango da kenkariduna.

Ez dira integratuko oinarri ezargarrian ez herri administrazioek elkarrekiko bermerako sozietateei emandako diru laguntzak eta ez diru laguntza horietatik eratortzen diren errentak, betiere batzuk eta besteak hornikuntza teknikoek fondora bideratzen badira. Apartatu honetan jasotakoa birfinantzamendu sozietateei ere aplikatuko zaie, 1994ko martxoaren 11ko 1/94 Legeak, elkarrekiko bermerako sozietateen araubide juridikoari buruzkoak, 11. artikuluan jasotakoaren arabera derrigorrez haien xede soziala barne hartu behar duten jarduerei dagokienez.

6. Konpontze eta berrikuste bermeetatik eratorritako arriskuei lotutako gastuak kengarriak izango dira honako emaitza hau baino handiagoa ez den saldo bat zehazteko behar den zenbatekoraino: zergaldia amaitzean berme biziak dituzten salmentei zergaldian eta aurreko bietan egindako salmenta bermedunei dagokienez zergaldi horietan izan diren bermeei aurre egiteko izandako gastuen proportzioak ematen duen portzentajea aplikatuz ateratzen den emaitza.

Aurreko paragrafoan jasotakoa aplikaziozkoa izango zaie salmentak itzultzeagatik izandako gastu osagarriak estaltzeko egin diren zuzkidurei ere.

Sortu berriak diren entitateak, jarduera berriak hasten dituzten entitateak edo hiru ekitaldi igaro baino lehen jarduerak berriz hasten dituzten entitateak direnean, apartatu honetako lehen paragrafoan ezarritako portzentajea entitatea jardun den ekitaldiari edo ekitaldiei egotzitako gastu eta salmentei dagokienez ateratzen den ehunekoa izango da.

7. Ez dira kenkaridunak izango hornikuntza ez-kenkaridunen balioak eguneratuz sortutako doikuntzetatik eratortzen diren gastu finantzarioak.

14. artikulua. Kenkaritzat hartuko ez diren gastuak. [26]

[25] Apartatu hau abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren 19. artikuluak aldatu du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eta 2007an hasi eta 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera bukatutako zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

[26] Artikulu hau 2013ko uztailaren 17ko 5/2013 Foru Arauaren 3. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Araua, zerga iruzurraren aurkako neurriei, kredituak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa

1. Honako gastu hauek ez dira fiskalki kengarritzat hartuko:

a) Fondo propioak ordaintzeko direnak.

b) Sozietateen gaineko Zerga kontabilizatzetik eratorritakoak. Kontabilizazio horretatik datozenak ez dira sarreratzat hartuko.

c) Isun nahiz zehapen penal eta administratiboak, premiamenduzko errekargua eta, halaber, aitorpen-likidazioak eta autolikidazioak epez kanpo aurkezteagatik jarritako errekargua.

d) Jokoan izandako galerak.

e) Dohaintzak eta liberalitateak.

Ondoko hauek ez dira letra honetan sartuko: Bezero edo hornitzaileekiko harremanak direla-eta izandako gastuak; ohiturei jarraikiz enpresako langileekin izandako gastuak; ondasun entrega eta zerbitzu prestazioa zuzenean edo zeharka sustatzeko izandako gastuak; eta diru sarrerei lotutako gastuak, ondorengo 2. apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe.

f) Pentsio Plan eta Fondoen Legearen Testu Bateratuak eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateen zerga araudiari buruzko foru arauek jasotako kontingentzien berdinak edo antzekoak estaltzeko hornikuntza edo barne fondoetarako zuzkidurak.

g) Erregelamenduz paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldeetan egoitza duten pertsona edo entitateekin zuzenean edo zeharka burututako eragiketei dagozkien zerbitzuen gastuak, edo haietan egoitza duten pertsona edo entitateen bitartez ordaintzen diren gastuak, salbu subjektu pasiboak frogatzen badu gastua benetan burututako eragiketa edo transakzio bati dagokiola.

Nazioarteko gardentasun fiskalaren araubidea, foru arau honek arautua, ez zaie aplikatuko fiskalki kengarritzat hartzen ez diren gastuen errentei.

h) 2012ko urriaren 29ko 7/2012 Legearen 7. artikuluan eskudiruzko ordainketez xedatzen dena hausten duten eragiketetatik eratorritako gastuak. Lege horrek aurrekontuen araudia aldatu eta finantza araudia egokitzen du, iruzurraren kontrako prebentzio ekintzak eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzak areagotzearren.

i) Eroskeria.

2. Aurreko apartatuko e) letraren bigarren paragrafoan aipatzen diren gastuak kengarri izango dira, diru sarrerekin loturik dauden kasuan, honako zenbateko eta baldintza hauen arabera:

a) Jatetxe, ostalaritza, bidaia eta joan-etorrien zerbitzuei buruzko harreman publikoen gastuen 100eko 50; horren gehieneko muga, ordea, subjektu pasiboaren eragiketa guztien 100eko 5 izango da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunean definitzen den eran.

---

batzuei buruzkoa, argitaratu eta beharamunean jarri da indarrean (GAO 2013-07-22). 3. artikuluak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ditu ondorioak.

b) Opariak eta bestelako esku-erakutsiak, baldin eta hartzaile bakoitzari dagokionaren prezio unitarioa ez bada (zergaldi bakoi-tzeko) 300 euro baino gehiago, eta hartzailearen nortasuna agiriren batean jasota geratzen bada. Baldin eta aipaturiko gastuak goian zehazturiko zenbatekoa baino gehiago badira, zenbateko horretaraino soilik izango dira kengarri.

3. Honako erregela hauek aplikatuko dira turismoko ibilgailuak, atoiak, ziklomotorrak eta motozikletak erabiltzetik sortzen diren gastuei dagokienez:

a) Gastuen 100eko 50 izango da kengarri, haiek erosi, alokatu, konpondu, mantendu eta balioa galtzearekin zein haien erabilerarekin zerikusia duen beste edozein kasutan, baina horrek muga hauek izango ditu ibilgailuko eta urteko:

a'. Bi zenbateko hauetatik txikiena: Edo 2.500 euro, edo subjektu pasiboak erabili duen amortizazio portzentajea bider 25.000 euro (alokairu, lagatze edo balio galerarenak) eginik ateratzen den zenbatekoa.

Ibilgailu bat eskualdatzean edo aktibotik baja ematean, horretatik eratorritako errenta kalkulatzeko, ibilgailuaren erosketa prezioa edo produkzio kostua aintzat hartuko da, behin aurreko paragrafoan jasotakoaren arabera kendutako amortizazioak gutxituta; gainera, erregela hauek aplikatuko dira:

— Galera bat agerian jartzen bada, hura kengarria izango da, muga hau ezarrita: 25.000 euroren 100eko 50etik a' letra honek lehen paragrafoan jasotakoaren arabera ibilgailua eduki den denboran kendutako kopuruak gutxituta ateratzen den zenbatekoa. Kalkulu horretatik ateratzen den zenbatekoaren 100eko 100 izango da kengarria.

— Mozkinak lortzen badira, foru arau honek 15. artikuluaren 9. apartatuan jasotako moneta-zuzenketa kalkulatzeko, kontuan hartuko dira erosketa prezioa edo produkzio kostua, gehienez 25.000 euroren 100eko 50eraino, eta a' letra honen lehen paragrafoan xedatutakoari jarraituz kendutako amortizazioak. Kalkulu horretatik ateratzen den zenbatekoaren 100eko 100 izango da kengarria, nahiz eta ez izango den handiagoa izan eskualdaketa horrengatik lortutako errenta positiboak baino.

b'. 3.000 euro, ibilgailuok erabiltzeari loturiko gainerako kontzeptuengatik.

b) Dudarik gabe frogatzen denean ibilgailua esklusiboki dagokiola jarduera ekonomiko bati, haren erabileratik eratorritako gastuak kengarriak izango dira, ibilgailu eta urteko muga hauekin:

a'. Bi zenbateko hauetatik txikiena: Edo 5.000 euro, edo zergadunak erabili duen amortizazio portzentajea bider 25.000 euro (alokairu, lagatze edo balio galerarenak) eginik ateratzen den zenbatekoa.

Bakar-bakarrik jarduera bati atxikitako ibilgailu bat eskualdatzean edo aktibotik baja ematean, horretatik eratorritako errenta kalkulatzeko, ibilgailuaren erosketa prezioa edo produkzio kostua aintzat hartuko da, behin aurreko paragrafoan jasotakoaren arabera kendutako amortizazioak gutxituta; gainera, erregela hauek aplikatuko dira:

— Galera bat agerian jartzen bada, hura kengarria izango da, muga hau ezarrita: 25.000 eurotik a' letra honek lehen paragrafoan jasotakoaren arabera ibilgailua eduki den denboran kendutako kopuruak gutxituta ateratzen den zenbatekoa.

— Mozkinak lortzen badira, foru arau honek 15. artikuluaren 9. apartatuan jasotako moneta-zuzenketa kalkulatzeko, kontuan hartuko dira erosketa prezioa edo produkzio kostua, gehienez 25.000 euroraino, eta a' letra honen lehen paragrafoan xedatutakoari jarraituz kendutako amortizazioak. Horrela kalkulatutako moneta zuzenketaren zenbatekoa ezingo da izan eskualdaketa harengatik lortutako errenta positiboen mugatik gorakoa.

b'. 6.000 euro, ibilgailuok erabiltzeari loturiko gainerako kontzeptuengatik.

Era berean, b) letra honetan xedatutakoa aplikagarria izango da zergaren autolikidazioa aurkeztu aurretik garraio elementua erabiltzen duen pertsonari gauza bidezko ordainsari moduan dagozkion kopuruak egotzi zaizkionean, 2006ko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 62. artikuluan jasotako arauei jarraituz.

c) Kengarri izango dira ordezkariek edo merkataritza agenteek joan-etorri profesionaletan darabiltzaten ibilgailuekin zerikusia duten gastuak; alegia, halakoak erostea, alokatzea, konpontzea, mantentze lanak egitea, haien depreziazioa, galera, moneta zuzenketa eta haiek erabiltzearekin zerikusia duen beste edozein gastu, 3 zenbaki honen b).a' letran jasotako mugarekin.

Hala ere, baldin eta ibilgailuok erabiltzen dituena foru arau honen 16. artikuluan azaltzen diren baldintzetan badago loturik, 3 zenbaki honetako a) letran ezarria aplikatuko da.

d) Baldin eta per-tsona berak aurreko a), b) eta c) letretan aipatzen diren ibilgailuetariko bat baino gehiago ibiltzen badu aldi berean, pertsona eta urteko aplikatuko dira mugok, zenbanahi ibilgailu erabilita ere.

Baldin eta ibilgailu bat ez bada urte osoan erabili, aipatutako letretan aipatzen diren gehieneko mugak proportzionalik kalkulatuko dira, kasuan kasuko ibilgailua zenbat denbora erabili den ikusita.

e) Kengarriak izango dira honako ibilgailu hauek erosi, alokatu, konpondu, mantendu eta balioa galtzearekin zein haien erabilerarekin zerikusia duten gastuak:

a'. Merkantzien garraioan erabilitako ibilgailu mistoak.

b'. Bidaiariak kontraprestazio bat ordainduta garraiatzeko zerbitzuetan erabiltzen direnak.

c'. Fabrikatzaileek probak, saioak, erakusketak edo salmenten sustapena egiteko erabilitakoak.

d'. Gidariei edo pilotuei kontraprestazio bat ordainduta irakasteko zerbitzuetan erabilitakoak.

e'. Zaintza zerbitzuetan erabilitakoak.

f'. Eskuarki ibilgailuak alokatzen jarduten duten entitateek kontraprestazio bidezko alokairu jarduera horretan soil-soilik erabiltzen dituztena.

3. apartatu honetan jasotakoaren ondorioetarako, turismoko ibilgailu, atoi, ziklomotor eta motozikletatzat hartuko dira martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegileak, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide

Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartzen duenak, eranskinean hala definitzen dituenak, eranskin horretan ibilgailu misto gisa definitutakoak eta, nolanahi ere, lur orotariko ibilgailuak edo» jeep» motatakoak.

4. Ez dira kengarri izango aisiako edo itsas kiroletarako edozein ontzi edo itsasontziekin, zein aireontziekin zerikusia duten gastuak; alegia, halakoak erostea, alokatzea, konpontzea, mantentze lanak egitea, haien balio-galera eta haiek erabiltzearekin zerikusia duen beste edozein gastu.

Modu frogagarri batean egiaztatzen denean elementu horiek bakar-bakarrik jarduera ekonomiko bati atxikita daudela, aurreko paragrafoan adierazitako gastuak kengarriak izango dira, gehienez muga honekin: Paragrafo honetan aipatutako elementuetatik eratorritako gastuak murriztu eta, hala badagokio, oinarri ezargarri negatiboak konpentsatu aurreko oinarri ezargarriaren zenbatekoa.

Hala ere, muga hori ez da aplikagarria izango baldin eta subjektu pasiboak egiaztatua badu badituela jarduera ekonomiko horretan –alegia, garraiobideok ustiatzea– denboran zehar jarraian jarduteko behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak.

5. Kengarriak izango dira dohaintzan ematen diren ondasunen kopuru ordainduak eta kontabilitateko balioa, honako entitate dohaintza hartzaile hauek berezkoak dituzten helburuen lorpenari ezarri ahal bazaizkio:

a) Eskualdeko industria garapenerako sozietateak.

b) Kirol federakunde eta kirol klubek, kirol jarduera ez-profesionalen sustapen eta garapenerako sozietate anonimoengandik hartu dituzten kopuruei dagokienez, betiere entitate horien artean aipatutako kirol federakunde eta kluben helburua lortzeko beharrezkoa den kontratu bidezko eta kostu bidezko lokarria ezarri denean soilik.

Apartatu honek aipatzen dituen eskualdaketek ez dute zehaztuko entitate eskualdatzailearentzat errenta positibo edo negatiboen lorpena, alegia, hurrengo artikuluaren 3. apartatuan ezartzen direnena.

6. 3. Aurreko 1. apartatuko a) letran jasotakoa jasota ere, kengarriak izango dira 1996ko ekainaren 7ko 7/1996 Errege Dekretu Legeak, zerga eta sustapen alorreko premiazko neurriei eta jarduera ekonomikoaren liberalizazioari buruzkoak, 20. artikuluaren lehen apartatuan jarritako baldintzak betetzen dituen partaidetza-mailegu batean sortutako interesak, finkoak izan edo aldakorrak izan.

15. artikulua. Balorazio arauak: arau nagusia eta arau bereziak irabazi asmoa duten eskualdaketetan eta sozietate eragiketetan.

1.[27] Ondare elementuak Merkataritza Kodeak jarritako irizpideen arabera baloratuko dira. Dena den, arrazoizko balioaren irizpidea erabilita sortutako balio

[27] 1. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Sei artikuluak aldatu du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

aldakuntzek ez dute zerga ondoriorik izango galera eta irabazien kontuari egotzi behar ez zaizkion bitartean.

Kontabilitate birbalorazioen zenbatekoa ez da oinarri ezargarrian sartuko, salbu haien zenbatekoa galera eta irabazien kontuan sartzera derrigortzen duten legeei edo erregelamenduei jarraikiz burutzen direnean. Oinarri ezargarrian sartu gabeko birbalorazioaren zenbatekoak ez du ekarriko elementu birbalorizatuen balio handiagorik, zerga ondorioetarako.

2. Ondarezko elementu hauek merkatuan daukaten ohiko balioagatik baloratuko dira:

a) Irabazi asmoz eskualdatu edo erositakoak.

b) Entitateei emandakoak eta horren ordainez jasotako baloreak.

c) Bazkideei eskualdatutakoak, desegitea, bazkideak bereiztea eta ekarpenak itzuliz kapitala murriztea nahiz jaulkipen prima banatzea eta mozkinak banatzea dela-eta.

d) Bategitea, erabat edo zati batean bereiztea nahiz aktibo eta pasibo osoa lagatzea dela-eta eskualdatutakoak.

e) Permuta bidez eskuratutakoak.

f) Truke edo bihurketa bidez eskuratutakoak.

[28] Merkatuko balio normaltzat hartuko da alderdi independenteek merkatuko baldintza arruntetan adostuko luketena. Balio hori kalkulatzeko, foru arau honen 16. artikuluko 4. apartatuan aurreikusitako metodoak aplikatuko dira.

3. [29] Aurreko apartatuko a), b), c) eta d) letretan aipatzen diren kasuetan, entitate eskualdatzaileak eskualdatutako elementuen merkatuko ohiko balioaren eta horien kontabilitate balioaren arteko diferentzia sartuko du bere oinarri ezargarrian.

Aurreko apartatuko e) eta f) letretan aipatu diren kasuetan, entitateek honako diferentzia hau sartuko dute oinarri ezargarrian: eskualdatutako elementuen merkatuko ohiko balioaren eta emandakoen kontabilitate balioaren artekoa.

Sozietate bat bere akzio edo partaidetzen balio nominala aldatzera mugatzen denean akzionisten partaidetza-portzentaia aldatu gabe eta ekarpenak itzuli gabe, aurreko parrafoan jasotakoa ez da aplikatuko. Kasu horretan akzio edo partaidetza horiek ez dira beren merkatuko ohiko balioagatik baloratuko.

---

[28] Parágrafo hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 16.Lehena.Bi artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[29] 3. apartatu hau uztailaren 8ko 4/1997 Foru Arauaren 1. artikuluak aldatu du. Sozietaeen gaineko Zerga eta Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen dituzten foru arauen hainbat artikulu aldatzen dira aipatu foru arauan. 1997ko uztailaren 15ean sartu zen indarrean.

Doako eskurapenetan, entitate eskuratzaileak eskuratutako ondare elementuaren merkatuko ohiko balioa sartuko du bere oinarri ezargarrian.

Artikulu honetan aipatzen diren errentak, berauen sortarazle diren eragiketak egiten diren zergaldian sartuko dira oinarri ezargarrian.

Apartatu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, dirulaguntza publikoak ez dira doako eskurapentzat hartuko.

4. Ekarpenak itzuliz kapitala murriztean, bazkideek jasotako elementuen merkatuko ohiko balioaren eta partaidetzaren kontabilitatezko balioaren arteko diferentzia sartu beharko da beren oinarri ezargarrian.

Arau bera erabiliko da akzioen edo partaidetzen jaulkipen prima banatzean ere.

5. Mozkinak banatzean, bazkideek jasotako elementuen merkatuko ohiko balioa sartu beharko da beren oinarri ezargarrian.

6. Sozietateak desegitean eta bazkideak bereiztean, haiek jasotako elementuen merkatuko ohiko balioaren eta partaidetza deuseztuaren kontabilitatezko balioaren arteko diferentzia sartuko da beren oinarri ezargarrian.

7. Bategitean eta erabat edo zati batean bereiztean, bazkideek jasotako partaidetzaren merkatuko ohiko balioaren eta partaidetza deuseztuaren kontabilitatezko balioaren arteko diferentzia sartu beharko da oinarri ezargarrian.

8. Ekarpenak itzultzeaz bestelako helburua duen kapital murrizpenak ez die bazkideei ekarriko oinarri ezargarrian sartzeko errenta positibo edo negatiborik.

9.[30] Ibilgetu materialaren, ibilgetu ukiezinaren eta inbertsio inmobiliarioen ondare elementuak edo salmentarako mantendutako aktibo ez-korronte gisa sailkatu diren elementu horiek eskualdatzean lortutako errenta positiboak oinarri ezargarrian sartzeko, eskualdatutako elementuari dagokionez baimendutako azken legezko egunerapenetik edo, ondoren gertatu bada, elementu hori erosi zenetik izan den balio-galera monetarioaren zenbatekoa kenduko da errenta positibo haien mugaraino, arau hauei jarraikiz kalkulatuta:

a) Eskualdatutako ondare elementuen erosketa prezioa edo produkzio kostua eta haiei dagozkien amortizazio metatuak foru arau batean ezartzen diren koefizienteekin biderkatuko dira.

b) Aurreko letran ezarritakoa aplikatuz ateratako zenbatekoen arteko diferentziari eskualdatutako ondare elementuaren kontabilitate balioa gutxiko zaio.

[30] 9. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Sei artikuluak aldatu du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

c) Eragiketa horretatik ateratzen den kopurua biderkatu behar da arauz onartzen den besteren zorpetzearen koefizientearekin, ondasun higiezinen izaera duten ondare elementuak eskualdatzen direnean.[31]

10. (Edukirik gabe)[32]

11. (Edukirik gabe)[33]

---

[31] Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2013. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 27ko 12/2012 FORU ARAUAren lehen xedapen gehigarriak, 2013. urtean hasten diren zergaldiei aplikatu beharreko koefizienteak ezartzen ditu (2012-12-28ko GAO):

2013. urtean hasten diren zergaldiei dagokienez, 1996ko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak 15. artikuluaren 9. apartatuan aurreikusten dituen koefizienteak honako hauek izango dira:

Koefizienteak:

1984ko urtarrilaren 1a baino lehen 2,411
1984. urtea 2,190
1985. urtea 2,022
1986. urtea 1,903
1987. urtea 1,813
1988. urtea 1,732
1989. urtea 1,649
1990. urtea 1,585
1991. urtea 1,532
1992. urtea 1,486
1993. urtea 1,473
1994. urtea 1,444
1995. urtea 1,378
1996. urtea 1,329
1997. urtea 1,307
1998. urtea 1,360
1999. urtea 1,311
2000. urtea 1,224
2001. urtea 1,206
2002. urtea 1,185
2003. urtea 1,168
2004. urtea 1,154
2005. urtea 1,133
2006. urtea 1,112
2007. urtea 1,087
2008 urtea 1,053
2009. urtea. 1,036
2010. urtea. 1,035
2011. urtea 1,018
2012. urtea 1,008
2013. urtea 1,000

Koefizienteak honela aplikatuko dira:

a) Eskurapen prezioaren edo produkzio kostuaren gainean, ondare elementua zein urtetan eskuratu edo produzitu den kontuan hartuta. Hobekuntzei aplikatu behar zaien koefizientea horiek egin diren urteari dagokiona izango da.

b) Kontabilizaturiko amortizazioen gainean, zein urtetan egin diren kontuan hartuta.

[32] 10. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Bost artikuluak indargabetu du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[33] 11. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Bost artikuluak indargabetu du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16.

16. artikulua.[34] Balorazio erregelak: Eragiketa lotuak.

1. 1.a Pertsona edo entitate lotuen artean egindako eragiketak beren merkatuko balio normalaren arabera baloratuko dira. Pertsona edo entitate independenteek lehia libreko baldintzetan adostuko zutena hartuko da merkatuko ohiko baliotzat.

2.a Zerga Administrazioak egiaztatu ahal izango du pertsona edo entitate lotuen artean egindako eragiketak merkatuko ohiko balioaren arabera baloratu direla. Behar izanez gero, eskumena izango du eragiketen balorazioak zuzentzeko baldin eta zerga honi, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari lotutako eragiketak merkatuko ohiko balioaren arabera baloratu ez badira. Zergadunak aurkeztutako dokumentazioa eta Administrazioaren esku dauden datuak eta informazioa erabiliz egingo dira zuzenketak. Zerga Administrazioak balio horri eutsiko dio gainerako pertsona edo entitate lotuei dagokienez.

Zerga Administrazioak balio horri eutsiko dio gainerako pertsona edo entitate lotuei dagokienez. Administrazioaren balorazioak ez du berarekin ekarriko ez zerga honetan, eta hala bada, ez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, eragiketa burutu duten pertsona edo entitate guztientzat eragiketan benetan lortutakotik gorako errentaren gaineko zerga ordaintzea. Zenbatespen objektiboko metodoren bat aplikatze-agatik oinarri ezargarritik kanpo geratzen den errentaren zatia hartuko da kontuan konparazioa egiteko.

2. Pertsona edo entitate lotuek arauzko eran ezartzen den dokumentazioa eduki beharko dute Zerga Administrazioaren esku.

3. Ondoko hauek izango dira pertsona edo entitate lotuak:

a) Entitate bat eta bertako bazkide edo partaideak.

b) Entitate bat eta bertako kontseilari edo administratzaileak.

c) Entitate bat eta bertako bazkide, partaide, kontseilari edo administratzaileen ezkontideak, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-lagunak, edo ahaidetasun harreman batengatik lotutako pertsonak. Harreman hori zuzenekoa zein zeharkakoa izan daiteke, odolkidetasunezkoa, ezkontza bidezkoa edo izatezko bikoteak ekar lezakeena, hirugarren mailaraino.

d) Talde bereko bi entitate.

e) Entitate bat eta beste entitate bateko bazkide edo partaideak, baldin eta bi entitateak talde berekoak badira.

---

artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[34] 16. artikulua 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 16.Lehena.Hiru artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

f) Entitate bat eta beste entitate bateko kontseilari edo administratzaileak, baldin eta bi entitateak talde berekoak badira.

g) Entitate bat eta beste entitate bateko bazkide, partaide, kontseilari edo administratzaileen ezkontideak, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-lagunak, edo ahaidetasun harreman batengatik lotutako pertsonak, baldin eta bi entitateak talde berekoak badira. Ahaidetasun harremana zuzenekoa zein zeharkakoa izan daiteke, odolkidetasunezkoa, ezkontza bidezkoa edo izatezko bikoteak ekar lezakeena, hirugarren mailaraino.

h) Bi entitate, baldin eta lehenengoak gutxienez %25eko zeharkako partaidetza baldin badu bigarrenaren kapital sozialean edo haren fondo propioetan.

i) Bi entitate, baldin eta bertako bazkideek edo partaideek edo haien ezkontideek, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-lagunek, edo ahaidetasun harreman batengatik lotutako pertsonek, zuzenean edo zeharka, -gutxienez %25eko partaidetza baldin badute kapital sozialean edo fondo propioetan. Ahaidetasun harremana zuzenekoa zein zeharkakoa izan daiteke, odolkidetasunezkoa, ezkontza bidezkoa edo izatezko bikoteak ekar lezakeena, hirugarren mailaraino.

j) Lurralde espainiarrean egoitza duen entitate bat eta atzerrian dituen establezimendu iraunkorrak.

k) Lurralde espainiarrean egoitzarik ez duen entitate bat eta lurralde horretan dituen establezimendu iraunkorrak.

l) Talde bereko bi entitate, talde horrek sozietate kooperatiboen taldeen erregimenean tributatzen duenean.

Lotura hori bazkide edo partaideen eta entitatearen arteko harremanaren arabera definitzen bada, partaidetzak %5ekoa edo handiagoa izan beharko du, edo %1ekoa edo handiagoa merkatu arautu batean negoziatzeko onartzen diren baloreak izanez gero. Administratzaileei egindako aipamenak zuzenbidezkoak eta izatezkoak hartuko ditu.

[35]Taldea existitzen da entitate batek beste bat edo batzuk kontrolatzen dituenean edo kontrolatu ditzakeenean Merkataritza Kodeak 42. artikuluan ezarritako irizpideei jarraikiz, egoitza eta urtero kontu bateratuak aurkezteko obligazioa alde batera utzita.

4. Merkatuko balio normala kalkulatzeko, metodo hauetako bat aplikatuko da:

a) Prezio libre alderagarriaren metodoa. Pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketa batean ondasun edo zerbitzu batek duen prezioa eta pertsona edo entitate independenteen arteko eragiketa batean ondasun edo zerbitzu berdinak edo antzeko batek pareko zirkunstantzietan duena alderatzen dira. Beharrezkoa izanez gero, bidezko zuzenketak egiten dira baliokidetasuna lortzeko eta eragiketaren berezitasunak aintzat hartzeko.

[35] Azken paragrafo hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Zazpi artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

b) Kostu gehituaren metodoa. Ondasunaren edo zerbitzuaren eskurapen balioari edo produkzio kostuari gehitu egiten zaio pertsona edo entitate independenteekin egindako eragiketa berdinetan edo antzekoetan ohikoa den marjina, edo halakorik ezean, pertsona edo entitate independenteek pareko eragiketei aplikatzen dietena. Beharrezkoa izanez gero, bidezko zuzenketak egiten dira baliokidetasuna lortzeko eta eragiketaren berezitasunak aintzat hartzeko.

c) Birsalmenta prezioaren metodoa. Ondasun edo zerbitzuaren salmenta preziotik kendu egiten da birsaltzaileak pertsona edo entitate independenteekin egindako eragiketa berdinetan edo antzekoetan aplikatzen duen marjina, edo halakorik ezean, pertsona edo entitate independenteek pareko eragiketei aplikatzen dietena. Beharrezkoa izanez gero, bidezko zuzenketak egiten dira baliokidetasuna lortzeko eta eragiketaren berezitasunak aintzat hartzeko.

d) Emaitza banatzeko metodoa. Eragiketa bat edo gehiago batera egiten dituen pertsona edo entitate bakoitzari egozten zaio eragiketa horretan edo horietan lortutako emaitza osoaren zatia, pertsona edo entitate independenteek antzeko egoeretan adostuko lituzketen baldintzak egoki biltzen dituzten irizpideak erabiliz.

e) Eragiketa guztien marjina garbiaren metodoa. Pertsona edo entitate lotu batekin egindako eragiketei egozten zaie zergadunak, edo hirugarren batzuek, pertsona independenteen arteko eragiketa berdinetan edo antzekoetan lortuko zuten emaitza garbia, kostuen gainean, salmenten gainean edo eragiketen ezaugarrien arabera egokien den magnitudearen gainean kalkulatua. Beharrezkoa izanez gero, bidezko zuzenketak egiten dira baliokidetasuna lortzeko eta eragiketaren berezitasunak aintzat hartzeko.

5. Entitate lotuen arteko zerbitzuengatik izandako gastuak, 4. apartatuan ezarritakoaren arabera baloratuak, kengarriak izango dira baldin eta emandako zerbitzuek abantaila edo onura eraginkorra eta benetakoa ekartzen badiote edo ekar badiezaiokete hartzaileari.

Zerbitzuak hainbat pertsona edo entitate loturen alde egindakoak direnean, eta betiere jasotako zerbitzua ezin bada indibidualizatu edo ordainsariaren elementuak kuantifikatzerik ez badago, zilegi izango da kontraprestazio osoa pertsona edo entitate onuradunen artean banatzea arrazionaltasun irizpideak beteko dituzten banaketa erregelei jarraikiz. Irizpide hori betetzen dela joko da baldin eta aplikatutako metodoak, zerbitzuaren izaerari eta zirkunstantziei begiratzeaz gainera, pertsona edo entitate hartzaileek lortutako edo lor ditzaketen onurak ere kontuan hartzen baditu.

6. Pertsona edo entitate lotuek ondasun edo zerbitzuen kostuak banatzeko izenpetzen duten akordiotik eratorritako gastuak, aurreko 4. apartatuan jasotakoaren arabera baloratuak, kengarriak izango dira honako baldintzak betetzen badira:

a) Nahitaezkoa da akordioa izenpetzen duten pertsona edo entitateek akordioaren ondorioz eskuratu, produzitu edo garatzen diren aktibo edo eskubideen jabe egitea edo antzeko ondorio ekonomikoak dituen beste eskubideren bat eskuratzea.

b) Parte hartzen duen pertsona edo entitate bakoitzaren ekarpenak kontuan izan behar du zein onura edo abantaila espero dituen haietako bakoitzak jasotzea akordiotik arrazionaltasun irizpideen arabera.

c) Akordioak aurreikusiko du zirkunstantziak edo bertan parte hartzen duten pertsona zein entitateak aldatu daitezkeela, eta hori aintzat hartuta, egoki iritzitako doikuntzak eta konpentsazio-ordainketak ezarriko ditu.

d) Pertsona edo entitate lotuen artean izenpetzen den akordioak arauz ezartzen diren beharkizunak bete beharko ditu.

7. Subjektu pasiboek Zerga Administrazioari eskatu diezaiokete pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketak balora ditzala horiek burutu aurretik. Eskaerari merkatuko balio normalean oinarritutako proposamena erantsiko zaio.

Zerga Administrazioak akordioak izenpetu ahal izango ditu beste administrazio batzuekin, eragiketen merkatuko balio normala elkarrekin finkatzeko.

Balorazio akordioak berau onartu ondorengo datatik aurrera egindako eragiketetan sortuko ditu ondorioak, eta akordioan bertan zehazten diren zergaldietan izango du balioa. Akordioan ezarri ahal izango da, orobat, uneko zergaldiko eragiketetan eta are aurrekoan ere egindakoetan izango dituela ondorioak, betiere kasuan kasuko zerga aitorpena aurkezteko borondatezko epea oraindik amaitu ez bada.

Zerga Administrazioaren akordioa onartzean aintzat hartutako zirkunstantzia ekonomikoak nabarmen aldatzen badira, akordioa aldatu ahal izango da zirkunstantzia ekonomiko berrietara egokitzeko.

Apartatu honetan aipatutako proposamenak ezetsitzat hartuko dira horiek ebazteko ezarrita dagoen sei hilabeteko epea amaitzen denean. Epe hori kontatuko da proposamena aurkezten den egunetik aurrera edo, Zerga Administrazioak errekeritu badu, subjektu pasiboak hura zuzentzen duenetik aurrera.

Erregelamendu bidez finkatuko da zein prozedura erabiliko den eragiketa lotuen balorazio akordioak ebazteko eta horiek luzatu ahal izateko.

Aipatutako akordioak aurreko 5. eta 6. apartatuetan araututako zerbitzu prestazioei eta kostuak banatzeko akordioei buruzkoak ere izaten ahalko dira.

8. Eragiketetan hitzartutako balioa merkatuko balio normalarekin bat ez datorrenean, bi balio horien arteko aldeari pertsona edo entitate lotuentzat emango zaion tratamendu fiskala alde horren ondorioz agerian jarritako errenten izaerari dagokiona izango da.

9. Erregelamendu bidez arautuko da nola egiaztatu eragiketa lotuetan merkatuko balio normala, honako arauei jarraikiz:

a) Balio egiaztapena egoera tributarioa egiaztatu behar zaion zergapekoari hasitako prozeduraren barruan egingo da. Hurrengo b) letran xedatutakoa eragotzi gabe, jarduketak zergapeko horri zuzenduta egongo dira, ez beste inori.

b) Zergapekoari likidazioa egin bazaio balioa zuzentzearen ondorioz, eta haren aurka errekurtso edo erreklamazioa aurkezten edo perituen tasazio kontrajarria eskatzen badu, zirkunstantzia horren berri eraginda dauden gainerako pertsona edo entitate lotuei emango zaie prozeduran agertu eta bidezko alegazioak aurkez ditzaten.

Ezarritako epeak amaitu eta zergapekoak ez badu errekurtso edo erreklamaziorik aurkeztu edo perituen tasazioa eskatu gabe badago, balorazioa jakinaraziko zaie eraginda dauden gainerako pertsona edo entitate lotuei, nahi izanez gero, perituen tasazioa elkarrekin sustatu edo bidezko errekurtso edo erreklamazioa batera aurkezteko. Errekurtso edo erreklamazioa jartzen bada edo perituen tasazio kontrajarria sustatuz gero, etenda geratuko da Zerga Administrazioak zergapekoari likidazioak egiteko duen eskubidearen preskripzio epea, eta Administrazioaren balorazioa irmo bihurtzen denean hasiko da berriro konputatzen.

c) Likidazioan jasotako balorazioa irmo bilakatzeak eraginkortasuna eta irmotasuna emango dizkio merkatuko balioari gainerako pertsona edo entitate lotuen aurrean, eta azken horiek bidezko erregularizazioak egin ahal izango dituzte irmotasun hori gertatzen den unean edo zergaldian, arauz ezartzen den eran.

d) Balioaren zuzenketagatik eraginda gertatzen diren pertsona edo entitate lotuei apartatu honetan xedatutakoa aplikatuko zaie baldin eta Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunak, edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunen establezimendu iraunkorrak badira.

e) Lotutako beste alderdiak egindako eragiketak merkatuko balio normalaren arabera baloratzeko eskumena beste Zerga Administrazio bati dagokionean, administrazio horri prozedura hasi izanaren berri emango zaio bidezkoak diren ondorioetarako.

f) Apartatu honetan xedatutakoak ez du galaraziko barne antolamenduaren parte diren nazioarteko itun eta hitzarmenetan ezarritakoa aplikatzea.

10. Balorazioak zuzentzen badira artikulu honetan xedatutakoaren indarrez, eta zuzenketa horrek dakarren egoera nazioarteko ezarpen bikoitzarena bada, Zerga Administrazioak, zergapekoaren eskariz, hura saihesteko prozedura abiatuko du ezarpen bikoitza saihesteko kasuan kasu aplikagarri den nazioarteko hitzarmenean edo gaiari buruzko beste edozein nazioarteko akordiotan aurreikusitakoari jarraikiz.

Ondorio horietarako, aplikaziozkoa izango da Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 26ko 2/199 Foru Arauak laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoa.

11. Gipuzkoako Zergen martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak jasotakoa eragotzi gabe, zerga urraketatzat hartzen da artikulu honen 2. apartatuan eta hori garatzen duen araudian jasotakoari jarraituz pertsona edo entitate lotuek Zerga Administrazioaren eskura jarri behar duten dokumentazioa ez aurkeztea edo dokumentazio osatugabea, zehaztugabea edo datu faltsuak dituena aurkeztea.

Zerga urraketatzat hartzen da, era berean, artikulu honetan eta hori garatzen duen araudian jasotako dokumentaziotik datorren merkatuko balio normala ez aitortzea Sozietateen gaineko Zergan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan edo Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan.

Urraketa horiek arau hauei jarraituz zigortuko dira:

a)[36] Zerga Administrazioak balorazioa zuzentzea egokia ez denean Sozietateen gaineko Zergari, Per-tsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari edo Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari lotutako eragiketei dagokienez, zigorra 1.500 euroko kopuru finkoa izango da aipatu gabeko, okerreko edo gezurrezko datu bakoitzeko, eta 15.000 eurokoa, berriz, horrelako datu multzo bakoitzeko, betiere taldearentzat edo erakunde bakoitzarentzat, subjektu pasibo edo zergaduna izaki, erregelamendu bidez ezartzen diren dokumentazio betekizunetako bakoitzari dagokionez.

Dena den, foru arauaren 49. artikuluan ezarritakoaren arabera pertsona fisikoak eta enpresa txikiak direnean, dokumentazioa aurkeztu behar badute, a) letra honek aipatzen duen zigorraren gehienezko muga ondoko kopuru hauetako txikiena izango da:

— Urraketa gertatu den eragiketa lotuen multzoaren zenbatekoaren 100eko 10.

— Erakundearen eragiketa bolumen osoaren 100eko 1.

b) Zerga Administrazioak balorazioa zuzentzea egokia denean Sozietateen gaineko Zergari, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari edo Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari lotutako eragiketei dagokienez, diruzko isun proportzionala jarriko da: Eragiketa bakoitzaren balorazio zuzenketatik datozen diru kopuruen %15, eta gutxienez aurreko a) letra aplikatuz egokituko litzatekeen zigorraren bikoitza. Zigor hori bateraezina da martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 195., 196., 197. edo 199. artikuluetan jasotakoa aplikatuta egokia izan daitekeen zigorrarekin, letra honetan jasotako zigorra jartzea ekarri duten oinarrien zatiari dagokionez.

c) Apartatu honen b) letran jasotakoaren arabera jarritako diruzko zigorren zenbatekoa martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 192. artikuluan jasotakoaren arabera murriztuko da.

d) Zerga Administrazioak balorazioa zuzentzea egokia denean Sozietateen gaineko Zergari, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari edo Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari lotutako eragiketei dagokienez, baina urraketa horiei lotutako ez-betetzea gertatu gabe, eta zuzenketa horrek dakarrenean ez ordaintzea, zerga itzulketak bidegabeki lortzea edo geroagoko aitorpenetan konpentsatzeko partidak desegoki zehaztea edo akreditatzea edo errenta garbia oker aitortzen denean, baina ez-ordaintzea edo itzulketak bidegabeki lortzea gertatu gabe egiaztapen edo ikerketa prozedura batean konpentsatu, kendu edo aplikatzeko dauden diru kopuruak konpentsatu direlako, portaera horien bidez ez da urratuta geratuko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 195., 196., 197. edo 199. artikuluetan jasotakoa, balorazio zuzenketa ekarri duten oinarrien zatiari dagokionez.

e) Apartatu honetan jasotako zigorrak bateragarriak dira martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, Zerga Administrazioaren lanari aurre egin, eragozpen edo aitzakiak jarri edo uko egin zaiola-eta errekerimenduei ez erantzuteagatik 208. artikuluan jarritako zigorrarekin.

---

[36] Letra hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUAren 2. artikuluaren ordinal lehenaren bat apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean. Aldaketak 2010-1-1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ditu ondorioak. (2010-12-28ko GAO)

17. artikulua. Balorazio arauak: egoitza aldaketak, establezimendu iraunkorren jarduerari uztea, paradisu fiskaletan egoitza duten pertsona edo entitateek nahiz beraiekin batera burututako eragiketak, eta atxiki beharreko kopuruak.

1.[37] Oinarri ezargarrian sartuko da ondorengo ondare elementuen merkatuko ohiko balioaren eta kontabilitate balioaren arteko diferentzia:

a) Egoitza atzerrira daraman entitate baten jabetzako ondarezko elementuak, salbu ondarezko elementu horiek entitate horrek Espainiako lurraldean daukan establezimendu iraunkor bati atxikitzen bazaizkio. Kasu horretan, ondarezko elementu horiei foru arau honek 92. artikuluan jasotakoa aplikatuko zaie.

b) Lurralde espainiarrean kokatuta dagoen eta jarduera utzi duen establezimendu iraunkor bati atxikitako elementuak.

c) Lurralde espainiarrean kokatutako establezimendu iraunkor bati aldez aurretik atxikita egon arren, atzerrira aldatu diren elementuak.

2.[38] Arauz paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldeetan egoitza duten pertsona edo entitateekin batera egiten diren eragiketak merkatuko balio normalaren arabera baloratuko dira, betiere Espainiako tributazioa ez bada txikiagoa balio hitzartua aplikatuta edo aipatu tributazioa geroratuta egokituko litzatekeena baino.

Aurreko paragrafoan aipatutako eragiketak egiten dituztenak behartuta daude foru arau honek 16. artikuluaren 2. apartatuan aipatzen den dokumentazioa aurkeztera, eta arauz finkatzen diren berezitasunak bete behar dituzte.

3.[39] Zerga honen kontura atxiki behar diren kopuruen jasotzaileak kontraprestazio osoarengatik konputatuko ditu kopuru haiek.

Atxikipenik egin ez denean edo behar baino gehiago egin denean, atxiki beharreko kopurua kenduko du kuotatik jasotzaileak.

Sektore publikoak ordaindutako legezko ordainsariak direnean, hartzaileak benetan atxikitako kopuruen kenkaria egin dezake bakarrik.

Kontraprestazio osoa ezin denean frogatu, Zerga Administrazioak kopuru oso gisara konputatu ahal izango du kopuru jakin bat, behin horretatik bidezko atxikipena kendu ondoren benetan jasotakoa ematen duena. Kasu horretan,

---

[37] Azaroaren 18ko 78/1997 Foru Dekretuak Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia abuztuaren 4ko 38/1997 Legearen bitartez Euskal Ekonomi Itunean egindako aldaketara egokitzen duenak, 10. artikuluaren bitartez aldatu du 1. apartatu hau. Aipatu foru dekretuak 1997ko abenduaren 3an sartu da indarrean eta urte honetako irailaren 1etik aurrerako ondorioak ditu.

[38] 2. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 16.Lehena.Lau artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[39] 3. apartatu hau martxoaren 18ko 26/1997 Foru Dekretuaren 16.2 artikuluak aldatu du 1997ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. 12/1996, 13/1996, 14/1996 Legeetan eta 1/1997 Errege-Lege Dekretuan jasotako zenbait neurri fiskaletara egokitzen du aipatu foru dekretuak Gipuzkoako zerga araudia.

benetan jasotakoaren eta kopuru osoaren arteko diferentzia kenduko du kuotatik, konturako atxikipen gisara.

18. artikulua. Kontabilitatezko balioaren ordez merkatuko ohiko balioa jartzearen ondorioak.[40]

Ondare elementu bat edo zerbitzu bat zerga ondorioetarako merkatuko balio normalaren arabera baloratu denean, hura eskuratu duen entitateak honela sartu beharko du oinarri ezargarrian balio horren eta erosketa balioaren arteko diferentzia:

a) Aktibo korrontearen ondare elementuak izanez gero, elementu horiek diru sarrera baten sortzapena dakarten zergaldian.

b) Aktibo ez-korrontea osatzen duten ondare elementu amortizaezinak izanez gero, horiek eskualdatzen diren zergaldian.

c) Aktibo ez-korrontea osatzen duten ondare elementu amortizagarriak izanez gero, bizitza erabilgarria amaitzeko geratzen diren zergaldietan, aipatu diferentziari elementu horiei dagokienez erabilitako amortizazio metodoa aplikatuta. Dena den, elementu horiek bizitza erabilgarria amaitu aurretik eskualdatzen badira, geratzen den diferentzia elementuak eskualdatzen diren zergaldiko oinarri ezargarrian sartuko da.

d) Zerbitzuak izanez gero, horiek hartzen diren zergaldian, salbu beren zenbatekoa ondare elementu batean sartu behar denean; kasu horretan, aurreko letretan jasotakoa bete beharko da.

19. artikulua. Nazioarteko ezarpen bikoitzaren tratamendua dibidenduetan, mozkin partaidetzetan eta establezimendu iraunkorrek lortutako errentetan.[41]

1. Dibidenduak edo mozkin partaidetzak ez dira subjektu pasiboaren oinarri ezargarrian sartuko, baldin eta lurralde espainiarrean egoiliarrak ez diren entitateetatik baldin badatoz.

2. Subjektu pasiboaren oinarri ezargarrian sartu gabe utziko dira, era berean, lurralde espainiarrean egoiliarrak ez diren entitateen kapital edo fondo propioen balore adierazgarriak eskualdatzetik eratorritako errenta positiboak. Bazkidea bereizten denean edo entitatea desegiten denean ere erabiliko dira arau berberak.

Ondoko kasuetan, berezitasun hauek gertatuko dira errentak oinarri ezargarrian ez sartzeko irizpidea erabiltzean:

---

[40] 18. artikulu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Zortzi artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[41]19. artikulu hau, Gipuzkoako Lurralde Historikorako hainbat zerga neurri onartzen duen otsailaren 12ko 2/2001 Foru Arauaren 4. artikuluko apartatu hirugarrenak aldatzen du. 2001eko otsailaren 17an sartu zen indarrean.

a) Entitate ez egoiliarrak zuzenean edo zeharka lurralde espainiarreko entitateetako partaidetzak edo lurralde horretan kokatutako aktiboak dauzkanean, eta batzuen eta besteen merkatuko balioaren batura handiagoa denean haien aktibo osoen merkatuko balioaren 100eko 15a baino.

Horrela gertatzen denean, oinarri ezargarrian ez da sartuko partaidetzaren edukitzaldian partizipatutako entitateak sortu dituen mozkin banatugabeen gehikuntza garbiari dagokion errentaren zatia.

b) Subjektu pasiboak balio zuzenketaren bat egin duenean zergetan kenkariduna izango den partaidetza eskualdatuaren gainean.

Horrela gertatzean, oinarri ezargarrian ez da sartuko zuzenketa horren zenbatekoaren gainean eskualdaketan lortutako errentaren soberakina.

c) Entitate ez egoiliarreko partaidetza Merkataritza Kodeak 42. artikuluan subjektu pasiboarekin sozietate talde bera osatzeko jasotzen dituen zirkunstantziak betetzen dituen beste entitate batek aldez aurretik eskualdatu denean, zergaren oinarri ezargarrian sartu den errenta negatiboa lortuta.

Horrela gertatzen denean, partaidetza eskualdatzean lortutako errenta positiboa taldeko beste entitateak lortutako errenta negatiboaren zenbatekoraino kargatuko da.

d) Entitate ez egoiliarreko partaidetza foru arau honek VIII. tituluaren X. kapituluko erregimen bereziko arauei jarraiki baloratu denean, eta arau horien aplikazioak (baita aurreko eskualdaketa batean ere) berarekin ekarri duenean errentak ez sartzea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga edo Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren oinarri ezargarrian, ondoko hauetatik eratorrita:

a') Lurralde espainiarreko entitate egoiliar bateko partaidetzaren eskualdaketatik.

b') Ondorengo 3 apartatuko b) eta c) letretan aipatutako beharkizunak betetzen ez dituen entitate ez egoiliar bateko partaidetzaren eskualdaketatik.

c') Beste ondare elementu batzuen ekarpen ez diruzkoa.

Horrela gertatzen denean, bakarrik oinarrian sartu gabe geratuko da entitate ez-egoiliarreko partaidetzaren eskualdaketa-balioaren eta horrek entitate eskualdatzaileak eskuratzean merkatuan izandako ohiko balioaren artean dagoen diferentzia positiboari dagokion errenta. Eskualdaketan lortutako errentaren gainerako zatia zergaldiko oinarri ezargarrian sartuko da.[42]

3. Aurreko bi apartatuetan aipatu diren errentak oinarri ezargarrian sartu ahal ez izateko, ondoko baldintza hauek bete beharko dira dena den:

a) Entitate ez egoiliarraren kapitalean edo fondo propioetan zuzenean edo zeharka gutxienez 100eko 5arekin parte hartzea eta, gainera, partaidetza hori etenik gabe egon izana entitatearen esku, banatzen den mozkina exigigarria den egunaren edo eskualdaketa egunaren aurreko urtean zehar; horren ezean,

[42] Paragrafo hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Sei Zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

ondoren epe hori osatzeko behar den denboran eduki beharko da. Epe hori konputatzeko, kontuan hartuko da, halaber, zenbat denbora egon den partaidetza hori etenik gabe Merkataritza Kodeak 42. artikuluan aipatzen duen kontsolidazio talde bereko beste entitate baten eskutan.

Aurreko 2 apartatuan jasotakoa aplikatu ahal izateko, eskualdaketaren egunean bete beharko da beharkizun hau.

b)[43] Entitate partizipatua izaera berdina edo antzekoa duen atzerriko zerga bati lotuta eta salbuetsi gabe egotea, banatzen diren edo partaide den mozkinak lortu diren ekitaldian.

Ondorio horietarako, atzerriko zergak aintzat hartuko dira beren helburua entitate partizipatuak lortutako errenta zergapetzea izan denean, zati batean ez bada ere. Berdin da zergapetzen dena errenta bera den, sarrerak edo errentaren beste edozein elementu.

Aurreko 2 apartatuan jasotakoa aplikatu ahal izateko, baldintza hau partaidetza eduki den ekitaldi guzti-guztietan bete behar da.

Baldintza hau betetzen dela ulertuko da entitate partizipatuaren egoitza Espainiarekin nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmen bat sinatu duen herrialde batean kokatuta dagoenean, eta hitzarmen horrek informazioa elkarri trukatzeko klausula jasotzen duenean.

Entitate partaidetuaren egoitza paradisu fiskaltzat kalifikatutako herrialde edo lurralde batean kokatuta dagoenean, artikulu honetan xedatutakoa ez da inoiz ere aplikatuko, non eta bere egoitza ez dagoen Europar Batasuneko herrialde batean eta subjektu pasiboak ez duen frogatzen bertan eratzeko eta jarduteko arrazoi ekonomiko baliodunak izan direla eta jarduera enpresarialak egiten dituela.[44]

c) Banatu edo parte hartzen diren mozkinak atzerrian jarduera enpresarialak egitetik eratortzea.

Bakarrik beharkizun hau betetzat hartuko da ekitaldiko sarreren 100eko 85a gutxienez ondoko hauei dagozkienean:

a') Atzerrian lortu diren errentak, baldin eta foru arau honetako 115. artikuluaren 2 apartatuan nazioarteko gardentasun fiskaleko erregimena aplikatuz oinarri ezargarrian sartu beharreko errenta gisa aipatutako errenta moten artean aurkitzen ez badira. Nolanahi ere, beste entitate batzuetako partaidetzatik edo balore edo partaidetzen eskualdaketatik eratorritako errentek ondorengo b') letran jasotako beharkizunak bete beharko dituzte:

---

[43] b) letra hau Zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUAren I Kapituluko 2.artikuluko Hirugarrengo apartatuaren Bi zenbakiak aldatu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO 2004-04-16) argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean eta egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak. Hala ere, aldaketa honek 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izango ditu ondorioak.

[44] Apartatu honen azken paragrafo hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAren 3. artikuluko lehen ordinaleko bi apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaket jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko den. (2009-12-28ko GAO).

Partikularki, ondorio horietarako, ondoko jardueretatik eratorritako errentak hartuko dira atzerrian lortutzat:

— Handizkako merkataritza, ondasunak eskuratzaileen esku uzten direnean entitate partizipatuaren egoitza-herrian edo Espainiaz besteko edozein herri edo lurraldetan, baldin eta entitate partizipatuak dauzkan giza baliabideak eta materialak antolatuz egiten badira eragiketak.

— Zerbitzuak, entitate partizipatuaren egoitza-herrian edo Espainiaz besteko edozein herri edo lurraldetan erabiliak direnean, baldin eta entitate partizipatuak dauzkan giza baliabideak eta materialak antolatuz ematen badira.

— Kreditu eta finantza jarduerak, maileguak eta kredituak entitate partizipatuaren egoitza-herrian edo Espainiaz besteko edozein herri edo lurraldetan egoitza duten pertsona edo entitateei ematen zaizkienean, baldin eta entitate partizipatuak dauzkan giza baliabideak eta materialak antolatuz egiten badira eragiketak.

— Aseguru edo berraseguru jarduerak, asegurupeko arriskuak entitate partizipatuaren egoitza-herrian edo Espainiaz besteko edozein herri edo lurraldetan daudenean, baldin eta entitate partizipatuak dauzkan giza baliabideak eta materialak antolatuz egiten badira jarduera horiek.

b') Beste entitate ez egoiliarren mozkinen dibidenduak edo partaidetzak, baldin eta haiei dagokienez subjektu pasiboak a) letran jasotako beharkizunak betetzen dituen zeharkako partaidetza badu, aipatu mozkinek, aldi berean, apartatu honetako beharkizunak betetzen dituenean. Era berean, entitate ez egoiliar horietako partaidetza eskualdatzetik eratorritako errentak, artikulu honen 2 apartatuko beharkizunak betetzen direnean.

Partaidetza edukitzen den ekitaldi bakoitzean eta guztietan bete beharko da c) letran jasotako beharkizuna, 2 apartatuan jasotakoa aplikatzearen ondorioetarako.

4.[45] Mozkinak banatzetik eratorritako partaidetzaren balio-galera ez da sartuko dibidenduak edo mozkin partaidetzak jasotzen dituen subjektu pasiboaren oinarri ezargarrian, balio-galera hori agerian jartzen den modua eta zergaldia edozein direla ere, salbu mozkin horien zenbatekoa Espainian zergapetu bada partaidetza lehendik eskualdatu delako. Azken kasu horretan, entitateak Espainian partaidetza eskualdatuz zergapetu dituen mozkinen zenbatekoaren pareko gastua konputatu dezake, eragiketa kontabilizatzeko moduagatik oinarri ezargarrian batere errentarik integratzen ez denean eta partaidetza horren balioa gutxitu behar duenean.

Era berean, entitate ez-egoiliar bateko partaidetza eskualdatzean errenta negatibo bat lortzen bada, partaidetza hori aurretik Merkataritza Kodeak 42. artikuluan subjektu pasiboarekin batera sozietate talde bera osatzeko jasotako zirkunstantziak betetzen dituen beste entitate batek eskualdatu duenean, errenta

[45] 4. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Bederatzi artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

negatibo horri aurreko eskualdaketan lortu eta oinarri ezargarrian sartu ez den errenta positiboaren zenbatekoa gutxituko zaio.

5. Artikulu honetan xedatutakoa aplikatzeko, erreserbak banatzean sozietatearen akordioan jasotako izendapenari kasu egingo zaio eta, horren ezean, erreserba horietara ordaindutako azken kopuruak hartuko dira aplikatutzat.

6. Atzerrian kokaturiko establezimendu iraunkorren bidez lortzen diren errenta positiboak ez dira sartuko subjektu pasiboaren oinarri ezargarrian, baldin eta:

a)[46] Errenta horiek izaera berdina edo antzekoa duen beste zerga bati lotuta eta ez salbuetsita badaude, artikulu honetako 3. apartatuaren b) letran jasotakoaren arabera, eta errenta horiek lortzen dituzten establezimenduak paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurralde batean ez badaude, non eta haien egoitza ez dagoen kokatuta Europar Batasuneko herrialde batean eta subjektu pasiboak ez duen frogatzen bertan eratzeko eta jarduteko arrazoi ekonomiko baliodunak izan direla eta jarduera enpresarialak egiten dituela.

b) Errenta establezimednu iraunkorraren errenta atzerriko jarduera enpresarialak egitetik eratortzea, artikulu honetako 3 apartatuaren c) letran jasotakoaren arabera.

Nolanahi ere, subjektu pasiboak aipatu establezimendu iraunkor horietatik eratorritako errenta negatiboak sartu baldin baditu aurreko zergaldi batean, errenta positiboek muga bat izango dute aurreko parrafoan aipatu den ez sartze horretan, alegia, beren zenbatekoak ezingo duela gainditu aurretik sartuak izan diren errenta negatiboekin duten aldea.

7.[47] Foru arau honen ondorioetarako, erakunde batek establezimendu iraunkor baten bidez atzerrian diharduela ulertuko da, edozein tituluren bidez espainiar lurraldetik kanpo antolatzen dituenean, modu jarraitu edo ohikoan, laneko instalazioak edo tokiak, horietan garatuz beren jarduera guztia edo parte bat. Zehazki, establezimendu iraunkortzat hartuko dira Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko 2/1999 Foru Arauak, apirilaren 26koak, bere 12. artikuluko 1. apartatuan aipatzen dituenak. Establezimendu iraunkorra Espainiak nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmen bat izenpetuta daukan herrialde batean baldin badago, eta hitzarmen hori aplikagarri baldin bazaio, honetatik ateratzen denera joko da.

8. Aurreko apartatuetan jasotakoarekin bat etorriz subjektuaren oinarri ezargarrian sartzen ez diren baina zerga arloko garrantzia duten errentei buruzko datu guztiak Zerga Administrazioari jakinarazi beharko zaizkio, zerga honen aitorpenarekin batera, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak xedatuko duen eran.

---

[46] Apartatu honen a) letra hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAren 3. artikuluko lehen ordinaleko bi apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaket jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko den (2009-12-28ko GAO).

[47] Apartatu hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUAren 2. artikuluaren ordinal lehenaren bi apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean. Aldaketak 2010-1-1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ditu ondorioak. (2010-12-28ko GAO)

9.[48] Foru arau honen VIII. tituluko IV. eta V. kapituluetan aipatzen diren entitateei ez zaie artikulu honetan xedatutakoa aplikatuko.

10. Artikulu honetan jasotako araudia ez da aplikatuko jarduera atzerrian egiten duten entitate filialei dagokienez, baldin eta helburu nagusia han finkatutako zerga araudiaz gozatzea bada. Zirkunstantzia hori gertatzen dela ulertuko da entitate filialak atzerrian egiten duen jarduera bera, merkatu berari dagokionez, aurretik Espainian beste entitate batek egin badu, jarduera hori amaitu eta harekin Merkataritza Kodeak 42. artikuluan aipatutako harremanetako izan ondoren, salbu beste arrazoi ekonomiko baliagarri bat dagoela frogatzen bada.

20. artikulua. Aldi baterako egozpena. Sarrera eta gastuak kontabilitatean inskribatzea.

1. Sarrera eta gastuak sortzen diren zergaldian egotziko dira, horiek ordezkatzen duten ondasun eta zerbitzuen korronte errealaren arabera, moneta edo finantza korrontea noiz sortu den kontuan hartu gabe, batzuen eta besteen artean behar bezalako lotura gordez.

2.[49] Sarrerak eta gastuak denboran zehar egozteko irizpideek eraginkortasun fiskala izango badute, Zerga Administrazioaren onarpena beharrezkoa da, arauz ezartzen den moduan, irizpide haiek aurreko apartatuan jasotakoak ez direnean eta subjektu pasiboak finantza egoeraren eta emaitzen ondarearen irudi leiala lortzeko Merkataritza Kodeak 34.4 eta 38.i) artikuluetan jasotakoaren arabera eta salbuespen moduan erabiltzen dituenean.

3.[50] Zerga ondorioetarako ez dira kenkaridunak izango galera eta irabazien kontuan edo erreserba kontu batean kontabilizatu ez diren gastuak, baldin eta lege edo erregelamendu bidez hala xedatzen bada, salbu askatasunez amortizatu daitezkeen ondare elementuei edo legez amortizazio azkartua onartzen zaien elementuei buruz jasotakoa.

Aurreko apartatuetan jasotakoari jarraikiz denboran zehar egotzi beharrekoa ez den zergaldi batean galera eta irabazien kontuan edo erreserba kontu batean kontabilizatutako sarrera eta gastuak apartatu haien arabera behar den zergaldian egotziko dira. Dena den, denboraren arabera egotzi beharreko zergaldiaren ondorengo batean kontu horietan kontabilitatean egotzitako gastuak edo aurreko zergaldi batean galera eta irabazien kontuan kontabilitatean

---

[48] 9 apartatu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 62.artikuluak aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

[49] 2. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Hamar artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[50] 3. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Hamar artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

egotzitako sarrerak direnean, batzuk eta besteak kontabilitate egozpena egin den zergaldian egotziko dira denboraren arabera, baldin eta horretatik ez bada eratortzen aurreko apartatuetan jasotako denboraren araberako egozpenaren arauak aplikatuz egin beharreko tributazioa baino txikiagorik.

4. Epekako edo prezio geroratuko eragiketak direnean, berriz, errentak proportzionalki lortutzat hartuko dira kobruak egiten diren neurrian, salbu entitateak sortzapen irizpidea erabiltzea erabaki badu.

Epekako edo prezio geroratuko eragiketatzat hartuko dira jarraiko ordainketetan edo ordainketa bakarrean erabat nahiz zati batean jasotzen den prezioa duten salmentak eta obra exekuzioak, baldin eta emanaldiaren egunaren eta azken epe edo epe bakarraren mugaegunaren artean iragan den denbora urtebetea baino luzeagoa bada.

Geroratutako zenbatekoak endosatu, deskontatu edo aurrez kobratzen direnean, une horretan lortutzat hartuko da egozteko dagoen errenta.

Apartatu honetan jasotakoa errenten sarrera eta gastuak nola kontabilizatu diren kontuan hartu gabe aplikatuko da.

5.[51] Prestazioak ordaintzen diren zergaldian egotziko dira Pentsio Fondo eta Planen Legearen tetsu bateratuak eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateen zerga erregimena erregulatzen duten foru arauek jasotako kontingentzien berdinak edo antzekoak estaltzeko hornikuntzengatik eta barne fondoengatik egiten diren gastuak. Arau bera aplikatuko zaie kenkaridunak izan ez diren pentsio planen kontingentzien antzekoak estaltzeko diren kontribuzioei.

Era berean, foru arau honek 13. artikuluaren 1. apartatuko f) letran aipatutako ondare tresnak emanez likidatutako langileria gastuak, tresna horiek ematen diren zergaldian izango dira kenkaridunak.

6.[52] Balioa zuzendu zaien ondare elementuen balioaren narriadura leheneratzekotan, leheneratu den zergaldian egotziko da, zuzenketa egin zuen entitatean izan edo horri lotutako beste batean izan.

Arau bera aplikatuko da eskualdatu ondorengo sei hilabeteen barruan berriz erosi diren aktibo ez-korrontearen ondare elementuak eskualdatzetik eratorritako galerak daudenean.

7. Erregelamendu bidez eta bakarrik oinarri ezargarria kalkulatzeko, aurreko 1 apartatuan jasotakoa iharduera, eragiketa edo sektore jakinei aplikatzeko arauak eman ahal izango dira.

---

[51] 5. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Hamar artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[52] 6. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Hamar artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

8.[53] Ekitaldiko sarreren kontu batean abonatu gabe hornidurak deuseztatzen direnean, beren xedeari lotu ez zaizkiolako, beren zenbatekoa zuzkidura egin duen entitatearen oinarri ezargarrian sartuko da, zuzkidura hori gastu kenkariduntzat hartu den neurrian.

9.[54] Entitatea onuraduna denean edo inbertsio arriskua bere gain hartu eta bizi aseguruen kontratuetan erreskate eskubidea onartu zaionean, polizari lotutako aktiboen likidazio balioek zergaldi bakoitzaren amaieran eta hasieran duten balioen arteko diferentzia sartuko du oinarri ezargarrian, nolanahi ere.

Apartatu honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko enpresek bere gain hartutako pentsio konpromisoak bideratzen dituzten aseguruei, Pentsio plan eta fondoei buruzko ekainaren 8ko 8/1987 Legearen lehen xedapen gehigarrian eta hori garatzeko araudian jasotakoaren arabera.

Errenta egotziek kontratuen kopuruak jasotzean sortutako etekina gutxituko dute.

21. artikulua. Subkapitalizazioa.

1. Entitate batek -finantza entitateak izan ezik- berari lotuta dagoen eta Espainian egoitza ez duen beste pertsona edo entitate bat(zu)ekin daukan zorpetze garbi ordaindua kapital fiskalari 3 koefizientea aplikatzetik ateratzen den emaitza baino handiagoa denean, soberakina dela-eta sortutako interesak dibidendutzat hartuko dira.

2. Aurreko apartatuan jasotakoa aplikatzeko, zorpetze garbi ordaindua nahiz kapital fiskala zergaldian zehar izan duten batez-besteko egoerara murriztuko dira.

Kapital fiskaltzat entitateaten fondoen zenbatekoa hartuko da, ekitaldiko emaitza sartu gabe.

3.[55] Subjektu pasiboek Zerga Administrazioari aurkeztu diezaiokete, foru arau honek 7. artikuluaren «3. apartatuan jasotakoaren arabera, aurreko 16. apartatuan xedatutakoaz besteko koefizientea aplikatzeko proposamen bat. Proposamenaren oinarria izango da subjektu pasiboak merkatuko baldintza normaletan pertsona edo entitate lotugabeengandik lortzen duen zorpetzea.

Apartatu honetan jasotakoa ez zaie aplikatuko paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldeetan egoiliar diren pertsona edo entitateek egindako eragiketei.

---

[53] Apartatu hau Zerga Neurriei buruzko apirilaren 27ko 3/1999 Foru Arauaren 3. artikuluak gehitu du. 1999ko maiatzaren 3an sartu zen indarrean.

[54] 9. apartatu hau uztailaren 5eko 4/2000 Foru Arauak, zenbait zerga neurri onartzen duenaren 3. artikuluko Hiru apartatuak gehitzen du. 2000ko uztailaren 13an sartzen da indarrean, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriorekin.

[55] 3. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 16.Lehena.Bost artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

4.[56] Artikulu honetan jasotakoa aplikatu gabe geratuko da lurralde espainiarrean egoitzarik ez duen entitate lotuak Europako Batasuneko beste estatu batean egoitza duenean, salbu eta egoitza hori erregelamenduz paradisu fiskaltzat kalifikatuta dagoen lurralde batean kokatzen denean.

22. artikulua. Aparteko mozkinen berrinbertsioa.[57]

1. [58] Lortu diren errentak oinarri ezargarrian integratu gabe geratu ahal izango dira, behin errenta horiek zuzenduta, hala dagokionean, foru arau honek 15. artikuluaren 9. apartatuan araututako balio-galera monetarioaren zenbatekoari dagokionez, baldin eta errenta horiek ustiapen ekonomikoei lotuta dauden ibilgetu material edo ukiezineko edo higiezinetako inbertsioetako ondare elementuen kostu bidezko eskualdaketan edo eskualdatu aurretik saltzeko mantendutako aktibo ez-korronte gisa sailkatutako elementu hauen eskualdaketan sortuak badira.

Foru arau honek 14. artikuluaren 3. apartatuan aipatutako ibilgailuak eskualdatzen badira, ez-integrazioa haren e) letran aipatutako ibilgailuei dagokienez bakarrik aplikatu ahal izango da. Era berean, aipatutako 14. artikuluaren 4. apartatuan aipatutako garraio elementuak eskualdatzen badira, ez-integrazioa haren hirugarren apartatuan aipatutako elementuei dagokienez aplikatu ahal izango da.

Era berean, oinarri ezargarrian integratu gabe geratu daiteke entitate mota guztien kapitaleko edo fondo propioetako partaidetzaren baloreak kostu bidez eskualdatzean lortutako errenten 100eko 60, baldin eta haien kapital sozialaren 100eko 5etik beherakoa ez den partaidetza ematen badute eta gutxienez urtebete lehenago eduki badira, betiere ondorengo paragrafoan jasotakoaren arabera egin den berrinbertsioa ustiapen ekonomikoei lotuta geratzen bada. Eskualdatutako partaidetza konputatzean, zergaldia hartuko da kontuan.

Errentak oinarri ezargarrian sartu gabe geratzeko, eskualdaketetan lortutako zenbateko osoa lehenago aipatutako ondare elementuetako edozeinetan berrinbertitu beharko da, ondare elementua eman edo eskura jarri aurreko urtebetearen eta ondorengo hiru urteen arteko epearen barruan.

Dena den, ez da berrinbertsioa gauzatutzat joko eskuraketa hori foru arau honetako 16. artikuluak jasotako zentzuan talde berekoak diren erakundeen, foru arau honetako VIII. tituluko X. kapituluan ezarritako araubide bereziari atxikien arteko eragiketa bidez egiten denean.

---

[56] 4.apartatu hau zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUAren I Kapituluko 2.artikuluko Hirugarrengo apartatuaren Hiru zenbakiak gehitu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO 2004-04-16) argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean eta egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak. Hala ere, aldaketa honek 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izango ditu ondorioak.

[57] Artikulu hau zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Zortzi Zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

[58] Apartatu hau 2013ko uztailaren 17ko 5/2013 Foru Arauaren 3. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Araua, zerga iruzurraren aurkako neurriei, kredituak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzkoa, argitaratu eta beharamunean jarri da indarrean (GAO 2013-07-22). 3. artikuluak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ditu ondorioak.

Ez da berrinbertsioa gauzatutzat joko, era berean, foru arau honetako 16. artikuluan jasotako zentzuan talde berekoa den beste erakunde bati erosten zaionean, ibilgetu material berriko elementuak direnean izan ezik.

Gainera, errenta agerian jarri baldin bada entitateei ondare elementu batzuen bidez egindako ez-diruzko ekarpen batez, berrinbertsioa ezin izango da gauzatu ekarpen horiek jasotzen dituzten entitateen kapitaleko edo fondo propioetako partaidetza adierazten duten baloreetan.

Berrinbertsioaren ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko eraistearen edo erretiratzearen ondorioz hartutako obligazioei da dagozkien kostuak, berrinbertsio hori gauzatzen den aktiboei atxikitakoak, alde batera utzita horiek baloratzeko aintzat hartzen diren edo ez.

Berrinbertsioa burutu dela ulertu behar da berrinbertsioa gauza-tzen den ondare elementuak eskura jartzen diren egunean.

2. Zerga Administrazioak berrinbertitzeko plan bereziak onartu ahal izango ditu horretara bultzatzen duten baldintza jakinak betetzen direnean.

Planak onartzeko jardunbidea finkatuko da arauz.

3. Berrinbertitzen diren ondare elementuek subjektu pasiboaren ondarean jarraitu beharko dute, salbu behar bezala frogatutako galerak daudenean bost urtetan edo, ondasun higikorrak izanez gero, hiru urtetan, inbertsioa gauzatzen denetik aurrera. Halere, ez da horrela jokatuko baldin eta elementu horien erabilgarritasun aldia, foru arau honek 11. artikuluaren 2, 3, 5 eta 6 apartatuan onartutako amortizazio metodoari jarraiki zehaztuta, txikiagoa bada. Elementu horiek aipatu epea amaitu aurretik eskualdatzeak berarekin ekarriko du aurretik sartu gabeko errenta-zatia oinarri ezargarrian sartzea, salbu lortutako zenbatekoa berrinbertitzen bada aurreko 1 apartatuan jasotakoaren arabera.

4.[59] Berrinbertsioa ez bada aipatu epearen barruan egiten, lortutako errentaren kuota osoaren zatia eta berandutza interesak epea amaitu den zergaldiko kuotarekin batera ordainduko dira.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa eragotzi gabe, interes ekonomikoko talde espainiar eta europarrei nahiz enpresen aldi baterako batasunei aplikagarri zaizkien erregimen berezietara bildutako entitateak direnean, lortutako errenta positiboen oinarri ezargarriaren zatia foru arau honek 55. artikuluan esandakoaren arabera egotziko zaie bazkideei, eta egozpena berrinbertsioa egiteko epea amaitzen den zergaldian egingo da.

5. Berrinbertitutako zenbatekoa eskualdaketan jasotako zenbateko guztia baino txikiagoa denean, bakarrik baimenduko da kopuruari dagokion zati proportzionalean zerga-errenta sartzea oinarrian.

[59] 4.apartatu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 63.artikuluak aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

6. Artikulu honetan jasotako erregimena bateraezina izango da beste edozein zerga onurarekin, eskualdaketaren zenbatekoa berrinbertitzen denako elementuei dagokienez, amortizazio azkartuari dagokionean izan ezik.

22 bis artikulua. Jabetza intelektual edo industrialetik datozen sarreren murrizketa.[60]

1. Entitatearen jabetza intelektuala edo industriala erabiltzeko edo ustiatzeko eskubidea hirugarrenei lagatzearen bidez egindako ustiaketari dagozkion sarreren %30 ez da oinarri ezargarrian sartuko, baldin eta lagapen hori aldi baterako egiten bada eta ondare elementuak besterentzea ez badakar.

Jabetza intelektual edo industriala entitateak berak garatu badu, orduan sarreren %60 ez da oinarri ezargarrian sartuko.

Literatur, arte edo zientzia lanak —zinemarako pelikulak barne—, laga daitezkeen eskubide pertsonalak —irudi eskubideak, kasu—, eta aplikazio komertziala besterik ez duten informatika programak erabiltzeko edo ustiatzeko eskubidea lagatzetik datozen sarrerek ez dute inola ere murrizketarako eskubiderik emango.

2. Aurreko paragrafoan ezartzen dena aplikatzeko honako baldintza hauek bete behar dira:

a) Lagapen-hartzaileak jarduera ekonomiko bat garatzeko erabili behar ditu erabiltzeko edo ustiatzeko eskubideak, eta eskubideok erabiltzearen emaitza ez dira izan behar entitate lagatzaileari zergetan kengarriak diren gastuak sortzen dizkioten ondasun salmentak edo zerbitzu prestazioak, betiere, azken kasu horretan, entitate lagatzailea lagapen-hartzaileari lotuta badago.

b) Lagapen-hartzailearen egoitzak ez du egon behar tributaziorik ez duen edo paradisu fiskaltzat jotzen den herrialde edo lurralde batean.

3. Murrizketa hori kontuan hartu beharrekoa izango da foru arau honetako 34.1.b) artikuluan aipatzen den kuota osoaren zenbatekoa kalkulatzerakoan.

4. Kontsolidazio fiskaleko araubidearen arabera tributatzen duten entitateak badira, lagapenaren ondorioz sortzen diren sarrerak eta gastuak ez dira alde batera utziko talde fiskalaren oinarri ezargarria zehazteko.

23. artikulua. Aurrezki kutxen onura eta gizarte ekintzak.

1. Zergan kenkaritzat hartuko dira aurrezki kutxek beren mozkinetatik onura eta gizarte ekintzetara zuzentzen dituzten zenbatekoak, haiek erregulatzen dituzten arauei jarraiki.

2. Aurrezki kutxen onura eta gizarte ekintzetara zuzendutako zenbatekoak, gutxienez, 100eko 50ean erabili beharko dira ekitaldi berean edo, bestela,

[60] Artikulu hau abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren 1. artikuluak aldatu du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eta 2007an hasi eta 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera bukatutako zergaldietan aplikatuko da. (2008-12-30ko GAO).

ondoko lehen ekitaldian, inbertsioak egiteko nahiz gizarte ekintza horretara bildutako instituzio edo establezimenduei haien gastuetan laguntzeko.

3. Ondorengo hauek ez dira oinarri ezargarrian sartuko:

a) Onura eta gizarte ekintzaren mantenimendu gastuak, nahiz eta horietara zuzendutako dirua baino handiagoak izan, etorkizunean ere ekintza horietara zuzentzea eragotzi gabe.

b) Onura eta gizarte ekintzari lotutako inbertsioak eskualdatzetik eratorritako errentak.

24. artikulua. Oinarri ezargarri negatiboak konpentsatzea.

1.[61] Oinarri ezargarri negatiboak ondoko eta jarraiko hamabost urteetan amaitzen diren zergaldietan lortutako errenta positiboekin konpentsatu ahal izango dira.

Foru arau honetako 49. artikuluan enpresa txikitzat jotzeko aurreikusitako baldintzak betetzen ez dituzten subjektu pasiboentzat, aurreko ekitaldietatik datozen likidazio edo autolikidazioen gai izan diren oinarri ezargarri negatiboetan 2012ko eta 2013ko ekitaldietan aplikatu beharreko konpentsatzioa gehienez ere konpentsazio hori egin aurreko oinarri ezargarri positiboaren %70ekoa izango da.

2. Konpentsatu nahi den oinarri ezargarri negatiboari bazkideek partaidetzaren truke edozein tituluz egindako ekarpenen balioaren eta erosketa balioaren arteko diferentzia positiboaren zenbatekoa murriztuko zaio, baldin eta baldintza hauek betetzen badira:

a) Elkarri lotuta dagoen pertsona edo entitate batek nahiz pertsona edo entitate multzo batek entitatearen kapital sozialaren edo emaitzetan parte hartzeko eskubideen zati handiena erosi duenean, oinarri ezargarri negatiboa izan den zergaldia amaitu ondoren.

b) Aurreko letran aipatutako pertsona edo entitateek 100eko 25eko partaidetza baino txikiagoa izatea oinarri ezargarri negatiboaren zergaldia amaitzean.

c) Entitateak inolako ustiapen ekonomikorik burutu ez izana kapital sozial gehiena ematen duen partaidetza erosi aurreko sei hilabeteetan.

3. Entitate sortu berriek oinarri ezargarri positiboa eman duen lehen zergalditik aurrera konputatu ahal izango dute aurreko apartatuan aipatutako konpentsazio epea.

4. [62] Sozietate emakidadunek autobide, tunel eta peajeko bide berriak ustiatzeagatik eratortzen diren oinarri ezargarri negatiboei ez zaie aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatuko.

---

[61] Apartatu hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAren 3. artikuluko hirugarren ordinalaren sei apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean. Aldaketak 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ditu ondorioak (2011/12/27ko GAO).

5. [63] Subjektu pasiboak, kasua balitz, kontabilitatea eta egoki diren dokumentuen euskarriak erakutsiz egiaztatu beharko du, bere asmotan jasotzekoak dituen oinarri ezargarri negatiboen jatorri eta zenbatekoak, edozein delarik ere oinarri haiek sortu ziren ekitaldia.

V. TITULUA: OINARRI LIKIDAGARRIA

25. artikulua. Oinarri likidagarriaren kontzeptua eta zehaztapena.

1. Oinarri ezargarriari titulu honetan jasotako murrizpenak egin ondoren ateratzen den emaitza izango da oinarri likidagarria.

Murrizpenik ez bada, oinarri likidagarria eta ezargarria berdinak izango dira.

2. Oinarri ezargarria murrizteak inola ere ez du oinarri likidagarri negatiborik ekarriko.

26. artikulua. (indargabetua)[64]

VI. TITULUA: ZERGALDIA ETA ZERGAREN SORTZAPENA

27. artikulua. Zergaldia.

1. Zergaldia eta entitatearen ekitaldia bat etorriko dira.

2. Nolanahi ere, kasu hauetan amaituko da zergaldia:

a) Entitatea desegiterakoan.

b) Entitateak Espainiako lurraldeko egoitza atzerrira eramaterakoan.

c)[65] Entitatearen eite juridikoa eraldatzen denean eta horren ondorioz ateratzen den entitatea zerga honi lotu gabe geratzen denean.

Zergaldi horri dagokion oinarri ezargarria zehazteko, entitatea foru arau honetako 15.3 artikuluan xedatutako ondorioetarako desegin dela ulertuko da.

---

[62] Apartatu hau uztailaren 8ko 4/1997 Foru Arauaren 4. artikuluak gehitu du. Sozietaeen gaineko Zerga eta Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen dituzten foru arauen hainbat artikulu aldatzen dira aipatu foru arauan. 1997ko uztailaren 15ean sartu zen indarrean.

[63] 5. apartatu hau Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauaren 9. xedapen gehigarriak gehitu du 1999ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

[64] Artikulu hau martxoaren 13ko 3/2000 Foru Araua Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Kupoaren Batzorde Mistoak 2000ko urtarrilaren 18an hartutako erabakietara egokitzen duenaren 1. artikuluko Bat apartatuak indargabetzen du, 2000ko martxoaren 18tik aurerako ondoriorekin.

[65] c) letra hau uztailaren 5eko 4/2000 Foru Arauak, zenbait zerga neurri onartzen duenaren 3. artikuluko Lau apartatuak aldatzen du. 2000ko uztailaren 13an sartzen da indarrean, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriorekin.

d)[66] Entitatearen eite juridikoa eraldatzen denean eta horren ondorioz karga tasa aldatu edo zerga erregimen berezi bat aplikatzen denean.

Eraldaketaren momentuan dauden ondare elementuen eskualdaketatik lortutako errenta, eraldaketaren ondoren eskualdatzen denean, modu linealean egin dela ulertuko da, salbu kontrako froga aurkezten bada, elementu eskualdatuaren edukitzaldi osoan. Karga tasa orokorra eta jatorrizko eite juridikoa gorde izanez gero entitateari zegokion zerga erregimena aplikatuz kargatuko da eraldaketaren momentura arte sortutako errentaren zatia.

[67]Aurreko paragrafoan jasotakoa aplikaziozkoa da entitatearen forma juridikoa eraldatu gabe horrek elementu eskualdatua eduki duen denboran zerga honez bestelako erregimenak aplikatu baditu ere.

3. Zergaldia ez da hamabi hilabetekoa baino luzeagoa izango.

28. artikulua. Zerga sortzea.

Zergaldiaren azken egunean sortuko da Zerga.

VII. TITULUA: ZERGA ZORRA

I. kapitulua: Karga tasa, kuota osoa, kuota likidoa eta kuota efektiboa

29. artikulua. Karga tasa.

1.[68] Karga tasa orokorra izango da:

a) Oro har, %28.

b) Foru arau honek 49. artikuluan jasotako enpresa txikiek %24 aplikatuko dute, oro har.

2. Hona %21 ordainduko dutenak:[69]

---

[66] d) letra hau uztailaren 5eko 4/2000 Foru Arauak, zenbait zerga neurri onartzen duenaren 3. artikuluko Lau apartatuak aldatzen du. 2000ko uztailaren 13an sartzen da indarrean, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriorekin. Foru Arau honen Amaierako xedapenean bitartez, d) letra honen edukia Foru arau hau indarrean jartzen denetik aurrera egiten diren eragiketei eta eragiketa horietatik eratorritako errentei aplikatuko zaie.

[67] Azken paragrafo hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 16.Lehena.Sei artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[68] Apartatu hau Abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren 2. artikuluko lehen apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eta 2007an hasi eta 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera bukatutako zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

a) Aseguru mutua orokorrak, prebisio sozialeko entitateak eta Gizarte Segurantzako lan istripu eta lanbide gaixotasunen mutuak, baldin eta beren araudiak jarritako beharkizunak betetzen badituzte.

b) Elkarrekiko Bermerako Sozietateen Zuzenbide Arauei buruzko martxoaren 11ko 1/1994 Legeak araututako elkarrekiko bermerako sozietateak eta birfidantzamendu sozietateak, Espainiako Bankuaren erregistro berezian inskribatua badaude.

c) (ezabatua) [70]

d) Elkargo profesionalak, enpresarien eta profesionarien elkarteak, ganbara ofizialak, arrantzaleen kofradiak, langileen sindikatuak eta alderdi politikoak.

e)[71] Irabazi asmorik gabeko entitateak, baldin eta ez badagokie irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren.

f) Birmoldaketa eta Berrindustrializazioari buruzko uztailaren 26ko 27/1984 Legeak 22. artikuluaren arabera eratutako enplegua sustatzeko fondoak.

g) Kooperatiben elkarteak, federazioak eta konfederazioak.

h) Balore eta burtsa sozietate eta agentziak, baldin eta Bilboko Balore Burtsako legezko kideak izateko baldintza betetzen badute, Balore Merkatuaren uztailaren 28ko 24/1988 Legeak jasotakoaren arabera.

i)[72] Baloreak Bilboko Balore Burtsan negoziatzeko lehen aldiz onartzen zaizkien sozietateak.

Baloreak negoziaziora onartu ondoren ixten diren lehen hiru zergaldi jarraituetan aplikatuko da %21eko karga tasa, betiere zergaldi horietako bakoitzeko zergaren sortzapen egunean balore horiek ez badira Bilboko Balore Burtsako kotizaziotik kanpo geratu.

Letra honetan xedatutakoa aplikatzeko, aipatu karga-tasa aplikagarria den lehen ekitaldian zerga hau sortzerakoan, negoziaziora onartutako baloreen balio nominalak haien kapital sozial osoa izan behar du.

---

[69] Apartatu honen lehen paragrafoa abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren 2. artikuluko bigarren apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eta 2007an hasi eta 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera bukatutako zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

[70] c) apartatu hau Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzko maiatzaren 22ko 2/1997 Foru Arauaren amaierako bigarren xedapenak ezabatu du. 1997ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan ditu ondorioak.

[71] e) letra hau irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 FORU ARAUAren bigarren xedapen gehigarriaren 1 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau GAOan (GAO 2004-04-19) argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izango ditu ondorioak. Hala ere, aipatu aldaketak 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietan izango ditu ondorioak

[72] Apartatu honen i) letra hau abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren 2. artikuluko hirugarren apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eta 2007an hasi eta 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera bukatutako zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

3. Hona hemen 100eko 20 ordainduko dutenak:

a) (ezabatua) [73]

b) Balore Burtsako sozietate zuzendariak, Balore Merkatuaren uztailaren 28ko 24/1988 Legeak hala izendatuak.

4.[74] 100eko 10eko zerga ordainduko dute, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko foru arauan ezarritako zerga erregimena dagokien entitateek.

5.[75] Hona hemen 100eko 1 ordainduko dutenak:

a)[76] (Indargabetua).

a) Inbertsio fondo finantzarioak, Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legean araututakoak, baldin eta exijitutako partaide kopurua gutxienez lege horren 5.4 artikuluan aurreikusitakoa bada.

c)[77] Ondasun higiezinetan inberti-tzen duten sozietateak eta fondoak, denak ere Inber-tsio Kolektiboko Erakundeei buruzko 35/2003 Legean, abenduaren 4koan, arautuak eta hurrengo d) letran aurreikusitakoez bestelakoak, baldin eta eska-tzen den akziodun edo partaide kopurua, -gutxienez, aipatu Legearen 5.4 eta 9.4 artikuluetan aurreikusia bada eta, inber-tsio kolektiboko erakunde ez-finan-tza-rioak izanik, beren xede sozial bakarra edozein motatako ondasun higiezin hiritarretan inberti-tzea bada, horiek gero errentan emateko.

Apartatu honetan aurreikusitako karga tasak aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da aurreko paragrafoan aipatutako inber-tsio kolektiboko erakundeen aktiboa osa-tzen duten ondasun higiezinak ez besteren-tzea, eskuraketatik -gutxienez hiru urte igaro arte, non eta, aparteko kasu gisa, Balore Merkatuko -Batzorde Nazionalak horretarako baimena ematen ez duen berariaz.

---

[73] a) apartatu hau Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzko maiatzaren 22ko 2/1997 Foru Arauaren amaierako bigarren xedapenak ezabatu du. 1997ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan ditu ondorioak.

[74] 4 apartatu hau irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 FORU ARAUAren bigarren xedapen gehigarriaren 2 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau GAOan (GAO 2004-04-19) argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izango ditu ondorioak. Hala ere, aipatu aldaketak 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietan izango ditu ondorioak

[75] 5. apartatu hau, abenduaren 1eko 8/2006 FORU ARAUAk, zerga alorreko zenbait neurri onartzen dituenak, aldatzen du bere 2. artikuluko bigarren apartatuko bi zenbakian. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu (GAO 2006-12-12) ondorengo egunean sartzen da indarrean. Hala ere, aldaketa honek 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izango ditu ondorioak.

[76] Letra hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAren 3. artikuluko bigarrena ordinalak indargabetu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaket jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an jarri da indarrean, nahiz eta 2010ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko den. (2009-12-28ko GAO).

[77] Letra hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUAren 2. artikuluaren ordinal bosgarrenaren hiru apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean. Aldaketak 2011-1-1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ditu ondorioak. (2010-12-28ko GAO)

Higiezin horiek c) letra honek aipa-tzen duen -gutxieneko epea igaro aurretik eskualdatuz gero, eskualdaketa horretatik ondoriozta-tzen den errentak zergako karga tasa orokorraren arabera tributatuko du. Gainera erakundeak, ondasuna eskualdatu zen epeari dagokion zergaldiko kuotarekin batera, ordaindu egin beharko du c) letra honetan aurreikusitako erregimena aplikagarria izandako aurreko zergaldi guztietako bakoi-tzean higiezinari zegozkion errentei epe bakoi-tzean indarrean zegoen karga tasa orokorra eta ehuneko 1eko tasa aplika-tze-aren artean sor-tzen den aldea; honetaz gain, dagozkion berandu-tza interesak, errekarguak eta zigorrak ere ordaindu beharko ditu, inolaz ere.

c) letra honetan ezarria aplika-tzeko, ezinbestekoa da erakundearen estatutuek dibidenduak ez bana-tzea izatea aurreikusita.

d) Inbertsio inmobiliarioko sozietateak eta inbertsio inmobiliarioko fondoak, azaroaren 4ko 35/2003 Legean araututakoak, baldin eta c) letran aurreikusitako beharkizunak biltzeaz gainera, errentamendura zuzenduko diren etxebizitzen sustapenean bakarrik aritzen badira eta ondorengo baldintzak betetzen badituzte:

1. Higiezinen sustapenarekin lotuta ondasun higiezinetan egiten diren inbertsioek ezingo dute gainditu inbertsio inmobiliarioko sozietate edo fondoaren aktibo osoaren %20.

2. Ondasun higiezinen sustapen eta errentamendu jarduerak bereizita kontabilizatuko dira eskuratutako edo sustatutako higiezin bakoitzerako, eta behar diren xehetasunak emango dira etxebizitza, lokal edo finka erregistral independente bakoitzari dagokion errenta ezagutzeko. c) letran aurreikusitako portzentajearen ondorioetarako, zilegi izango da aktibo osoan egindako inbertsioak konputatzea.

3. Inbertsio inmobiliarioko sozietate edo fondoak gutxienez hamar urtez eduki beharko ditu errentan emanda edo errentan eskainiak sustapen jardueratik eratorritako ondasun higiezinak. Eraikuntza amaitu den egunetik aurrera konputatuko da epe hori. Ondasun higiezinaren eraikuntza amaitu dela frogatzeko, azaroaren 5eko 38/1999 Legeak, Eraikuntzaren Antolaketari buruzkoak, 6. artikuluan aipatzen duen obra amaierako ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Ondasun higiezin horiek eskualdatzen badira d) letra honetan edo aurreko c) letran aipatutako gutxieneko epea igaro baino lehen, eskualdaketa horretan lortutako errentari zergaren karga tasa orokorra aplikatuko zaio. Gainera, entitatea behartuta egongo da ondasuna eskualdatu den zergaldiko kuotarekin batera beste kopuru bat ere ordaintzera. Kopuru hori kalkulatzeko eragiketa hau egingo da: lehendabizi, zergaldi bakoitzean indarrean zegoen karga tasa orokorraren eta %1eko karga tasaren arteko diferentzia kalkulatu behar da eta, gero, horren emaitza d) letra honetako erregimena aplikagarria zen zergaldietako bakoitzean ondasunari dagozkion errentei aplikatu; hortik ateratzen diren zenbatekoak ordaindu beharko ditu entitateak, gehi, hala bada, berandutza interesak, errekarguak eta bidezkoak diren zigorrak.

Errentamendura bideratutako etxebizitzak sustatzeko jardueran aritzen diren inbertsio inmobiliarioko sozietate edo fondoek zirkunstantzia horren berri eman beharko diote zerga Administrazioari jarduera hori hasten duten zergaldian.

e) Hipoteken merkatua arautzen duen fondoa, hipoteken merkatuari buruzko martxoaren 25eko 2/1981 Legeak 25. artikuluan finkatua.

6.[78] %35 ordaindu beharko dute hidrokarburoen sorguneak eta lurrazpiko biltokiak miatu, ikertu eta ustiatzen dituzten entitateek, Hidrokarburoen Sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legeak jasotakoaren arabera.

Karga tasa orokorrari lotuta geratuko dira lurpetik ateratako hidrokarburoak birfintzea nahiz miatze, ikertze, ustiatze, garraiatze, biltze, garbitze eta saltzeaz edo hirugarrenen jabetzako hidrokarburoak lurrazpian biltzeaz bestelako edozein jarduerak.

Hirugarrenen jabetzako hidrokarburoak biltegiratu besterik egiten ez duten entitateei ez zaie aplikatuko foru arau honen VIII. tituluko XII. kapituluan jasotako erregimen berezia, eta %28ko tasan ordainduko dute zerga.

7. 100eko 0an tributatuko dute Pentsio Plan eta Fondoen ekainaren 8ko 8/1987 Legeak araututako pentsio fondoek, bai eta beren zerga araudiaren foru arau erregulatzaileek jasotako baldintza eta beharkizunak betetzen dituzten borondatezko prebisio sozialeko entitateek ere.

30. artikulua. Kuota osoa.

Oinarri likidagarriari karga-tasa aplikatuz ateratzen den kopuruari esango zaio kuota osoa.

31. artikulua. Kuota likidoa.

1. Kuota osoari ezarpen bikoitzeko kenkarien zenbatekoa eta hobarien zenbatekoa gutxituz ateratzen den kopuruari esango zaio kuota likidoa.

2. Kuota likidoak ezingo du negatiboa izan inola ere.

32. artikulua. Kuota efektiboa.

1. Kuota likidoari titulu honetako IV., V. eta VI. kapituluetan jasotako kenkarien zenbatekoa gutxituz ateratzen den kopuruari esango zaio.

2. Kuota efektiboak ezingo du negatiboa izan, inola ere.

II. Kapitulua: Ezarpen bikoitza saihesteko kenkariak

33. artikulua. Barruko ezarpen bikoitza saihesteko kenkaria: atzerrian sortu ez diren dibidenduak eta gainbalioak.[79]

[78] Apartatu hau Abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren 2. artikuluko laugarren apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eta 2007an hasi eta 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera bukatutako zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

[79] Artikulu hau uztailaren 8ko 4/1997 Foru Arauaren 5. artikuluak aldatu du. Sozietaeen gaineko Zerga eta Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen dituzten foru arauen hainbat artikulu aldatzen dira aipatu foru arauan. 1997ko uztailaren 15ean sartu zen indarrean.

1. Sujetu pasiboaren errenten artean Espainian egoitza duten beste entitate batzuen dibidenduak edo mozkin partaidetzak konputatzen direnean, dibidendu edo mozkin partaidetza horietatik eratorritako oinarri ezargarriaren kuota osoaren % 50 kenduko da.

Dibidendu edo mozkin partaidetzetatik eratortzen den oinarri ezargarria horien zenbateko osoak eratuko du.

2.[80] Aurreko apartatuak aipatzen duen kenkaria %100ekoa izango da dibidendu edo mozkinetako partaidetzen jatorria partaidetza portzentajea, zuzenekoa edo zeharkakoa, %5ekoa edo handiagoa duten entitateak direnean, baldin eta portzentaje hori etengabe mantendu bada banatzen den mozkina exijigarria den egunaren aurreko urte osoan edo, horrela izan ezean, urtebete osatu ahal izateko beharrezko denbora osoan mantentzen bada. Kenkaria %100ekoa izango da, halaber, aseguru orokorren mutua, gizarte aurreikuspeneko entitate, elkarrekiko bermerako sozietate eta elkarteetatik heldutako irabazietako partaidetzaren kasuan ere.

Kenkari hau aplikatu ahal izango da, era berean, lehenago partaidetza portzentaje hori izan den baina, eskualdaketarik zertu gabe, portzentajea gehienez %3raino jaitsi bada entitate partaidetuak foru arau honetako VII. tituluaren VIII. kapituluan ezarritako zerga araubide bereziari lotutako eragiketa bat edo baloreak eskuratzeko eskaintza publikoen barruko eragiketa bat egin izanaren ondorioz. Aurreko guztia aplikatu ahal izango zaie eragiketa egiten denetik hiru urteko epearen barruan banatzen diren dibidenduei, banaketari dagokion ekitaldian partaidetza oso-osorik eskualdatzen ez bada edo partaidetza hau gutxieneko %3ko portzentaje horren azpitik geratzen bada.

3.[81] Kenkaria sozietateen likidazio kasuetan ere ezargarria izango da, hala nola, bazkideak elkarrengandik banatzean, norbere akzio edo partizipazioak eskuratzean beren amortizaziorako eta bateratze operazioetan likidaziorik gabe egiten diren deuseztapenetan, erabateko banantzeetan edo aktiboa eta pasiboaren emakida orokorretan, aipatu operazioetatik eratorritako errenta konputatuei dagokienean, banatu ez diren etekinen zatiari buruz, eta baita ere atal honetan aipatzen diren operazioak egin dituen sozietateak oinarri ezargarrian sartu behar dituen kapitalari eta errentari gehituak izan direnak, betiere Foru Arau honen 15. artikuluko 3 apartatuan ezarritakoarekin bat.

4.[82] Aurreko apartatuetan aurreikusi den kenkaria ez zaie ezarriko ondoko errenta hauei:

---

[80] Apartatu hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAren 3. artikuluko lehen ordinalaren bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Aldaketak 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ditu ondorioak (2011/12/27ko GAO)

[81] 3. apartatu hau Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauaren 9. xedapen gehigarriak aldatu du 1999ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

[82] 4. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Hamabi artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

a) Kapitalaren murrizpenetik edo akzio edo partaidetzen jaulkipen primen banaketatik sortutakoak, salbu eragiketa horiek berekin batera ekarpenen itzulketa badaramate.

Itzulketa horiek gertatzen direnean, banatu ez diren baina eragiketan bazkideei eskura diezazkieketen onuren gainean egingo dute kenkaria onuradunek.

b) Aurreko apartatuetan aurreikusitakoak, beren banaketa baino lehen, erreserbak egiteko edo galerak konpentsatzeko kapital murrizketa bat gertatu bada, edo, jaulkipen prima erreserbara aldatu bada, edo ondarea birjartzeko bazkideek ekarpen bat egin badute, murrizpenaren, aldaketaren edo ekarpenaren zenbatekoraino.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko banatutako errentei dagokienean, horiek oinarri ezargarrian sartu badira beraiei dagokienez oinarri ezargarri negatiboen konpentsaziorik egin gabe, salbu ez-konpentsazioa foru arau honen 24. artikuluaren 2. apartatuan aurreikusitakotik eratorri denean.

c) Merkatu hipotekarioa arautzen duen izaera publikoko fondoaren bidez banatutakoak.

d) Dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak, horiek ordaindu aurreko bi hilabeteen barruan eskuratutako akzioei edo partaidetzei dagozkienak badira, aipatu dataren ostean, epe berdinaren barruan, balore homogeneoak eskualdatzen direnean.

e) Dibidenduaren edo mozkinetako partaidetzaren banaketak zehazten ez duenean errenta oinarri ezargarrian sartu behar denik edo aipatu banaketak partaidetzaren balio-galera bat sortu duenean, zerga ondorioetarako. Azken kasu horretan, partaidetzaren balio-galeraren lehengoratzea ez da sartuko oinarri ezargarrian.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da ezarriko honako kasuetan:

a') Subjektu pasiboak frogatzen duenean partaidetzaren balioan gertatu den galeraren pareko zenbateko bat Sozietateen gaineko Zergaren oinarri ezargarrian sartu dela, foru arau honetako 29. artikuluaren 1., 2. eta 6. apartatuetan aurreikusitako karga tasetako batean zergapetuta, partaidetzaren jabe diren ondoz ondoko entitateek hura eskualdatzean lortutako errentaren kontzeptuan, eta aipatu errentak ez duela kenkarirako eskubiderik izan plusbalioen barne ezarpen bikoitzagatik.

a') letra honetan jasotako kasuan, baldin eta partaidetzaren jabe ziren aurreko entitateek oinarrian sartu gabe utzi badute aparteko mozkinen berrinbertsioa aplikatuz partaidetza eskualdatzean lortutako errenten %60, kenkaria aplikatuko zaio dibidenduaren edo mozkinetako partaidetzaren zenbatekoaren %40ri.

Kenkaria zati batean egingo da, letra honetan jasotako froga izaera partzialekoa denean.

b') Subjektu pasiboak frogatzen duenean partaidetzaren balioaren galeraren pareko zenbateko bat Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarri ezargarrian sartu dela, partaidetzaren ondoz ondoko pertsona fisiko jabeek haren eskualdaketaren ondorioz lortutako errentaren kontzeptuan. Kenkaria zati batean egingo da, letra honetan jasotako froga izaera partzialekoa denean.

b') letra honetan aurreikusitako kasuan, kenkariak ezin izango du gainditu dibidenduari edo mozkinetako partaidetzari Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan oinarri ezargarriaren zati berezian edo, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako eskualdaketak izanez gero, aurrezpenaren oinarri ezargarrian integratutako ondare irabaziei dagokien karga tasa.

f) Kanarietako Zona Bereziko entitateei dagozkien dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak, baldin eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko martxoaren 5eko 4/2004 Errege Dekretu Legegileak 28. artikuluaren 8. apartatuan jasotako tasetan zergapetu badira. Ondorio horietarako, jasotako errentak lehendabizi mozkin horietatik datozela ulertuko da.

5.[83] Baldin eta subjektu pasiboaren errenten artean konputatzen badira lurralde espainiarrean egoiliarrak diren eta karga tasa orokorraren arabera nahiz %35ko tasaren arabera tributatzen duten entitateen kapitalaren edo fondo propioen balore adierazgarriak eskualdatzetik eratorritako errentak, kuota osotik honako zenbateko hau kendu beharko da, alegia, subjektu pasiboaren partaidetzari egotzitako mozkin banatugabeen gehikuntza garbiari (barne sartuta kapital sozialean sartu diren mozkinak) dena delako karga tasa aplikatuta ateratzen den emaitza, konputatutako errenten mugapean. Mozkin horiek behar dira entitate partizipatuak sortuak izan eskualdatutako partaidetza bere eskutan izan duen denboran. Dena den, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Partaidetzaren portzentajea, zuzenekoa izan edo zeharkakoa izan, % 5 edo hori baino handiagoa izatea eskualdaketa egin aurretik.

b) Portzentaje hori etenik gabe eduki izana bere eskutan partaidetza eskualdatu den egunaren aurreko urtean.

Baldin eta partaidetza eskuratu den egunaren ondorioz ezin bada kalkulatu partaidetzaren eskurapen egunean banatu gabe zeuden mozkinen zenbatekoa, eskurapen balioa ondare garbiarekin bat datorrela ulertuko da.

Kenkari honen aplikazioa bateraezina izango da foru arau honek mota horretako errentei dagokienez 22. artikuluan jasotako aparteko mozkinen berrinbertsioarekin, apartatu honetan jasotako kenkaria egin zaion errentari dagokion zatian.

Apartatu honetan esandakoa foru arau honek 29. artikuluaren 2. apartatuko b) letran aipatzen dituen entitateen kapitalaren balore adierazgarrien eskualdaketei ere aplikatuko zaie. Ondorio horietarako, 2. apartatuan zehazten den karga tasa aplikatuko da.

Apartatu honetan jasotako kenkaria ezingo zaio aplikatu banatu gabeko mozkinen gehikuntza garbiaren zatiari, baldin eta zati hori oinarri ezargarri negatiboen konpentsazioa dela-eta entitate partizipatuaren oinarri ezargarrian sartu ez diren errenten zatia bada.

[83] Apartatu hau Abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren 32. artikuluak aldatu du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eta 2007an hasi eta 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera bukatutako zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

6. Kuota osoa nahikoa ez izateagatik kendu ez diren zenbatekoak, hurrengo hamabost urte jarraituetan amaitzen diren zergaldietako kuota osoetatik kendu ahal izango dira.

7.[84] Kooperatiba babestuen eta bereziki babestuen itzulkinak bi aldiz zergapetzea saihesteko kenkaria Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzko Foru Arauaren 25. artikuluan xedatutakoari jarraiki egingo da.

34. artikulua. Nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko kenkaria: sujetu pasiboak jasandako zerga.

1. Sujetu pasiboaren oinarri ezargarrian atzerrian lortu eta kargatutako errentak sartzen direnean, kuota osotik ondoko bi kopuru hauetako txikiena kenduko da:

a) Zerga honen izaeraren antzeko karga dela-eta atzerrian ordaindutako benetako zenbatekoa.

Ez dira kenkaritzat hartuko salbuespen, hobari edo beste edozein zerga onura dela-eta ordaindu ez diren zergak.

Ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmen bat aplikagarria bada ere, kenkaria ez da hitzarmena dela-eta aplikatu beharreko zerga baino handiagoa izango.

b) Gipuzkoako zerga araudira bildutako entitateek errenta horiek Espainian lortu bazituzten horiengatik ordaindu beharko zuten kuota osoaren zenbatekoa.

2. Atzerrian ordaindutako zergaren zenbatekoa errentan sartuko da aurreko apartatuko ondorioetarako eta, halaber, oinarri ezargarriari gehituko zaio, erabat kenkarria ez bada ere.

3. Sujetu pasiboak zergaldian zehar atzerrian errenta bat baino gehiago lortu duenean, kenkaria herri berean eskuratutakoak batuz egingo da, salbu establezimendu iraunkorrekoak, azken hauetako bakoitzerako aparte konputatuko baitira.

4. Kuota osoa nahikoa ez izateagatik kendu ez diren kopuruak ondoko eta jarraiko hamabost urteetan amaitzen diren zergaldietan kendu ahal izango dira.

34 bis[85]. Kenkaria nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko: dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak.

1. Oinarri ezargarrian lurralde espainiarrean egoitza ez duen entitate batek ordaindutako dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak konputatzen direnean, horrek benetan ordaindutako zergaren kenkaria egingo da dibidenduak ordaintzeko erabilitako mozkinei dagokienez, dibidendu horiei dagokien

[84] Apartatu hau abenduaren 27ko 13/2012 FORU ARAUAren 3. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean. Aldaketak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ditu ondorioak (2012/12/28ko GAO).

[85] Artikulu berri hau martxoaren 13ko 3/2000 Foru Araua Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Kupoaren Batzorde Mistoak 2000ko urtarrilaren 18an hartutako erabakietara egokitzen duenaren 1. artikuluko Hiru apartatuak sartzen du, 2000ko martxoaren 18tik aurerako ondoriorekin.

zenbatekoan, baldin eta zenbateko hori subjektu pasiboaren oinarri ezargarrian sartzen bada.

Kenkari hori izateko, beharrezkoa izango da entitate ez egoiliarraren kapitalean edukitako zuzeneko edo zeharkako partaidetza gutxienez 100eko 5ekoa izatea eta, era berean, mozkina exigigarria den egunaren aurreko urtean etenik gabe edukitzea edo, horren ezean, urtebetea osatu arte behar den denboran edukitzea.

Erreserbak banatzekotan, akordio sozialean jasotako izendapenari egingo zaio kasu, erreserba horietara zuzendutako azken kopuruak aplikatutzat hartuz.

2.[86] Benetan ordaindutako zergatzat hartuko da dibidendua banatzen duen sozietateak partizipatutako entitateek eta aldi berean azken hauek zuzenean partizipatzen dituzten entitateek, eta horrela hurrenez hurren, ordaindutako zerga, dibidenduak ordaintzeko erabili diren mozkinei egotzitako zatian, baldin eta partaidetza horiek %5 baino txikiagoak ez badira eta aurreko apartatuan aipatutako beharkizuna betetzen badute partaidetzaren edukitza aldiari dagokionez.

3. Kenkari hori, aurreko artikuluan dibidenduei edo mozkinetako partaidetzei dagokienez ezarritako kenkariarekin batera, ez da handiagoa izango errenta horiengatik ordaindu beharko zen kuota osoa baino, baldin eta Gipuzkoako araudira bildutako entitate batek lortu bazituen.

Muga horren gaineko soberakina ez da gastu kenkariduna izango zergen ikuspegitik.

4. Kuota osoa nahikoa ez izateagatik kenkaria izan ez duten kopuruak ondorengo eta jarraiko hamabost urteetan amaitzen diren zergaldietan kenkaridunak izan daitezke.

5.[87] Mozkinak banatzetik eratorritako partaidetzaren balio-galera ez da sartuko dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak jasotzen dituen subjektu pasiboaren oinarri ezargarrian, balio-galera hori agerian jartzen den modua eta zergaldia edozein direla ere, salbu mozkin horien zenbatekoa Espainian zergapetu bada partaidetza lehendik eskualdatu delako. Azken kasu horretan, entitateak Espainian partaidetza eskualdatuz zergapetu diren mozkinen zenbatekoaren pareko gastua konputatu dezake, eragiketa kontabilizatzeko moduagatik oinarri ezargarrian batere errentarik integratzen ez denean eta partaidetza horren balioa gutxitu behar duenean.

III. Kapitulua: Hobariak

[86] 2. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 16.Lehena.Zazpi artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[87] 5. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Hamahiru artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

35. artikulua.[88] (indargabetua)

36. artikulua. Hobariak esportazioko eta zerbitzugintza publiko lokaleko iharduerengatik.

1.[89] (indargabetua)

2.[90]Toki Erregimenaren Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 artikuluan edo 36. artikuluaren 1 apartatuko a), b) eta c) letretan (lurralde, udal edo probintziako entitate lokalen eskumenei buruzkoetan) jasota dauden zerbitzuetako edozein egiteagatik sortutako errentei kuota osoan dagokien zatiak %99ko hobaria izango du, salbu eta ustiapena enpresa mistoen bidez edo kapital erabat pribatua duten enpresen bidez egiten denean.

Aurreko paragrafoan aipatutako zerbitzuak Estatuaren edo autonomia erkidegoen guztiz menpekoak diren entitateek egiten dituztenean ere aplikatuko da hobaria.

3. Toki Erregimenaren Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 86.3. artikuluak entitate lokalen aldeko erreserba ezartzen dien eta funtsezko iharduerak betetzetik edo funtzezko zerbitzuak eskaintzetik eratorritako errentei dagokien kuota osoaren zatiak 100eko 99ko hobaria izango du, baldin eta Foru Arau hau indarrean sartzean kapital guztia udal batena duten udal sozietate publikoek eskaintzen badituzte.

4.[91] Inola ere ez zaio hobaria aplikatuko aurreko apartatuetan aipatutakoez besteko jarduera edo zerbitzuetatik eratorritako errentei dagokien kuota osoaren zatiari, eta, bereziki, ondorengoei dagokien kuotaren zatiari:

a) Finantza sarrerei eta ondare elementuen lagapenetik eratorritako sarrerei dagokienari.

b) Aktibo material, aktibo ukiezinaren edo inbertsio inmobiliarioen ondare elementuen kostu bidezko eskualdaketatik lortutako errentei dagokienari, ez eta

---

[88] Artikulu hau abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren xedapen indargabetzaile bakarrak indargabetu du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eta 2007an hasi eta 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera bukatutako zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

[89] Apartatu hau abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren xedapen indargabetzaile bakarrak indargabetu du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eta 2007an hasi eta 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera bukatutako zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

[90] 2 apartatu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 64.artikuluak aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

[91] 4. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Hamalau artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

kostu gabeko erosketa edo eskualdaketetatik eratorritakoei dagokionari ere, foru arau honetako 15. artikuluan aurreikusitako moduan.

IV. kapitulua. Aktibo ez-korronte berrietan inbertsioak pizteko kenkariak.[92]

37. artikulua. Kenkaria aktibo ez-korronte berrietan inbertitzeagatik.[93]

1. Entitatearen ustiapen ekonomikoari lotutako aktibo ez-korronte berrietan (terrenoak halakotzat hartu gabe) inbertsioak egiten direnean, kuota likidoari inbertsio horien zenbatekoaren %10 kendu ahal izango zaio, betiere aktibo horiek ibilgetu materialaren edo higiezinetan egindako inbertsioen parte badira.

Aktibo ez-korronte bat berria ez dela ulertuko da aldez aurretik beste pertsona edo entitate batek erabili duenean, hau da, bere ibilgetuaren barruan sartuta egon denean edo, Kontabilitate Plan Orokorrari jarraituta, hor sartuta egon behar zuenean, nahiz eta funtzionamenduan hasi ez.

2. Hurrengo 3. apartatuko b) letran xedatutakoa eragotzi gabe, aktibo ez-korrontearen elementuetan zergapekoek egiten dituzten gastu eta inbertsioek ez dute artikulu honetan araututako kenkarirako eskubiderik emango kontabilitatean hobekuntzatzat hartzen badira.

Errentamendu finantzarioko erregimenean egindako inbertsioak aurreko apartatuko kenkarira bildu daitezke, betiere artikulu honetan ezarrita dauden baldintzak betetzen badira.

3. Ondoko hauei ere aplikatuko zaie aurreko 1. apartatuan xedatutakoa:

a) Informatikako aplikazioetan ekitaldiaren barruan egindako inbertsioei.

b) Helburu hauekin inbertitutako kopuruei: eskualdatuak izateko birgaitutako industria pabiloiak erostea, birgaituak izateko industria pabiloiak erostea, edo enpresaren aktiboan dagoeneko sartuta dauden industria pabiloiak birgaitzea.

Ondorio horietarako, industria pabiloitzat joko dira udalek industrial moduan kalifikatutako zonetan kokatutakoak, pabiloi horietan egiten den jarduera edozein dela ere. Eta birgaitze lantzat joko dira, berriz, egitura, fatxada edo estalkiak sendotuz eta tratatuz pabiloiak berreraikitzeko egiten direnak, betiere birgaitze lanen kostu osoak erosketa prezioaren 100eko 25 gainditzen badu, birgaituak izateko erosi direnean, edo ondasunari kontabilizatutako balio garbiaren 100eko 25etik gorakoa bada, enpresaren aktiboan sartuta dagoen pabiloi bat denean.

c)[94] Enpresa emakidadunak emakidaren akordiori lotutako zerbitzu publiko bat emateko eraikitako edo erositako azpiegituretan egiten diren inbertsioak, betiere

---

[92] Kapitulu honen izenburua abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren 4. artikuluak aldatu du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eta 2007an hasi eta 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera bukatutako zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

[93] Artikulu hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAren 3. artikuluko lehen ordinaleko hiru apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaket jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko den. (2009-12-28ko GAO).

abenduaren 23ko EHA/3362/2010 Agindua, Kontabilitate Plan Orokorra azpiegitura publikoen enpresa emakidadunei egokitzeko arauak onartzen dituena, indarrean jarri denetik aurrera ibilgetu ukiezin edo aktibo finantzario gisa kontabilizatu badira.

Artikulu honen 4. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, aipatutako azpiegiturak aktibo ez-korrontetzat hartuko dira beren izaeragatik dagokienaren arabera.

4. Aurreko apartatuetan aipatutako inbertsioek ondoko ezaugarriak eta beharkizunak bete beharko dituzte:

a) Inbertitutako kopuruak aktibo ez-korrontearen barruan kontabilizatzea.

Letra honetan aurreikusitako ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko, errentamendu operatiboen kasuan, errentariak errentan hartutako elementuan edo erabiltzeko hari lagatakoan egindako inbertsiogatik agerian jartzen diren aktiboak.

b) Inbertsio horien xede diren aktiboek gutxienez bost urteko amortizazio epea izatea, informatikako ekipoek izan ezik.

Gutxieneko amortizazio epea hauxe izango da: 100 zati amortizazio tauletan jasotako gehieneko koefizientea eginez ateratzen den emaitza, goitik biribildua.

c) Inbertsioen xede diren elementuek ez tributatzea zenbait garraiobideren gaineko zerga berezian, hari lotuta ez daudelako, edo lotuta egon arren, salbuetsita daudelako.

d) Inbertsioaren xede diren aktibo guztien zenbatekoak 60.000 euroko zifra gainditzea ekitaldi bakoitzean, eta bi beharkizun hauetako bat betetzea:

—Ibilgetu materialaren, higiezinetako inbertsioen eta aplikazio informatikoei dagokien ibilgetu ukiezinaren parte diren aktibo ez-korronteen lehenagoko kontabilitate balioak batuta ateratzen den zenbatekoaren %10 gainditzea, amortizazioak kenduta, edo

— Izaera bereko aktibo finkoaren kontabilitate balioaren zenbateko osoaren %15 gainditzea, amortizazioak kendu gabe.

Kontabilitate balioa zehazteko, inbertsioa egin den ekitaldia hasi aurreko lehen zergaldiko azken egunari dagokion balantzea hartuko da kontuan, egun horretan abian dagoen inbertsioaren xede den aktibo ez-korrontearen kontabilitate balioa konputatu gabe.

Izaera bereko aktibo ez-korrontetzat hartuko da Kontabilitate Plan Orokorrean edo, bestela, ofizialki onartutako sektoreko planetan hiru digituko kontu berean dagoeneko sartu dena eta sartuko dena.

---

[94] letra hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAren 3. artikuluko lehen ordinalaren bi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean. Aldaketak 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ditu ondorioak (2011/12/27ko GAO).

60.000 euroko zifra konputatzeko eta letra honetan ezarritako baldintzak betetzeari begira, bakarrik hartuko dira kontuan artikulu honen 1., 2. eta 3. apartatuetan eta apartatu honen aurreko letretan aipatutako ezaugarriak eta baldintzak betetzen dituzten aktiboetan egindako inbertsioak. Artikulu honen 6. apartatuko 1., 2. eta 3. erregeletan xedatutakoaren arabera baztertutako kopuruak ez dira konputatuko.

e) Aurreko d) letran xedatutakoa hala xedatuta ere, letra horretan jasotako baldintzetako edozein bete bai baina aktiboen multzoan 60.000 euroko inbertsiorik gainditzen ez duten enpresek eskubidea izango dute aurreko 1. apartatuko kenkaria aplikatzeko, baldin eta ekitaldian gutxienez lan kontratu mugagabe bat egiten badute, batez besteko plantila gehituta, eta kontratu hori hurrengo bi urteetan mantentzen badute.

5. Izaera orokorrez, aktibo ez-korrontearen elementuetan egiten diren inbertsioak, dela artikulu honetan jasotakoak dela foru arau honen gainerako artikuluetan ezarritakoak, funtzionamenduan jartzen diren unean egindakotzat hartuko dira.

Dena den, iraupen luzeko inbertsio proiektuak egiten direnean, hau da, ondasunak enkargatzen direnetik eskura jartzen diren egunera arte hamabi hilabetetik gorako denbora igarotzen denean, subjektu pasiboak ordainketak egin ahala jo ahal izan du egindakotzat inbertsioa, horien zenbateko berean. Horrelakoetan, inbertsio ondasunen hornitzailearekin kontratua formalizatzean indarrean zegoen kenkari erregimena aplikatuko da.

Aukera horretaz baliatuz gero, inbertsio guztiari aplikatuko zaio irizpide hori.

Aukera horretaz baliatu nahi den subjektu pasiboak idatziz jakinarazi beharko dio Foru Aldundiari erabaki hori, eta hilabeteko epea izango du horretarako, kontratua izenpetzen den egunetik aurrera. Bertan, kontratatutako inbertsioaren zenbatekoa eta ondasunak entregatu eta ordaintzeko egutegia adierazi beharko ditu. Era berean, jakinarazpen horri kontratuaren kopia erantsi beharko zaio.

6. Artikulu honetan arautzen den kenkariaz gozatzeko, erregela hauek bete beharko dira:

1.a[95] Aktiboen erosketetan, hitzartutako kontraprestazio osoa sartuko da kenkariaren oinarrian, salbu eta interesak, zeharkako zergak eta errekarguak, eraikuntza marjina, lizitazioaren gastu teknikoak, eta aktiboak eraistearen edo erretiratzearen ondorioz hartutako obligazioei dagozkien kostuak, horiek ez baitira oinarrian konputatuko, aktiboak baloratzeko kontuan hartu badaitezke ere.

Ondasun higiezinetan inbertituz gero, lurzoruaren balioa kenkariaren oinarritik kanpo utziko da beti.

Inbertsioak industria pabiloiak birgaitzeko egiten direnean, berriz, birgaitzeko erabili diren diru kopuruek eta, birgaituak izateko erosiz gero, pabilioien erosketa

[95] Erregela honen lehen paragrafo hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAren 3. artikuluko lehen ordinalaren bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean. Aldaketak 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ditu ondorioak (2011/12/27ko GAO).

prezioak osatuko dute kenkariaren oinarria, aurreko paragrafoetan adierazitako kontzeptuak kanpoan utzita.

2.a Kenkariaren oinarriak ezingo du gainditu subjektu independenteek merkatuko ohiko baldintzetan hitzartuko zuten prezioa.

3.a Kenkariaren aplikazioa bateraezina izango da inbertsio horiek direla-eta izan litekeen beste edozein zerga onurarekin, amortizazio askatasunari eta amortizazio azkartuari dagokienez izan ezik.

4.a[96] Inbertsioaren xede diren ondasunak eskualdatu, errentan eman edo hirugarren batzuek erabiltzeko lagatzen badira foru arau honen 46. artikuluko 5. apartatuan aipatutako epean, derrigorrezkoa izango da aplikatutako kenkariengatik bere garaian ordaindu ez ziren kuotak ordaintzea dagozkien berandutza interesekin batera, eta zenbateko hori desafektazioa gertatzen den ekitaldiko zergaren aitorpenetik ateratzen den kuotari gehitu behar zaio.

Desafektazio hori dela-eta inbertsioak kenkariak gozatzeko jarritako mugatik beherakoak badira, kenkari horiek galdu egingo dira oso-osorik eta lehen aipatutakoaren arabera ordaintzeko obligazioa sortuko da. Berdin jokatuko da sortutako enplegua aurreko 4. apartatuko e) letran finkatutako epean mantentzen ez bada.

Ondasuna behin bakarrik eta gehienez hilabeteko epean berriro afektatzea edo zenbateko eta ezaugarri beretsuko beste batekin ordeztea aurreko paragrafoetan aurreikusitakotik kanpo geratzen dira.

7. Aktiboak eskuratzen badira legezko lagapen obligazio bat betetzeagatik, entitate lagapendunak ezingo du aplikatu artikulu honen 1. apartatuan aipatzen den kenkaria. Gainera, artikulu honen 4. apartatuko d) letran jasotakoaren ondorioetarako, lagapendunak aktibatutako zenbatekoak ezingo dira konputatu ez ekitaldiko inbertsio gisa ez lehenagotik dauden aktibo gisa.

37 bis artikulua.[97] (indargabetua)

38. artikulua. Kultur Ondarea babesteko eta hedatzeko jarduketengatiko kenkariak; halaber, zinemagintzan eta liburuen argitalpenetan inbertitzeagatiko kenkaria.[98]

---

[96] Erregela honen lehen paragrafo hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAren 3. artikuluko lehen ordinalaren bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean. Aldaketak 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ditu ondorioak (2011/12/27ko GAO).

[97] Artikulu hau abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren xedapen indargabetzaile bakarrak indargabetu du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eta 2007an hasi eta 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera bukatutako zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

[98] 38. artikulu honen izenpurua, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 FORU ARAUAren bigarren xedapen gehigarriaren 3 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau GAOan (GAO 2004-04-19) argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izango ditu ondorioak. Hala ere, aipatu aldaketak 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietan izango ditu ondorioak.

1.[99] Sozietateen gaineko Zergari dagokionez subjektu pasiboak direnek hurrengo jardueretarako egiten dituzten inbertsio edo gastuen kuota likidoan 100eko 15eko kenkaria egin ahal izango dute:

a) Euskal Kultur Ondarearen ondasunak edo Espainiako Ondare Historikoaren edo beste komunitate autonomo bateko ondarearen ondasunak erosteko, erosketa Espainiako lurraldetik kanpo egindakoa eta aipatutako lurraldean sartzeko denean, baldin eta ondasunak lurralde horretan, eta titularraren ondarearen barruan, hiru urtetan gutxienez mantentzen badira.

Kenkari horren oinarria izango da Irabazi Asmorik gabeko Erakundeen Zerga Erregimen eta Mezenasgoari emandako Zerga Pizgarriei buruzko Foru Arauak, 20. artikuluaren 1. atalean, f) letran ezarritakoari jarraiki egindako balorazioa.

b) Uztailaren 3ko 7/1999 Legeak, Euskal Kultur Ondareari buruzkoak eta ekainaren 25eko 16/1985 Legeak, Espainiako Ondare Historikoari buruzkoak, edo komunitate autonomoetako araudiak zehaztutakoaren arabera –betiere, aipatutako araudian ezarritako eskakizunak betetzen baldin badira–, kultur interesa dutela aitortutako bere jabetzako ondasunak zaintzeko, konpontzeko, zaharberritzeko, hedatzeko eta erakusteko.

c) Eraikinak birgaitzeko, teilatu eta fatxadak mantentzeko eta konpontzeko, eta bere jabetzakoak diren eta hiri edo arkitektura, arkeologi, natur edo paisaia guneetako babesgarriak diren edo Espainian dauden eta UNESCOk Munduaren Ondasun aitortutako azpiegiturak hobetzeko.

2. [100] Serieko produkzio industrialaren aurretik, euskarri fisiko bat egiteko aukera ematen duten zinemako luzemetraien eta fikzio, animazio edo dokumentalei buruzko ikusentzunezko serieen produkzio espainiarretan egindako inbertsioek eskubidea emango dute 100eko 20ko kenkaria egiteko. Kenkariaren oinarria produkzioaren kostua izango da, koproduktore finantzarioak finantzatutako zatian gutxituta.

Zinema luzemetraiko produkzio espainiar batean parte hartzen duen koproduktore finantzarioak eskubidea izango du berak finantzatzen duen inbertsioaren 100eko 5eko kenkaria egiteko, inbertsio horietatik zergaldian eratorritako errentaren 100eko 5eko mugapean.

Kenkari honen ondorioetarako, koproduktore finantzariotzat hartuko da aurreko parrafoan adierazitako filmeen produkzioan parte hartzen duen entitatea, soil-soilik produkzioaren kostu osoaren 100eko 10etik beherakoak ez diren eta 100eko 25etik gorakoak ez diren diru baliabideak eskeiniz, filme horien ustiapenak dakartzan dirusarreretan parte hartzearen truke. Aipatu zirkunstantziak jasoko dituen koprodukzio kontratua Ogasun eta Finantza Departamentuaren aurrean aurkeztuko da.

---

[99] 1.apartatu hau, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 FORU ARAUAren bigarren xedapen gehigarriaren 3 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau GAOan (GAO 2004-04-19) argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izango ditu ondorioak. Hala ere, aipatu aldaketak 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietan izango ditu ondorioak

[100] Apartatu hau Zerga Neurriei buruzko apirilaren 27ko 3/1999 Foru Arauaren 3. artikuluak aldatu du. 1999ko maiatzaren 3an sartu zen indarrean.

Apartatu honetan aipatutako kenkariak filmearen produkzioa amaitzen den zergalditik aurrera egingo dira. Zergaldi horretan egin ez diren kenkariak jarraiko zergaldietako likidazioetan aplikatu ahal izango dira, foru arau honen 46. artikuluan jasotako baldintzetan. Hala gertatzen denean, apartatu honetan aipatutako 100eko 5eko muga kenkaria egiten den zergaldian lortutako koprodukziotik eratorritako errentaren gainean kalkulatuko da.

Erregelamendu bidez kenkari hau egiteko baldintza eta prozedurak ezarri ahal izango dira.

3. Serieko produkzio industrialaren aurretik, euskarri fisiko bat egiteko aukera ematen duten liburugintzako inbertsioek eskubidea emango dute kuota likidoan 100eko 5eko kenkaria egiteko.

4.[101] (indargabetua)

V. Kapitulua: Enpresen finantzaketa sustatzeko kenkariak

39. artikulua. Inbertsio Produktiboetarako Erreserba.

1.[102] Zergaren tasa orokorrera bildutako sujetu pasiboek eta fiskalki babestutako kooperatibek ekitaldiko kontabilitate-emaitzatik datozen diru-kopuruen 100eko 10 kendu ahal izango dute kuota likidotik baldin eta diru-kopuru horiek Erreserba berezi batera zuzentzen badituzte. Erreserba berezi horrek Inbertsioetarako Erreserba edota Ingurugiroa Kontserbatu eta Hobetzeko nahiz Energia Aurrezteko Erreserba izango du izena, eta honako baldintza hauek bete beharko ditu:

1.-[103] Erreserbara zuzendutako zenbatekoa, mozkinen bitartez erreserba hornitzen den ekitaldia ixten denetik bi urteko epean, ibilgetu materialeko edo inbertsio inmobiliarioetako aktibo ez-korronte berrietan inbertitu beharko da, salbu terrenoetan eta Garraiobide Jakin Batzuen gaineko Zerga Berezia ordaintzen duten elementuetan. Aktiboak entitatearen ustiapen ekonomikoaren garapenari atxiki behar zaizkio, eta hartan gutxienez bost urtetan edo, laburragoa bada, bizitza erabilgarrian martxan eman behar dute, erabiliak izateko hirugarrenei eskualdatu, errentan eman edo laga gabe.

(...)[104]

---

[101] Apartatu hau abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren xedapen indargabetzaile bakarrak indargabetu du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eta 2007an hasi eta 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera bukatutako zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

[102] Apartatu hau Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzko maiatzaren 22ko 2/1997 Foru Arauaren amaierako bigarren xedapenak aldatu du. 1997ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan ditu ondorioak.

[103] 1.- zenbaki hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Bat artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[104] Artikulu honen edukia, jatorrizko idazkeran, deuseza aitortu du Auzitegi Gorenak 2004ko abenduaren 9ko Epaian (GAOn 2005eko maiatzaren 27an argitaratua).

2.[105] Inbertsioetarako Erreserba edota Ingurugiroa Artatu eta Hobetzeko edo Energia Aurrezteko jardueretarako Erreserba ezingo da erabili ondasunek entitatearen ustiapen ekonomikoaren garapenari atxikita jarraitu behar duten bitartean aurreko 1. apartatuko 1. baldintzan xedatutakoaren arabera.

(...)[106]

5.[107] Erreserba hori gauzatzen den inbertsioek ezingo dute bestelako zerga onuraz gozatu inbertsio berberei lotuta, salbu amortizazio askatasunari eta amortizazio azkartuari dagokionez.

VI. Kapitulua: Zenbait iharduera sustatzeko kenkariak

40. artikulua. Kenkaria ikerkuntza eta garapenarengatik.[108]

1. Ikerkuntza eta garapen jarduerak egiteak eskubidea emango du kuota likidoan kenkaria egiteko, artikulu honetan eta foru arau honen 42. artikuluan jasotakoaren arabera.

2. Ikerkuntza eta garapentzat hartuko dira:

a) Ezagutza berriak aurkitzeko eta zientzian edo teknologian goi ulerkuntza bilatzeko egiten den "oinarrizko ikerkuntza" edo azterlan original eta planifikatua, betiere merkataritza edo industria helburuetatik kanpokoa.

b) Ezagutza berriak aurkitzeko egiten den "ikerkuntza aplikatua" edo azterlan original eta planifikatua, betiere ezagutza horiek produktu, prozesu edo zerbitzu berriak garatzen edo lehendik daudenak nabarmen hobetzen erabiltzekoa bada.

c) Ikerkuntza aplikatuaren emaitzen "garapen esperimentala" edo produktu, prozesu edo zerbitzu berrien plan, eskema edo diseinu batean aplikatutako ikerkuntzaren gauzatzea, edo emaitza horien hobekuntza nabarmena, bai eta merkaturatu ezin diren prototipoen sorrera eta hasierako erakusketarako proiektuak edo proiektu aitzindariak ere, baldin eta aplikazio industrialetarako edo merkataritzako ustiapenerako bihurtu edo erabili ezin badira.

d) *Software* aurreratuaren sorkuntza, baldin eta horrek aurrerapen zientifikoa edo teknologiko nabarmena badakar, dela teorema eta algoritmo berriak garatuz dela sistema eragile eta lengoaia berriak sortuz, edota pertsona ezgaituak

---

[105] 2. apartatu hau Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 5. artikuluko Bat apartatuak aldatu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

[106] Artikulu honen edukia, jatorrizko idazkeran, deuseza aitortu du Auzitegi Gorenak 2004ko abenduaren 9ko Epaian (GAOn 2005eko maiatzaren 27an argitaratua).

[107] Apartatu hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Hamalau Zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

[108] Artikulu hau abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren 5. artikuluak aldatzen du eta aldi berean VI. Kapituluaren banean kokatzen du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eta 2007an hasi eta 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera bukatutako zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

informazioaren gizarteko zerbitzuetara sartzeko egiten bada. *Softwarearekin* erlazionatuta dauden ohiko edo betiko jarduerak hortik kanpo geratzen dira.

3. Kenkariaren oinarria ikerkuntza eta garapen gastuen zenbatekoa izango da eta, hala badagokio, ibilgetu material eta ukiezineko elementuetan egindako inbertsioa, ondasun higiezinak eta terrenoak kanpoan utzita.

Ikerkuntza eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko gastutzat hartuko dira subjektu pasiboak egindako gastuak, baldin eta jarduera horiei zuzenean lotuta badaude eta benetan jarduera horietan erabiliak izan badira. Proiektuen arabera banaka sailkatuta agertuko dira gastuak.

Kenkariaren oinarrian sartuko dira, baita ere, Europar Batasuneko edo Europako Espazio Ekonomikoko beste estatu kide batzuetan egindako jarduerei dagozkien ikerkuntza eta garapen gastuak.

Europar Batasunetik edo Europako Espazio Ekonomikotik kanpoko estatuetan egindako jardueren gastuei dagokienez, kenkarirako eskubidea ere izango dute, baldin eta ikerkuntza eta garapen jarduera nagusia Europar Batasuneko edo Europako Espazio Ekonomikoko estatu batean egiten bada eta gastuen zenbatekoa inbertsio osoaren % 25 baino handiagoa ez bada.

Ikerkuntza eta garapen gastutzat hartuko dira, era berean, Europar Batasuneko edo Europako Espazio Ekonomikoko estatu batean jarduera horiek egiteko ordaindutako kopuruak, betiere zergadunaren aginduz ordaindu badira, dela banaka dela beste entitate batzuekin batera.

4. Kenkari ehunekoak hauek izango dira:

a) Kontzeptu hau dela-eta zergaldiaren barruan egindako gastuen %30.

Ikerkuntza eta garapen jarduerak egiteagatik zergaldian izandako gastuak aurreko bi urteetan izandako batez bestekoa baino handiagoak badira, batez besteko horretara iritsi arte aurreko paragrafoan jasotako ehunekoa aplikatuko da, eta batez besteko horretatik gorako soberakinari %50.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoaren arabera egokia den kenkariaz gain, %20ko beste kenkari bat egingo da zergaldiko ondoko gastuengatik:

a') Entitateko langileria gastuengatik, ikerkuntza, garapen edota berrikuntza jarduerei bakarrik atxikitako ikertzaile kualifikatuei dagozkienean.

b´) Ikerkuntza eta garapen proiektuetan egindako gastuengatik, ondoko hauekin kontratatuta daudenean: unibertsitateekin, ikerkuntzako organismo publikoekin edo berrikuntza eta teknologia zentroekin, betiere Berrikuntza eta Teknologia Zentroei buruzko abenduaren 20ko 2609/1996 Errege Dekretuaren arabera horrela aitortu eta erregistratuta badaude, eta orobat, urriaren 1eko 221/2002 Dekretuak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen oinarriak eguneratzen dituenak, araututako Teknologiaren Euskal Sarean sartutako entitateekin.

b) Ibilgetu material eta ukiezineko elementuetan egindako inbertsioen %10, ondasun higiezinak eta terrenoak kanpoan utzita, baldin eta bakar-bakarrik ikerkuntza, garapen edota berrikuntza jarduerei atxikita badaude.

41. artikulua. Kenkaria berrikuntza jarduerengatik.[109]

1. Honako hau hartzen da berrikuntzatzat: produktu berriak (ondasun edo zerbitzuak) edo prozesu berriak zein nabarmenki hobetuak ezartzea, eta marketing metodo berriak edo antolaketa eredu berriak abian jartzea. Errealitatea auzitan jartzea eta eraldatzea ahalbidetzen duen jarrera da gaitasun horren oinarria.

2. Honako hauek dira berrikuntzaren jarduketa eremuak: produktua/zerbitzua, prozesuak, antolaketa, pertsonak, merkatua eta negozio eredua. Berrikuntza teknologikoak produktu/zerbitzuaren arloari eta prozesuen arloari eragiten die batez ere. Teknologikoa ez den berrikuntzak, berriz, gainerako arloei eragiten die.

3. Berrikuntza teknologikotzat hartuko da produktu edo produkzio prozesu berrien lorpena edo jadanik daudenen hobekuntza nabarmena dakarren jarduera, baldin eta horren emaitza aurrerapen teknologikoa bada. Era berean, berritzat hartuko dira ikuspegi teknologikotik begiratuta lehendik daudenetatik nabarmen bereizten diren ezaugarri edo aplikazioak dituzten produktu edo prozesuak.

Jarduera horren barruan sartuko da produktu edo prozesu berriak plan, eskema edo diseinu batean gauzatzea, bideragarritasun azterketak egitea, prototipoak sortzea eta hasierako erakusketarako proiektuak edo proiektu aitzindariak eta ehunen lagindegiak egitea, bai eta aplikazio industrialetarako edo merkataritzako ustiapenerako bihurtu edo erabili daitezkeenak ere.

Diagnostiko teknologikoko jarduerak ere barruan sartzen dira ondorengo 4. apartatuko a) letran aipatutako entitateek egindako soluzio teknologiko aurreratuak identifikatu, definitu eta orientatzeko helburua dutenean, emaitzak zertan amaitzen diren kontuan hartu gabe.

4. Berrikuntza teknologikoko jardueretan, zergaldiaren barruan ondoko kontzeptuak direla-eta izandako gastuek osatuko dute kenkariaren oinarria:

a) Ondoko hauei egiteko agindutako proiektuak: unibertsitateei, ikerkuntzako organismo publikoei edo berrikuntza eta teknologia zentroei, betiere Berrikuntza eta Teknologia Zentroei buruzko abenduaren 20ko 2609/1996 Errege Dekretuaren arabera horrela aitortu eta erregistratuta badaude, eta orobat, urriaren 1eko 221/2002 Dekretuak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen oinarriak eguneratzen dituenak, araututako Teknologiaren Euskal Sarean sartutako entitateei.

b) Produkzio prozesuen diseinu industriala eta ingeniaritza. Horien barruan sartuko dira produktu bat fabrikatu, probatu, instalatu eta erabiltzeko beharrezkoak diren deskripzio elementu, zehaztapen tekniko eta funtzionamendu ezaugarriak definituko dituzten plano, marrazki eta euskarriak sortu eta elaboratzea, eta ehunen lagindegiak prestatzea.

c) Teknologia aurreratua eskuratzea patente, baimen, know-how eta diseinu moduan. Zergadunarekin zer ikusia duten pertsona edo entitateei ordaindutako

[109] Artikulu hau abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren 6. artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eta 2007an hasi eta 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera bukatutako zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

kopuruek ez dute kenkarirako eskubiderik emango. Kontzeptu honi lotutako oinarria ezin da milioi bat euro baino handiagoa izan.

5. Berrikuntza teknologikoko gastutzat hartzen dira zergadunak proiektuka banatuta berariaz egiten dituenak, baldin eta artikulu honetan aipatutako jarduerei zuzenean lotuta badaude eta benetan jarduera horiek garatzeko erabiltzen badira.

6. Europar Batasuneko edo Europako Espazio Ekonomikoko beste estatu kide batzuetan egindako jarduerei dagozkien berrikuntza teknologikoko gastuak ere kenkariaren oinarrian sartuko dira. Europar Batasunetik edo Europako Espazio Ekonomikotik kanpoko estatuetan egindako jardueren gastuei dagokienez, kenkarirako eskubidea ere izango dute, baldin eta berrikuntza teknologikoko jarduera nagusia Europar Batasuneko edo Europako Espazio Ekonomikoko estatu batean egiten bada eta gastuen zenbatekoa inbertsio osoaren % 25 baino handiagoa ez bada. Berrikuntza teknologikoko gastutzat hartuko dira, era berean, Europar Batasuneko edo Europako Espazio Ekonomikoko estatu batean jarduera horiek egiteko ordaindutako kopuruak, betiere zergadunaren aginduz ordaindu badira, dela banaka dela beste entitate batzuekin batera.

7. Hona hemen zer jarduera sartzen diren teknologikoa ez den berrikuntzan: berrikuntzarako diagnostikoak eta planak egitea, berrikuntza kudeatzeko sistemak ezartzea, zerbitzu enpresek pertsonen kudeaketari buruzko esperientzia aurreratuak ezartzeko lanak egitea, enpresaren kudeaketa nabarmen aldatzea dakarten antolaketa eredu berriak hartzea, merkatuan kokatzeko eta jarduteko teknika, metodo eta prozedura berritzaileak aplikatzea, eta enpresa ulertu, eratu eta bideratzeko modu berria, hau da, negozio eredu berria, hartzea.

8. Teknologikoa ez den berrikuntza jardueren kenkariaren oinarria dagokion zergaldian eginiko gastu hauek eratuko dute:

a) Ondoko hauei egiteko agindutako proiektuak: unibertsitateei, ikerkuntzako organismo publikoei edo berrikuntza eta teknologia zentroei, betiere Berrikuntza eta Teknologia Zentroei buruzko abenduaren 20ko 2609/1996 Errege Dekretuaren arabera horrela aitortu eta erregistratuta badaude, eta orobat, urriaren 1eko 221/2002 Dekretuak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen oinarriak eguneratzen dituenak, araututako Teknologiaren Euskal Sarean sartutako entitateei.

b) Jakintzaren arlo batean adituak diren zerbitzu aurreratuko enpresei kontratatutako proiektuak.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, erregelamenduz ezarri ahal izango da zer baldintza bete behar diren zerbitzu aurreratuko enpresa bat jakintza arlo batean aditutzat hartzeko.

9. Berrikuntza ez-teknologikoko gastutzat hartzen dira zergadunak proiektuka banatuta berariaz egiten dituenak, baldin eta artikulu honetan aipatutako jarduerei zuzenean lotuta badaude eta benetan jarduera horiek garatzeko aplikatzen badira.

10. Kuota likidoak honako kenkari portzentajeak izango ditu:

a) Oro har:

a') 4. atalean aurreikusitako gastuentzat, ehuneko 20ko dedukzioa kuota likidoan.

b') 8. apartatuan aurreikusitako gastuetarako, kuota likidoaren % 15.

b) Berrikuntza jarduerak egiteagatik zergaldian izandako gastuak handiagoak badira aurreko bi urteetan jarduera mota horietarako egindako gastuen batez bestekoa baino, aurreko letretan ezarritako portzentajeak batez besteko horretaraino aplikatuko dira. Aldiz, batez besteko horretatik gorako soberakinari %20 gehituta aplikatuko zaizkio portzentaje horiek.

c) Aurreko paragrafoetan xedatutakoaren arabera egokia den kenkariaz gain, beste %20ko kenkaria egingo da entitateko langileria gastuengatik, ikerkuntza eta garapen jarduerei oso-osorik lotutako ikertzaile kualifikatuei dagozkienean.

d) Ibilgetu material eta ukiezineko elementuetan egindako inbertsioen kasuan –ondasun higiezinak eta terrenoak kanpoan utzita–, kuota likidoak %10eko kenkaria izango du, betiere elementu horiek berrikuntza jarduerei edota ikerkuntza eta garapen jarduerei bakarrik atxikita badaude.

42. artikulua. Ikerkuntza eta garapen kontzeptutik eta berrikuntza teknologikoarenetik kanpo geratzen diren jarduerak, eta kenkarien aplikazioa.[110]

1. Honako hauek ez dira ikerkuntza eta garapen jardueratzat ez berrikuntza jardueratzat joko:

a) Berekin berritasun zientifiko edo teknologiko esanguratsurik ez dakarten jarduerak. Bereziki, hauek: produktu edo prozesuen kalitatea hobetzeko ohiko ahaleginak egitea, lehendik dagoen produktu bat edo produkzio prozesu bat bezeroak edo araudi aplikagarriak ezarritako beharkizunetara egokitzea, aldizkako edo denboraldiko aldaketak egitea, eta lehendik dauden produktuetan antzeko beste batzuetatik bereizteko aldaketa estetiko edo txikiak egitea, salbu eta oso berrikuntza garrantzitsua egiteko erronka justifikatzen dutenean.

b) Industria produzitu, zerbitzuak hornitu edo ondasun eta zerbitzu banatzeko jarduerak. Bereziki, ondoko hauek sartzen dira: produkzio jarduera planifikatzea; produkzioa prestatu eta abian jartzea, barne hartuta lan tresnen doikuntza eta aurreko 41. artikuluko 4. apartatuan azaldutakoez bestelako jarduerak; ikerkuntza eta garapen jarduera edo berrikuntza jarduera bezala sailkatutako jarduerei atxikita ez dauden produkziorako instalazio, makina, ekipo eta sistemak eranstea edo aldatzea; etendako produkzio prozesuetako arazo teknikoak konpontzea; kalitatearen kontrola eta produktu eta prozesuen normalizazioa; gizarte zientzien alorreko prospekzioa eta merkatu azterketak; merkaturatzeko sareak edo instalazioak ezartzea; jarduera horiekin loturiko langileak trebatu eta prestatzea.

c) Produktua konplexutasun industrialik gabe aldatzen duten proiektuak.

d) Erakundearen ikurra edo nortasuna kudeatzea.

[110] Artikulu hau abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren 7. artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eta 2007an hasi eta 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera bukatutako zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

e) Plan estrategikoak edo antzekoak prestatzeko eta plan horien berrikuspenak egiteko aholkularitza.

f) Plangintzako pakete informatikoak gauzatzeko proiektuak (ERP eta antzekoak).

g) Mineral eta hidrokarburoen miaketa, zundaketa edo prospekzioa.

2. Foru arau honen 40. eta 41. artikuluetan arautzen diren kenkariak aplikatzeko, zergadunak, hala nahi badu, txosten arrazoitua aurkez dezake artikulu horietan zergadunaren jarduerak ikerkuntza eta garapen bezala edo berrikuntza teknologiko bezala -hurrenez hurren- kalifikatzeko eskatzen diren betebeharrak betetzeari buruz, bi kasuetan aurreko 1. apartatuan xedatutakoa kontuan hartuta. Txostena arauzko eran erabakiko den organoak egin beharko du. Jarduera horiei egotzitako gastu eta inbertsioen zenbatekoa zehaztu beharko da txostenean.

43. artikulua. Kenkaria garapen iraunkorra, ingurumenaren zaintza eta hobekuntza eta energia iturrien baliakuntza eraginkorragoa lortzera zuzentzen diren proiektuekin loturiko inbertsio eta gastuengatik.[111]

1. Zergadunek honako hauen zenbatekoaren %30 kendu ahal izango dute kuota likidotik:–Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuak Teknologia Garbien Euskal Zerrenda onartuz emandako Aginduan zehazten diren ekipo osoetan egindako inbertsioak.

Inbertsio horiek ibilgetu materialeko aktibo berrietan egin behar dira, eta ezinbestekoa da enpresak egiten duen jardueraren eragin kutsagarria murriztu eta zuzentzearekin lotu-lotuta egotea.

2. Zergadunek honako hauen zenbatekoaren %15 kendu ahal izango dute kuota likidotik:

a) Ekitaldian lur kutsatuak garbitzeko, ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsio eta gastuak, Euskadiko organismo ofizialek onarturiko proiektuak aurre eramateko eginak direnean.

b) Ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak, ondoren adierazten diren helburuetako bat edo batzuk dituzten proiektuak gauzatzeko beharrezkoak badira, betiere garapen iraunkorraren eta ingurumenaren babes eta hobekuntzaren arloan:

a') Hondakinak minimizatzea, berrerabiltzea eta balioztatzea.

b') Mugikortasuna eta garraio iraunkorra.

c') Naturaguneetako ingurumena leheneratzea, konpentsazio neurriak edo bestelako borondatezko ekintzak gauzatzearen ondorioz.

d') Ur kontsumoa minimizatzea eta ura araztea.

---

[111] Artikulu hau abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren 8. artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eta 2007an hasi eta 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera bukatutako zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

e') Energia berriztagarrien erabilera eta energia eraginkortasuna.

3. Aurreko 1. apartatuan aipatzen den kenkaria zergadunak aplikatuko du. Honek, Zerga Administrazioak hala eskatuta, Eusko Jaurlaritzako Sail egokiaren ziurtagiria aurkeztu beharko du, egindako inbertsioak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro sailburuak Teknologia Garbien Euskal Zerrenda onartuz emandako Aginduan aipatzen diren ekipo osoei dagozkiela egiaztatzeko.

Aurreko 2. apartatuko a) letran aipatzen den kenkaria zergadunak aplikatuko du. Honek, Zerga Administrazioak hala eskatuta, Eusko Jaurlaritzako Sail egokiaren ziurtagiria aurkeztu beharko du, letra horretan azaltzen diren betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko.

Aurreko 2. apartatuko b) letran aipatzen den kenkaria zergadunak aplikatuko du. Honek, Zerga Administrazioak hala eskatuta, Gipuzkoako Foru Aldundian edo Eusko Jaurlaritzan ingurumen arloan eskumena duen organoaren ziurtagiria aurkeztu behar du, inbertsioek letra horretan ezartzen diren betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko.

4. Foru Arau honen 46. artikuluko 5. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, iritziko da ez dagoela desatxikitzerik artikulu honetan araututako kenkariaz baliatzen diren aktiboak, legeak hala aginduta, hirugarrenei lagatzen zaizkienean.

Era berean, finantza errentamenduko araubidean egindako inbertsioak ere kenkari honetaz baliatu ahal izango dira.

5. 46. artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe, aurreko 1. apartatuan eta 2. apartatuko a) eta b) letretan zerrendatu diren kenkari motak elkarrekin bateraezinak izango dira.

6. Arau bidez erregulatuko da kenkari hau aplikatzeko prozedura. Halaber, haren aplikazioa dakarten egitate suposamenduak zehaztu ahal izango dira.

44. artikulua. Kenkaria lanbide heziketako gastuengatik.[112]

1. Lanbide heziketako iharduerak burutzeak eskubidea emango du kuota likidoan zergaldian izandako gastuen 100eko 10eko kenkaria egiteko.

2. Baldin eta zergaldian lanbide heziketako iharduerak burutzeko izan diren gastuak aurreko bi urtetakoen batezbestekoa baino handiagoak badira, aurreko apartatukoaren kenkari gehigarria egingo da, hain zuzen, aipatu bi kopuruen arteko diferentziaren 100eko 15ekoa.

3. Aurreko apartatuetan jasotakoaren ondorioetarako, lanbide heziketatzat hartuko da enpresa batek zuzenean edo hirugarrenen bitartez garatutako prestakuntza osoa, bere langileak eguneratu, trebatu edo errezikatzera zuzendua bada eta haien iharduerak edo lanpostuen beharrak exijitua bada. Inola ere ez dira lanbide heziketako gastutzat hartuko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko

[112] Artikulu hau abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren 9. artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eta 2007an hasi eta 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera bukatutako zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

10/2006 Foru Arauak jasotakoaren arabera, lan pertsonaleko etekin moduan kalifikatutakoak.

4. Artikulu honetan jasotako kenkaria aplikatuko da, modu berean, lan arriskuen aurreikuspena kudeatzeko sistema baten ezarpen arau orokorrei buruzko OHSAS 18001 ziurtagiria lortzeko zergaldiaren barruan izan diren gastuengatik ere.

Apartatu honetan xedatutakoa baztertu gabe, artikulu honetan aurreikusitako kenkaria aplikatuko da baita ere lan arriskuen aurreikuspenaren alorrean langileak prestatzeko entitateak egindako gastuetan.

5. Kenkaria egingo da entitateak bere langileak teknologia berrien erabilpenean trebatzeko egindako gastuengatik ere.

Gastu horien artean sartuta daude interneteko lotura egin, erraztu edo finantzatzeko gastuak, eta interneten loturarako behar diren ekipo informatikoak dohainik edo prezio beheratuez ematetik etorritako gastuak, eta hauek erosteko maileguak edo diru laguntzak eskaini edo ematetik eratorritakoak, bai eta langileek haiek lantokiz eta ordutegiaz kanpo erabili ahal dituztenean ere.

Apartatu honetan aipatutako gastuak, zerga ondorioetarako, langileen prestakuntza gastutzat hartuko dira, eta ez berekin ez dute langilearentzako lan etekinik ekarriko.

44 bis artikulua. Kenkaria enpresaren gizarte aurreikuspeneko tresna gisa diharduten gizarte aurreikuspeneko sistemetara enpresak egindako ekarpenengatik.[113]

1.[114] Zergadunak enpresak langileen alde egotzitako kontribuzio edo ekarpenen %10eko kenkaria egin ahal izango du kuota likidoan, urtean 6.000,00 euroko ekarpen mugarekin langile bakoitzeko, baldin eta kontribuzio edo ekarpen horiek langileen kolektiboari badagozkio, erregelamenduz ezartzen denaren arabera, eta haien hartzaileak honako hauek badira: enpleguko pentsio planak, enpresako gizarte aurreikuspeneko planak, enpleguko pentsio planen jarduerei eta haien gainbegiratzeari buruzko 2003ko ekainaren 3ko 2003/41/EE Zuzentarauak, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emanak, arautzen dituen pentsio planak, gizarte aurreikuspeneko mutualitateak edo borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateak, horiek guztiek gizarte aurreikuspeneko tresna gisa badihardute eta zergaduna haien sustatzaile edo bazkide babesle bada.

2. Kenkari hau ezin izango da aplikatu ondoko hauen babesean egindako ekarpenekiko: Pentsio Planak eta Fondoak arautzen dituen Legearen testu bateratuko laugarren, bosgarren eta seigarren xedapen iragankorretan ezarritako

---

[113] Artikulu hau abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren 10. artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eta 2007an hasi eta 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera bukatutako zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

[114] Apartatu hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAren 3. artikuluko hirugarren ordinalaren bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean. Aldaketak 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ditu ondorioak (2011/12/27ko GAO).

araubide iragankorra, baita ere Pertsona Fisikoen Errentaren, Sozietateen, Ez-egoiliarren Errentaren, Ondarearen, Oinordetza eta Dohaintzen eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergen arautegia aldatzen duen martxoaren 18ko 3/2003 Foru Arauaren bosgarren xedapen gehigarria. Halaber, ezin izango da aplikatu enplegu erregulazioko espediente baten ondorioz langileekin hartutako konpromiso zehatzen kasuan ere.

44.ter artikulua. Kenkaria familia enpresaren protokoloa egilesteagatik.[115]

1. Lehenbiziko aldiz familia protokoloa egilesten duten familia enpresek, protokolo hori formalizatzen den zergaldian, egilespenean izandako gastuen %10 kendu ahal izango dute kuota likidotik. Kenkari hori ezin izango da 3.000 euro baino handiagoa izan.

Ondorio hauetarako, familia enpresatzat hartuko da kapital sozialaren edo fondo propioen edo boto eskubideen %50 baino gehiago familia talde baten eskuetan dagoen enpresa. Ondorio hauetarako, familia taldetzat ondoko hauek osatua dena hartuko da: bazkide bat, bere ezkontidea edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako izatezko bikoteko kidea, eta harekin hirugarren mailara arteko ahaidetasun lokarriak dituztenak, ahaidetasun hori zuzenekoa nahiz albokoa, odolkidetasunezkoa, ezkontza bidezkoa nahiz maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera izatezko bikotea eratzetik sortua delarik.

2. Kenkari hau aplikatzeko, familia protokoloak baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Eskritura publikoz baimentzea eta Merkataritza Erregistroan argitaratzea, Protokolo familiarren publizitateari buruzko 2007ko otsailaren 9ko 171/2007 Errege Dekretuak jasotakoari jarraituz.

b) 5 urte baino gehiagoko indarraldia izatea.

c) Gutxienez ondoko alderdi hauek arautzea:

a') Bazkideen ordainsariak eta finantzaketa.

b') Bazkideen akzioen eskualdaketa.

c') Enpresan inplikaturik dauden ahaideei eskuratu behar zaien informazioa.

d') Enpresara sartzeko era, familiako kideentzat eta kanpokoentzat.

e') Sozietateko eta familiako gobernu organoak.

f') Ondorengotza araubidea.

3. Familia enpresa entitate bat baino gehiagok osatua baldin bada, ondokoak bakarrik aplikatu ahal izango du kenkari hau:

---

[115] Artikulu hau abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren 11. artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eta 2007an hasi eta 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera bukatutako zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

a) Foru arau honen VIII. tituluko IX. kapituluan xedatutakoaren arabera zerga ordaintzen duen talde bateraturik izatekotan, entitate nagusiak.

b) Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera talderik izatekotan, artikulu horretan xedatutakoaren arabera bateratutako kontuak aurkeztu behar dituen entitateak.

c) Bestela, eragiketen zenbateko handiena duen entitateak.

4. Entitate lotuak izatekotan, familia protokoloa egilestean izandako gastuak foru arau honen 16. artikuluan aurreikusitakoaren arabera balioetsiko dira. Horretarako, aipaturiko xedapenean ezartzen diren dokumentazio betebeharrak ere bete beharko dira.

45. artikulua. [Kenkaria enplegua sortzeagatik.][116]

1. Kuota likidotik 4.900 euro kendu ahal izango dira zergaldian mugagabeko lan kontratuaz kontrataturiko pertsona bakoitzagatik.

Kopuru hori 4.300 euro handiagoa izango da, baldin eta kontratatutako pertsona lan merkatura sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetakoa bada, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

Lanaldi partzialeko kontratua duten langileen kasuan, kenkariaren zenbatekoa langileak lanaldi osoarekiko egiten duen lan denboraren arabera kalkulatuko da.

2. Aurreko apartatuan ezarritako kenkaria aplikatzeko, beharrezkoa izango da mugagabeko lan kontratua duten langileen batez besteko kopurua aurreko zergaldikoa baino handiagoa izatea, eta kopuru hori bere horretan mantentzea kenkarirako eskubidea sortu den zergaldia amaitu eta ondorengo bi zergaldietan; hori guztia erregelamendu bidez ezarritako balditzetan egingo da.

Batez besteko langile kopurua kalkulatzeko, lanaldi partzialean eta urte naturala baino laburragoko aldietarako kontrataturiko langileak, benetan egindako lan orduen kopuruaren proportzioan konputatuko dira.

Langileen Estatutuko 47. artikuluan aipatzen diren lan-harremanaren etetea edo lanaldia murriztea gertatzen den kasuetan, artikulu horretan oinarrituta izapidetu diren enplegua erregulatzeko espedienteen ondorioz baimendu badira, apartatu honetan ezartzen diren baldintzak betetzea atzeratu egingo da lan-harremana eteteko edo lanaldia murrizteko baimenak ondorioak izateari uzten dionera arte. Enplegua erregulatzeko espedienteak ebazteko data eraginkorra dena delakoa izanik ere, eta batez besteko langile kopurua kalkulatzearen ondorioetarako soil-soilik, ebazpen hori gertatzen den zergaldiaren lehenengo eguna hartuko da halako datatzat.

3. Sozietate berriak sortzeko sozietate eta banakako enpresen bategite, zatitze eta eraldatze eragiketak gauzatzeak ez du ekarriko, berez, artikulu honetan jasotzen den kenkariaren aplikaziorik.

---

[116] Artikulu hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAren 3. artikuluko hirugarren ordinalaren lau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean. Aldaketak 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ditu ondorioak (2011/12/27ko GAO).

4. Foru arau honen 16. artikuluko 3. apartatuan jasotzen diren kasuetan, kenkari hau aplikatzerakoan kontuan eduki beharko da lotutako entitateen baterako egoera.

45bis. artikulua. Kenkaria berdintasun planak egin eta ezartzeagatik.[117]

Zergadunek honako hauen zenbatekoaren %15 kendu ahal izango dute kuota likidotik: 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrari buruzkoak, ezarritako berdintasun planak egin eta ezartzerakoan sortutako gastuak.

VII. Kapitulua: Arau amankomunak

46. artikulua. Titulu honetako IV., V. eta VI. kapituluetan aurreikusitako kenkari guztien arauak.[118]

1.[119] Titulu honetako IV., V. eta VI. kapituluetan aurreikusitako kenkarien baturak ezingo du kuota likidoaren %45 gainditu.

Aurreko paragrafoan jasotakoa jasota ere, foru arau honetako 49. artikuluan enpresa txikitzat jotzeko aurreikusitako baldintzak betetzen ez dituzten subjektu pasiboentzat, titulu honetako IV., V. eta VI. kapituluetan aurreikusitako kenkarien baturak ezingo da kuota likidoaren %35 gainditu.

Aurreko paragrafoetan aipatutako mugak ez dira aplikagarriak izango foru arau honen 40. artikuluak ikerkuntza eta garapen jarduerengatik arautzen duen kenkarian, ezta 41. artikuluko 1etik 6ra arteko apartatuetan berrikuntza jarduerengatik —berrikuntza teknologikoari dagokionez soil-soilik— jasotako kenkarian ere.

2. Kuota nahikoa ez izateagatik egin ez diren kenkariak hurrengo hamabost urte jarraituetan amaituko diren zergaldietako likidazioetan aplikatu ahal izango dira, betiere muga bera errespetatuz.

Titulu honetako IV., V. eta VI. kapituluetan aurreikusitako kenkarien aplikaziorako epeen konputua, preskripzio aldiaren barruan, oinarri ezargarri positiboak dauden lehenengo zergaldira arte atzeratu ahal izango da.

3.[120] Hitzartutako kontraprestazio osoa sartuko da kenkariaren oinarrian, salbu eta interesak, zeharkako zergak eta errekarguak, eraikuntza marjina, eta lizitazioaren

---

[117] Artikulu hau abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren 13. artikuluak gehitu du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eta 2007an hasi eta 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera bukatutako zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

[118] Artikulu hau abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren 14. artikuluak aldatu du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eta 2007an hasi eta 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera bukatutako zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

[119] Apartatu hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAren 3. artikuluko hirugarren ordinalaren bost apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean. Aldaketak 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ditu ondorioak (2011/12/27ko GAO).

gastu teknikoak. Horiek ez dira harren barruan konputatuko, aktiboak edo, halakorik bada, gastuak baloratzeko aintzat hartu badaitezke ere.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa hala izanik ere, sortzen diren kostuak baldin badatoz titulu honetako IV., V. eta VI. kapituluetan aurreikusitako kenkariak aplikatzeko eskubidea ematen duten aktiboak desegiteak dakartzan obligazioengatik, kostu horiek ez dira sartuko esandako kapituluetan aurreikusitako kenkarien oinarrian, kontuan izan gabe aktiboak baloratzeko aintzat hartzen diren edo ez.

Errentamendu operatiboen kasuan, errentatzaileak errentan eman duen edo erabiltzeko laga duen elementuan inbertsio bat egiteagatik agerian jartzen diren aktiboek ez dute eskubiderik emango titulu honen IV. V. eta VI. kapituluetan jasotako kenkariak aplikatzeko.

Foru arau honek 14. artikuluaren 3. apartatuan aipatutako ibilgailuak badira, kenkariak haren e) letran aipatutako ibilgailuei dagokienez bakarrik aplikatu ahal izango dira. Era berean, aipatutako 14. artikuluaren 4. apartatuan aipatutako garraio elementuak eskualdatzen badira, kenkariak haren hirugarren apartatuan aipatutako elementuei dagokienez aplikatu ahal izango dira.

Kenkariaren oinarria, horrela kalkulatuta, ezin izango da izan merkatuan egoera normalean eta pertsona independenteen artean adostuko zen prezioa baino handiagoa.

Ondasun higiezinetan inbertituz gero, lurzoruaren balioa kenkariaren oinarritik kanpo utziko da beti.

Halaber, aipatutako oinarritik kendu egingo da, hala badagokio, aurreko IV., V. eta VI. kapituluetako kenkariak dagozkien inbertsioetarako edo jardueren sustapenerako jasotako kapital nahiz ustiapen diru laguntzen gainean ondoko ehunekoa aplikatuta ateratzen den zenbatekoa: 100en eta entitateari aplikatzekoa zaion zerga tasaren arteko diferentzia.

Aurreko IV., V. eta VI. kapituluetan araututako kenkarien oinarriaren barruan sartzen diren kopuru guztiak ibilgetu moduan edo, hala badagokie, gastu moduan kontabilizaturik egon beharko dira, Kontabilitate Plan Orokorreko arauei jarraituz.

4. Oro har, aurreko IV., V. eta VI. kapituluetan aurreikusitako inbertsioak, funtzionamenduan jartzen diren garaian egindakotzat hartuko dira.

Hala ere, epe luzerako inbertsioetan (hamabi hilabete baino gehiago igaro direnean ondasunak enkargatu zirenetik eskuan izan arte) zergadunak erabaki dezake inbertsioa ordainketak egin ahala eta horien zenbatekoaz egindakotzat ematea, inbertsio ondasunen hornitzailearekin kontratua sinatu zen egunean indarrean zegoen kenkarien araubidea aplikatuz.

Aukera horretaz baliatuz gero, inbertsio guztiari aplikatu beharko zaio irizpide hori.

---

[120] Apartatu hau 2013ko uztailaren 17ko 5/2013 Foru Arauaren 3. artikuluko lau apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Araua, zerga iruzurraren aurkako neurriei, krediuak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzkoa, argitaratu eta beharamunean jarri da indarrean (GAO 2013-07-22). 3. artikuluak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ditu ondorioak.

Aukera horretaz baliatu nahi duen zergadunak Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuari emango dio horren berri, hilabeteko epearen barruan, kontratuaren datatik aurrera. Jakinarazpenean, kontratatutako inbertsioaren zenbatekoa zehaztu beharko du, baita ondasunak entregatu eta ordaintzeko egutegia ere. Era berean, jakinarazpen horri kontratuaren kopia erantsi beharko zaio.

5. Aurreko IV., V. eta VI. kapituluetan aurreikusitako kenkarien xede diren aktiboak edo ondare elementuak gutxienez bost urtez (edo, ondasun higikorrak badira, hiru urtez) egon beharko dira funtzionatzen zergadun beraren enpresan, aurreko artikuluetan aurreikusitako helburuei atxikita, hala badagokie, ondasun horien balio bizitza laburragoa denean salbu, eskualdatu, alokatu edo hirugarrenei erabiltzeko laga gabe, justifikatutako galerak izan ezik. Elementu horiek desatxiki, eskualdatu, alokatu edo lagatzeak, edo adierazitako epea amaitu baino lehenago ezarritako helburuetatik desatxikitzeak, bere garaian egindako kenkariengatik ordaindu ez ziren kuotak –dagozkion berandutza interesekin- ordaintzeko beharra ekarriko du. Berandutza interesak, egoera hori gertatzen den ekitaldiko autolikidaziotik ateratzen den kuotari gehitu beharko zaizkio.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa xedatuta ere, zilegi izango da inbertsio kengarria jasotzen duten aktiboak paragrafo horretan ezarritakoa baino epe laburragoan mantentzea, baldin eta, haien ordez, eta hiru hilabeteko epean, kenkarirako eskubidea izateko beharkizunak betetzen dituzten beste batzuk ipintzen badira.

Nolanahi ere, iritziko da ez dagoela desatxikitzerik inbertsioa gauzatzen den ondasunak alokatu edo hirugarrenei erabiltzeko lagatzen zaizkienean, ondoko hiru baldintzak betetzen badira: zergadunak, ustiapen ekonomiko bat dela medio, aktiboak alokatzen edo hirugarrenei erabiltzeko lagatzen jardutea, ondasun horien errentari edo lagapen-hartzaileekin loturarik ez izatea, foru arau honen 16. artikuluan azaldutako zentzuan, eta finantza errentamenduko eragiketak ez izatea.

6. Gastu edo inbertsio berak ezin izango du kenkaria entitate bat baino gehiagotan aplikatzerik ekarri, ez eta entitate batean aurreko IV., V. eta VI. kapituluetan araututako kenkarietako bat baino gehiago aplikatzerik ere.

Aurreko IV., V. eta VI. kapituluetan ezarritako kenkariak bateraezinak izango dira inbertsio eta gastu berekin loturiko beste edozein zerga onurarekin, amortizatzeko askatasunari eta amortizazio bizkortuari dagokienez izan ezik.

7.[121] Kuota likidoko kenkariak aplikatzerakoan, ondoko hurrenkerari jarraitu beharko zaio:

Lehenengo eta behin, aurreko ekitaldietan sortutako kenkariak aplikatuko dira, dagozkien arautegietan aurretik ezarritako muga errespetatuz.

[121] Apartatu hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAren 3. artikuluko hirugarren ordinalaren bost apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean. Aldaketak 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ditu ondorioak (2011/12/27ko GAO).

Jarraian, aurreko 1. apartatuan ezarritako mugak aplikatzekoak zaizkien ekitaldi bereko kenkariak aplikatuko dira.

Ondoren, aurreko ekitaldietatik datozen eta kuota likidoaren gaineko mugarik gabe aplikatzen diren kenkariak egingo dira.

Azkenik, ekitaldi berari dagozkion eta kuota likidoaren gaineko mugarik gabe aplikatzen diren kenkariak egingo dira.

Kuota likidoaren gaineko muga daukaten kenkarien baturak ezin izango du gainditu inoiz ere kuota likido horri artikulu honetako 1. apartatuan aipatzen diren ehunekoak aplikatzetik ateratzen den zenbatekoa, berdin du zein ekitalditan sortu diren kenkari horiek.

Apartatu honetan jasotakoa foru arau honek hogeita hamargarren xedapen iragankorrean aipatzen diren aplikatu gabeko zenbatekoei ere aplikagarria izango zaie.

8. Titulu honetako IV., V. eta VI. kapituluetan araututako kenkariak, bakar-bakarrik, zergadunak bere oldez aurkeztutako autolikidazioetan eta zerga arloko arau urraketengatik erantzukizunik sortu ez duten likidazioetan aplikatutako kopuruengatik aplikatu ahal izango dira, haietan ezarritako baldintza eta betebeharrekin.

VIII. Kapitulua: Konturako ordainketen kenkaria

47. artikulua. Atxikipen, konturako sarrera eta ordainketa zatikatuen kenkaria.

1.[122] Ondoko hauek kendu ahal izango dira kuota efektibotik:

a) Atxikipenak.

b) Konturako sarrerak.

c) Ordainketa zatikatuak.

2. Kontzeptu horien zenbateko osoa benetako kuota baino handiagoa denean, Zerga Administrazioak soberakina itzuliko du ofizioz.

VIII. TITULUA: ZERGA ERREGIMEN BEREZIAK

I. Kapitulua: Definizioa

48. artikulua. Definizioa.

[122] 1 apartatu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 66.artikuluak aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

1. Zerga erregimen bereziak titulu honetan araututakoak izango dira, bai sujetu pasiboen izaeragatik bai egitate, egintza edo eragiketen izaeragatik ere.

2. Gainerako tituluetan dauden arauak titulu honetakoen ordezko gisa erabiliko dira.

II. Kapitulua: Enpresa txiki eta ertainak

49. artikulua. Enpresa txiki eta ertainaren kontzeptua.[123]

1. Honako beharkizunak betetzen dituena enpresa txikitzat hartuko da:

a) Ustiapen ekonomiko bat egitea.

b) Bere eragiketa bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunean definitzen den eran, edo bere aktiboa, 10 milioi eurokoa baino handiagoa ez izatea.

c) Batez besteko plantila 50 langiletik beherakoa izatea.

d)[124] Aurreko beharkizunetako bat betetzen ez duten enpresek ez edukitzea entitate horien kapitalean, dela zuzenean dela zeharka, %25eko partaidetza edo handiagoa, non eta entitate horiek ez diren foru arau honen 59. artikuluan aipatutakoak.

2. Honako beharkizunak betetzen dituena enpresa ertaintzat hartuko da:

a) Ustiapen ekonomiko bat egitea.

b) Bere eragiketa bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunean definitutako eran, 50 milioi eurokoa baino handiagoa ez izatea, edo bere aktiboak 43 milioi euro ez gainditzea.

c) Batez besteko plantila 250 langiletik beherakoa izatea.

d)[125] Aurreko beharkizunetako bat betetzen ez duten enpresek ez edukitzea entitate horien kapitalean, dela zuzenean dela zeharka, %25eko partaidetza edo handiagoa, non eta entitate horiek ez diren foru arau honen 59. artikuluan aipatutakoak.

3. Aurreko 1. eta 2. apartatuetan ezarritako beharkizunak zergaren sortzapena gertatzen den ekitaldia hasi aurreko zergaldian bete beharko dira.

---

[123] Artikulu hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAren 3. artikuluko lehen ordinaleko bost apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaket jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko den. (2009-12-28ko GAO).

[124] Letra hau abenduaren 27ko 13/2012 FORU ARAUAren 3. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean. Aldaketak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ditu ondorioak (2012/12/28ko GAO).

[125] Letra hau abenduaren 27ko 13/2012 FORU ARAUAren 3. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean. Aldaketak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ditu ondorioak (2012/12/28ko GAO).

Zergaldi hori urte naturala baino laburragoa izan bada, eragiketa bolumenari dagokion magnitudea urtebetera eramango da. Berdin jokatuko da entitatea sortu berria denean.

4. Aurreko 1. eta 2. apartatuetako c) letretan xedatutakoaren ondorioetarako, batez besteko plantila kalkulatzeko, urtean lanaldi osoko langileak zenbat diren begiratuko da. Lanaldi partzialeko langileen kasuan, lan egindako ordu kopuruaren proportzioan egingo da konputua.

5. Entitatea sozietate talde bateko kide bada Merkataritza Kodeak 42. artikuluan jasotakoaren arabera, adierazitako magnitudeak talde horretako entitate multzoari buruzkoak izango dira.

Aktiboa eta eragiketa bolumena konputatzeko, kontuan hartuko dira Merkataritza Kodearen 46. artikuluan eta hura garatzen duten arauetan jasotakoagatik bidezko diren ezabaketak.

50. artikulua. Ibilgetu material berria amortizatzea.

1.[126] Ibilgetu materialaren elementu berriek, eraikinak kanpo utzita, aurreko 49. artikuluan aipatutako enpresa txikiek erosten dituztenean, amortizazio askatasuna izango dute martxan jartzen direnetik aurrera.

Ibilgetu materialaren elementu berriak, eraikinak kanpo utzita, aurreko 49. artikuluan aipatutako enpresa ertainek erosten dituztenean, foru arau honek 11. artikuluan jasotako taulako amortizazioko gehieneko koefiziente a 1,5ekin biderkatuz ateratzen den koefizientearen arabera amortizatu ahal izango dira martxan jartzen direnetik aurrera.

Aurretik jasotakoa jasota ere, 14. artikuluaren 3. apartatuko a) letran eta c) letraren bigarren paragrafoan nahiz artikulu beraren 4. apartatuko lehen eta bigarren paragrafoetan aipatutako eraikinek eta garraio elementuek ez dute izango artikulu honetan jasotako amortizazio askatasuna edo amortizazio aurreratua.

Bestetik, foru arau honek 14. artikuluaren b) letran eta c) letraren lehen paragrafoan aipatutako ibilgailuek artikulu honetan jasotako amortizazio askatasuna edo amortizazio aurreratua izango dute, xedapen haietan kontzeptu horretan jarritako mugak aplikatuz ateratzen den kopuruan.

2. Aurreko apartatuan jasotako erregimena zergaldian izenpetutako obra kontratua dela-eta enkarguz hartutako elementuei ere aplikatuko zaie, baldin eta zergaldia amaitu ondorengo hamabi hilabeteen barruan martxan jartzen badira.

3. Enpresak berak eraikitako ibilgetu materialaren elementuei ere aplikatuko zaie aurreko bi apartatuetan jasotakoa.

4.[127] Aurreko 1 apartatuko lehen paragrafoan jasotako amortizazio askatasuna honako hauekin bateraezina izango da:

---

[126] Apartatu hau 2013ko uztailaren 17ko 5/2013 Foru Arauaren 3. artikuluko bost apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Araua, zerga iruzurraren aurkako neurriei, kredituak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzkoa, argitaratu eta beharamunean jarri da indarrean (GAO 2013-07-22). 3. artikuluak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ditu ondorioak.

a) Esportazio jarduerengatik emandako hobariarekin, horiek direla-eta lortutako mozkinak inbertitutako elementuei dagokienez.

b) Aparteko mozkinak berrinbertitzearekin, eskualdaketaren zenbatekoaren berrinbertsioari lotutako elementuei dagokienez.

5. Amortizazio askatasuna izan duten elementuak eskualdatuz gero, eskualdaketa balioaren eta kontabilitate balioaren arteko diferentzia eginez lortzen den errenta bakarrik bilduko da aparteko mozkinengatik egin daitekeen berrinbertsio salbuespenera, behin moneta depreziazioaren zenbatekoa zuzendu eta gero."

6.[128] Finantza-errentamenduko kontratu bat dela-eta hartutako ibilgetu materialaren elementu berriei ere aplikatuko zaie artikulu honetan jasotakoa.

7. Aurreko 1 apartatuan benetako depreziazioari dagokionez jasotzen denetik ateratzen den kopuru amortizagarriaren soberakinaren kenkaria ez da baldintzatuko galera eta irabazien konturako kontabilitate-egozpenera.

51. artikulua.[129] Zordunen balizko kaudimengabezien ondorioz krediturien narriaduragatik izandako galerak.

1. Foru arau honek 49. artikuluan aipatutako enpresa txiki eta ertainetan, oinarri ezargarritik kendu daiteke balizko kaudimengabezien ondorioz krediturien narriaduragatik izandako galera bat, zergaldia amaitutakoan dagoen zordun kontuen zenbatekoaren %1eraino gehienez.

2. Ez dira aurreko apartatuan aipatutako zordunen artean sartuko foru arau honek 12. artikuluaren 2. apartatuari jarraikiz kaudimengabezien ondorioz krediturien narriaduragatik izandako galera onartu zaien zordunak eta artikulu horren arabera narriaduragatiko galerak kenkaridunak ez dituzten zordunak.

3. Aurreko 1. apartatuaren arabera izandako narriaduragatiko galeraren saldoa ez da apartatu horretan jaso den muga baino handiagoa izango.

4. Zordunen balizko kaudimengabezien ondorioz krediturien narriaduragatik izandako galerak, baldin eta enpresa txiki eta ertaina izateari utzi zaion zergaldietan eginak badira, ez dira kengarriak izango aurreko 1. apartatuan aipatutako narriaduragatiko galeraren saldoaren zenbatekoraino.

52. artikulua.[130] (indargabetua)

---

[127] 4 eta 5 atal hauek Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Hemezortzi zenbakiak aldatu ditu, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

[128] 6. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Hemeretzi artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[129] 51. artikulu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Hogei artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

III. Kapitulua: Atzerriko baloreen entitate edukitzaileen araudia

53. artikulua Atzerriko baloreen entitate edukitzaileak. Araudiaren aplikazioa. [131]

1.[132]Lurralde espainiarrean egoitzarik ez duten entitateetako fondo propioen baloreak bitarteko materialak eta giza baliabideak erabiliz kudeatu eta administratzea xede duten entitateak bildu ahal izango dira kapitulu honetan aurreikusten den erregimenera.

Atzerriko baloreen entitate edukitzailearen kapitalean parte hartzea adierazten duten balore edo partaidetzak izendunak izango dira nahitaez.

Interes ekonomikoko talde espainiar eta europarrei, enpresen aldi baterako batasunei eta ondare sozietateei aplikagarri zaizkien erregimen berezietan dauden entitateak ezingo dira kapitulu honetako erregimenera bildu.

2. Atzerriko baloreak edukitzeko entitateen araudiaren aldeko aukera Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari jakinarazi beharko zaio. Komunikazio horren ondoren amaitzen den zergaldiari aplikatuko zaio araudia, bai eta Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari araudiari uko egin izana jakinarazi aurretik amaitzen diren ondorengo zergaldiei ere.

Erregelamendu bidez, komunikazioaren beharkizunak eta horrekin batera eman beharreko informazioaren edukia finkatu ahal izango dira.

3. Aipatu araudira biltzeko, horri buruzko gertatzezko kasuak bete behar dira aurretik. Subjektu pasiboak kasu horiek frogatu beharko ditu, Zerga Administrazioak eskatuta.

4. Lurralde espainiarrean egoitza ez duten entitateen fondo propioen balore errepresentagarrien diruzkoak ez diren ekarpenak foru arau honek 101. artikuluan jasotako araudira bilduko dira, ekarpen horiek ematen duten partaidetzaren portzentajea edozein izanik ere, baldin eta balore horietatik eratorritako errentak foru arau honek 19. artikuluan jasotako araudira bildu badaitezke.

---

[130] Artikulu hau abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren xedapen indargabetzaile bakarrak indargabetu du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eta 2007an hasi eta 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera bukatutako zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

[131] 53. artikulu hau, Gipuzkoako Lurralde Historikorako hainbat zerga neurri onartzen duen otsailaren 12ko 2/2001 Foru Arauaren 4. artikuluko apartatu bederatzigarrenak aldatzen du. 2001eko otsailaren 17an sartu zen indarrean.

[132] 1 apartatu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 67.artikuluak aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

54. artikulua. Espainian egoitza ez duten entitateen fondo propioen balore errepresentagarrien edukitzatik eratorritako errentak. Mozkinen banaketa. Partaidetzaren eskualdaketa. [133]

1.[134] Lurralde espainiarrean egoitzarik ez duten entitateen dibidenduak edo mozkin-partaidetzak, eta, orobat, foru arau honen 19. artikuluan ezarritako baldintzak betez partaidetza eskualdatzean lortutako errenta positiboak ez dira oinarri ezargarrian sartuko.

2.[135] Aurreko apartatuan jasotakoaren arabera sartu gabe geratutako errenten kargura banatu diren mozkinei tratamendu hau emango zaie:

a) Jasotzailea zerga honi lotutako entitatea denean, jasotako mozkinek eskubidea emango dute dibidenduen ezarpen bikoitzagatik kenkaria egiteko, foru arau honek 33. artikuluan jasotakoari jarraituz.

b)[136] Jasotzailea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari lotutako zergaduna denean, banatutako mozkina errenta orokortzat hartuko da, eta nazioarteko ezarpen bikoitzagatik kenkaria egin ahal izango da 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 94. artikuluan jasotakoari jarraituz, baloreak edukitzeko entitateak atzerrian ordaindu eta jasotako mozkinak eratzen lagundu duten errenta salbuetsiei lotutako zergei dagokienez.

c) Jasotzailea lurralde espainiarrean egoitzarik ez duen entitate edo pertsona fisikoa denean, banatutako mozkina ez da lurralde espainiarrean lortutzat hartuko. Lurralde espainiarrean kokatutako establezimendu iraunkorra denean, a) letran jasotakoa aplikatuko da. Jaulkipen primaren banaketari letra honetan mozkinen banaketarako jasotako tratamendua emango zaio.

Ondorio horietarako, banatutako lehen mozkina errenta salbuetsietatik datorrela ulertuko da.

3. Baloreak edukitzeko entitateko partaidetza eskualdatzean edo bazkidea bereziten den kasuetan edo entitatearen likidazioa egitean lortutako errentei tratamendu hau emango zaie:

---

[133] 54. artikulu hau, Gipuzkoako Lurralde Historikorako hainbat zerga neurri onartzen duen otsailaren 12ko 2/2001 Foru Arauaren 4. artikuluko apartatu bederatzigarrenak aldatzen du. 2001eko otsailaren 17an sartu zen indarrean.

[134] 1 apartatu hau, zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUAren I Kapituluko 2.artikuluko Hirugarrengo apartatuaren Hamaika zenbakiak aldatu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO 2004-04-16) argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean eta egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak. Hala ere, aldaketa honek 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izango ditu ondorioak.

[135] 2tik 4ra bitarteko atal hauek Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Hogei zenbakiak aldatu ditu, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

[136] b) letra hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 16.Bigarrena.Hiru artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

a) Baldin eta jasotzailea zerga honi lotutako entitatea edo lurralde espainiarrean kokatutako establezimendu iraunkorra bada, eta foru arau honek 33. artikuluaren 5 apartatuan jasotakoaren arabera atzerriko baloreak edukitzeko entitateko partaidetza beharkizuna betetzen badu, barruko ezarpen bikoitzagatik kenkaria egin ahal izango du, artikulu horretan jasotakoari jarraituz. Kasu berean, oinarri ezargarrian ez sartzeko irizpidea erabili ahal izango du, foru arau honek 19. artikuluan jasotakoaren arabera, entitate ez- egoiliarretako partaidetzei egotzitako balio diferentziei dagokien lortutako errentaren zatiari dagokionez, baldin eta entitate horiei dagokienez baloreak edukitzeko entitateak betetzen baditu aipatu 19. artikuluan atzerriko jatorriko errentak ez sartzeko jasotzen diren beharkizunak.

b) Jasotzailea lurralde espainiarrean egoitzarik ez duen entitatea edo pertsona fisikoa denean, ez da lurralde espaniarrean lortutzat hartuko foru arau honek 19. artikuluan aipatutakoaren arabera sartu gabe geratutako errenten kargura zuzkidutako erreserbei dagokien errenta edo artikulu horretan atzerriko jatorriko errentak oinarri ezargarrian ez sartzeko aipatutako beharkizunak betetzen dituzten entitate ez-egoiliarretako partaidetzei egotzitako balio diferentziei dagokiena.

4. Baloreak edukitzeko entitateak sartu gabe utzitako errenten zenbatekoa eta atzerrian ordaindutako zergak aipatu beharko ditu memorian, bai eta bazkideei eman ere haiek aurreko apartatuetan jasotakoa bete ahal izateko behar den informazioa.

5. Artikulu honetako 2 apartatuko c) letran eta 3 apartatuko b) letran jasotakoa ez da aplikatuko errentaren jasotzailea erregelamendu bidez paradisu fiskaltzat hartutako herri edo lurralde batean bizi denean.

IV. Kapitulua: Espainiako eta Europako interes ekonomikoko taldeak

55. artikulua. Interes ekonomikoko talde espainiarrak.[137]

1. Apirilaren 29ko 12/1991 Legean araututa dauden interes ekonomikoko taldeei zerga honen arau orokorrak aplikatuko zaizkie, jarraian zehazten diren berezitasunekin:

a) Ez dute Sozietateen gaineko Zergarik ordaindu beharko lurralde espainiarrean egoitza duten bazkideei egotzi beharreko oinarri ezargarriaren zatiagatik. Foru arau honen 47. artikuluan aipatzen den itzulketa ez da, zati horri dagokionez, inoiz egingo.

b) Lurralde espainiarrean egoitzadunak diren bazkideei ondoko hauek egotziko zaizkie:

[137] 55.artikulu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 68.artikuluak aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

a´) Entitate hauek lortutako oinarri ezargarriak, positiboak zein negatiboak izan. Entitateak ezingo ditu konpentsatu bazkideei egotzitako oinarri ezargarri negatiboak.

b´) Entitateak kuotan aplika ditzakeen kenkari eta hobariak. Kenkari eta hobarien oinarriak bazkideen likidazioan sartuko dira, eta zerga honen edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauen arabera gutxituko dute kuota.

c´) Entitateari dagozkion atxikipenak eta konturako sarrerak.

2. Espainian egoitzarik ez duten bazkideen dibidenduak edo mozkin-partaidetzak kontzeptu horregatik zergapetuko dira, eta horretarako, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren foru arauan eta Espainiak ezarpen bikoitza saihesteko izenpetu dituen hitzarmenetan xedatutakoari jarraituko zaio.

3. Dibidenduak eta mozkin-partaidetzak oinarri ezargarriaren egozpena jasan behar duten bazkideei badagozkie, eta horiek lortu diren zergaldietan entitateak erregimen hau aplikatu badu, ez dute zerga hau ordainduko, ezta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ere. Dibidenduak edo mozkin-partaidetzak bazkideei egotzi bazaizkie, haien zenbatekoa ez da bazkideek dituzten partaidetzen erosketa balioan integratuko. Partaidetzak egozpena egin ondoren eskuratzen direnean, partaidetzen erosketa balioari zenbateko hori gutxituko zaio.

Erregimen honetara bildutako entitateen kapitalean, fondo propioetan edo emaitzetan dauden partaidetzak eskualdatzen badira, erosketa balioari ondoko hau gehituko zaio: eskurapen egunetik eskualdatze egunera arte bazkideei beren partaidetzen errenta moduan benetako banaketarik gabe egotzi zaizkien mozkin sozialen zenbatekoa.

4. Entitateak zergaldiaren barruan egiten dituen jarduerak bere xedearekin bat ez datozenean, kide dituen sozietateetan zuzeneko edo zeharkako partaidetzak dituenean edo, zuzenean edo zeharka bere bazkideen edo hirugarrenen jarduerak zuzendu edo kontrolatzen dituenean, zerga erregimen hau ez da zergaldi horretan aplikatuko.

56. artikulua. Interes ekonomikoko talde europarrak.[138]

1. Europako Erkidegoen Kontseiluak uztailaren 25ean onartutako 2137/1985 Erregelamenduan araututa dauden interes ekonomikoko talde europarrei eta bertako kide direnei aurreko artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie, honako berezitasun hauekin:

a) Ez dute Sozietateen gaineko Zergarik ordainduko. Foru arau honen 47. artikuluan jasotzen den kenkaria ere ez zaie aplikagarria gertatuko.

b) Entitatea ez bada egoiliarra lurralde espainiarrean, egoitza Espainian duten bazkideek Sozietateen gaineko Zergaren edo Errenta Zergaren oinarri

[138] 56.artikulu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 69.artikuluak aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

ezargarrian integratuko dute, dagokionaren arabera, taldeak lortutako mozkin edo galeren zatia, beti ere mozkin edo galera horiek oinarri ezargarria kalkulatzeko ezarrita dauden arauekin zuzendu ondoren.

Kideek taldearen bitartez burututako jarduerak berarekin ekarri badu atzerrian establezimendu iraunkorra sortzea, Sozietateen gaineko Zergan edo nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko Espainiak sinatutako hitzarmenean jasotako arauak aplikatuko dira.

c) Lurralde espainiarrean egoiliarrak ez diren kideak ondoko kasuan bakarrik egongo dira Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari lotuta, entitatearen egoitza Espainian izan edo ez: apirilaren 26ko 2/1999 Foru Arauak, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarenak, 12. artikuluan jasotakoaren arabera, edo nazioarteko ezarpen bikoitzari buruzko hitzarmenean xedatutakoari jarraiki, bazkide horiek taldearen bitartez burututako jarduerak lurralde horretan establezimendu iraunkor bat sortzea badakar.

d) Lurralde espainiarrean egoiliarrak ez diren kideei egotzitako mozkinek Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren arauen arabera tributatu badute, beren banaketa zergapetu gabe geratuko da.

2. Interes ekonomikoko talde europarrak zergaldiaren barruan egiten dituen jarduerak bere xedearekin bat ez datozenean edo uztailaren 25eko 2137/1985 EEE Erregelamenduaren 3. artikuluko 2 zenbakian debekatutakoak direnean, aurreko apartatuetan jasotako erregimena ez da zergaldi horretan aplikatuko.

57. artikulua. Taldea eratzeko ekarpenen araudia.

1. Aurreko bi artikuluetan jaso diren interes ekonomikoko taldeei eta Europako interes ekonomikoko taldeei haiek eratzeko egiten diren diru-ekarpenen 100eko 25eko kenkaria egingo zaie kuota likidoan.

2. [139] Ekarpenak partaidetza itxura hartu beharko du taldearen kapital sozialean, eta kapitala bere osoan itzuli ondorengo bost urteetan mantendu beharko da bertan.

3. Artikulu honetan jasotako kenkaria foru arau honek VII. tituluaren IV., V. eta VI. kapituluetan jasotako kenkariekin batera aplikatuko da, foru arau honek 46. artikuluan ezarritako mugapean.

57 bis. artikulua.Egozpenerako irizpideak eta bazkideen identifikazioa.[140]

Kapitulu honetan xedatutakoa aplikagarri duten entitateei foru arau honen 58 bis eta 58 ter artikuluetan ezarritakoa aplikatuko zaie.

---

[139] 2. apartatu hau Zerga Neurriei buruzko otsailaren 25eko 1/1998 Foru Arauaren 5. artikuluak aldatu du, 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoroekin.

[140] 57 bis. artikulu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 70.artikuluak sortu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

V. Kapitulua: Enpresen aldi baterako elkarteak

58. artikulua. Enpresen aldi baterako batasunak.[141]

1.[142] Maiatzaren 26ko 18/1982 Legean, enpresen aldi baterako batasunen eta eskualdeko industri garapenerako sozietateen zerga erregimenari buruzkoan, araututa dauden eta Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko Erregistro Berezian izena emanda ageri diren enpresen aldi baterako batasunek eta, orobat, euren enpresa kideek foru arau honen 55. artikuluan ezarritakoaren arabera ordainduko dute zerga.

2. Enpresen aldi baterako batasunak atzerrian jarduten badu, enpresa kideek atzerritik datozen errentak zergan ez sartzea aukeratu ahal izango dute.

3. Entitateek atzerrian burutzen diren obra, zerbitzu edo horniduretan parte hartzen badute aldi baterako batasunen pareko lankidetza formulak erabiliz, zergatik kanpo utzi ahal izango dituzte atzerritik datozen errentak.

Entitateek Ogasun eta Finantza Departamentuari aurkeztu beharko diote errentak zergan ez sartzeko eskaera, eta lurralde espainiarrean eratutako enpresen aldi baterako batasunei exijitutako informazio bera eman beharko dute.

4. Errentak ez sartzeko aukeraren alde egiteak aukera hori aldi baterako batasuna iraungi arte aplikatzea ekarriko du. Aldi baterako batasunak lortzen duen errenta negatiboa entitate kideen oinarri ezargarrian egotziko da. Horrelakoetan, aldi baterako batasunak ondorengo ekitaldietan errenta positiboak lortzen dituenean, enpresa kideek izaera positiboz integratuko dute beren oinarri ezargarrian lehendik egotzitako errenta negatiboa. Errenta positibo horien zenbatekoa izango da muga.

5. Subjektu pasiboak zergaldiaren barruan egiten dituen jarduerak bere xede sozialarekin bat ez datozenean, artikulu honetan jasotakoa ez da zergaldi horretan aplikatuko.

58 bis.artikulua. Egozpen irizpideak.[143]

---

[141] 58.artikulu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 71.artikuluak aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

[142] 1 apartatu hau Zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUAren I Kapituluko 2. artikuluko Bigarrengo apartatuaren Hiru zenbakiak aldatu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO 2004-04-16) argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean eta egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak. Hala ere, aldaketa honek 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan izango ditu ondorioak.

[143] 58 bis. artikulu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 72.artikuluak sortu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

1. Kapitulu honetan aipatzen diren egozpenak erregimen honetara bildutako entitatearen zergaldia amaitzen den egunean bazkide edo enpresa kidearen izaerari dagozkion eskubide ekonomikoak beren gain dituzten pertsona edo entitateei egingo zaizkie, entitatea eratzeko eskrituran ezarritako proportzioan eta, horren ezean, zati berdinetan.

2. Egozpena ondoko datan egingo da:

a) Bazkideak edo enpresa kideak erregimen honetara bilduta dauden entitateak badira, erregimen honetan dagoen entitatearen zergaldia ixten den egunean.

b) Gainerako kasuetan, hurrengo zergaldian, non eta entitatearen zergaldia ixteko egunean bertan ez den erabakitzen egozpena modu jarraituan egitea.

Egiten den aukera ondorioak sortu behar dituen lehen zerga aitorpenean adieraziko da, eta hiru urtez eutsi beharko zaio.

58.ter artikulua. Bazkide edo empresa kideen identifikazioa.[144]

Kapitulu honetan xedatutakoa aplikagarri duten entitateek, Sozietateen gaineko Zergaren aitorpenaz batera, honako informazio hau aurkeztu beharko dute: zein pertsonak dauzkaten zergaldiaren amaiera egunean bazkide edo enpresa kidearen izaerari dagozkion eskubide ekonomikoak, eta zein proportziotan hartzen duen parte horietako bakoitzak entitate horien emaitzetan.

VI. Kapitulua: Kapital-arriskuko sozietate eta fondoak eta eskualdeko industria garapenerako sozietateak[145]

59. artikulua. [146] Kapital-arriskuko entitateak.[147]

---

[144] 58.ter artikulu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 73.artikuluak sortu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

[145] Kapitulu honen izenburua abenduaren 27ko 13/2012 FORU ARAUAren 3. artikuluko lau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean. Aldaketak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ditu ondorioak (2012/12/28ko GAO).

[146] 59.artikulu hau, zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUAren I Kapituluko 2.artikuluko hirugarrengo apartatuaren hamabi zenbakiak aldatu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO 2004-04-16) argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean eta egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak. Hala ere, aldaketa honek 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izango ditu ondorioak.

[147] Artikulu honetako 6 eta 7 apartatuak, abenduaren 1eko 8/2006 FORU ARAUAk, zerga alorreko zenbait neurri onartzen dituenak, aldatzen ditu bere 2. artikuluko bigarren apartatuko sei zenbakian. Zenbaki berean 8.etik 10.era doazen apartatuak gehitzen ditu. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu (GAO 2006-12-12) ondorengo egunean sartzen da indarrean. Hala ere, aldaketa hauek 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izango ditu ondorioak.

1.[148] Azaroaren 24ko 25/2005 Legeak, kapital-arriskuko entitateei eta beren sozietate kudeatzaileei buruzkoak, arautzen dituen kapital-arriskuko entitateek errentak lortzen badituzte lege horren 2 artikuluan aipatzen diren kapital-arriskuko enpresa edo entitateen kapitalean edo fondo propioetan parte hartzearen baloreak eskualdatzeagatik, errenta horiek salbuetsita egongo dira baldin eta eskualdaketa hori baloreak eskuratu ondorengo bigarren urtetik aurrera egiten bada. Epe hori baloreak eskuratu diren unetik edo kotizazioa baztertu den momentutik aurrera konputatuko da, hamabosgarren urteraino, hau barne.

Salbuespen gisa, onartu ahal izango da azken epe hori hogeigarren urteraino luzatzea, hau barne. Epea zein kasutan eta zein baldintzatan luzatu arauzko eran ezarriko da.

Aurreko paragrafoan jasotako kasuan izan ezik, salbuespena ez da aplikatuko lehendabiziko urtean eta hamabosgarrenetik aurrera.

Nolanahi dela ere, errentak lortzen direnean lehen esandako 2. artikuluaren 1 apartatuko bigarren paragrafoan aipatzen diren enpresen kapitalean edo fondo propioetan parte hartzearen baloreak eskualdatzeagatik, salbuespena aplikatu ahal izateko ezinbestekoa izango da entitate partizipatuak dituen higiezinen kontabilitate balio osoaren gutxienez %85era iristen diren ondasun higiezinak atxikita egotea, etengabe eta baloreak edukitzen diren bitartean, jarduera ekonomiko baten garapenari Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan ezarritako eran. Jarduera hori ezingo da finantzarioa izan, kapital-arriskuko entitateei eta beren sozietate kudeatzaileei buruzko legeak dioen bezala, ezta inmobiliarioa ere.

2. Subjektu pasiboek kapital-arriskuko fondoen ondareari eta kapital-arriskuko fondo propioei egindako diru-ekarpenen 100eko 20 kendu ahal izango dute kuota likidotik.

Ekarpen horrek oso-osorik egon behar du ordainduta eta bost urtez mantendu beharko da sozietatearen aktiboan.

Apartatu honetan jasotako kenkaria foru arau honek VII. tituluaren IV., V. eta VI. kapituluetan ezarritako kenkariekin batera aplikatuko da, 46. artikuluaren 1 apartatuan ezarritako muga berdinekin.

3. Kapital-arriskuko sozietate eta fondoek sustatzen dituzten sozietateetatik jasotako dibidenduak eta, oro har, mozkin-partaidetzak oinarri ezargarritik kanpo geratuko dira foru arau honen 19. artikuluan jasotako erregimenari jarraiki, edo kengarriak izango dira arau horren 33.2 artikuluan ezarritako eran, errenta horien jatorria zein den, partaidetza portzentajea eta akzio edo partaidetzak eduki diren denbora edozein direla ere.

4. Kapital-arriskuko sozietate eta fondoetatik jasotako dibidenduek eta, oro har, mozkin-partaidetzek tratamendu hau izango dute:

---

[148] 1. apartatu hau, abenduaren 1eko 8/2006 FORU ARAUAk, zerga alorreko zenbait neurri onartzen dituenak, aldatzen du bere 2. artikuluko bigarren apartatuko lau zenbakian. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu (GAO 2006-12-12) ondorengo egunean sartzen da indarrean. Hala ere, aldaketa honek 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izango ditu ondorioak.

a) Foru arau honen 33.2 artikuluan aurreikusten den kenkaria aplikatuko zaie, partaidetza portzentajea eta akzioak edo partaidetzak eduki den denbora edozein direla ere, horiek jasotzen dituena zerga honen subjektu pasiboa denean edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaduna izanik, establezimendu iraunkorra duenean.

b) Jasotzailea Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga ordaintzen duen baina Espainian establezimendu iraunkorrik ez duen pertsona fisiko edo entitate bat denean, dibidendu edo mozkin-partaidetzak ez dira lurralde espainiarrean lortutakotzat joko.

5. Kapital-arriskuko sozietate eta fondoen fondo propioetako akzio edo partaidetzak eskualdatu edo berreskuratzeagatik sortzen diren errenta positiboek tratamendu hau izango dute:

a) Foru arau honen 33.5 artikuluan aurreikusten den kenkaria aplikatuko zaie, partaidetza portzentajea eta akzioak edo partaidetzak eduki den denbora edozein direla ere, horiek jasotzen dituena zerga honen subjektu pasiboa denean edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaduna izanik, establezimendu iraunkorra duenean.

b) Jasotzailea Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga ordaintzen duen baina Espainian establezimendu iraunkorrik ez duen pertsona fisiko edo entitate bat denean, errenta horiek ez dira lurralde espainiarrean lortutakotzat joko.

6. Aurreko 4 eta 5 apartatuetako b) letran xedatutakoa ez da aplikatuko erregelamenduz paradisu fiskaltzat kalifikatuta dagoen herrialde edo lurralde batean lortu den errenta denean.

11.[149] Entitate partizipatuak Europako Kontseiluaren 1993ko martxoaren 10eko 93/22/EEE Arteztarauan araututa dauden balore merkatuetan kotizatzen badu, aurreko 1 apartatuan aurreikusitako salbuespena aplikatzeko, ezinbestekoa izango da kapital-arriskuko sozietate edo fondoak gehienez ere hiru urteko epean eskualdatzea enpresa partizipatuaren kapitalean duen partaidetza. Epe hori enpresa partizipatua merkatuan kotizatzen hasten den egunetik aurrera kontatuko da.

60. artikulua. (indargabetua)[150].

1. Enpresak sustatzeko sozietatetzat beharkizun hauek betetzen dituztenak hartuko dira:

A)[151]Beren xede sozial nagusia ondoko hau izatea: enpresak sustatzea haien kapitalean aldi batez parte hartuz, eta ondorengo B) letran aipatzen diren eragiketak egitea.

---

[149] 11. apartatu hau abenduaren 1eko 8/2006 FORU ARAUAk, zerga alorreko zenbait neurri onartzen dituenak, gehitu du bere 2. artikuluko bigarren apartatuko lau zenbakian, aurreko 7. apartatua 11. apartatua bihurtuz. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu (GAO 2006-12-12) ondorengo egunean sartzen da indarrean. Hala ere, aldaketa honek 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izango ditu ondorioak

[150] Artikulu hau abenduaren 27ko 13/2012 FORU ARAUAren 3. artikuluko bost apartatuak edukrik gabe utzi du. Aipatutako foru arauak zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean. Aldaketak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ditu ondorioak (2012/12/28ko GAO).

B)Ondoko eragiketak burutzea, eta xede sozialean horrela adierazita agertzea:[152]

a)Jarduera enpresarialak egiten dituzten sozietateen akzio edo partaidetzak harpidetzea, beren tituluek burtsan kotizatzen ez badute. Inola ere ezingo dute parte hartu inbertsio mobiliarioko sozietateetan, inbertsio mobiliarioko fondoetan edo ondare sozietateetan.[153]

b) Aurreko letran aipatutako akzio eta partaidetzak eskuratzea, horiek erosiz.

c) Sozietate partizipatuek jaulkitako errenta finkoko tituluak harpidetzea, edo haiei maileguak, parte hartzekoak edo ez, ematea bost urtetik gorako epean.

Ondorio horietarako, parte hartzeko kreditutzat hartuko dira ekainaren 7ko 7/1996 Errege Dekretu-Legeak, ekonomiaren jarduera suspertu eta liberalizatzeko premiazko zerga neurriak hartzen dituenak, 20. artikuluaren bat apartatuan araututakoak.

d) Sozietate partizipatuei honelako zerbitzuak zuzenean ematea: aholkularitza eta laguntza teknikoko zerbitzuak, eta sozietate partizipatuen administrazioarekin, horien egitura finantzarioarekin edo produkzio nahiz merkataritza prozesuekin lotuta dauden antzekoak.

e) Parte hartzeko kredituak aurreko c) letran jasotako zentzuan ematea, baldin eta merkataritza helburuko nabigazio edo arrantzari lotutako itsasontzi berriak erosteko badira. Kasu horretan ez da beharrezkoa izango enpresak sustatzeko sozietate horrek entitate mailegariaren kapitalean parte hartzea.

Kasu horretan, enpresa mailegariaren jardueraren bilakaera zehazteko irizpidea, interes aldakorra aplikatzean, finantzatu den itsasontziarena izango da.

Letra honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko kirol, jolas edo, oro har, erabilera pribaturako itsasontziei.

C) Gutxienez, 3.005.060,52 euroko kapital propioa ordaindu izana.

---

[151] A) letra hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 75.1 artikuluak aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

[152] B) letrako lehen paragrafo hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 75.2 artikuluak aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

[153] B) letrako bigarren paragrafo hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 75.2 artikuluak aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

2.[154]Era berean, enpresak sustatzeko sozietatetzat kredituko establezimendu finantzarioak hartuko dira haien helburu nagusia enpresa txiki eta ertainen sorrera eta finantzazioari laguntzea eta artikulu honen 1 apartatuko B) baldintzaren c) letran aipatutako kreditu partizipatiboak ematea denean, baldin eta, Euskal Autonomia Erkidegoko herri erakundeek enpresak sustatu eta garatzeko aurrera daramaten politikari laguntzearren, haiekin lankidetza finantzarioko hitzarmen bat sinatu badute.

3. Artikulu honetan araututako erregimenera biltzen diren enpresa-sustapeneko sozietateek ez dute tributatuko titulu honen VIII. kapituluan jasotako zerga araudian.

4. Aurreko 1 apartatuan zerrendatutako ezaugarriak betetzen dituzten akzio eta partaidetzen bitartez lortutako errentei foru arau honek 59. artikuluaren 1 apartatuan jasotakoa aplikatuko zaie.

5. Subjektu pasiboek enpresak sustatzeko sozietateen fondo propioei emandako diru-ekarpenen zenbatekoaren 100eko 20ko kenkaria egin dezakete kuota likidoan.

Ekarpen horrek oso-osorik ordainduta egon behar du eta sozietatearen aktiboan bost zergaldi iraun behar du.

Apartatu honetan jasotako kenkaria foru arau honek VII. tituluaren IV., V. eta VI. kapituluetan jasotako kenkariekin batera egingo da, bere 46. artikuluan finkatutako muga berdinak jarriz.

6. Parte hartzeko maileguak emateagatik lortutako errentak, enpresa mailegariaren jardueraren bilakaeraren arabera zehaztutako interes aldakorraren aplikazioaren ondorioz lortuak diren neurrian, salbuetsita egongo dira. Interes finkotik eratorritako ordainak, ordea, ez dira halakotzat hartuko.

Hala ere, zerga ondorioetarako gastu kengarritzat hartuko dira mailegua hartu duen entitatearentzat.

7. Aurreko apartatuan jasotakoaren arabera oinarri ezargarrian sartu ez den errentaren zenbatekoak ondoko helburu hauetako bat izango du:

a) Berariazko erreserba bat hornitzea; erreserba hori hornitu den egunetik bost urte iragan ondoren, foru arau honek 39. artikuluaren 2 zenbakian jasotako helburura zuzenduko da.

b) Parte hartzeko beste mailegu batzuk ematea bi urteko epean.

8. Enpresa-sustapeneko sozietateek sustatzen dituzten sozietateetatik jasotzen diren dibidenduek eta, oro har, mozkinetako partaidetzek foru arau honek 33. artikuluaren 2 apartatuan jasotako kenkaria izango dute, partaidetzaren portzentaia eta akzio edo partaidetzen edukialdia edozein delarik ere.

---

[154] 2 apartatu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 75.3 artikuluak aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

9. Enpresa-sustapeneko sozietateetatik jasotzen diren dibidenduek eta, oro har, mozkinetako partaidetzek foru arau honek 33. artikuluaren 2 apartatuan jasotako kenkaria izango dute, partaidetzaren portzentaia eta akzio edo partaidetzen edukialdia edozein direlarik ere.

10. Beharkizun horiek ez betetzeak artikulu honetan jasotako araudiaren abantailak galtzea ekarriko du berarekin.

11. Artikulu honetan jasotako araudia aplikatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak eman egin behar du espresuki, enpresak sustatzeko sozietateek hala eskatu ondoren.

61. artikulua. Eskualdeko industri garapeneko sozietateak.

1. Maiatzaren 26ko 18/1992 Legeak, Enpresen taldeen eta aldi baterako elkarteen eta eskualdeko industri garapeneko sozietateen zerga araudiari buruzkoak, araututako eskualdeko industri garapeneko sozietateek salbuespena izango dute, foru arau honek 59. artikuluaren 1 apartatuan jasotakoari jarraiki enpresa partizipatuen akzioak eta kapitaleko partaidetzak eskualdatuz lortzen dituzten errentengatik.

2. Eskualdeko industri garapeneko sozietateek parte hartzen duten sozietateetatik jasotzen diren dibidenduek eta, oro har, mozkinetako partaidetzek foru arau honek 33. artikuluaren 2 apartatuan jasotako kenkaria izango dute, partaidetzaren portzentaia eta akzio edo partaidetzen edukialdia edozein direlarik ere

VII. Kapitulua: Inbertsio kolektiboko erakundeak

62. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeek zerga ordaintzea.

1.[155] Inbertsio kolektiboko erakundeek, abenduaren 26ko 46/1984 Legean araututakoek, ez dute kuotan kenkaririk egiteko eskubiderik izango, eta errentak oinarri ezargarritik kanpo uzteko erregimena, nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko ezartzen dena, ezingo dute aplikatu. Karga tasa orokorrera bildutakoak hortik salbuetsita geratzen dira. Ondare sozietateen erregimena, foru arau honek VIII. tituluaren VIII. kapituluan jasotzen duena, ez zaie inoiz ere aplikatuko.

2.[156] Atxikipenen, konturako sarreren eta, hala egokitzen denean, ordainketa zatikatuen zenbatekoa kuota efektiboaren zenbatekoa baino handiagoa bada, Zerga Administrazioak ofizioz itzuliko du soberakina.

63. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide edo partaideek zerga ordaintzea.

---

[155] 1 apartatu hau zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUAren I Kapituluko 2.artikuluko hirugarrengo apartatuaren hamahiru zenbakiak aldatu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO 2004-04-16) argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean eta egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak. Hala ere, aldaketa honek 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izango ditu ondorioak.

[156] 2. apartatu hau Zerga Neurriei buruzko otsailaren 25eko 1/1998 Foru Arauaren 5. artikuluak aldatu du, 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoroekin.

1. [157] Artikulu honetan xedatutakoa obligazio pertsonalagatik edo establezimendu iraunkor bitartez obligazio errealagatik zerga honi lotuta dauden eta aurreko artikuluan aipatu diren inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide edo partaideei aplikatuko zaie.

2. Aurreko apartatuan aipatutako sujetu pasiboek oinarri ezargarrian sartuko dituzte kontzeptu hauek:

a) Akzio edo partaidetzak eskualdatuz nahiz azken horiek berreskuratuz lortu den errenta, positiboa zein negatiboa.

b) Inbertsio kolektiboko erakundeak banatutako mozkinak. Mozkin horiek ez dute kenkarirako eskubiderik emango ezarpen bikoitzagatik.

3.[158]Artikulu honen 2 apartatuan aipatutako erregimena aplikaziozkoa izango zaie inbertsio kolektiboko erakundeen bazkide edo partaideei, erakunde horiek baldintza hauek betetzen dituztenean: Europako Kontseiluak 1985eko abenduaren 20an emandako 85/611/EEE Arteztarauan erregulatuta egotea, foru arau honen 65. artikuluan jasotakoak ez izatea, Europako Batasuneko estatu batean eratu eta helbideratuta egotea, eta Balore Merkatuko Batzorde Nazionalaren erregistro berezian izena emanda agertzea egoitza Espainian duten entitateek merkaturatzearen ondorioetarako.

64. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzengatik kontabilizatutako errentak.[159]

Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzengatik subjektu pasiboak kontabilizatu dituen edo kontabilizatu behar dituen errenten zenbatekoa oinarri ezargarrian sartuko da.

65. artikulua. Erregelamenduz paradisu fiskaltzat hartutako herri edo lurraldeetan eratu diren inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide edo partaideek zerga ordaintzea.

1. [160] Obligazio pertsonalagatik edo establezimendu iraunkor bitartez obligazio errealagatik zerga honi lotuta dauden sujetu pasiboek, baldin eta

---

[157] Azaroaren 18ko 78/1997 Foru Dekretuak Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia abuztuaren 4ko 38/1997 Legearen bitartez Euskal Ekonomi Itunean egindako aldaketara egokitzen duenak, 13. artikuluaren bitartez aldatu du 1. apartatu hau. Aipatu foru dekretuak 1997ko abenduaren 3an sartu da indarrean eta urte honetako irailaren 1etik aurrerako ondorioak ditu.

[158] 3.apartatu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 76.artikuluak gehitu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

[159] 64.artikulu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 77.artikuluak aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

erregelamenduz paradisu fiskaltzat hartutako herri edo lurraldeetan eratu diren inbertsio kolektiboko erakundeetan partaidetza badaukate, zergaldia amaitzen den eguneko partaidetzaren likidazio balioaren eta erosketa balioaren arteko diferentzia sartuko dute oinarri ezargarrian.

Oinarri ezargarrian sartutako kopurua erosketa balio handiagotzat hartuko da.

2. Inbertsio kolektiboko erakundeek banatutako mozkinak ez dira oinarri ezargarrian sartuko, eta partaidetzaren erosketa balioa gutxituko dute.

3. Kontrako probarik ez badago, aurreko 1 apartatuko diferentzia akzio edo partaidetzaren erosketa balioaren 100eko 15ekoa izango dela ulertu behar da.

VIII. Kapitulua: Ondare sozietateak.[161]

66. artikulua. Ondare sozietateen konteptua.

1. Ondare sozietatetzat joko dira ondoko egoera hauek guztiak ematen diren zergadunak:

a) Zergaldiko laurogeita hamar egunetan gutxienez, haren aktiboaren erdia baino gehiago baloreek osatua izatea, edo haren aktiboaren erdia baino gehiago jarduera ekonomikoei atxikita ez egotea.

Jarduera ekonomikorik dagoen edo ondare elementu bat horri atxikita dagoen erabakitzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan xedatutakoari jarraituko zaio.

Bai aktiboaren balioa, bai jarduera ekonomikoei atxikita ez dauden ondare elementuena, kontabilitatetik ondorioztatzen dena izango da, baldin eta horrek sozietatearen egiazko ondare egoera zehazki islatzen badu.

b) Haren bazkide guztiak zergaldi osoan zehar pertsona fisikoak izatea.

c) Entitatearen diru sarreren %90 gutxienez Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren 65. artikuluan aipatzen diren errenta iturrietatik etortzea.

2. Aurreko 1. apartatuko a) letran xedatutakoa betetzearen ondorioetarako, ondoko hau hartuko da kontuan:

a) Honako hauek ez dira balore bezala konputatuko:

— Legezko eta arauzko eginbeharrak betetzeko edukitzen direnak.

---

[160] Azaroaren 18ko 78/1997 Foru Dekretuak Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia abuztuaren 4ko 38/1997 Legearen bitartez Euskal Ekonomi Itunean egindako aldaketara egokitzen duenak, 13. artikuluaren bitartez aldatu du 1. apartatu hau. Aipatu foru dekretuak 1997ko abenduaren 3an sartu da indarrean eta urte honetako irailaren 1etik aurrerako ondorioak ditu.

[161] VIII. kapitulu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 16.Lehena.Bederatzi artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

— Jarduera ekonomikoak egitearen ondorioz ezarritako kontratu harremanetatik sortutako kreditu eskubideak barnean dituztenak.

— Balore sozietateek beren xedea den jardueran aritzearen ondorioz dauzkatenak.

— Gutxienez boto eskubideen %5 eman eta parte-hartzea zuzentzeko eta kudeatzeko helburuaz edukitzen direnak, baldin eta, ondorio hauetarako, baliabide material eta pertsonalen antolamendu egokia badago eta partaidetutako entitateak ez badu betetzen aurreko 1. apartatuko a) letran ezarritako betebeharra.

b) Ez dira konputatuko ez balore bezala, ez jarduera ekonomikoei atxiki gabeko elementu bezala, eskuratze prezioa entitateak lortutako mozkin banatu gabeen zenbatekoa baino handiagoa ez dutenak, baldin eta mozkin horiek jarduera ekonomikoak egitetik etorritakoak badira, urte berean nahiz aurreko azken 10 urteetan lortutako mozkinen zenbatekoa muga izanik.

Ondorio hauetarako, jarduera ekonomikoetatik etorritako mozkinekin parekatzen dira apartatu honetako a) letrako azken puntuan azaltzen diren balioetatik etorritako dibidenduak, baldin eta partaidetutako entitateak lortutako diru sarrerak, gutxienez %90ean, jarduera ekonomikoak egitetik badatoz.

3. Artikulu honetako aurreko apartatuetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten entitateak ez dira ondare sozietatetzat joko beraien partaidetzaren erakusgarri diren baloreak bigarren mailako balore merkatu ofizialetakoren batean negoziaziora onartuta dauden zergaldietan.

4. Ondare sozietatetzat jotzen diren zergadunek kapitulu honetan aurreikusten diren berezitasunak kontuan edukiz ordainduko dute zerga hau.

5. Araubide honen aplikazioa bateraezina izango da titulu honetako gainerako arauetan ezarritako arauekin, X. eta XIII. kapituluetan ezartzen direnak salbuetsita.

67. artikulua. Oinarri ezargarria zehaztea.

1. Ondare sozietateen oinarri ezargarria zehazteko, ez da inolako gasturik kengarritzat hartuko, galera eta irabazien kontuan kontabilizatu bada ere, artikulu honetako hurrengo apartatuan xedatutakoa salbuetsita.

Oinarri ezargarria, beraz, entitatearen sarrera osoekin bat etorriko da, eta ezin izango zaie aplikatu foru arau honen IV. tituluan xedatutakoa, beraren 15-18, 20. eta 21. artikuluetan ezarritakoa salbuetsita, eta, hala badagokio, foru arau honen 115. artikulua xedatutakoa aplikatuz.

2. Entitatearen diru sarreren barruan etxebizitzetatik lortu diren kapital higiezinaren etekinak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren 35. artikuluko 1. apartatuan aipatzen direnak, baldin badaude, ondare sozietateek aipaturiko xedapenean ezartzen dena aplikatu ahal izango dute errenta horiekiko.

Entitatearen diru sarreren barruan Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren 37. artikuluko 1. apartatuko a) eta b) letretan aipatzen diren dibidenduak edo mozkinetako

partaidetzak badaude, ondare sozietateek foru arau horren 9. artikuluko 25 zenbakian xedatutakoa aplikatu ahal izango dute errenta horiekiko.

3. Artikulu honetako 1. apartatuan xedatutakoa gorabehera, ondare sozietateek aplikatu ahal izango dute Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren 68. artikuluan xedatutakoa.

68. artikulua. Kuota zehaztea.

1.[162] Karga tasa aplikagarriak eskala honetan adierazten dira:

Aurrezpenaren oinarri likidagarriaren zatia Euroak	Tasa aplikagarria %
1.500eraino	21,00
1.500,01etik 10.000raino	23,00
10.000,01etik aurrera	25,00

69. artikulua. Ondare sozietateen mozkinak banatzea eta haien partaidetzak eskualdatzea Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari dagokionez.

1. Ondare sozietateen araubide berezia aplikatu den ekitaldietan lortutako mozkinak banatu badira, kontuan hartu gabe zein entitatek banatzen dituen haiek lortutako mozkinak, noiz banatzen diren eta zein zerga araubide aplikatzen den une hartan, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak 37. artikuluaren 2. apartatuan jasotakoa aplikatu behar dute Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadun diren establezimendu iraunkorra duten pertsona fisikoek.

2. Ondare sozietateen partaidetzak eskualdatzen badira, kontuan hartu gabe noiz banatzen diren eta zein zerga araubide aplikatzen den une hartan, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak 49. artikuluaren 1. apartatuko c) letran eta 78. artikuluan jasotakoa aplikatu behar da, betiere eskualdatzailea bada Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadun den establezimendu iraunkorra duen pertsona fisikoa.

70. artikulua. Partaideen identifikazioa.

1. Ondare sozietatetzat jotzen diren entitateek beren kapitaleko partaidetzaren erakusgarri diren balore edo partaidetzak mantendu edo izendun bihurtu beharko dituzte.

2. Aurreko apartatuan ezarritako eginbeharra ez betetzea zerga arloko arau urraketatzat joko da.

---

[162] Apartatu hau abenduaren 27ko 13/2012 FORU ARAUAren 3. artikuluko sei apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean. Aldaketak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ditu ondorioak (2012/12/28ko GAO).

3. Zigorra diru isun finko bat izango da, 3.000 eurokoa, ez-betetzea gertatu den zergaldi bakoitzeko, baldin eta horri buruzko administrazio errekerimendurik ez bada egin.

Administrazio errekerimendurik izan bada, zigorra 6.000 euro izango da ez-betetzeak irauten duen zergaldi bakoitzeko.

4. Arau urraketa honen erantzule subsidiarioak izango dira sozietatearen administratzaileak, aurreko apartatuan ezarritakoa behar bezala betetzeko neurriak berariaz proposatzen dituztenak salbu, nahiz eta gainerako administratzaileek onartu ez.

IX. Kapitulua. Zerga kontsolidazioko erregimena.[163]

71. Artikulua. Definizioa.[164]

1. Kapitulu honetan jasotako zerga erregimen hau aukeratu ahal izango dute talde fiskalek. Horrela jokatuz gero, haietan sartutako entitateak ez dira banakako erregimenean zergapetuko.

2. Zergapetzeko banakako erregimentzat hartuko da zerga kontsolidazioko erregimena aplikaziozkoa ez denean entitate bakoitzari dagokiona.

72. artikulua. Subjetu pasiboa.[165]

1. Talde fiskala subjektu pasiboa izango da.

2. Sozietate nagusiak talde fiskala ordezkatuko du, eta zerga kontsolidazioko erregimenaren zerga obligazio formal eta materialak bete beharko ditu.

3. Sozietate nagusia eta horren menpeko sozietateak banakako tributazioaren erregimenetik eratorritako obligazioak ere bete beharko dituzte, zerga zorra ordaintzeari dagokionean izan ezik.

4. Sozietate nagusiari edo talde fiskaleko edozein entitateei buruz Administrazioak egindako egiaztatze eta ikertze lanek, sozietate nagusiak horien berri formala duelarik, talde fiskal horren Sozietateen gaineko Zergaren iraungitze epea etengo dute.

73. artikulua. Zerga kontsolidazioko erregimena aplikatzetik eratorritako zerga erantzukizunak.[166]

---

[163] Kapitulu honen izenburua Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Hogeitabi zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

[164] Artikulu hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Hogeitahiru zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

[165] Artikulu hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Hogeitalau zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

[166] Artikulu hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Hogeitabost zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

Talde fiskaleko sozietateek erantzukizun solidarioa izango dute zerga zorra ordaintzean, zigorretan izan ezik.

74. artikulua. Talde fiskalaren definizioa. Sozietate nagusia. Menpeko sozietateak.[167]

1.[168] Talde fiskaltzat hartuko da Espainian egoitza duen eta sozietate nagusi batek eta horren menpeko sozietate guztiek osatuta dagoen sozietate anonimoen, erantzukizun mugatuko sozietateen eta akzio bidezko sozietate komanditarioen multzoa, bai eta artikulu honen 3. apartatuan aipatutako kreditu entitateak ere, eragotzi gabe foru arau honek 2. artikuluaren 3. apartatuan xedatutakoa.

2. Ondoko beharkizun hauek betetzen dituena hartuko da sozietate nagusitzat:

a) Aurreko apartatuan jasotako izaera juridikoetako bat izatea edo, hori ez bada, nortasun juridikoa izatea eta Sozietateen gaineko Zergari lotuta eta salbuetsi gabe egotea. Entitate ez-egoiliarrek Gipuzkoan kokatuta dituzten establezimendu iraunkorrak sozietate nagusitzat hartu ahal izango dira haiei lotutako partaidetzak dituzten sozietateei dagokienez.

b)[169] Gutxienez 100eko 75eko partaidetza izatea, zuzena edo zeharkakoa, beste sozietate baten edo batzuen kapital sozialean tributazio erregimen hau aplikatzen den zergaldiko lehen egunean, edo gutxienez kapital sozialaren 100eko 70ekoa, akzioak merkatu erregulatu batean negoziatzeko onartuta dauzkaten sozietateak baldin badira. Azken portzentaje hau aplikatu ahal izango da, halaber, beste sozietate batzuetan zeharkako partaidetza edukitzean ere, baldin eta aipatu portzentaje hori lortzen bada akzioak merkatu erregulatu batean negoziatzeko onartuta dauzkaten mendeko sozietateen bidez.

c) Partaidetza hori zergaldi osoan edukitzea.

Entitate partizipatua deseginez gero ez da eskatuko zergaldi osoan partaidetza edukitzeko beharkizuna betetzea.

d) Espainian egoitza duen eta nagusitzat hartzeko beharkizunak betetzen dituen beste sozietate baten menpekoa ez izatea.

---

[167] Artikulu hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Hogeitasei zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

[168] Apartatu hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAren 3. artikuluko lehen ordinalaren hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean. Aldaketak 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ditu ondorioak (2011/12/27ko GAO).

[169] Letra hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUAren 2. artikuluaren ordinal lehenaren hiru apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean. Aldaketak 2010-1-1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ditu ondorioak. (2010-12-28ko GAO)

e)[170] Interes ekonomikoko talde espainiar eta europarrei, enpresen aldi baterako batasunei, edo ondare sozietateei aplikagarri zaien erregimen berezira bilduta ez egotea.

f)[171]Lurralde espainiarrean egoitzarik ez duten entitateen establezimendu iraunkorrak direnean, entitate horiek ez izatea Espainian egoiliarra den eta nagusitzat hartzeko baldintzak betetzen dituen beste entitate baten menpekoak, eta beren egoitza Espainiarekin nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmena, informazioa elkarri trukatzeko klausula izango duena, sinatu duen herri edo lurralde batean edukitzea.

3. [172] Sozietate bat menpekoa izango da baldin eta sozietate nagusiak bere gainean aurreko apartatuko b) eta c) letretan jasotako beharkizunak betetzen dituen partaidetza bat badu.

Finantza-bitartekarien inbertsio koefizienteei, baliabide propioei eta informazio obligazioei buruzko maiatzaren 25eko 13/1985 Legeko 8. artikuluaren 3. apartatuko d) letran aipatzen den babes sistema instituzional batean integratutako kreditu entitateak ere menpekotzat joko dira, baldin eta baldintza hauek betetzen badira: batetik, sistemako entitate zentrala talde fiskaleko kidea bada; bestetik, sistema osatzen duten entitateek emaitzen %100 komunean jartzen badute, eta, azkenik, entitate horien arteko kaudimen eta likidezia konpromisoa entitateotako bakoitzaren baliabide propio konputagarrien %100era bitartekoa bada. Baldintza horiek betetzat joko dira, baldin eta babes sistema instituzional batean, aurrezki kutxa batzuek modu itunduan soilik sistemako entitate zentralaren bidez betetzen badute, zuzenean edo zeharka, kreditu entitate gisa duten xedea, 2010eko uztailaren 9ko 11/2010 Errege Dekretu Legeko 5. artikuluaren 4. apartatuan ezartzen denaren arabera.

4. Baldintza hauetako bat betetzen duten entitateek ezingo dute talde fiskaletan sartu:

a) Zerga honetatik salbuetsita egoeta.

b)[173] Zergaldia ixtean konkurtso egoeran egotea edo 1/2010 Errege Dekretu Legegileak, uztailaren 2koak, onartutako Kapital Sozietateei buruzko Legearen

---

[170] e) letra hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 84.artikuluak aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

[171] f) letra hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 85.artikuluak gehitu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

[172] Apartatu hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAren 3. artikuluko lehen ordinalaren hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean. Aldaketak 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ditu ondorioak (2011/12/27ko GAO).

testu bateratuko 363. artikuluko 1. apartatuaren d) letran aurreikusitako ondare egoeran sartuta egotea, kapital sozietate forma izan gabe ere, non eta urteko kontuak onartzen diren ekitaldia amaitu aurretik azken egoera hau gainditu ez den.

c) Sozietate nagusiarenaz bestelako karga tasa batean Sozietate Zergari lotuta dauden menpeko sozietateak izatea.

d) Menpeko sozietatea izatea, talde fiskalean sartzeko beharkizunak betetzen ez dituen beste sozietate baten bitartez horretan parte harturik.

e) [174] Mendeko sozietateak, hauen ekitaldia, lege aginduz ezarria, ezin zaionean sozietate nagusiarenari egokitu.

5. Talde fiskala iraungitzat joko da sozietate nagusiak izaera hori galtzen duenean."

75. artikulua. Sozietateak talde fiskalean sartzea edo hortik ateratzea.[175]

1. Aurreko artikuluaren 2.b) artikuluan zehaztutako partaidetza baten moduko bat eskuratzen zaien sozietateak derrigorrez sartuko dira talde fiskalean, ondorengo zergalditik aurrerako ondorioetarako. Sozietateak sortu berriak direnean, eraketaren momentutik aurrera sartuko dira taldean, baldin eta talde fiskalean sartzeko gainerako beharkizunak betetzen badira.

2. Menpeko sozietatearen izaera galtzen dutenak talde fiskaletik aterako dira hura gertatzen den zergaldi beraren ondorioekin.

76. artikulua. Zeharkako jabaria zehaztea.[176]

1. Sozietate batek beste baten kapital sozialean gutxienez 100eko 75eko partaidetza daukanean, edo kapital sozialaren 100eko 70ekoa akzioak merkatu erregulatu batean negoziatzeko onartuta dauzkaten sozietateetan, eta hauek, beren aldetik, egoera berean baldin badaude beste hirugarren batetiko, eta horrela gainerakoak, lehenak beste sozietateetan duen zeharkako partaidetza kalkulatzeko honela jardungo da: Biderkatu egingo dira, hurrenez hurren, kapital sozialeko partaidetza portzentajeak; hala, biderkatze horien emaitzak kapital sozialaren 100eko 75 izan beharko du gutxienez, edo 100eko 70 gutxienez akzioak merkatu erregulatu batean negoziatzeko onartuta dauzkaten sozietateak

---

[173] Letra hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUAren 2. artikuluaren ordinal hirugarrenak aldatu du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean. Aldaketak 2010-09-01etik aurrerako ondorioak ditu. (2010-12-28ko GAO)

[174] Letra hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUAren 2. artikuluaren ordinal lehenaren lau apartatuak erantsi du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean. Aldaketak 2010-1-1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ditu ondorioak. (2010-12-28ko GAO)

[175] Artikulu hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Hogeitazazpi zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

[176] Artikulu hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUAren 2. artikuluaren ordinal lehenaren bost apartatuak erantsi du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean. Aldaketak 2010-1-1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ditu ondorioak. (2010-12-28ko GAO)

baldin badira edo azken hauek zuzenean edo zeharka partizipatutako sozietateak baldin badira, baldin eta horien bidez portzentaje horretara iristen bada, zeharka partizipatutako sozietatea talde fiskalean sartu ahal izan dadin eta sartu behar izan dezan; eta, gainera, ezinbestekoa izango da tarteko sozietate guztiak talde fiskalean sartuta egotea halaber.

2. Talde fiskal batean zuzeneko eta zeharkako partaidetza harremanak batera ematen badira, sozietate batek zeharka edo zuzenean kontrolatzen duen beste batean duen partaidetza osoa kalkulatzeko batu egingo dira zuzeneko eta zeharkako partaidetza portzentajeak. Sozietate partizipatua sozietateen talde fiskalean sartu ahal izan dadin eta sartu behar izan dezan, batura horrek kapital sozialaren 100eko 75 eman beharko du gutxienez, edo 100eko 70 gutxienez, akzioak merkatu erregulatu batean negoziatzeko onartuta dauzkaten sozietateak baldin badira edo azken hauek zuzenean edo zeharka partizipatutako sozietateak baldin badira, baldin eta horien bidez portzentaje hori iristen bada.

3. Elkarrekiko partaidetza, partaidetza zirkular edo konplexuko harremanik baldin badago, hala behar izanez gero frogatu egin beharko da, datu objektiboak erabilita, kapital sozialaren gaineko 100eko 75eko partaidetza gutxienez, edo 100eko 70ekoa gutxienez, akzioak merkatu erregulatu batean negoziatzeko onartuta dauzkaten sozietateak baldin badira edo azken hauek zuzenean edo zeharka partizipatutako sozietateak baldin badira, baldin eta horien bidez portzentaje hori iristen bada.

77. artikulua. Zerga kontsolidazioko erregimenaren aplikazioa.[177]

1. Talde fiskala osatu behar duten sozietate guztiek eta bakoitzak horrela erabakitzen duenean aplikatuko da zerga kontsolidazioko erregimena.

2. Akziodunen batzordeak edo, merkataritza izaerarik ez badu, organo baliokide batek hartu beharko ditu aurreko apartatuan aipatutako erabakiak, zerga kontsolidazioko erregimena aplikaziozkoa izan eta aurreko lehen zergaldiko edozein egunetan. Inpugnatu ez direnean edo inpugnatu ezin direnean izango dituzte ondorioak erabaki horiek.

3. Aurrerantzean talde fiskalean sartzen diren sozietateek aurreko apartatuetan jasotako beharkizunak bete beharko dituzte, zerga kontsolidazioko erregimenean zerga ordaindu behar duten lehen zergaldiaren amaiera egunean bukatuko den epearen barruan.

4.[178] Artikulu honen 1 eta 2 apartatuetan aipatutako erabakirik ez egoteak berarekin ekarriko du zerga kontsolidazioko erregimena erabiltzeko ezintasuna.

Geroago zerga taldean sartu behar diren sozietateei buruzko erabakirik ez egotea entitate nagusiaren zerga urraketatzat hartuko da, eta 300 eta 6.000 euro bitarteko isunaz zigortuko da. Era berean, horrek ez du eragotziko eragindako sozietateen taldean benetan sartzea. Zerga kontsolidazioko erregimena aplikatzeko ezintasuna aitortuko da, baldin eta bi urteko epean jarraitzen bada, zerga kontsolidazioko erregimenean zergapetu behar diren lehendabiziko

[177] Artikulu hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Hogeitabederatzi zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

[178] 4. apartatu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako hirugarren xedapenaren 4 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jarriko da indarrean (2005-03-17 GAO).

zergaldia amaitzen den egunetik aurrera, artikulu honetan aipatutako erabakirik hartu gabe.

5. Behin aukera hori egin eta gero, talde fiskala erregimen horri lotuta geratuko da mugaegunik gabe ondorengo zergaldietan, 74. artikuluko beharkizunak bete bitartean eta zentsu aitorpena bidez aplikazioari uko egiten ez zaion bitartean; uko egitekotan, horretarako bi hilabeteko epea izango da aplikazioaren azken zergaldia amaitu denetik aurrera.

6.[179] Sozietate nagusiak artikulu honetako 1. apartatuan aipatutako erabakiak jakinarazi behar dizkio Zerga Administrazioari, araubide hori aplikagarria den zergaldia hasi aurretik.

Era berean, talde fiskalaren osaera aldatzen denean, sozietate nagusiak Zerga Administrazioari hala jakinarazi behar dio, eta hartan sartutako sozietateak eta hortik kanpo geratu direnak zehaztu behar ditu. Komunikazio hori Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak zehaztutako tokian, moduan eta epean egin behar da.

78. artikulua. Talde fiskalaren oinarri ezargarriaren zehaztapena.[180]

1. Ondoko hauek batuz zehaztuko da talde fiskalaren oinarri ezargarria:

a) Talde fiskala osatzen duten sozietate guztien eta bakoitzaren banakako oinarri ezargarriak, oinarrietatik kanpo utzita banakako oinarri ezargarri negatiboen konpentsazioa.

b) Deuseztapenak.

c) Aurreko ekitaldietan egindako deuseztapenen txertaketak.

d) Talde fiskalaren oinarri ezargarri negatiboen konpentsazioa, aurreko letretako emaitzen batura positiboa denean, bai eta Foru Arau honek 81. artikuluaren 2 apartatuan aipatutako oinarri ezargarri negatiboen konpentsazioa ere.

2.[181] Merkataritza Kodeak 46. artikuluan eta hura garatzeko gainerako arauek jasotako irizpideei jarraituta egingo dira deuseztapenak eta txertaketak.

79. artikulua. Deuseztapenak.[182]

---

[179] Apartatu hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAren 3. artikuluko hirugarren ordinalaren bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean. Aldaketak 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ditu ondorioak (2011/12/27ko GAO).

[180] Artikulu hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Hogeita hamar zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

[181] 2. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Hogeita bi artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[182] Artikulu hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Hogeita hamaika zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

1. Oinarri ezargarri kontsolidatua kalkulatzeko, zergaldian egindako barne eragiketengatik izan diren emaitza guztiak deuseztatuko dira.

Barne eragiketatzat hartuko dira talde berekoak diren zergaldietan bi sozietatek elkarren artean egiten dituzten eragiketak, baldin eta zerga kontsolidazioko erregimena aplikatzen bada.

2. Barne eragiketengatik emaitzen deuseztapen positiboak nahiz negatiboak egingo dira, baldin eta aipatu emaitzak sartuta badaude talde fiskaleko entitateen banakako oinarri ezargarrietan.

3. Ez dira deuseztatuko banakako oinarri ezargarrietan sartutako mozkinak, baldin eta bidezkoa ez bada izan foru arau honek 33. artikuluaren 4 apartatuan jasotako barne ezarpen bikoitzagatiko kenkaria.

80. artikulua. Txertaketak.[183]

1. Deuseztatutako emaitzak hirugarrenekin egiten direnean txertatuko dira talde fiskalaren oinarri ezargarrian.

2. Behin sozietate batek barne eragiketaren batetan esku hartu eta gero sozietate taldekoa izateari utzi dionean, eragiketa horretatik deuseztatutako emaitza talde fiskalaren oinarri ezargarrian txertatuko da taldea utzi aurreko zergaldian.

3. Talde fiskaleko sozietateen partaidetzaren balio zuzenketaren deuseztapena txertatuko da sozietate horiek taldekoak izateari uzten diotenean eta beren gain hartzen dutenean balio zuzenketa ekarri zuen galerari dagokion oinarri ezargarri negatiboaren konpentsaziorako eskubidea. Ez da txertatuko entitate partizipatua talde fiskalekoa ez zen zergaldietan egindako balio zuzenketen itzulketa.

81. artikulua. Oinarri ezargarri negatiboen konpentsazioa.[184]

1. Talde fiskalaren oinarri ezargarria kalkulatzeko aplikaziozkoak diren arauei jarraituaz oinarria negatiboa ateratzen bada, bere zenbatekoa talde fiskalaren oinarri positiboekin konpentsatu ahal izango da foru arau honek 24. artikuluan jasotakoaren arabera.

2. Talde fiskalean sartzerakoan edozein sozietatek konpentsatu gabe izan ditzakeen oinarri ezargarri negatiboak taldearen oinarrian konpentsatu ahal izango dira, taldearen oinarri ezargarritik kanpo utzita, ondorio soil horietarako, sozietatearen beraren banakako oinarri ezargarriaren mugapean, foru arau honek 33. artikuluaren 2 apartatuan aipatutako dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak.

82. artikulua. Berrinbertsioa.[185]

---

[183] Artikulu hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Hogeita hamabi zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

[184] Artikulu hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Hogeita hamahiru zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

[185] Artikulu hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Hogeita hamalau zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarriilaren 1 etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

1. Talde fiskaleko sozietateek foru arau honek 22. artikuluan aipatutako aparteko mozkinen berrinbertsioa egin ahal izango dute; aparteko mozkina lortu zuen sozietateak berak berrinbertitu dezake edo, bestela, talde fiskaleko beste batek. Talde fiskaleko beste sozietate bati eskuratutako elementu batean gauzatu ahal izango da, elementu hori berria bada.

2. Aparteko mozkinen berrinbertsioa ez da aplikatuko talde fiskaleko entitateek elkarren artean egindako eskualdaketak badira.

83. artikulua. Zergaldia.[186]

1. Talde fiskalaren zergaldia eta sozietate nagusiarena bat etorriko dira.

2. Baldin eta menpeko sozietateetako batek banakako erregimenean zergapetzeko arauei jarraituta zergaldi bat amaitzen badu, amaiera horrek ez du zertan sozietate taldearen zergaldiarena ekarri.

84. artikulua. Talde fiskalaren kuota osoa.[187]

Talde fiskalaren kuota osotzat hartuko da sozietate nagusiaren karga tasa talde fiskalaren oinarri likidagarriari aplikatuta ateratzen den kopurua.

85. artikulua. Talde fiskalaren kuota osoaren kenkariak eta onurak.[188]

1. Foru arau honek jasotako kenkari eta hobarien zenbatekoa gutxituko zaio talde fiskalaren kuota osoari.

Aipatu kenkari eta onurak aplikatzeko jarritako beharkizunak talde fiskalari buruzkoak izango dira, bai eta foru arau honek 19. artikuluan jasotako ez-integrazioko erregimena aplikatzeko beharkizunak ere.

2. Talde fiskalean sartzerakoan edozein sozietatek egiteko dituen kenkariak taldearen kuota osoan egin ahal izango dira, tributazioaren banakako erregimenean sozietate horri egokitu zaion mugapean.

86. artikulua. Informazio betebeharrak.[189]

1.[190] Sozietate nagusiak balantzea eta galera-irabazien kontua, ekitaldiko ondare garbian izandako aldaketei buruzko egoera bat eta esku-diruaren fluxu

---

[186] Artikulu hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Hogeita hamabost zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

[187] Artikulu hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Hogeita hamasei zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

[188] Artikulu hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Hogeita hamazazpi zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

[189] Artikulu hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Hogeita hemezortzi zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

[190] 1. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Hogeita hiru artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

kontsolidatuen egoera bat formulatu beharko ditu, zerga ondorioetarako, talde fiskaleko sozietate guztiei integrazio orokorreko metodoa aplikatuta.

2. Urteko kontu kontsolidatuak sozietate nagusiaren itxiera egun eta zergaldi berberei buruzkoak izango dira. Sozietate nagusiak ekitaldia ixten duenean hala egin beharko dute menpeko sozietateek ere.

3. 1 apartatuko dokumentuekin batera, informazio hau aurkeztu beharko da:

a) Aurreko zergaldietan egin diren eta txertatzeko dauden deuseztapenak.

b) Zergaldian egindako deuseztapenak, haien bidezkotasuna eta kopurua behar bezala frogatuta.

c) Zergaldian egindako txertaketak, haien bidezkotasuna eta kopurua behar bezala frogatuta.

d) Talde fiskalaren oinarri ezargarria kalkulatzeko egindako deuseztapen eta txertaketen eta artikulu honetako 1 apartatuan jasotako agiriak prestatzeko egindakoen artean izan daitezkeen diferentziak, behar bezala azalduta.

87. artikulua. Zerga kontsolidazioko erregimenaren aukera galtzeko arrazoiak.[191]

1.[192] Zerga kontsolidazioko erregimena amaitzeko arrazoi hauek egon behar dira tartean:

a) Zerga taldeko sozietate bat edo batzuk sartzea Zergen Foru Arau Orokorrak 52. artikuluan jasotakoaren arabera zeharkako zenbatespenaren erregimena dakarren zirkunstantzia batean.

b) Aurreko artikuluaren 1 apartatuan jasotako informazio obligazioak ez betetzea.

2. Aurreko apartatuan aipatutako arrazoiren bat edo batzuk gertatzen diren zergalditik aurrera galduko da talde fiskalen erregimenaren aukera. Hala gertatuz gero, talde fiskaleko sozietateek banakako erregimenari jarraituta ordaindu beharko dituzte zergak.

88. artikulua. Zerga kontsolidazioko erregimena galtzeak eta talde fiskala amaitzeak dakartzaten ondorioak.[193]

1. Hona hemen nola jokatuko den baldin eta txertatzeko dauden deuseztapenak, talde fiskalaren oinarri ezargarri negatiboak edo konpentsatzeko dauden kuotako kenkariak badira zerga kontsolidatuko erregimena galdu edo talde fiskala amaitu den zergaldian:

---

[191] Artikulu hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Hogeita hemeretzi zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

[192] 1. apartatu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako hirugarren xedapenaren 5 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jarriko da indarrean (2005-03-17 GAO).

[193] Artikulu hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Berrogei zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

a)[194] Txertatu gabeko ezabaketak baterakuntza fiskaleko araubidea aplikagarri izan den azken zergaldian talde fiskalari dagokion oinarri ezargarrian sartuko dira.

Aurrekoa ez da aplikatuko entitate nagusia baterakuntza fiskaleko araubidean tributatzen duen beste talde fiskal bateko menpeko bihurtzen denean, edo talde horretako beste sozietate batek, bategite prozesu baten bitartez, bera xurgatzen duenean foru arau honetako VIII. tituluaren X. kapituluan jasota dagoen araubidera bilduta. Bi kasuetan, entitate nagusi horren menpeko ziren sozietate guztiak beste talde fiskal horretan integratzen dira. Ezabatutako emaitzak beste talde fiskal horren oinarri ezargarrian sartu behar dira, foru arau honek 80. artikuluan ezarritako eran.

Zazpi. 115. artikuluaren 1. apartatuko c) letraren edukia ezabatu da.

b) Erregimen honetara biltzeko aukera galdu edo amaitu den zergaldian talde fiskalean dauden sozietateek bere egingo dute taldearen oinarri ezargarri negatiboak konpentsatzeko eskubidea, oinarri horiek osatu dituzten proportzioan.

Foru arau honetako 24. artikuluaren 1 apartatuan jarritako epea osatu arte geratzen diren zergaldietan tributazioaren banakako erregimenean zehazten diren oinarri ezargarri positiboekin konpentsatuko da; epea kontatu behar da talde fiskalaren oinarri ezargarri negatiboak zehaztu eta ondorengo zergaldi(eta)tik aurrera.

c) Erregimen honetara biltzeko aukera galdu edo amaitu den zergaldian talde fiskalean dauden sozietateek talde fiskalaren kuotako kenkariak konpentsatzeko eskubidea bere egingo dute, kuota osatzen lagundu duten proportzioan.

Foru arau honetan jarritako epea osatu arte geratzen diren zergaldietan zehazten diren kuota osoetan egingo da konpentsazioa; epea kontatuko da kendu beharreko zenbatekoak zehaztu eta ondorengo zergaldi(eta)tik aurrera.

2. Talde fiskaleko sozietateren bat edo batzuk taldetik ateratzen d(ir)enean aplikatuko da aurreko apartatuan xedatutakoa.

89. artikulua. Talde fiskalaren aitorpena eta autolikidazioa.[195]

1. Sozietate nagusia behartuta egongo da, sozietate taldearen aitorpena aurkeztean, talde fiskalaren zerga zorra likidatzera eta Ogasun eta Finantza Departamentuko diputatuak erabakitako tokian, moduan eta epeetan ordaintzera.

2. Sozietate nagusiak tributazioaren banakako erregimenean aitorpena aurkezteko duen epearen barruan aurkeztu beharko da taldearen aitorpena.

3. Sozietate taldea amaitu, zerga kontsolidazioko erregimenera biltzeko aukera galdu edo talde fiskaleko sozietateak bereiziz gero egin behar diren aitorpen osagarriak hogeita bost egun naturalen barruan aurkeztuko dira amaitu, galdu

[194] a) letra hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAren 3. artikuluko lehen ordinaleko sei apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaket jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko den. (2009-12-28ko GAO).

[195] Artikulu hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Berrogeita bat zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

edo bereizteko arrazoiak gertatu ziren egunaren ondorengo sei hilabeteetatik aurrera.

X. Kapitulua: Bategiteak, zatiketak, aktiboen ekarpenak, balore trukeak, aktibo nahiz pasibo osoaren lagapenak eta europar sozietate baten edo europar sozietate kooperatibo baten sozietate helbidea Europar Batasuneko estatu batetik beste estatu batera aldatzea arautzen dituen araubide berezia.[196]

90. artikulua. Definizioak.

1. Honako hauek izango dira bategite eragiketak:

a) Entitate batek edo gehiagok dagoeneko esistitzen den beste entitate bati beren ondare sozial guztiak eskualdatzea, likidaziorik egin gabe desegiten direnean. Beren bazkideei beste entitatearen kapital sozialaren balore errepresentagarriak eta, hala egokitzen denean, balio nominalaren 100eko 10etik gorakoa ez den diruzko konpentsazio bat ematen zaie edo, balio nominalik ez bada, balore haien balio nominalaren baliokide bat, haien kontabilitatetik eratorria, hain zuzen.

b) Bi entitatek edo gehiagok beste entitate berri bati ondare sozial guztiak eskualda0tzea, likidaziorik egin gabe desegiten direnean. Beren bazkideei entitate berriaren kapital sozialaren balore errepresentagarriak eta, hala egokitzen denean, balio nominalaren 100eko 10etik gorakoa ez den diruzko konpentsazio bat ematen zaie edo, balio nominalik ez bada, balore haien balio nominalaren baliokide bat, kontabilitatetik eratorria, hain zuzen.

c) Entitate batek, likidaziorik egin gabe desegiten denean, ondare sozial osoa eskualdatzea bere kapital sozialaren balore errepresentagarri guztien titularra den entitateari.

2.1[197] Honako hauek izango dira zatiketa eragiketak:

a) Entitate batek bi zatitan edo zati gehiagotan banatzea bere ondare soziala eta, likidatu gabe behin deseginda, lehendik existitzen diren edo eratu berriak diren bi entitate edo gehiagori horiek guztiak eskualdatzea. Bertako bazkideei proportzio jakin baten arabera egozten zaizkie ekarpena eskuratu duten entitateen kapital sozialaren balore errepresentagarriak eta, hala egokitzen denean, balio nominalaren 100eko 10etik gorakoa ez den diruzko konpentsazio bat ematen zaie edo, balio nominalik ez bada, balore haien balio nominalaren baliokide bat, haien kontabilitatetik eratorriko dena.

---

[196] X. kapitulu honen izenburua 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 16.Lehena.Hamar artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[197] Bigarren apartatu hau uztailaren 6eko 24/2001 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua eta zerga izaerako beste arau batzuk aldatzen dituenaren 1. artikuluak aldatu du. 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldiei aplikatuko zaie

b)[198] Entitate batek jarduera-adarrak osatzen dituen bere sozietate ondarearen zati bat edo batzuk zatitzea eta blokean eskualdatzea lehendik badauden edo eratu berriak diren entitate bati edo gehiagori, entitate eskualdatzaileak, -gutxienez, jarduera-adar bat beretzat gordez. Horren truke entitate eskualdatzaileak azken sozietate horien kapital sozialaren balore erakusgarriak jasotzen ditu, bazkideei beren partaidetzaren arabera egotziko dizkienak. Kapital soziala eta erreserbak behar den kopuruan murriztu behar dira eta, hala egokituz gero, diruzko konpentsazio bat eman aurreko a) letran ezarritako eran.

c)[199] Entitate batek bere sozietate ondarearen zati bat zatitzea, beste entitate -batzuen kapital sozialean gehiengoa ematen dioten kapital partaidetzek osatua, eta bere ondarean, gutxienez, beste entitate bat edo batzuen edo jarduera-adar batean antzeko ezaugarriak dituzten partaidetzak mantentzea. Zatitutakoa beste entitate bati –sortu berriari edo lehendik dagoenari– eskualdatzen dio, eta horren truke entitate eskuratzailearen kapital sozialaren balore erakusgarriak jasotzen ditu, bazkideei beren partaidetzaren arabera egotziko dizkienak. Kapital soziala eta erreserbak behar den kopuruan murriztu behar dira eta, hala egokituz gero, diruzko konpentsazio bat eman aurreko a) letran ezarritako eran.

2.2 Zatitutako entitatea eskuratzen dutenak bat baino gehiago direnean, zatitutako entitatearen bazkideei entitate eskuratzailearen kapitalaren balore adierazgarriak zatitutako entitatean ez bezalako proportzioan egotzi ahal izateko, entitate horiek eskuratzen dituzten ondareek jarduera adarrak eratu beharko dituzte.

3. Iharduera adarren ez-diruzko ekarpentzat hartuko da, aurretik desegin gabe, entitate batek dagoeneko baden edo eratu berria den beste entitate berri baten esku iharduera adar guztiak nahiz bat edo gehiago uztea, entitate eskuratzailearen kapital sozialaren balore errepresentagarrien truke.

4. [200] Jarduera adartzat hartuko da antolakuntzaren ikuspegitik berarekin ustiapen ekonomikoa dakarren unitate ekonomiko autonomoa eratu dezaketen ondarezko elementuen multzoa, hau da, bere kabuz aurrera atera daitekeen multzoa. Sozietate eskuratzailearen gain utzi ahal izango dira eskualdatutako elementuak antolatu edo martxan jartzeko hartu diren zorrak.

---

[198] b) letra hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 16.Lehena.Hamaika artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[199] c) letra hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 16.Lehena.Hamaika artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[200] 4.apartatu hau Zerga Neurriei buruzko apirilaren 27ko 3/1999 Foru Arauaren 3. artikuluak aldatu du. 1999ko maiatzaren 3an sartu zen indarrean.

5.[201] Entitate batek egiten duen eragiketa kapital sozialaren balore erakusgarrien truketzat joko da entitateak hurrengo eragiketetako bat egiten badu: Beste entitate bateko boto-eskubideen gehiengoa lortzeko bidea emango dion beste entitate horren kapital sozialaren partaidetza eskuratzen badu; edo, dagoeneko gehiengoa badu, partaidetza handiagoa eskuratzen badu, bazkideei, beren baloreen truke, lehenengo entitatearen kapital sozialaren beste balore erakusgarri batzuk esleituz, eta, hala badagokio, diru-konpentsazioa emanez; konpentsazio horrek ez du gainditu behar balio nominalaren %10, edo, balio nominalik ezean, balore horien nominalari baliokidea den balioa, kontabilitatetik ondorioztatuko dena.

91. artikulua. Eskualdaketan sortutako errenten araudia.

1. [202] Aurreko artikuluan aipatutako eragiketa horietatik eratorritako errenta hauek ez dira oinarri ezargarrian sartuko:

a) Espainian dauden ondasun eta eskubideen eskualdaketetan sortzen diren errentak.

Entitate eskuratzaileak egoitza atzerrian duenean, Espainian dagoen establezimendu iraunkor bati atxikitako elementuak eskualdatzean sortu diren errentak bakarrik kenduko dira oinarri ezargarritik.

Elementu horiek lurralde espainiarretik kanpora aldatzeak berarekin ekarriko du establezimendu iraunkorraren oinarri ezargarrian sartzea, aldaketa egin den zergaldian, merkatuko ohiko balioaren eta ondorengo artikuluan aipatutako balio gutxituaren arteko diferentzia. Gutxipena, hala behar denean, fiskalki kenkaridunak izan diren eta kontabilitatean jaso diren amortizazioen eta beste balio zuzenketa batzuen zenbatekoarena izango da.

b) Europako Batasunekoak ez diren baina Espainian kokatuta dauden establezimendu iraunkorrak Espainian egoitza duten entitateen alde eskualdatzean sortutako errentak.

c) Espainian kokatutako establezimendu iraunkorren lurralde espainiarreko entitate ez egoiliarrek egindako eskualdaketen ondorioz sortutako errentak.

Entitate eskuratzaileak egoitza atzerrian duenean, Espainian dagoen establezimendu iraunkor bati atxikitako elementuak eskualdatzean sortu diren errentak bakarrik kenduko dira oinarri ezargarritik.

Elementu horiek lurralde espainiarretik kanpora aldatzeak berarekin ekarriko du establezimendu iraunkorraren oinarri ezargarrian sartzea, aldaketa egin den zergaldian, merkatuko ohiko balioaren eta ondorengo artikuluan aipatutako balio

---

[201] 5. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 16.Lehena.Hamabi artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[202] Azaroaren 18ko 78/1997 Foru Dekretuak Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia abuztuaren 4ko 38/1997 Legearen bitartez Euskal Ekonomi Itunean egindako aldaketara egokitzen duenak, 16. artikuluaren bitartez aldatu du 1. apartatu hau. Aipatu foru dekretuak 1997ko abenduaren 3an sartu da indarrean eta urte honetako irailaren 1etik aurrerako ondorioak ditu.

gutxituaren arteko diferentzia. Gutxipena, hala behar denean, fiskalki kenkaridunak izan diren eta kontabilitatean jaso diren amortizazioen eta beste balio zuzenketa batzuen zenbatekoarena izango da.

d)[203] Espainia ez den Europar Batasuneko beste estatu batzuetan kokatuta dauden establezimendu iraunkorrek estatu haietan egoitza duten entitateei establezimendu iraunkorrak eskualdatzeagatik sortzen direnak, baldin eta errenta horiek uztailaren 23ko 90/434/EEE Zuzentarauaren eranskinean zehaztutako formaren bat badute, eta Zuzentarau horretako 3. artikuluan aipatutako zergetako batek zergapetuta eta zerga horietako edozeinetatik salbuetsita ez badaude (uztailaren 23ko 90/434/EEE Zuzentaraua, estatu kide ezberdinetako sozietateen artean egindako bategiteei, zatiketei, aktibo-ekarpenei eta akzio-trukeei eta Europako sozietate batek edo Europako sozietate kooperatibo batek sozietatearen egoitza Europar Batasuneko estatu kide batetik beste estatu kide batera aldatzeari aplikatu beharreko zerga-araubide erkideari buruzkoa).

Ez dira oinarri ezargarritik kanpo geratuko aurreko a), b) eta c) letretan aipatutako eragiketetatik eratorritako errentak, entitate eskuratzailea zerga honetatik salbuetsita dagoenean edo errenten egozpen erregimari lotuta dagoenean[204]

Oinarri ezargarritik kanpo geratuko dira apartatu honetan aipatutako eragiketetatik eratorritako errentak, nahiz eta entitate eskuratzaileari karga tasa edo zerga araubide berezi batera aplikatu. Entitate eskuratzailea eskualdatzailearenaz bestelako karga tasa edo zerga araubide berezi batera bilduta dagoenean, eragiketaren momentuan dauden ondare elementuen eskualdaketatik eratorritako errenta –hura eragiketaren ondoren egin denean– modu linealean sortu dela ulertuko da, kontrakoa frogatzen ez bada, elementu eskualdatuaren edukitza aldi osoaren barruan. Entitate eskualdatzaileari zegokion karga tasa eta zerga araubidea aplikatuz kargatuko da eragiketaren momentura bitartean sortutako errentaren zatia.[205]

2. Aurreko apartatuan jasotako araudira biltzeko aukerari uko egin diezaiokete, ondarezko elementu guztiak edo batzuk eskualdatzean sortutako errentak oinarri ezargarrian sartuz.

3. Nolanahi ere, itsasontzi edo aireontziak nahiz horien ustiapenari atxikitako ondasun higigarriak eskualdatzean sortutako errentak oinarri ezargarrian sartuko

---

[203] d) letra hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 16.Lehena.Hamahiru artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[204] Artikulu honen azken parrafoa desagertu da eta horren ordez ondoko bi parrafoak sartu ditu uztailaren 5eko 4/2000 Foru Arauak, zenbait zerga neurri onartzen duenaren 3. artikuluko Hamar apartatuak. 2000ko uztailaren 13an sartzen da indarrean, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriorekin. Foru Arau honen Amaierako xedapenean bitartez, artikulu honen d) letraren edukia Foru arau hau indarrean jartzen denetik aurrera egiten diren eragiketei eta eragiketa horietatik eratorritako errentei aplikatuko zaie.

[205] Apartatu honen azken paragrafo hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAren 3. artikuluko lehen ordinalaren lau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean. Aldaketak 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ditu ondorioak (2011/12/27ko GAO).

dituzte nazioarteko itsas edo aire nabigazioko entitateek, entitate eskuratzaileak egoitza Espainian ez duenean.

92. artikulua. Ondasunak zerga ondorioetarako baloratzea.

1.[206] Aurreko artikuluan jasotako erregimena aplikagarria izan zaien eragiketen ondorioz egindako eskualdaketen bitartez eskuratu diren ondasun eta eskubideak, zerga ondorioetarako, eragiketa burutu aurretik entitate eskuratzailean zeukaten balio berberaz baloratuko dira. Era berean, entitate eskualdatzailea erosi den eguna mantenduko da, foru arau honek 15. artikuluaren 9. apartatuan jasotakoa aplikatzearen ondorioetarako. Balio horietan, eragiketa dela-eta zergapetutako errenten zenbatekoa zuzenduko da.

2. Aurreko artikuluan jasotako araudia aplikagarria denean, alderdien artean hitzartutako balioa hartuko da merkatuko ohiko balioaren mugapean.

93. artikulua. Ekarpenaren kontraprestazioan jasotako akzio edo partaidetzak zerga ondorioetarako baloratzea.

Iharduera adar bat ematean jasotako akzio edo partaidetzak, zerga ondorioetarako, unitate ekonomiko autonomoaren kontabilitatezko balioagatik baloratuko dira, hala behar denean balio hori eragiketa dela-eta sozietate eskualdatzailearen oinarri ezargarrian sartu diren errenten zenbatekoan zuzendu ondoren.

94. artikulua. Balore trukearen zerga erregimena.[207]

1. Baloreen trukearekin sortzen diren errentak ez dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo zerga honen oinarri ezargarrian sartuko baldintza hauek betetzen direnean:

a) Baloreak trukatzen dituzten bazkideek lurralde espainiarrean edo Europar Batasuneko estaturen batean eduki behar dute egoitza. Beste edozein estatutan edukiz gero, bazkideek jasotzen dituzten baloreak Espainian egoitza duen entitate baten kapital sozialaren balore errepresentagarriak izango dira.

[208]Bazkidea errentak esleitzeko araubidean dagoen entitatetzat jotzen bada, baloreak trukatzeagatik sortutako errenta ez da sartuko entitate horretako bazkide, oinordeko, erkide edo partaide direnen oinarri ezargarrian, betiere eragiketa horri kapitulu honetan ezartzen den zerga araubidea aplikatu behar

---

[206] 1. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Hogeita lau artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[207] Artikulu hau uztailaren 6eko 24/2001 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua eta zerga izaerako beste arau batzuk aldatzen dituenaren 2. artikuluak aldatu du. 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldiei aplikatuko zaie.

[208] a) letraren azken paragrafo hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 16.Lehena.Hamalau artikuluak gehitzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

bazaio edo eragiketa 90/434/EEE Zuzentarauaren itzalpean egiten bada, eta bazkideak jasotzen dituen baloreek trukatutako baloreek zeukaten zerga balorazio berberari eusten badiote.

b) Baloreak eskuratzen dituen entitateak Espainian eduki behar du bere egoitza edo, bestela, 90/434/EEE Arteztarauaren aplikazio eremuan sartuta egon.

2. Baloreak trukatzen dituen entitateak jasotako baloreak ekarpena burutu duten bazkideen ondarean zeukaten balioarengatik baloratuko dira, zerga honen edo Pertsona Fisikoen Errentaren Zergaren arauei jarraiki, salbu merkatuko ohiko balioa txikiagoa bada, horrelakoetan azken honengatik baloratuko baitira.

Bazkideek lortzen dituzten errentak ez badaude lurralde espainiarrean zergari lotuta, aldeen artean adostutako balioa hartuko da kontuan, eta bere muga merkatuko ohiko balioa izango da.

3. Zergen ondorioetarako, bazkideek jasotzen dituzten baloreak emandako baloreen balioaren arabera baloratuko dira, eta balio hori zerga honekin edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarekin bat kalkulatuko da, dagokionaren arabera. Balorazio horri diruz entregatu edo jasotako konpentsazio osagarriaren zenbatekoa gehitu edo gutxituko zaio. Jasotako baloreek emandakoen eskuratze data gordeko dute.

4.[209] Bazkideak lurralde espainiarrean egoiliar izateari uzten badio, honako diferentzia hau sartuko da zirkunstantzia hori gertatu den zergaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo zerga honen oinarri ezargarrian: akzio edo partaidetzen merkatuko balio normalaren eta aurreko apartatuan aipatu den balioaren arteko diferentzia, azken horretan fiskalki kenkaridunak izan diren balio narriaduragatiko galerak zuzenduta, hala badagokio.

Errenta horri dagokion zerga zorraren zatia geroratu daiteke, eta baloreak eskualdatzen diren zergaldiko autolikidazioarekin batera ordainduko da, betiere subjektu pasiboak zorraren ordainketa bermatzen badu.

5. Errentak sortu dituzten eragiketetan erregelamenduz paradisu fiskaltzat hartzen diren herri edo lurraldeetan helbideratuta edo kokatuta dauden entitateek esku hartu dutenean edo errenta horiek haien bidez lortu direnean, Pertsona Fisikoen Errentaren Zergaren edo zerga honen oinarri ezargarrian sartuko dira.

6. Balore trukeen eragiketetan artikulu honetako 1 apartatuak ezarritako baldintzak betetzen ez direnean, ezingo dira kapitulu honetan aurreikusten den erregimenera bildu.

95. artikulua. Bategin, zurgatu eta osorik edo zati batean bereizteko eragiketak direla-eta bazkideek zerga ordaindu beharra.

1. Ez dira oinarri ezargarrian sartuko entitate eskuratzailearen baloreak entitate eskualdatzaileko bazkideei ematea dela-eta sortzen diren errentak, baldin eta bazkide horiek egoitza Espainian edo beste edozein estatutan badute, azken

[209] 4. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Hogeita bost artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

kasu honetan baloreak Espainian egoitza duen entitate baten kapital sozialaren errepresentagarriak direnean.

[210] Bazkidea errentak esleitzeko araubidean dagoen entitatetzat jotzen bada, baloreak esleitzeagatik sortutako errenta ez da sartuko entitate horretako bazkide, oinordeko, erkide edo partaide direnen oinarri ezargarrian, betiere eragiketa horri kapitulu honetan ezartzen den zerga araubidea aplikatu behar bazaio edo eragiketa 90/434/EEE Zuzentarauaren itzalpean egiten bada, eta bazkideak jasotzen dituen baloreek trukatutako baloreek zeukaten zerga balorazio berberari eusten badiote.

2. [211] Bategite, xurgatze eta bereizte oso edo partzialeko eragiketen bidez jasotako baloreak, zerga ondoroietarako, emandako baloreen balioaren arabera baloratuko dira, eta hori zerga honekin edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarekin bat zehaztuko da, hots, bietatik egoki denarekin. Balorazio hori gehitu edo murriztu egingo da, dirua emanez edo jasoz egiten den konpentsazio osagarriaren zenbatekoan. Jasotako baloreek emandakoen eskuratze data gordeko dute.

3.[212] Bazkideak Espainiako egoiliartasuna galduz gero, halakoa gertatu den zergaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo zerga honen oinarri ezargarrian, akzio edo partaidetzen merkatuko balio normalaren eta aurreko apartatuan aipatutako balioaren arteko diferentzia sartuko da, azken balio horretan fiskalki kengarritzat hartu diren balio narriaduragatiko galeren zenbatekoa zuzenduta, hala badagokio.

Errenta horri dagokion zerga zorraren zatia geroratu ahal izango da, eta baloreak eskualdatzen diren zergaldiko autolikidazioarekin batera ordainduko da, subjektu pasiboak zorra ordainduko duela bermatzen badu.

4. Pertsona Fisikoen Errentaren Zergaren edo zerga honen oinarri ezargarrian, erregelamenduz paradisu fiskaltzat hartutako herri edo lurraldeetan helbideratuta edo kokatuta dauden entitateek eskuhartutako eragiketetan lortu diren errentak.

96. artikulua. Entitate eskualdatzailearen eta entitate eskuratzailearen kapitalean parte hartzea.

1. Entitate eskuratzaileak entitate eskualdatzailearen kapitalean gutxienez 100eko 5ean parte hartzen duenean, ez da haren oinarri ezargarrian sartuko partaidetza deuseztatzeagatik lortutako errenta positiboa, baldin eta entitate

---

[210] 1. apartatu honen azken paragrafo hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 16.Lehena.Hamabost artikuluak sartu du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[211] 2. apartatu hau Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauaren 9. xedapen gehigarriak aldatu du 1999ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

[212] 3. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Hogeita sei artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

eskualdatzailearen erreserbekin bat badator, ez eta arrazoi beragatik sortzen den errenta negatiboa ere.

Halakoa gertatzen denean, ez da dibidenduen barne ezarpen bikoitza saihesteko kenkaria egingo, aurreko parrafoan aipatutako erreserbei dagokienez.

2. Partaidetzaren zenbatekoa aurreko apartatuan aipatutakoa baino txikiagoa denean, partaidetza deusezteak berarekin ekarriko du errenta bat, hain zuzen, partaidetzaren proportzioan jasotako ondarezko elementuen merkatuko ohiko balioaren eta partaidetzaren kontabilitatezko balioaren arteko diferentziaren berdina.

3.[213] Eskuratutako ondasunen baloraziak ondorio fiskalak izango ditu, Foru Arau honen 92. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Dena dela, transmisioa egiten duen erakundearen kapitalean parte hartzen duen erakundeak gutxienez ehuneko 5 eskuratzen duenean parte hartzea eskuratzeko prezioaren eta ondasun netoa eskuratutako ondasun eta eskubideei gehituko zaie ondorio fiskaletarako. Eta Merkataritza kodearen 46. artikuluan eta beste garapen arauetan zehaztutako integrazio globalaren metodoa aplikatuko zaio, eta aipatutako balorazio horren araberako diferentzia ez litzateke inputatuko, Foru Arau honen 12. artikuluko 9. atalean aurreikusiten moduan deduzitu ahal izango da fiskalki. Era berean, jasotako ondasun eta eskubideei eskuratze-balorea emango zaie parte hartzearen eragin fiskaletarako aipatu ondasun eta eskubideen balio aldaketen egokitzapenek transmisioa egiten duen erakundean eragindakoak, galera eta irabazien kontuan sartu ez zirenez ez baitute eragin fiskalik izan.

Aurreko paragrafoan aipatutakoa aplikatzeko, eskuratzen eta transmititzen duten erakundeek, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako irizpideen arabera, ezingo dute elkarte talde bat osatu, egoitza eta finkatutako urteko kontuak egiteko betebeharra edozein dela ere. Baldintza hau ez da aplikatuko pertsona edo erakunde transmititzaileak egindako parte hartze prezioan, Merkataritza kodearen 42. artikuluan aurreikusitako kasuetako batean ez dauden pertsona edo entitateetatik eskuratu badu.

Aurreko paragrafoko baldintza betetzen ez denean, parte hartzearen ondorio fiskalen eskuratze balorearen eta parte hartzen duen erakundearen ondasun netoen arteko diferentziaren dedukzioa soilik egin ahal izango da eskuratutako elkartearen merkataritza fondoaren depreziazioa atzeraezina dela egiaztatzen denean.

4. Entitate eskualdatzaileak entitate eskuratzailearen kapitalean parte hartzen duenean, ez dira haren oinarri ezargarrian sartuko partaidetza eskualdatuz sortu diren errentak, entitateak foru arau honetako 91. artikuluaren 2 apartatuan jasotako ukapen ahalmena erabili badu ere.

97. artikulua. Zerga eskubide eta betebeharretan subrogatzea.

[213] Apartatu hau Apartatu hau abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren 21. artikuluak aldatu du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eta 2007an hasi eta 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera bukatutako zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

1. Foru arau honek 90. artikuluan jasotako eragiketek titulu unibertsalez ondorengotza bat berekin dakartenean, entitate eskualdatzailearen zerga eskubide eta betebeharrak eskualdatuko zaizkio entitate eskuratzaileari.

Entitate eskuratzaileak bere gain hartuko du zerga onurak izateko edo entitate eskualdatzaileak zituenak kontsolidatzeko beharkizunak betetzea.

2. Ondorengotza titulu unibertsalez egiten ez denean, eskualdatutako ondasun eta eskubideen zerga eskubide eta betebeharrak eskualdatuko dira bakarrik.

Entitate eskuratzaileak entitate eskualdatzailearen zerga pizgarriak jasotzeko beharkizunak betetzea bere gain hartuko du, eskualdatutako ondasun eta eskubideei buruzkoak diren neurrian.

3.[214] Entitate eskuratzaileak konpentsatu ahal izango ditu entitate eskualdatzailean konpentsatzeko dauden oinarri ezargarri negatiboak.

Entitate eskuratzaileak entitate eskualdatzailearen kapitalean parte hartzen badu edota hura foru arau honen 16. artikuluan jasotako egoeretako batean baldin badago horrekiko, konpentsatzeko dagoen oinarri ezargarri negatiboan honako zenbateko hau murriztuko da: bazkideek edozein titulu dela medio egindako ekarpenen balioaren eta horien kontabilitate balioaren arteko diferentzia, elkarri lotutako entitateek entitate eskualdatzailearen gainean duten partaidetzari edo partaidetzei dagokiena.

Entitate eskualdatzaileak galerak izan baditu eta, horien ondorioz, entitate eskuratzaileak edo beste entitate batek entitate eskualdatzailearen kapitalean duen partaidetzan narriadura izan bada, galerei dagozkien oinarri ezargarri negatiboak ezingo dira inoiz konpentsatu, entitate horiek foru arau honen 16. artikuluan aipatzen diren loturazko harremana dutenean.

4. Foru arauek edo Espainiako legeek jasotako eskubide eta betebeharrak subrogatu ahal izango dira bakarrik.

98. artikulua. Errentak egoztea.

Foru arau honek 90. artikuluan jasotako eragiketak direla-eta iraungi diren entitateek burututako ihardueren errentak merkataritza arauek jasotakoaren arabera egotziko dira.

99. artikulua. Establezimendu iraunkorraren galerak.[215]

Establezimendu iraunkor bat eskualdatzen denean, eta foru arau honen 91. artikuluaren 1. paragrafoko d) apartatuan ezarritako araubidea aplikatzekoa

---

[214] 3. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Hogeita zortzi artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[215] 99. artikulu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 16.Lehena.Hamasei artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

denean, foru arau hau aplikagarri duten entitate eskualdatzaileen oinarri ezargarria gehitu egingo da; gehikuntza ondokoa izango da: Establezimendu iraunkorrak egotzitako errenta negatiboen eta positiboen arteko soberakina, eta establezimendua eskualdatzeak sortutako errenta positiboa izango da muga.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaz gain, errenta positibo horrek foru arau honen 19. artikuluko 6. paragrafoan ezartzen diren baldintzak betetzen ez baditu, soberakin hori gainditzen duen errentaren zenbatekoa entitate eskualdatzaileen oinarri ezargarrian sartuko da; nolanahi ere, kuota osotik kendu ahal izango da 904/434/EEE Zuzentarauko xedapenak ez baleude establezimendu iraunkorra kokatuta dagoen estatu kidean oinarri ezargarrian sartuta dagoen errenta hori kargatuko lukeen zerga. Oinarri ezargarrian sartutako errenta horri dagokion kuota osoaren zenbatekoa izango da muga.

100. artikulua. Kontabilitatezko betebeharrak.

1.[216] Entitate eskuratzaileak jarraian aipatuko den informazioa sartu beharko du urteko memorian, salbu entitate eskualdatzaileak foru arau honetako 91. artikuluaren 2. apartatuko ahalmena erabili badu, kasu horretan bakarrik d) letran adierazitakoa beteko baita:

a) Entitate eskualdatzaileak zer ekitalditan erosi zituen amortiza daitezkeen ondasun eskualdatuak.

b) Entitate eskualdatzaileak itxitako azken balantzea.

c) Eragiketa burutu aurretik entitate eskualdatzailearen liburuetan agertutako balioa ez den beste balio bat jarrita kontabilitate liburuetan sartu diren ondasun erosien zerrenda. Bi balio horiek adierazi beharko dira, bai eta amortizazio fondoak eta bi entitateen kontabilitate liburuetan eratutako narriaduragatiko balorazio zuzenketak ere.

d) Entitate eskualdatzaileak izan dituen zerga onuren zerrenda, horiei dagokienez foru arau honetako 97. artikuluaren 1. eta 2. apartatuetan jasotakoaren arabera entitateak baldintza batzuk bete behar dituenean.

Apartatu honetan jasotako ondorioetarako, datu horiek entitate eskuratzaileari jakinarazi behar dizkio entitate eskualdatzaileak.

2. Pertsona juridikoak diren bazkideek datu hauek aipatu beharko dituzte urteko memorian:

a) Emandako baloreen kontabilitatezko balioa.

b) Jasotako baloreei kontabilitatean jarritako balioa.

3. Entitateak erositako balore edo ondarezko elementuak inbentarioan dauden bitartean edo entitate eskualdatzaileak dituen zerga onuretatik eratorritako

[216] 1. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Hogeita bederatzi artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

beharkizunak bete behar diren bitartean egin beharko dira aurreko apartatuetako aipamenak.

Entitate eskuratzaileak aukera izango du, bigarren eta ondorengo Urteko Memoriei dagokienean, eragiketaren ondorengo lehen Urteko Memorian aipamen horiek badaudela besterik gabe adierazteko. Era berean, aurreko parrafoan jasotako zirkunstantziak iraun bitartean gorde beharko da lehen Urteko Memoria.

4.[217] Aurreko apartatuetan jasotako obligazioak ez betetzea zerga urraketatzat hartuko da. Ezkutatu den datu bakoitzeko, 150 eta 6.010 euro bitarteko isunaz zigortuko da, entitate eskuratzaileak berari eskualdatutako ondasun eta eskubideei kontabilitatean jarritako balioaren %5aren mugapean.

101. artikulua. Diruzkoak ez diren ekarpenak.[218]

1.[219]Kapitulu honetan jasotako erregimena diruzkoak ez diren ekarpenei aplikatuko zaie, zerga honen subjektu pasiboak edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunak hala aukeratzen badu, baldintza hauek betetzen dituztenean:

a) Ekarpena jasotzen duen entitatea lurralde espainiarrean egoiliarra izatea, edo bertan egiten dituen jarduerak emandako ondasunak atxikita dauzkan establezimendu iraunkor baten bitartez burutzea.

b) Ekarpena behin egin ondoren, zerga honen subjektu pasiboak edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunak gutxienez 100eko 5eko partaidetza edukitzea ekarpena jasotzen duen entitatearen fondo propioetan.

c) Akzio edo partaidetzen ekarpenak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek egiten badituzte, aurreko a) eta b) letretan adierazitako baldintzez gain ondoko hauek ere bete beharko dira:

a') Ekarpen horiei dagokien kapital soziala duen entitateak lurralde espainiarrean edukitzea bere egoitza, eta entitate horri ez izatea aplikaziozkoa interes ekonomikoko talde espainiar eta europarrei, enpresen aldi baterako batasunei eta ondare sozietateei aplikagarri zaien erregimen berezia.

b') Entitatearen fondo propioetan adierazten duten partaidetza gutxienez 100eko 5ekoa izatea.

c') Akzio edo partaidetzak ekarpen-egilearen esku egotea etenik gabe ekarpena formalizatzen duen agiri publikoa egin aurreko urtean.

---

[217] 4. apartatu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako hirugarren xedapenaren 6 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jarriko da indarrean (2005-03-17 GAO).

[218] Artikulu hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Berrogeita bi zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

[219] 1 apartatu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 86.artikuluak aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek c) letran jasotzen ez diren ondare elementuen ekarpenak eginez gero, elementu horiek Merkataritza Kodearen arabera kontabilizatzen diren jarduera ekonomikoei atxikita egotea.

2. Jarduera adarren ekarpenei ere aplikatuko zaie kapitulu honetan jasotako erregimena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek ekarpenak egiten dituztenean, baldin eta kontabilitatea Merkataritza Kodearen arabera eramaten badute.

3. Ekarpenaren ondare elementuak ezin izango dira, zerga ondorioetarako, merkatuko ohiko balioaren gainetik baloratu.

102. artikulua. Aktibo eta pasibo osoa lagatzea.

1. Kapitulu honetan jasotako araubidea aplikaziozkoa izango da, subjektu pasiboak hala aukeratzen badu, merkataritza sozietateen aldaketa estrukturalak onartzen dituen apirilaren 3ko 3/2009 Legeak 81. artikulutik 84. artikulura bitartean aipatzen dituen aktibo eta pasiboaren erabateko lagapenetan, beharkizun hauek betetzen badira:[220]

a) Desegiteko erabakia hartu aurreko urtebetean desegindako entitatean gutxienez boto eskubideen 100eko 25 daukan bazkide bat edo gehiagoren alde lagatzea.

b) Bazkideei esleitutako aktibo eta pasibo guztien artean, desegindako entitatearen iharduera osoa edo adar bat edo gehiago osatzea.

c) Entitate lagatzaileak egoitza Espainian edukitzea edo establezimendu iraunkor baten bitartez Espainian iharduerak burutzea, eragiketan emandako ondasunak horri atxiki ahal izateko.

2. Lagatu diren ondarezko elementuak ezingo dira, zerga ondorioetarako, merkatuko ohiko balioaren gainetik baloratu.

103. artikulua. Ezarpen bikoitza saihesteko arauak.[221]

1.[222] [223]Kapitulu honetan jasotako araubidea aplikaziozkoa izango da, subjektu pasiboak hala aukeratzen badu, merkataritza sozietateen aldaketa estrukturalak

---

[220] Paragrafo hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAren 3. artikuluko hirugarren ordinalak aldatu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko uztailaren 4tik aurrerako ondorioak izango dituen (2009-12-28ko GAO).

[221] Artikulu hau uztailaren 6eko 24/2001 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua eta zerga izaerako beste arau batzuk aldatzen dituenaren 3.artikuluak aldatu du. 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldiei aplikatuko zaie

[222] 1. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Hogeita hamar artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[223] Apartatu honen lehen paragrafo hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAren 3. artikuluko hirugarren ordinalak aldatu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaket jakin batzuk sartzen dituen. Aldaketa 2009ko

onartzen dituen apirilaren 3ko 3/2009 Legeak 81. artikulutik 84. artikulura bitartean aipatzen dituen aktibo eta pasiboaren erabateko lagapenetan, beharkizun hauek betetzen badira:

a) Aportaturiko ondasunei egotzitako errenten kargura banatu diren mozkinek eskubidea emango dute foru arau honetako 33.2 artikuluan aipatzen den kenkaria aplikatzeko –dibidenduen barruko ezarpen bikoitza saihestekoa–, bazkidearen partaidetza portzentajea eta haren antzinatasuna edozein direla ere. Irizpide bera erabiliko da, orobat, partaidetza eskualdatzeagatik sortutako errenten kenkaria egiteko, hain zuzen ere, foru arau honetako 33.5 artikuluan aipatzen dena eta plusbalioen barne ezarpen bikoitza saihesteko aplikatzen dena.

b) Aportaturiko ondasunei egotzitako errenten kargura banatutako mozkinek eskubidea emango dute dibidenduak oinarri ezargarrian ez integratzeko edo, hala badagokio, nazioarteko ezarpen bikoitzaren kenkaria aplikatzeko, foru arau honen 19. eta 34.bis artikuluetan hurrenez hurren ezarritakoari jarraituz, bazkidearen partaidetza maila edozein dela ere.

Aurreko paragrafoan aipatu den mozkin banaketatik eratorritako partaidetzaren balio galera ez da kenkariduna izango, salbu, partaidetza eskualdatzean, mozkin horien zenbatekoa Espainian zergapetu bada. Azken kasu horretan, entitateak Espainian partaidetza eskualdatuz zergapetu dituen mozkinen zenbatekoaren pareko gastua konputatu dezake, eragiketa kontabilizatzeko moduagatik oinarri ezargarrian batere errentarik integratzen ez denean eta partaidetza horren balioa gutxitu behar duenean.

2. Entitate eskuratzaileak kontabilizatu duen moduagatik ezinezkoa gertatu bada, aurreko paragrafoan jasotako arauak aplikatuta, ezarpen bikoitza saihestea, iraungitzera doanean egingo ditu entitate horrek foru arau honen 93., 94.2 eta 101. artikuluetan jasotako balorazio arauak aplikatuz burutuko ziren kontrako zeinuko doikuntzak. Dena den, entitate eskuratzaileak iraungi baino lehen egin ahal izango ditu kontrako zeinuko doikuntzak, bazkideek beren partaidetza eskualdatu dutela frogatzen badu. Doikuntzak egiteko muga bazkideen oinarri ezargarrian eskualdaketagatik sartu den zenbatekoa izango da.

104. artikulua. Zerga araubidea aplikatzea. [224]

1. Kapitulu honetan aurreikusitako zerga araubidea eragiketei aplikatuko zaie baldin eta horietan esku hartzen duten zergaren subjektu pasiboek merkataritza sozietatearen forma juridikorik ez badute eta eragiketa horietatik datozen emaitzak kapitulu honetan aipatzen diren eragiketetan lortutakoen parekoak badira.

---

abenduaren 28an jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko den. (2009-12-28ko GAO).

[224] 104. Artikulu hau uztailaren 6eko 24/2001 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua eta zerga izaerako beste arau batzuk aldatzen dituenaren .artikuluak aldatu du. 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldiei aplikatuko zaie

104. artikulu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 16.Lehena.Hamazazpi artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

2. Kapitulu honetan ezarritako zerga araubidea Europako sozietate batek edo Europako sozietate kooperatibo batek helbidea Europar Batasuneko estatu batetik beste estatu kide batera aldatzeko eragiketei ere aplikatuko zaie, Espainiako lurraldean kokatuta dauden ondasun eta eskubideei dagokienez, betiere ondoren lurralde horretan kokatutako establezimendu iraunkor bati atxikita geratzen badira. Ondorio horietarako, araubide berezi honetan ondasun eta eskubideen eskualdaketarako ezartzen diren arauak sozietate helbidea aldatzeko eragiketei ere aplikatuko zaizkie, eragiketok horrelako eskualdaketarik sortzen ez badute ere.

3. Kapitulu honetan ezartzen den araubidea aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da hura aukeratzea erregela hauei jarraikiz:

a) Bategite edo zatiketa eragiketak direnean, aukera hori bategite edo zatiketaren proiektuan eta erabaki sozialetan adieraziko da entitate eskualdatzaile eta eskuratzailearen zerga egoitza Espainian dagoenean.

Egiten diren eragiketei foru arau honen 91. artikuluan aipatzen den araubidea aplikagarri bazaie, eta ez entitate eskualdatzaileak eta ez eskuratzaileak ez badute zerga egoitza Espainian kokatuta, aukera hori entitate eskuratzaileak egin beharko du eta eskualdaketa dokumentatzen duen eskritura publikoan jasoko da.

b) Diruzkoak ez diren ekarpenak egiten direnean eta aktibo eta pasibo osoa lagatzen denean, entitate eskuratzaileak egin beharko du aukera, eta erabaki sozialean, edo horren ezean, egintza edo kontratua dokumentatzen duen eskritura publikoan jasoko da.

Gertatzen bada eragiketak egiten direnean entitate eskuratzaileak ez duela lurralde espainiarrean zerga egoitzarik edo establezimendu iraunkorrik, entitate eskualdatzaileak egingo du aukera.

c) Baloreak trukatzen direnean, entitate eskuratzaileak egingo du aukera, eta erabaki sozialean, edo horren ezean, egintza edo kontratua dokumentatzen duen eskritura publikoan jasoko da. Akzioak eskuratzeko eskaintza publikoen kasuan, eragiketa sustatzeko eskumena duen organoak egingo du aukera, eta informazio orrian egon beharko du adierazita.

Baloreak eskuratzen dituen entitatea eta baloreak trukatzen dituen entitate partizipatua ez badira Espainian egoiliarrak, balore horiek eskualdatzen dituen bazkideak frogatu beharko du entitate eskuratzaileari 90/434/EEE Zuzentarauaren araubidea aplikatu zaiola.

d) Europako sozietate batek edo Europako sozietate kooperatibo batek Europar Batasuneko estatu batetik beste estatu kide batera aldatzen duenean sozietate helbidea, aukera hori jasoko da sozietate helbidea Espainiatik beste estatu kide batera aldatzen duen sozietatearen lekualdaketarako proiektuan zein sozietate-erabakian, edo sozietate helbidea Espainiara aldatzen duen sozietatearen proiektuan zein sozietate-erabakian, edo egoitza Espainian izan ez arren Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorra duen sozietateak helbidea beste estatu kide batera aldatzeko proiektuan zein sozietate-erabakian.

Aukera eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoan edo agiri publiko baliokidean jaso behar da. Eragiketa dokumentatzeko erabiliko den eskritura edo agiri hori amaierako estatu kidearen Erregistro Publikoan inskribagarria izan

behar da, hain zuzen, Kontseiluaren 1968ko martxoaren 9ko 68/151/EEE Zuzentarauak aurreikusitakoan.

Edonola ere, apartatu honetan aipatzen den aukera Ogasun eta Finantza Departamentuari jakinarazi behar zaio, arauz ezarritako eran eta epean.

4. Kapitulu honetan ezarritako araubidea ez da aplikatuko, egindako eragiketaren helburu nagusia zerga-iruzurra egitea edo zergak saihestea bada. Bereziki, eragiketa ez bada arrazoi ekonomiko baliodunengatik egiten, hau da, eragiketan parte hartzen duten entitateen jarduerak berregituratu edo arrazionalizatzeko asmoz, eta bai zerga onurak lortzeko helburu soilarekin, araubidea ez da aplikagarria izango.

5. Kapitulu honetan errenten gerorapenari buruz jasotzen den araubidea bateraezina izango da, foru arau honetako 19. artikuluan xedatutako eran, lurralde espainiarrean egoitzarik ez duten entitateetako partaidetzak eskualdatzetik eratorritako errentak oinarri ezargarrian ez sartzeari buruz artikulu horretan aipatzen diren kasuak aplikatzearekin.

XI. Kapitulua: Meatzaritzaren zerga araudia

105. artikulua. Meatzaritza entitateak: amortizazio askatasuna.

1. Meatzeen uztailaren 21eko 22/1973 Legeak 3. artikuluaren 1. apartatuko C sekzioan, Meatzeen Legea aldatzeko azaroaren 5eko 54/1980 Legeak ezarritako D sekzioan eta erregelamenduz izaera orokorrez, aipatu artikuluko A eta B sekzioen artean, erabakitzen diren meaguneak eta gainerako baliabide geologikoak bilatu, ikertu, ustiatu edo horietatik etekina ateratzen dituzten entitateek 10 urteko amortizazio askatasuna izan dezakete, ustiapenaren emaitza oinarri ezargarrian lehen aldiz sartzen den zergaldiaren hasieratik aurrera, meatzaritzako aktiboetan egindako inbertsioei eta lur eremuen kontzeptuan ordaindutako kopuruei dagokienez.

2. Aurreko apartatuan aipatutako ihardueren artean ez da sartuko iharduera horiek burutu edo garatzeko zerbitzugintza soila.

106. artikulua. Agortze faktorea: aplikazio eremua eta modalitateak.

1. Agortze faktorea kontzeptuan zuzendutako kopuruen zenbatekoan oinarri ezargarria murriztu ahal izango dute Mehatzeen uztailaren 21eko 22/1973 Legeari jarraiki ondorengo baliabide bat edo gehiago ustiatzen duten sujetu pasiboek:

a) Meatzeen uztailaren 21eko 22/1973 Legeak 3. artikuluaren C sekzioan eta Meatzeen Legea aldatzeko 54/1980 Legeak sortu zuen D sekzioan sartutako baliabideak.

b) Aipatu artikuluaren B sekzioan sartutako jatorri ez-naturaleko meaguneetatik lortutako baliabideak, baldin eta berreskuratu edo eraldatutako produktuak C sekzioan edo Meatzeen Legea aldatzeko azaroaren 5eko 54/1980 Legeak sortu zuen D sekzioan sartuta badaude.

2. Agortze faktorea ez da handiagoa izango aurreko apartatuan aipatutako ustiapenei dagokien oinarri ezargarriaren zatiaren 100eko 30 baino.

3. Hornikuntzako Plan Nazionalean lehentasunezkotzat hartutako lehengai mineral bat edo batzuk ustiatzen dituzten entitateek aukera izango dute agortze faktorea, baliabide horien buruzko ihardueran, haiek saldutako mineralen balioaren 100eko 15eraino iristeko. Halakotzat hartuko dira enpresek gero tratatu edo eraldatzeko kontsumitzen dituztenak ere. Kasu horretan, agortze faktorea dotazioak ezingo du handiagoa izan aipatu ustaipenetatik ateratako sustantzien, horiekin batera datozen produktuen eta haietatik eratorritako beste sustantzia batzuen tratamendu, eraldaketa, merkaturatze eta salmentari dagokien oinarri ezargarriaren zatia baino.

4. Pertsona fisiko edo juridiko batzuk meatzaritzako iharduerak burutzeko elkartu direnean, aparteko nortasun juridikoa eratu gabe, partaide bakoitzak, iharduera amankomunean daukan partaidetza hainbanatuz, diru-kopuru bat agortze faktorea zuzendu ahal izango du. Horretarako, ondorengo artikuluetan jasoko diren betebeharrak kontuan hartuko dituzte.

107. artikulua. Agortze faktorea: inbertsioa.

Agortze faktorearen kontzeptuan oinarri ezargarriari gutxitutako kopuruak bakar-bakarrik jarraian zerrendatuko diren meatzaritzako iharduerekin zuzenean lotutako gastu, lan eta ibilgetuetan inbertitu ahal izango dira:

a) Meagune berriak eta gainerako baliabide geologikoak bilatzean eta ikertzea.

b) Lortutako produktuen berreskurapena edo kalitatea hobetzeko ikertzea.

c) [225] Bakar-bakarrik jarraian aipatuko diren jardueretan aritzen diren enpresen kapital sozialaren balore adierazgarriak harpidetu edo erostea, baldin eta bi kasu horietan baloreak hamar urteko epean etenik gabe mantentzen badira entitatearen ondarean. Jarduera horiek dira artikulu honetako a), b) eta d) letretan aipatutakoak, Mehatzeei buruzko uztailaren 21eko 22/1973 Legeak 3. artikuluaren C) sekzioan sailkatzen dituen meatokiak eta gainerako baliabide geologikoen ustiapena eta, azkenik, azaroaren 5eko 54/1980 Legeak, Mehatzeen Legea aldatzekoak, sortu duen D) sekzioan jasotakoen ustiapena: mineral erradioaktiboak, harri bituminosoak eta D) sekzio horretan sartzea erabakitzen diren gainerako meatokiak eta baliabide geologikoak, denak ere interes energetikokoak.

Sujetu pasiboari akzio edo partaidetzak saldu zizkioten enpresek, horiei harpidetu ondoren, aipatutakoez besteko iharduerak burutzen badituzte, sujetu pasiboak foru arau honek 109. artikuluaren 1 apartatuan jasotako likidazioa egin beharko du edo, bestela, harpidetza horren zenbatekoa berrinbertitu beharkizunak betetzen dituzten beste inbertsio batzuetan. Berrinbertsio berria aurreko c) letran aipatutako baloreetan eginez gero, hamar urteko epea osatzeko geratzen den tartea iraun beharko dute balore horiek.

d) Ustiatzen ari den meagunearen erreserba zenbatekoa den hobeki ezagutzeko ikertzea.

e) Enpresaren meatzaritzako iharduerak ikertzeko laborategiak eta ekipoak.

---

[225] c) letraren lehen parrafo hau Zerga Neurriei buruzko otsailaren 25eko 1/1998 Foru Arauaren 5. artikuluak aldatu du, 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoroekin.

f)[226] Ekainaren 12ko 975/2009 Errege Dekretuak, erauzte industriek eta mehatze jarduerek eragindako eremua babestu eta birgaitzeko industriek sortutako hondakinen kudeaketari buruzkoak, jasotako berreskuratze planetan sartuta dauden jarduketak.

108. artikulua. Agortze faktorea: beharkizunak.

1. Agortze faktorea dela-eta zergaldi bakoitzean oinarri ezargarriari gutxitzen zaion zenbatekoa hamar urteko epean berrinbertitu beharko da hura amaitzen denetik aurrera.

2. Inbertsioa burututzat hartuko da aurreko artikuluan zerrendatu diren gastu edo lanak egin direnean edo ibilgetua jaso denean.

3. Agortze faktorea dela-eta oinarri ezargarriari gutxitutako zenbatekoa gehitu beharko zaie zergaldi bakoitzean entitatearen erreserbako kontuei.

4. Sujetu pasiboak murrizpena egin zuenaren ondorengo hamar ekitaldietan Memorian agertu beharko ditu murrizpenaren zenbatekoa, horren kargura egindako inbertsioak eta amortizazioak, bai eta aurreko apartatuan jasotakoaren ondorioz gehitutako erreserbako kontuetan izan den edozein murrizpen eta horren erabilpena ere. Gertakari horiek egiaztatu ahal izango dira ekitaldi horietan.

5. Bakarrik aurreko 3 apartatuan jasotakoa betetzeko eratu diren erreserbak erabili ahal izango dira askatasun osoz, inbertsioak amortizatzen doazen neurrian, edo fondo horien bidez finantzatutako akzio edo partaidetzak harpidetu zirenetik hamar urteak iragan ondoren.

6. Agortze faktorea aplikatuz finantzatu diren inbertsioek ezingo dute foru arau honek VII. tituluaren IV., V. eta VI. kapituluetan jasotako kenkarietara bildu.

109. artikulua. Agortze faktorea: beharkizunak ez betetzea.

1. Hamar urteko epea aipatu zenbatekoa inbertitu gabe edo behar ez bezala inbertituz iragan ondoren, epe hori bukatzean amaitutako zergaldiko edo erabilera okerra eman den ekitaldiko oinarri ezargarrian sartu beharko da zenbatekoa. Halaber, berandutza interesak likidatu beharko dira, hau da, murrizpena egin zen zergaldiko zorraren borondatezko ordainketaldia amaitzen den egunetik sortzen direnak.

2. Entitatearen likidazioa gertatuz gero, agortze faktorea dela-eta aplikatzeko geratzen den zenbatekoa oinarri ezargarrian sartuko da, aurreko apartatuan jasotako moduan eta ondorioekin.

3. Era berean jokatuko da meatzaritzako ustiapena osorik edo zati batean lagatu nahiz inorenganatzen denean, bai eta bategin, bereizi, aktibo eta pasibo osoa lagatu nahiz iharduera adarra ematen denean ere, salbu eragiketa horien ondorioz ateratzen den entitateak, mehatzaritzako iharduerari jarraipena emanez,

[226] Letra hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAren 3. artikuluko bigarren ordinalaren bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean, eta aldaketak ere egun horretatik aurrera ditu ondorioak (2011/12/27ko GAO).

entitate eskualdatzailearen zerga onura kontsolidatzeko beharkizunak betetzea bere gain hartzen badu aurreko entitatearen baldintza berdinetan.

XII. Kapitulua: Hidrokarburoak ikertze eta ustiatzearen zerga araudia

110. artikulua. Hidrokarburoak miatu, ikertu eta ustiatzea.[227]

Sozietateen xede bakarra ondoko hau bada, alegia, hidrokarburo natural likido nahiz gasezkoen lur azpiko sorburu eta bilguneak estatuko lurraldean eta Espainiako Erresumaren eskumeneko itsasaldearen nahiz itsas hondoen zorupean Hidrokarburoen Sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legeak jasotako moduan miatu, ikertu eta ustiatzea, eta -horien osagarri moduan- ateratako produktuak garraiatu, bildu, garbitu eta saltzea, sozietate horiek bi kopuru hauetako edozein murriztu ahal izango dute oinarri ezargarrian, agortze faktorea kontzeptupean, entitateak aukeratuta:

a) Hidrokarburoak saltzeagatik eta biltegiratze zerbitzuengatik izandako kontraprestazioaren 100eko 25, murrizpen hau egin aurreko oinarri ezargarriaren %50eko mugarekin.

b) Murrizpen hau egin aurreko oinarri ezargarriaren 100eko 40.

111. artikulua. Agortze faktorea: baldintzak.[228]

1. Emakidadunak hamar urteko epean inbertitu beharko ditu agortze faktorea dela-eta oinarri ezargarrian murriztutako kopuruak. Estatuko lurraldean eta Espainiako Erresumaren eskumeneko itsasaldearen nahiz itsas hondoen zorupean hidrokarburoen lur azpiko sorburu edo bilguneak miatu, ikertu eta ustiatzeko jardueretan inbertitu beharko dira, bai eta lan eremuak utzi eta itsas plataformak desegiteko lanetan ere. Epea oinarri ezargarria agortze faktoreagatik murrizten den zergaldia amaitzen denetik aurrera kontatuko da. Agortze faktorea dela-eta oinarri ezargarria murrizten den lehen zergaldia iritsi aurreko lau urteetan egindako miaketa, ikerketa eta ustiapen lanekin ere modu berean jokatuko da.

Ondorio horietarako, miaketa edo ikerkuntzatzat hartuko dira hasierako azterketa geologiko, geofisiko edo sismikoak burutzea eta, miatu edo ikertua izateko baimena duen arean ondoko gastuak egitea: zundaketa lanei dagozkienak, datuak ebaluatu eta garatzekoak (negatiboak badira), terrenoetan sartu eta

---

[227] 110.artikulu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 87.artikuluak aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. Hala ere, 110.artikulu honek 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak amaierako hirugarren xedapenak dioen bezala.(GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

[228] 111.artikulu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 88.artikuluak aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

horiek prestatzeko obrengatik sortutako gastuak, eta zundaketa horiek kokatzekoak. Miaketa edo ikerkuntzako gastutzat hartuko dira, baita ere, emakida batean egindakoak, horien helburua hidrokarburoak eduki edo biltegiratu ditzakeen egitura bat kokatu eta zulatzea denean, beti ere egitura hori eta ustiatzeko baimenduta dagoen guneari dagokiona desberdinak badira. Eremuak utzi eta itsas plataformak desegiten direla ulertuko da lehorreko instalazio produktiboak edo itsas plataformak desagertarazteko lanak egiten direnean, eta haiek hartutako lurzorua edo itsas espazioa emakida baimendu zuen dekretuan jasotako moduan libre uzten direnean.

Ondorio horietarako, ustiapeneko inbertsiotzat hartuko dira ustiapen-emakida baten eremuan ondoko hauek egitea, hala nola, putzuak diseinatu, zulatu eta eraikitzea, ustialekuko instalazioak sortzea, edo ustiapen lanak aurrera eramateko beharrezkoa gerta daitekeen beste edozein inbertsio ukigarri zein ukiezin burutzea, baldin eta inbertsio horiek emakidadunak lehen aipatutako miaketa edo ikerketa jardueretan egindakoetatik aparte burutzen badira.

Ondorio horietarako, ebaluazio eta garapen zundaketak ustiapentzat hartuko dira emaitzak positiboak badira.

2. Agortze faktorea dela-eta oinarri ezargarria murriztu duen zenbatekoa entitatearen erreserba kontuei gehitu beharko zaie zergaldi bakoitzean.

3. Aurreko apartatua betez eratutako erreserbak fondo horiekin finantzatu diren ondasunak amortizatuz doazen neurrian bakarrik erabili ahal izango dira modu librean.

4. Murrizpena egin den ekitaldia amaitu ondorengo hamar ekitaldiei buruzko memorian, subjektu pasiboak jasota utzi beharko du zein izan den murrizpen horren zenbatekoa, haren kargura zein inbertsio egin diren eta zenbat amortizatu den eta, orobat, aurreko 2 apartatuan jasotakoaren ondorioz gehitutako erreserben kontuek zein gutxipen izan duten eta zertarako erabili den. Datu horiek zergaldi horren barruan egiaztatu ahal izango dira, eta horretarako, subjektu pasiboak agortze faktoreari exijitutako baldintzak bete direla frogatzen duen kontabilitatea eta dokumentazioa aurkeztu beharko ditu.

5. Agortze faktorea aplikatuz finantzatzen diren inbertsioak ezingo dira foru arau honek VII. tituluaren IV., V. eta VI. kapituluetan jasotako kenkarietara bildu.

112. artikulua. Agortze faktorea: beharkizunak ez betetzea. [229]

1. Hamar urteko epea aipatu zenbatekoa inbertitu gabe edo behar ez bezala inbertituz iragan ondoren, epe hori edo erabilera okerra eman den ekitaldia amaitzerakoan bukatutako zergaldiko oinarri ezargarrian sartu beharko da zenbatekoa. Halaber, berandutza interesak likidatu beharko dira, hau da, murrizpena egin zen zergaldiko zorraren borondatezko ordainketaldia amaitzen den egunetik sortzen direnak.

2. Entitatea likidatu edo bere xede soziala aldatzen denean, agortze faktorea dela-eta aplikatzeko geratzen den zenbatekoa oinarri ezargarrian sartuko da, aurreko apartatuan jasotako moduan eta ondorioekin.

[229] Artikulu hau Zerga Neurriei buruzko apirilaren 27ko 3/1998 Foru Arauaren 3. artikuluak aldatu du, 1999ko maiatzaren 3an sartu zen indarrean.

3. Era berean jokatuko da osorik edo zati batean lagatu nahiz inorenganatzen denean, bai eta bategin, bereizi, aktibo eta pasibo osoa lagatu nahiz jarduera adarrak ematen direnean edo entitatea eraldatzen denean ere, salbu eragiketa horien ondorioz ateratzen den entitateak, jarduerari jarraipena emanez, xede sozial bakarra foru arau honek 110. artikuluan jasotakoa badu eta entitate eskualdatzaile edo eraldatuaren zerga onura kontsolidatzeko beharkizunak betetzea bere gain hartzen badu aurreko entitatearen baldintza berdinetan.

113. artikulua. Titularitate banatua.

Sozietate batzuek ikerkuntza baimena edo ustiapenaren emakidaren titularitatea elkarren artean banatuta badute, entitate partaide bakoitzari esleituko zaizkio partaidetzaren arabera egozkarriak zaizkion sarrerak, gastuak, ondarezko elementuetatik eratorritako errentak eta inbertsioak.

114. artikulua.[230] Inbertsio ukiezinak eta ikerketa gastuak amortizatzea. Oinarri ezargarri negatiboak konpentsatzea.[231]

1.[232] Indarrean, iraungita edo amaituta dauden baimen eta emakidetan gauzatutako aktibo ukiezinak eta ikerketa gastuak ibilgetu ukiezintzat hartuko dira, horiek gauzatzen diren unetik aurrera, eta %50eko gehieneko urteko kuotaz amortizatu ahal izango dira. Halakotzat hartuko dira aldez aurreko lan geologiko, geofisiko eta sismikoak nahiz terrenoetan sartu eta prestatzeko lanak, bai eta miaketa, ebaluazio eta garapen zundaketak nahiz putzuak berregokitu eta sorguneak artatzeko lanak ere.

Ez zaio gehieneko mugarik jarriko aktibo ukiezinak eta ikerketa gastuak amortizatzeari.

2. Aktiboaren elementu ukigarriak amortizatu ahal izango dira, “produkzio unitatearen” irizpideari jarraituz, foru arau honen 11. artikuluko 2 apartatuaren d) letran jasotako moduan Administrazioak onartu duen plan baten arabera.

3. Foru arau honen 110. artikuluan aipatutako entitateek oinarri ezargarri negatiboak hurrengo ekitaldietako oinarri ezargarriak bakoitzaren 100eko 50eko urteko gehieneko zenbatekoa murrizteko prozedura erabiliz konpentsatuko dituzte.

Oinarri ezargarri negatiboak konpentsatzeko prozedura hau foru arau honen 24. artikuluan jasotakoaren ordezkoa da.

---

[230] Artikulu hau Zerga Neurriei buruzko apirilaren 27ko 3/1998 Foru Arauaren 3. artikuluak aldatu du, 1999ko maiatzaren 3an sartu zen indarrean.

[231] Artikulu honen izenburua 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Hogaita hamaika artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[232] 1. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Hogaita hamaika artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

XIII. Kapitulua: Nazioarteko gardentasun fiskala

115. artikulua. Entitate ez-egoiliarrek lortutako errenta positibo jakin batzuk oinarri ezargarrian sartzea.

1. Espainian egoitza ez duen entitate batek lortutako errenta positiboa oinarri ezargarrian sartuko dute entitateek, baldin eta errenta hori 2 apartatuan jasota dauden mota haietako batekoa bada eta, halaber, baldintza hauek betetzen badira:

a) Beren kabuz edo foru arau honek 16. artikuluan emandako zentzuan lotuta dauden pertsona edo entitateekin batera 100eko 50eko edo goragoko partaidetza izatea Espainian egoitza ez duen entitatearen kapitalean, fondo propioetan, emaitzetan edo boto eskubideetan, hain zuzen azken horren ekitaldia ixten den egunean.

Espainian egoitza ez duten entitate lotuek daukaten partaidetza, hain zuzen, Espainian egoitza duten pertsona edo entitate lotuengan dakarren zeharkako partaidetzaren zenbatekoaren arabera konputatuko da.

Sartu beharreko errenta positiboaren zenbatekoa kalkulatzeko, emaitzetan daukan partaidetzaren proportzioa eta, horrelakorik ez bada, kapitalean, fondo propioetan edo boto eskubideetan daukan partaidetzaren proportzioa kontuan hartuko da.

b) Espainian egoitza ez duen entitateak ordaindutako kopurua -zerga honen berdina edo antzekoa den karga izateagatik 2 apartatuan jasotako errenta motetako bati egozkarria- zerga honen arauei jarraiki ordaindu beharko litzatekeenaren 100eko 75 baino txikiagoa izatea.

c)[233] (Indargabetua)

2. Oinarri ezargarrian ondoko jatorrietako bat daukan errenta positiboa sartuko da bakarrik:

a) Landa izaerako ondasun higiezinen edo horien eskubide errealen titularitatea, salbu iharduera enpresarial bati atxikita daudenean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 27ko 13/1991 Foru Arauak 6. eta 40. artikuluetan jasotakoaren arabera, edo sozietate titularraren talde bereko entitate ez-egoiliarrei haien erabilera laga zaienean, Merkataritza Kodeak 42. artikulua emandako zentzuan.

b) Edozein entitate motaren fondo propioetan parte hartzea, eta kapital propioak hirugarrenei lagatzea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 27ko 13/1991 Foru Arauak 37. artikuluaren 1 eta 2 apartatuetan jasotakoaren arabera.

Ez da letra honetan sartuko aktibo finantziero hauek jatorri dauzkan errenta positiboa:

---

[233] Letra hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAren 3. artikuluko lehen ordinaleko zazpi apartatuak indargabetu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaket jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko den. (2009-12-28ko GAO).

a') Iharduera enpresarialak burutzeagatik sortutako lege eta erregelamenduzko obligazioak betetzeko edukitakoak.

b') Iharduera enpresarialak direla-eta finkatutako kontratuzko harremanengatik sortutako kreditu eskubideak sortzen dituztenak.

c') Baloreen merkatu ofizialetan bitartekaritzako ihardueren ondorioz edukitakoak.

d') Kreditu entitateek eta aseguru etxeek beren ihardueren ondorioz edukitakoak, c) letran jasotakoa eragotzi gabe.

Hirugarrenei kapital propioak lagatzetik eratorritako errenta positiboa, izan ere, ondorengo c) letran aipatutako kreditu eta finantza iharduerak burutuz lortu dela ulertuko da, baldin eta lagatzailea eta lagapen hartzailea Merkataritza Kodearen 42. artikuluko zentzuan sozietate talde berekoak badira eta lagapen hartzaileak gutxienez diru-sarreren 100eko 85 iharduera enpresarialetatik lortu baditu.

c) Kreditu, finantza, aseguru eta zerbitzugintzako iharduerak, salbu esportazio iharduerekin zuzenean lotuta daudenak, baldin eta zuzenean edo zeharka Espainian egoitza duten eta foru arau honetako 16. artikuluaren zentzuan lotuta dauden pertsona edo entitateekin batera burutu badira, entitate egoiliar horientzat gastu kengarriak sortzen dituztenean.

Ez da errenta positiboa sartuko baldin eta kreditu, entitate ez-egoiliarraren finantza, aseguru edo zerbitzugintzako ihardueretatik eratorritako diru-sarreren 100eko 50 baino gehiago, esportazioarekin zuzenean lotutakoak izan ezik, foru arau honetako 16. artikuluaren zentzuan lotuta ez dauden pertsona edo entitateekin batera burututako ihardueretatik badator.

d) Aurreko a) eta b) letretan aipatutako ondasun eta eskubideak eskualdatzea, errentak sortzen direnean.

Ez dira sartuko, ordea, aurreko a), b) eta d) letretan jasotako errentak, entitate ez-egoiliarrak lortuak, zuzenean edo zeharka 100eko 5etik gora partizipatuak diren entitateetatik eratorriak badira, ondoko bi beharkizun hauek betetzen direnean:

a') Entitate ez-egoiliarrak partaidetzak zuzendu eta kudeatzea, bitarteko materialak eta giza baliabideak antolatuz.

b') Errentak sortzen dituzten entitateen diru-sarreren 100eko 85, gutxienez, iharduera enpresarialetatik etortzea.

Ondorio horietarako, iharduera enpresarialetatik eratorritzat hartuko dira aurreko b') letrako beharkizuna betetzen dituzten eta entitate ez-egoiliarrak 100etik gora zuzenean edo zeharka partizipatuak dituen entitateetan sortzen diren a), b) eta d) letretan jasotako errentak.

3. Ez dira aurreko apartatuko a), b) eta d) letretan jasotako errentak sartuko, horien batura errenta osoaren 100eko 15 edo entitate ez-egoiliarraren diru-sarrera guztien 100eko 4 baino txikiagoa denean.

Aurreko parrafoan jarritako mugak, halaber, Merkataritza Kodearen 42. artikuluko zentzuan sozietate talde batekoak diren eta Espainian egoitza ez duten entitateen multzoak lortutako errentari edo diru-sarrerei buruzkoak izan daitezke.

Inola ere ezingo da sartu entitate ez-egoiliarraren errenta osoa baino handiagoa den kopuru bat.

4. Ez dira sartuko artikulu honen 2 apartatuan aipatutako errentak, Espainian egoitza duten entitateentzat kengarriak ez diren gastuekin bat datozenean.

5. Artikulu honetako 1 apartatuaren a) letran jasotako entitateak aipatu errenta positiboak sartzera behartuta egongo dira, baldin eta entitate ez-egoiliarrean zuzenean nahiz, beste entitate bat(zu)en bitartez, zeharka parte hartzen badute. Azken kasu horretan, errenta positiboaren zenbatekoa zeharkako partaidetzarena izango da.

6. Espainian egoitza ez duen entitateak ekitaldia amaitu duen egunari dagokion zergaldian sartuko dira errentak. Ondorio hauetarako, ekitaldiak ezingo du hamabi hilabete baino luzeagoa izan, salbu sujetu pasiboak ekitaldi horretako kontuak onartzen diren egunari dagokion zergaldian errentak sartzea aukeratzen duenean, baldin eta ekitaldi horren amaiera egunetik sei hilabete baino gehiago iragan ez badira.

Sujetuaren aukera ondorioak izango dituen lehen zerga-aitorpenean adierazi beharko da, eta hiru urte iraun behar du.

7. Foru arau honetan nahiz zerga honi buruzko gainerako xedapenetan oinarri ezargarria zehazteko finkatu diren printzipio eta irizpideen arabera kalkulatuko da oinarri ezargarrian sartu beharreko errenta positiboaren zenbatekoa. Errenta osotzat hartuko da irizpide eta printzipio horiek aplikatuz ateratzen den oinarri ezargarriaren zenbatekoa.

Ondorio horietarako, Espainian egoitza ez duen entitatearen ekitaldia ixterakoan indarrean dagoen ganbio tasa erabiliko da.

8. Ez dira oinarri ezargarrian sartuko dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak, oinarri ezargarrian sartutako errenta positiboaren zatian. Berdin jokatuko da konturako dibidenduekin.

Erreserbak banatuz gero, akordio sozialean jasotako izendapenari jarraituko zaio. Halaber, erreserba horietan sartutako azken kopuruak hartuko dira aplikatutzat.

Errenta positibo bera behin bakarrik sar daiteke, edozein modutan eta edozein entitatek sortua delarik ere.

9. Kuota osoan ondorengo kontzeptuen kenkaria egin daiteke:

a) Zerga honen antzeko izaera duten zergak edo kargak, benetan ordainduak, oinarri ezargarrian sartutako errenta positiboari dagokion zatian.

Benetan ordaindutako zergatzat hartuko dira bai entitate ez-egoiliarrak bai bere sozietate partizipatuek ordaindutakoak, baldin eta aurrenekoak bigarren horien gainean foru arau honek 19. artikuluan finkatutako partaidetza portzentaia badu.

b) Atzerrian dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak banatzeagatik benetan ordaindutako zerga edo karga, bai ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmen baten arabera bai herri edo lurralde hartako legeriaren arabera, lehendik oinarri ezargarrian sartutako errenta positiboari dagokion zatian.

Entitate ez-egoiliarraren gaineko partaidetza zeharkakoa denean, beste entitate ez-egoiliar baten edo batzuen bitartez, azken horrek edo horiek benetan ordaindutako zerga honen berdina edo antzekoa den zerga edo karga kenduko da, lehendik oinarri ezargarrian sartutako errenta positiboari dagokion zatian.

Errenta positiboa sartu zen zergaldian ez ezik, beste zergaldi batzuetan ordaindutako zergak direnean ere kenkariak egingo dira.

Inola ere ez dira kenkariak izango erregelamenduz paradisu fiskaltzat hartutako herri edo lurraldeetan ordaindutako zergak.

Aurreko a) eta b) letretan aipatutako kenkarien baturak ezingo du handiagoa izan oinarri ezargarrian sartutako errenta positiboagatik zerga honetan ordaindu beharreko kuota osoa baino.

10.[234] Zuzeneko edo zeharkako partaidetza eskualdatzetik eratorritako errenta kalkulatzeko, erosketa balioari eskurapen egunetik eskualdatze egunera arte bazkideen oinarri ezargarrian beren akzio edo partaidetzen errenta moduan benetako banaketarik gabe egotzi zaien errenta positiboa gehituko zaio.

Foru arau honetan xedatutakoaren arabera ondare sozietatetzat hartu behar diren sozietateen kasuan, konputatu beharreko eskualdaketa balioa, gutxienez, onartutako azken balantzetik ateratzen den balio teorikoa izango da, beti ere aktiboen kontabilitate balioa Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren ondorioetarako izango luketen balioarekin edo, txikiagoa bada, merkatuko balioarekin ordezkatu ondoren.

11. Artikulu honetan jasotakoa aplikagarria zaien sujetu pasiboek Espainian egoitza ez duen entitateari buruzko ondorengo datuak aurkeztu beharko dituzte zerga honen aitorpenarekin batera:

a) Sujetu pasiboaren edo sozietaten izena, eta helbide soziala.

b) Administratzaileen zerrenda.

c) Balantzea, eta galera eta irabazien kontua.

d) Oinarri ezargarrian sartu beharreko errenta positiboaren zenbatekoa.

e) Oinarri ezargarrian sartu beharreko errenta positiboa dela-eta ordaindutako zergen frogagiriak.

12. Entitate partizipatuaren egoitza erregelamenduz paradisu fiskaltzat hartutako herri edo lurraldeetan dagoenean, ondoko hauek ulertuko dira:

a) Aurreko 1 apartatuko b) letran jasotako baldintza betetzen dela.

b) Entitate partizipatuak lortutako errenta aurreko 2 apartatuan aipatu diren errenta-jatorrietatik eratorria dela.

---

[234] 10. apartatu hau 10/2012 FORU ARAUAren, abenduaren 18koaren amaierako bigarren xedapenak aldatu du. Aipaturiko Foru Araua Aberastasunaren eta Fortuna Handien Gaineko Zergarena da (2012-12-21 GAO). Aldaketa 2013ko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean.

c) Entitate partizipatuak lortutako errenta partaidetzaren balioaren 100eko 15ekoa dela.

Aurreko letretan jasotako usteek kontrako proba onartuko dute.

Aurreko letretan jasotako usteak ez dira aplikatuko entitate partizipatuak bere kontuak, Merkataritza Kodeak 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, errenta positiboa sartzera behartuta dauden entitate bat edo batzuekin kontsolidatzen dituenean.

13. Artikulu honetan jasotakoa foru arau honek 3. eta 8.2 artikuluetan ezarritakoa eragotzi gabe ulertu behar da.

14.[235] Artikulu honen ondorioetarako, Merkataritza Kodeak 42. artikuluan aipatutako sozietate taldean merkataritza legeriaren arabera definitutako multitalde entitateak eta entitate elkartuak sartuta daudela ulertu behar da.

15.[236] Artikulu honetan jasotakoa ez da aplikatuko lurralde espainiarrean egoiliar ez den entitateak Europar Batasuneko beste estatu batean egoitza duenean, betiere subjektu pasiboak frogatzen badu bertan eratzeko eta jarduteko arrazoi ekonomiko baliodunak izan direla eta jarduera enpresariak egiten dituela.

XIV. Kapitulua: Errentamendu finantzarioko kontratu batzuen zerga araudia

116. artikulua. Errentamendu finantzarioko kontratuak.

1.[237] Artikulu honetan jasotakoa aplikatuko zaie uztailaren 29ko 26/1988 Legeak, Kreditu entitateen disziplinari eta kontu hartzaile-tzari buruzkoak, zazpigarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuan aipatutako errentamendu finantzarioko kontratuei.

Aurretik jasotakoa jasota ere, araubide hau ez zaie aplikatuko foru arau honek 14. artikuluaren 3. apartatuko a) letran eta c) letraren bigarren paragrafoan nahiz artikulu beraren 4. apartatuko lehen eta bigarren paragrafoetan aipatutako garraio elementuei.

2. Aurreko apartatuan aipatutako kontratuek gutxienez bi urte iraungo dute ondasun higigarriei buruzkoak direnean eta hamar urte, berriz, ondasun higiezin edo industri eablezimenduei buruzkoak direnean. Dena den, abusua

---

[235] 14. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Hogeita hamabi artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[236] Apartatu hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAren 3. artikuluko lehen ordinaleko zortzi apartatuak gehitu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko den. (2009-12-28ko GAO).

[237] Apartatu hau 2013ko uztailaren 17ko 5/2013 Foru Arauaren 3. artikuluko sei apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Araua, zerga iruzurraren aurkako neurriei, krediuak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzkoa, argitaratu eta beharamunean jarri da indarrean (GAO 2013-07-22). 3. artikuluak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ditu ondorioak.

saihesteko, kontratuetan bestelako gutxieneko iraunaldi batzuk finkatu ahal izango dira erregelamenduz, kontuan hartuz nolako ondasunak arautzen dituzten.

3. Errentamendu finantziarioko kuotak kontratuetan adierazi beharko dira, bai entitate errentatzaileak ondasunaren kostua berreskuratzeko zatia, erosketa aukeraren balioa kenduta, eta bai entitate horrek exigitutako finantza karga bereiziz. Guzti horrek ez du zeharkako karga aplikatzea eragotziko.

4. Ondasunaren kostua berreskuratzeko errentamendu finantzarioko kuoten zatiaren urteko zenbatekoa berdina izango da edo handituz joango da kontratuaren iraunaldian.

5. [238] 5. Nolanahi ere, fiskalki gastu kengarritzat hartuko da entitate errentatzaileak ordaindutako finantza karga. Dena den, foru arau honek 14. artikuluaren 3. apartatuko b) letran aipatutako ibilgailuetatik eratorritako finantza gastuak konputatuko dira apartatu horretan jasotako erabilera kontzeptuan jarritako mugaren ondorioetarako.

6. [239] Halakotzat hartuko da ondasunaren kostua berreskuratzeko ordaindutako finantza errentamenduko kuoten zatia ere, salbu kontratuaren xedea terreno, orube edo beste aktibo amortizaezin batzuk direnean. Kontratuan araututako ondasunaren zati batean bakarrik halakoa gertatuz gero, bakar-bakarrik amortiza daitezkeen elementuei dagokien proportzioa hartuko da kenkaritzat, eta kontratuan berezita adierazi beharko da.

Aurreko paragrafoaren arabera kengarritzat har daitekeen kopuruaren zenbatekoa ez da handiagoa izango ondasunaren kostuari amortizazio koefiziente linealaren bikoitza –foru arau honek 11. artikuluaren 2. eta 3. apartatuan jasotako amortizazio taularen arabera ondasun horri dagokiona aplikatuz ateratzen den emaitza baino. Soberakina segidako zergaldietan izango da kengarria, aurretik aipatutako mugapean Aipatu muga kalkulatzeko, kontuan hartuko da ondasuna noiz jarriko den behar bezala martxan.

VIII. tituluaren II. kapituluan jasotako subjektu pasiboak izanez gero, ondasunaren kostuari foru arau honek 11. artikuluaren 2. eta 3. apartatuetan jasotakoa aplikatuz ateratzen den amortizazio koefizientearen bikoitza –eraikinetarako izan ezik, 1,5ekin biderkatuta aplikatzeagatik lortutako emaitza hartuko da.

Aurreko bi paragrafoetan jasotakoa, foru arau honek 14. artikuluaren 3. apartatuaren b) letran eta c) letrako lehen paragrafoan aipatutako ibilgailuen kasuan, bakarrik aplikatuko da aipatutako letretan jarritako balio-galeragatiko muga gainditzen ez duen ondasunaren kostuaren berreskuratze zatiari dagokionez.

---

[238] Apartatu hau 2013ko uztailaren 17ko 5/2013 Foru Arauaren 3. artikuluko sei apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Araua, zerga iruzurraren aurkako neurriei, krediuak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzkoa, argitaratu eta beharamunean jarri da indarrean (GAO 2013-07-22). 3. artikuluak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ditu ondorioak.

[239] Apartatu hau 2013ko uztailaren 17ko 5/2013 Foru Arauaren 3. artikuluko sei apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Araua, zerga iruzurraren aurkako neurriei, krediuak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzkoa, argitaratu eta beharamunean jarri da indarrean (GAO 2013-07-22). 3. artikuluak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ditu ondorioak.

7. Aurreko apartatuko kopuruen kenkaria ez da galera eta irabazien kontuan kontabilizatzera baldintzatuko.

8.[240] (Edukirik gabe)

9.[241] Aktiboak artikulu honetan jasotako baldintzak betetzen dituen errentamendu finantzario baten bidez eskuratzen dituzten subjektu pasiboek aukeratu dezakete artikulu honetan araututako erregimen fiskala ez aplikatzea. Hala gertatzen bada, 11. artikuluan jasotako arau orokorrei edo haiei aplikaziozkoa zaien erregimen fiskal berezian jasotako arauei jarraituz kalkulatutako amortizazio kuoten pareko zenbatekoa izango da kenkariduna.

10. [242] Entitate errentatzaileek aukeratu ahal izango dute, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari jakinarazirik erregelamendu bidez ezartzen den prozeduraren arabera, artikulu honetako 6. apartatuan aipatutako data eta aktiboa eraikitzen benetan hasi izanaren momentua berbera direla, betiere honako betekizun hauek aldi berean bete izana aintzat hartuta:

a) Aktiboak finantza errentamenduko kontratu baten ibilgetu material direnean eta aktiboaren eraikuntza amaitu baino lehenago era adierazgarrian ordaintzen direnean aipatutako kontratuaren kuotak.

b) Aktibo horien eraikuntza gutxienez 12 hilabeteko epean denean.

c) Aktiboak ezaugarri tekniko eta diseinuzko bereziak dituztenean, eta ez direnean serieko produkziokoak.

11.[243] Baldin eta subjektu pasiboari leporatu ezineko arrazoiak direla medio ondasuna galdu edo behin betiko erabili gabe gelditzen bada, ez da integratuko errentariaren oinarri ezargarrian ondasunaren kostuaren berreskurapena dela-eta kendutako kopuruaren eta haren kontabilitate amortizazioaren arteko diferentzia.

XV. Kapitulua: Zati batean salbuetsitako entitateen araudia

117. artikulua. Aplikazio eremua.

---

[240] 8. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Hogeita hamahiru artikuluak indargabetu du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[241] 9. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Hogaita hamalau artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[242] Apartatu hau 2013ko uztailaren 17ko 5/2013 Foru Arauaren 3. artikuluko sei apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Araua, zerga iruzurraren aurkako neurriei, kredituak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzkoa, argitaratu eta beharamunean jarri da indarrean (GAO 2013-07-22). 3. artikuluak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ditu ondorioak.

[243] Apartatu hau 2013ko uztailaren 17ko 5/2013 Foru Arauaren 3. artikuluko sei apartatuak gehitu du. Aipatu Foru Araua, zerga iruzurraren aurkako neurriei, kredituak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzkoa, argitaratu eta beharamunean jarri da indarrean (GAO 2013-07-22). 3. artikuluak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ditu ondorioak.

Entitate hauek bil daitezke araudi honetara:

a)[244] Irabazi asmorik gabeko entitate eta instituzioak, baldin eta irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenaz eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriez baliatzeko beharkizunak betetzen ez badituzte.

b) Kooperatiben batasun, federazio eta konfederazioak.

c) Elkargo profesionalak, enpresari eta profesionalen elkarteak, ganbara ofizialak, arrantzaleen kofradiak, langileen sindikatuak eta alderdi politikoak.

d) Uztailaren 26ko 27/1984 Legeak, Birmoldatu eta Berrindustrializatzekoak, 22. artikuluan jasotakoaren arabera eratu diren enplegua sustatzeko fondoak.

e) Gizarte Segurantzako lan istripuetako eta lanbide gaisotasunetako mutuak, baldin eta beren araudietan jasotako beharkizunak betetzen badituzte.

118. artikulua. Salbuetsitako errentak.[245]

1. Aurreko artikuluan aipatutako erakundeek lortutako hurrengo errentak egongo dira salbuetsita:

a) Haien objektu soziala edo berariazko helburua diren jarduerak egitetik sortutakoak.

b) Dohainik egindako erosketa eta lekualdaketetatik sortutakoak, baldin eta erosketak eta lekualdaketak berariazko xede edo helburua erdiesteko egiten edo lortzen badira.

c) Berariazko xede edo helburua egiteari atxikitako ondasunen lekualdaketak ordain-trukez egiten direnean agerian jartzen direnak, lortutako kopuru osoa aipatutako berariazko xede edo helburuarekin lotutako inbertsio berriak egiteko denean.

Inbertsio berriak ondarearen elementua ematen edo eskura jartzen den dataren aurreko urtearen eta hurrengo hiru urteen arteko epearen barruan egingo dira, eta erakundearen ondarearen barruan mantenduko dira zazpi urtez; horretarako salbuespena izango da, Foru Arau honetako 11. artikuluan, 2., 3., 5. eta 6. puntuetan onartutakoen artean ezartzen den amortizazio metodoari jarraiki, bere bizitza erabilgarria txikiagoa denean.

Inbertsio berria egin dela ulertuko da, inbertsioa gauzatzen den ondare elementuak eskura jartzen diren datan.

---

[244] a) letra hau, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 FORU ARAUAren bigarren xedapen gehigarriaren 4 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau GAOan (GAO 2004-04-19) argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izango ditu ondorioak. Hala ere, aipatu aldaketak 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietan izango ditu ondorioak

[245] 118. artikulu hau, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 FORU ARAUAren bigarren xedapen gehigarriaren 5 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau GAOan (GAO 2004-04-19) argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izango ditu ondorioak. Hala ere, aipatu aldaketak 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietan izango ditu ondorioak.

Inbertsioa aipatutako epearen barruan egiten ez baldin bada, lortutako errentari dagokion kuota osoaren zatia sartu egingo da, berandutzako interesez gain, epea amaitu zen zergaldi ezargarriari dagokion kuotarekin batera.

Aipatutako elementuak finkatutako epea amaitu aurretik eskualdatzeak adieraziko du zergapetu gabeko zatiaren oinarri ezargarrian sartzea, baldin eta lortutako zenbatekoa berriro inbertitzen ez bada.

2.[246] Aurreko apartatuan adierazitako salbuespena ez da zabalduko ustiapen ekonomikoen etekinetara, ez ondaretik sortutako errentetara, ez eta bertan adierazitakoak ez diren eskualdaketetan lortutako errentetara ere.

Alderdi politikoak direnean, salbuetsita daude beren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideetatik datozen etekinak. Era berean, salbuetsita daude alderdien ustiapen ekonomikoetatik datozen etekinak, haiek eskatuta Zerga Administrazioak halakotzat hartzen baditu.

Alderdi politikoek lortutako errentak, artikulu honetan jasotakoaren arabera salbuetsita egonik, ez daude lotuta ez atxikipenari eta ez konturako sarrerari.

Arauz zehaztuko da alderdi politikoak akreditatzeko prozedura, atxikipen obligaziotik salbueste aldera.

3. Ekonomi ustiapenaren etekinak izango dira, lan pertsonaletik eta horrekin batera kapitaletik, edo alderdi horietako bakar batetik, sortuak izanik, subjektu pasiboaren aldetik ekoizpen bitartekoak eta giza baliabideak edo horietako bat bere konturako agintzen direnean, ondasun edo zerbitzuen produkzioan edo banaketan parte hartzeko asmotan.

119. artikulua. Oinarri ezargarria zehaztea.[247]

1. oinarri ezarg arria zehaztuko da Foru Arau honetako IV. Tituluan aurreikusitako arauen arabera.

2. Foru Arau honetan, 14. artikuluan adierazitakoez gain, hurrengo gastuak ez dira fiskaltasunari dagokionez kenkaridunak izango:

a) Salbuetsitako errentei bakarrik egotzitako gastuak. Salbuetsitako errentei zati batean egotzi dakizkiekeen gastuak kenkaridunak izango dira salbuetsita ez dauden ekonomi ustiapenak egitean lortutako eragiketa bolumenak duen portzentajean, erakundearen eragiketa bolumen osoari dagokionez.

b) Emaitzak ezartzeko kopuruak, eta zehazki, aurreko artikuluan, 1. puntuaren a) paragrafoan adierazitako salbuetsitako jarduerak mantentzera bideratutakoak.

---

[246] 2. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 16.Bigarrena.Lau artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[247] 119. artikulu hau, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 FORU ARAUAren bigarren xedapen gehigarriaren 6 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau GAOan (GAO 2004-04-19) argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izango ditu ondorioak. Hala ere, aipatu aldaketak 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietan izango ditu ondorioak.

XVI. kapitulua: Etxebizitzak errentan ematen dituzten entitateak[248]

119 bis artikulua. Aplikazio eremua.

1. Sozietateak kapitulu honetan aipatzen den araubidera bildu ahal izango dira beren jarduera ekonomiko nagusia lurralde espainiarrean kokatutako etxebizitzak errentan ematea denean.

Jarduera hori bateragarria izango da errentan emango diren negozio-lokaletan eta garaje-plazetan inbertitzeko jarduerarekin, baina betiere beren kontabilitate balioa, batera hartuta, ez bada entitateak etxebizitzan inbertitutakoaren kontabilitate balio osoaren %20 baino handiagoa.

Ondorio horietarako, etxebizitza-errentamendua Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeak 2. artikuluan definitutakoa izango da soilik, betiere lege horretan etxebizitzen errentamendu kontratuetarako ezarrita dauden baldintzak eta beharkizunak betetzen badira.

2. Kapitulu honetan jasotzen den zerga araubide berezia aplikatzeko honako beharkizunak bete beharko dira:

a) Errentan ematen diren etxebizitzen %90k ezingo du eduki 110 metro karratutik gorako azalera eraikia.

b) Entitateak bere jabetzako 10 etxebizitza edo gehiago eduki beharko ditu beti errentan emanda edo errentan eskainiak. Etxebizitzaren errentamenduak bi garaje plaza hartu ahal izango ditu gehienez, bai eta eraikineko eranskinak ere, negozio-lokalak kenduta, baldin eta batzuk eta besteak etxebizitzarekin batera errentan ematen badira.

Etxebizitza kopurua konputatzerakoan, ez dira kontuan hartuko foru arau honen 16. artikuluan jasotakoaren arabera elkarri lotuta dauden pertsona edo entitateei errentan emandakoak.

3. Araubide hau aukeratzen bada, Zerga Administrazioari horren berri emango zaio. Zerga araubide berezia aplikatuko da komunikazio hori egin ondoren amaitzen den zergaldian eta araubideari uko egiten zaiola Zerga Administrazioari jakinarazi aurretik amaitzen diren hurrengoetan.

Erregelamendu bidez ezarri ahal izango da zein beharkizun izango dituen komunikazioak eta zein izango den harekin batera eman beharreko informazioaren edukia.

4. Entitateari VIII. titulu honetako beste edozein araubide berezi aplikagarri zaionean, kenduta bateratze fiskalarena, nazioarteko gardentasun fiskalarena eta bategiteak, zatiketak, aktiboen ekarpenak, balore trukeak eta aktibo nahiz pasibo osoaren lagapenak arautzen dituena, ezin izango du XVI. kapitulu honetan arautzen den araubidea aukeratu, hurrengo paragrafoan ezarritakoa eragotzi gabe.

---

[248] Kapitulu hau etxebizitzen alokairua sustatzeko zerga neurriei buruzko urriaren 27ko 9/2005 FORU ARAUAaren 1. artikuluak gehitu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean sartzen da indarrean, aldaketa 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin (2005-11-03aren GAO).

Foru arau honen 49. artikuluan jasotakoagatik enpresa txiki eta ertainen araubidea, foru arau honen VIII. tituluko II. kapituluan jasotakoa, aplikagarri zaienean, entitateek araubide hori aplikatzea edo XVI. kapitulu honetan araututakoa aplikatzea aukeratu ahal izango dute.

119 ter artikulua. Zerga araubidea.

1. Aurreko artikuluan aipatutako beharkizunak betetzen dituzten entitateek 100eko 90eko hobaria aplikatu ahal izango dute etxebizitzen errentamenduagatik eta errentamendu horien bitartekaritzagatik eratorritako errenten kuota osoan.

Errentamendutik eratorria izanik hobarituko den errenta honako hau izango da etxebizitza bakoitzeko: Lortutako sarrera osoa ken sarrera hori lortzeko zuzenean izan diren gastuak ken sarrera horri proportzionalki dagozkion gastu orokorrak.

2. Hobari hori entitatearen etxebizitzak eskualdatzean lortutako errentei ere aplikatuko zaie, baldin eta entitateak gutxienez 10 urtez izan baditu benetan errentan emanda.

3. Zerga honen araudian jasota dauden gainerako hobariak aplikagarriak gertatuz gero, aurreko apartatuetan aipatutako hobariak haiek behin aplikatu ondoren egingo dira.

4. Errentak lortzen badira foru arau honen 16. artikuluaren arabera elkarri lotuta dauden pertsona edo entitateei egindako errentamendu edo eskualdaketengatik, errenta horiei ez zaie aplikatuko artikulu honetan aurreikusitako hobaria.

Etxebizitzak eskualdatzen diren kasuetan, hobari hau aplikatu ahal izateko ezinbestekoa izango da, gainera, etxebizitza errentariak ez erostea.

5. Kapitulu honetan jasotako araubidea aukeratzen duten entitateetako bazkideei aplikagarria izango zaie, hala badagokie, ezarpen bikoitza saihesteko kenkaria, foru arau honen 33. artikuluan aipatua, mozkinak banatu eta partaidetzak eskualdatzen direnean.

6. Eskualdaketatik eratorritako errentari aurreko 2 apartatuan jasotako hobaria aplikatu bazaio, foru arau honen 22.1 artikuluak berrinbertsiorako ezartzen duen hiru urteko epea bost urtera zabalduko da.

XVII. kapitulua: Higiezinen Merkatuan Inbertitzeko Sozietate Anonimo Kotizatuak[249]

119. quáter artikulua. Higiezinen Merkatuan Inbertitzeko Sozietate Anonimo Kotizatuen erregimenaren aplikazioa.

1. Higiezinen Merkatuan Inbertitzeko Sozietate Anonimo Kotizatuek (SOCIMI), eta Higiezinen Merkatuan Inbertitzeko Sozietate Anonimo Kotizatuak erregulatzen dituen 11/2009 Legeak, urriaren 26koak, bere 2. artikuluko 1. apartatuko c) letran aipatzen dituen egoitza espainiar lurraldean duten

[249] Kapitulu hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUAren 2. artikuluaren ordinal bosgarrenaren bost apartatuak erantsi du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean. Eransketak 2011-1-1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ditu ondorioak. (2010-12-28ko GAO)

erakundeek, Lege horretan ezarritako baldintzak betetzen badituzte aukera izango dute kapitulu honetan erregulatutako zerga erregimen berezia aplikatzeko; erregimen hau berau aplikatu ahal izango zaie, halaber, sozietate horietako bazkideei ere. Dena den, erregimena aplikatuko den lehen zergaldia izanik, aipatu Legearen 4. artikuluan ezarritako negoziazio obligazioa erregimen hau aplikatzea aukeratzen den datatik exijituko da.

Akziodunen batzar orokorrak hartu beharko du erregimen horretara jotzeko erabakia, eta zerga administrazioari eman beharko zaio aditzera, zergaldia amaitzeko azken hiru hilabeteak baino lehen.

2. Erregimen hau aplikatuko da komunikazio hori egin ondoren amaitzen den zergaldian eta zerga administrazioari erregimenari uko egiten zaiola jakinarazi aurretik amaitzen diren hurrengoetan. Aurreko apartatuan ezarritako epetik kanpo egindako komunikazioak eragotzi egingo du zergaldi horretan erregimen hau aplikatzea.

3. Aurreko apartatuetan xedatutakoa hala izanik ere, erregimen edo araubide hau aplikatzea aukeratu ahal izango da, nahiz 11/2009 Legeak, urriaren 26koak, eskatutako baldintzak bete ez, baldin eta baldintza horiek betetzen badira aplikazioaren aukera egin den datatik hurrengo bi urteko epearen barnean.

Baldintza hori bete ezean, sozietatea zerga honen araubide orokorraren arabera tributatzen hasiko da ez-betetze hori agerikoa den zergaldi beretik aurrera. Gainera sozietateak, zergaldi horri dagokion kuotarekin batera, ordaindu egin beharko du erregimen orokorra aplikatzetik ateratzen den kuotaren eta aurreko zergaldietan zehar erregimen berezia aplikatzetik atera zen kuota ordainduaren arteko aldea; honetaz gain, dagozkion berandutza interesak, errekarguak eta zigorrak ere ordaindu beharko ditu, inolaz ere.

4. Erregimen hau aplikatzea aukeratuz gero, ezin izango da VIII. titulu honetan aurreikusitako beste erregimen berezietako bat bera ere aplikatu, X., XIII. eta XIV. kapituluetan arautuak izan ezik.

119. quinquies artikulua. Oinarri ezargarria zehaztea eta zergaren sortzapena.

1. Zergaldiko oinarri ezargarria epe horretako azken egunean indarrean dagoen araudiarekin bat zehaztuko da.

2. Erregimen honen aplikazioaren ondorioetarako, higiezin edo partaidetza bakoitzerako errentak honakoak izango dira: Lortutako sarrera osoa ken sarrera hori lortzeko zuzenean izan diren gastuak ken sarrera horri proportzionalki dagozkion gastu orokorrak.

3. Aurreko apartatuan xedatua horrela izanik ere, etxebizitzen errentamendutik jasotako errentetatik 100eko 20 salbuetsirik egongo da, baldin eta sozietatearen aktiboaren 100eko 50 baino gehiago, 11/2009 Legeak, urriaren 26koak, bere 3. artikuluaren 1. apartatuan ezarritako baldintzetan zehaztutako balantze indibidualen arabera, etxebizitzaz osatuta badago.

4. Sozietatearen xede nagusiari atxikitako higiezinen eta partaidetzen eskualdaketak direnean, eta hauek 11/2009 Legeak, urriaren 26koak, bere 3. artikuluko 3. apartatuan aipatzen dituen mantentze epeak igaro ondoren egin badira, aplikatu egingo da aparteko irabaziak berrinbertitzeko erregimena, foru

arau honetako 22. artikuluan ezarritako baldintza eta betekizunekin; dena den, berrinbertsio horretarako izango den zenbatekoak bat etorri beharko du aipatu eskualdaketa horietan lortutako irabaziarekin.

Karga tasa orokorrari lotutako ondare elementuen eskualdaketatik ondorioztatutako errentak direnean, aparteko irabaziak berrinbertitzeko erregimena aplikatu ahal izango da, foru arau honetako 22. artikuluan ezarritako modu eta baldintzetan.

5. Akziodunen batzar orokorrak zergaldiari dagokion ekitaldiko irabaziak eta, hala egokituz gero, erregimen hau aplikatu zen aurreko ekitaldietako erreserbak banatzeko erabakia hartzen duen egunean sortuko da zerga hau.

Dena den, zergaldiko azken egunean sortuko da zerga, irabaziak banatzeko erabakirik izan ala ez, karga tasa orokorra aplikatzeko diren errenten kasuan zein sozietateak galerak izan dituenean, banatzeko irabazirik ez dagoenean edo erreserbekin banatzeaz bestelako erabilera bat zertzen duenean.

119. sexies artikulua. Karga tasa.

1. Sozietate hauetarako karga tasa 100eko 20koa izango da.

Dena den, karga tasa orokorraren arabera tributatuko dute errenta hauek:

a) Sozietatearen xede nagusiari atxikitako higiezinen eta partaidetzen eskualdaketetatik lortutako errentek, baldin eta 11/2009 Legeak, urriaren 26koak, bere 3. artikuluko 3. apartatuan aipatzen dituen mantentze epeak bete ez badira, eta eskuratzailea talde bereko erakunde lotua denean foru arau honetako 16. artikuluak jasotzen duenaren zentzuan edo zerga informaziorako truke eraginkorrik ez dagoen herrialde edo lurralde batean duenean egoitza, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arauak, martxoaren 8koak, bere hamargarren xedapen gehigarrian ezartzen dituen baldintzetan.

b) Higiezin horiek errentan ematetik lortutako errentek, errentaria talde bereko erakundea denean foru arau honetako 16. artikuluak jasotzen duenaren zentzuan edo zerga informaziorako truke eraginkorrik ez dagoen herrialde edo lurralde batean duenean egoitza, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arauak, martxoaren 8koak, bere hamargarren xedapen gehigarrian ezartzen dituen baldintzetan.

c) Kontabilitateko araudia aplikatzean emaitzarik zehazten ez duten eragiketetatik eskuratuek.

2. Aurreko apartatuko karga tasak aplikatzetik ateratzen den kuota osoa murriztu ahal izango da foru arau honetako VII. tituluko II. eta III. kapituluetan ezarritako kenkari eta hobarien zenbatekoaz.

3. Aurreko apartatuan xedatuaren arabera kalkulatutako kuota likidoa murriztu ahal izango da foru arau honetako VII. tituluko IV., V. eta VI. kapituluetan aurreikusitako kenkarien zenbatekoaz.

119. septies artikulua. Autolikidazioa.

1. Zergaren autolikidazioa egiteko, ekitaldian lortutako irabaziari dagokionez banatzea erabakitzen den dibidenduarekin proportzioan bat datorren zergaldiko oinarri ezargarria hartuko da kontuan; edonola ere, horrelakorik baldin bada kontuan hartuko dira kontura banatutako kopuruak.

Dibidendua erreserben kargura banatzen denean, edo erreserba hauek galeren konpentsazioaz bestelako zerbaitetarako erabiltzen direnean, erregimen hau aplikatu den ekitaldi batean izandako irabazietatik helduak izanik erreserbak, ekitaldi horri dagokion zergaldiko oinarri ezargarria hartuko da kontuan autolikidazioa egiteko, banatzea erabakitzen den dibidenduaren edo erabili erreserben zenbatekoaren eta ekitaldi horretan lortutako irabaziaren artean dagoen proportzioan.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, oinarri ezargarrian, erreserba eta irabazietan, ez dira jasoko karga tasa orokorra aplikatzen zaizkien errentetatik sortuak.

2. Zergaldia amaitu ondorengo sei hilabeteen hurrengo 25 egun naturaletan aurkeztuko den autolikidazioa bakarra izango da, eta banatutako irabazi eta erreserbei, erreserba erabiliei eta karga tasa orokorra dagokien bestelako errentei dagokien oinarri ezargarria jasoko du.

3. Hiru edo zazpi urtez mantentzeko baldintza, hots, 11/2009 Legeak, urriaren 26koak, bere 3. artikuluko 3. apartatuak aipatzen duen hori, ez bada betetzen, higiezin bakoitzari dagokionez ordaindu egin beharko da, ez-betetze hori gertatu zen zergaldiko kuotarekin batera, erregimen hau aplikagarria izandako zergaldi guztietan higiezin horiek sortu eta oinarri ezargarriaren zati izan ziren errentei 100eko 8ko portzentajea aplikatzetik ateratzen den zenbatekoa edo, 119. quinquies artikuluko 3. apartatuan xedatutakoaren indarrez neurri batean salbuetsirik dauden errenten kasuan, 100eko 12koa aplikatzetik ateratzen dena; honetaz gain, kasuan-kasuan bidezko diren berandutza interesak ere ordaindu beharko dira. Higiezin horiek errentan ematetik sortzen den errentak, ez-betetzea gertatzen den zergaldian sortuak, karga tasa orokorraren arabera tributatuko du, eta baita aurreko ekitaldietan higiezin horiek errentatzetik sortu eta banatu ez diren irabaziei dagokien errentak ere, hau ez-betetzea gertatzen den zergaldiko autolikidazioan sartuko da eta.

Erregularizazio honexetara joko da, era berean, arrazoia dena dela sozietatea zerga honetako beste erregimen batean tributatzen hasten bada aipatu epea bete baino lehen.

119. octies artikulua. Atxikipenak eta informazio obligazioak.

1. Sozietateak banatzen dituen dibidenduek ez dute inolako atxikipen edo konturako sarrerarik izango, dibidenduak jasotzen dituen bazkidearen izaera dena dela.

2. Urteko kontuen memorian, erregimen hau aplikatzea aukeratu duten sozietateek «SOCIMI izaeratik ondorioztatzen diren informazio betekizunak, 11/2009 Legea» izeneko atal bat sortuko dute, honetan sartuz, ondoren, hurrengo informazio hauek:

a) Erregimen hau aplikatu aurretiko ekitaldietako irabaziak, erreserbetarako aplikatuak.

b) Erregimen hau aplikagarria izan den ekitaldi bakoitzean erreserbetarako aplikatutako irabaziak, karga tasa orokorraren arabera kargatutako errentetatik datorren zatia eta foru arau honetako 119 sexies artikuluaren 1. apartatuan ezarritako karga tasari lotuta leudekeen errentak bereiziz, sozietatearen xede nagusiari atxikitako higiezin eta partaidetzen eskualdaketatik datozenak bezalaxe, ekitaldi bakoitzari dagokionez aipatuz berrinbertitutako eta berrinbertitzeko dagoen kopurua. Irabazi horiek datozen ekitaldia, ekitaldiko irabazi osoaren zenbatekoa eta oinarri ezargarria bereizirik identifikatu beharko dira, irabazi eta oinarri ezargarri horretan bereiziz neurri batean salbuetsita dauden errentetatik datorrena eta karga tasa orokorrari lotua.

c) Erregimen hau aplikatu ahal izan den ekitaldi bakoitzean irabazien kargura banatutako dibidenduak, hala egokituz gero bereiziz karga tasa orokorraren arabera kargatutako errentetatik datorren zatia. Ekitaldian lortutako irabazia eta oinarri ezargarria identifikatu beharko dira, irabazi eta oinarri ezargarri horretan bereiziz karga tasa orokorrari lotutako errentetatik datorrena.

d) Dibidenduak erreserben kargura banatuz gero, adierazi egin beharko da aplikatutako erreserba dagokion ekitaldia, sorburu duen irabazi motaren arabera lehengo a) eta b) letrek aipatzen dituztenen artean; dibidendu horiei lotutako oinarri ezargarria ere adierazi beharko da.

e) Aurreko c) eta d) letrek aipatzen duten dibidenduak banatzeko erabakiaren data.

f) Erregimen honi atxikitako errentak sortzen dituzten errentan emateko higiezinak eta 11/2009 Legeak, urriaren 26koak, bere 2. artikuluko 1. apartatuan aipatzen dituen entitateetako kapitaleko partaidetzak eskuratu diren data.

g) 11/2009 Legeak, urriaren 26koak, 3. artikuluko 1. apartatuan aipatzen duen 100eko 80 horren barnean konputatzen duen aktiboaren identifikazioa.

h) Erregimen hau aplikatu ahal izan den ekitaldietatik datozen erreserbak, zergaldian zehar erabili baina banatzeko edo galerak konpentsatzeko izan ez direnak. Identifikatu egin beharko dira erreserba horiek datozen ekitaldia eta ekitaldiko irabazi osoaren zenbatekoa, ekitaldi horri dagozkion oinarri ezargarriarekin eta zergaldiko kuotako kenkariekin batera.

3. Aurreko apartatuko a) eta b) letretan ezartzen diren urteko memorian egin beharreko aipamenak letra horiek aipatzen dituzten erreserbak badiren bitartean egin beharko dira.

4. Era berean, zerga administrazioak eskaturik sozietateek informazio zehatza aurkeztu beharko dute, errenta iturri desberdinen arteko gastu banaketaren emaitza zehazteko egin dituzten kalkuluei buruz.

5. Sozietateak beharrezko informazioa eman beharko die bere bazkideei, hauek erregimen hau bete ahal izan dezaten. Informazio hori dibidendua ordaintzearekin batera eman beharko da. Erregimen hau galduz gero, bazkideei aditzera eman beharko zaie, galera hori eragin duten zertzeladak gertatu diren zergaldian bertan.

119. nonies artikulua. Zigor araudia.

Zerga urraketa izango da aurreko artikuluak aipatzen dituen informazio obligazioak ez betetzea, ekitaldi bakoitzari dagokionez. Urraketa hau zigortzeko unean, arau hauek segituko dira:

a) Aurreko artikuluko 2. apartatuko a), b), c), eta d) letretan jasotako informazio obligazioetako bakoitzari dagokionez, 1.500 euroko zigorra izango da aipatu gabeko, okerreko edo gezurrezko datu bakoitzeko, eta 15.000 eurokoa, berriz, horrelako datu multzo bakoitzeko.

Aurreko paragrafoan aipatutako letretan jasotzen den informazio bakoitza datu bat da.

Datu multzo desberdinak dira, berriz, a) letra honetan aipatzen den letretako bakoitzak jasotzen dituen informazioak.

b) Aurreko artikuluko 2. apartatuko e), f), g) eta h) letretan jasotako informazioei dagokienez, 3.000 euroko zigorra izango da aipatu gabeko, okerreko edo gezurrezko datu edo datu multzo bakoitzeko.

Aurreko paragrafoan aipatutako letretan jasotzen den informazio bakoitza datu bat da.

Datu multzo desberdinak dira, berriz, b) letra honetan aipatzen den letretako bakoitzak jasotzen dituen informazioak.

c) 30.000 euroko zigorra izango da aurreko artikuluko 4. apartatua aipatzen duen obligazioa bete ezean.

d) Aurreko artikuluko 5. apartatuak aipatzen dituen informazio obligazioen artean betetzen ez den bakoitzeko, 15.000 euroko zigorra ezarriko da.

119. decies artikulua. Zerga erregimen berezi honetan sartu zein bertatik irteteko zerga erregimena.

1. Erregimen hau aplikatzea aukeratzen duten sozietateei, beste batean tributatzen ari baldin baziren, erregela hauek aplikatuko zaizkie:

a) Erregimen hau aplikatzen den unean konpentsatzeko zeuden oinarri ezargarri negatiboak hurrengo zergaldietan zehar lortzen diren errenta positiboekin konpentsatuko dira, foru arau honetako 24. artikuluan ezarritako baldintzetan.

b) Erregimen hau aplikatu aurretik edukitako higiezinen eskualdaketan sortutako errenta, eskualdaketa hori erregimen hau aplikagarria den epeetan egina bada, eskualdatutako higiezina eduki den denbora osoan zehar modu linealean sortua dela ulertuko da, kontrako frogarik izan ezean. Errenta horretan lehenagoko zergaldiei egozteko moduko zatia erregimen hau aplikatu aurretiko karga tasen eta zerga erregimenen arabera kargatuko da. Irizpide hau berau aplikatuko da 11/2009 Legeak, urriaren 26koak, bere 2. artikuluko 1. apartatuan aipatzen dituen partaidetzak, beste sozietate batzuetakoak, eskualdatzetik datozen errenten kasuan eta aktiboko bestelako elementuenean ere.

c) Aplikatzeko dauden kuotako kenkariak, foru arau honetako VII. tituluan ezarritako baldintzetan kenduko dira.

2. Erregimen honen arabera tributatzen ari diren eta beste batean tributatzera igarotzen diren sozietateei erregela hauek aplikatuko zaizkie:

a) Erregimen hau aplikatu zen zergaldietatik datozela konpentsatzeko dauden oinarri ezargarri negatiboak hurrengo zergaldietan zehar lortzen diren errenta positiboekin konpentsatuko dira, foru arau honetako 24. artikuluan ezarritako baldintzetan.

b) Sozietateak banatu ez dituen irabaziei dagozkien oinarri ezargarriak, irabazi horiek erregimen hau aplikagarria zen zergaldietan sortuak badira eta karga tasa orokorrari lotutako errentei ez badagozkie, sozietateak beste erregimen batean tributatzen duen lehen zergaldiko oinarri ezargarrian sartuko dira, non eta irabazi horiek ez dituzten azken zergaldi honetan zehar banatzen 11/2009 Legeak, urriaren 26koak, bere 6. artikuluan ezartzen duen epearen barnean, horrelakoetan mantendu egingo baita zerga erregimen honen aplikazioa, oinarri horiei dagokienez.

Dena den, erregimen hau aplikagarria den azken ekitaldian lortutako irabaziak, karga tasa orokorrari lotutako errentei ez dagozkienak, aipatu 6. artikuluak ezartzen dituen baldintzetan banatu beharko dira derrigorrean, eta horiei erregimen hau aplikatu ahal izango zaie. Bestela izanez gero, erregimen orokorra aplikatuko da ekitaldi horri dagokion zergaldian.

Sozietateak erregimen honetan tributatzeari lagatzen dion lehen zergaldian bateratze fiskaleko erregimenean tributatzen duen talde baten mendeko bihurtzen bada, b) letra honetako aurreko bi paragrafoek aipatzen dituzten dibidendu banatuak ez dira kenduko.

c) Sozietatea beste erregimen batean tributatzen hasten den zergaldiaren hasieran zeuzkan higiezinen eskualdaketan sortutako errenta, eskualdaketa hori beste erregimen hori aplikagarria zen epeetan egina bada, eskualdatutako higiezina eduki den denbora osoan zehar modu linealean sortua dela ulertuko da, kontrako frogarik izan ezean. Sozietateari erregimen hau aplikatu zitzaion zergaldiei egozteko moduko errenta zatia kapitulu honetan ezarritakoaren arabera kargatuko da, baldin eta errenta horri egozteko moduko irabazi guztia dibidendu moduan banatzen bada 11/2009 Legeak, urriaren 26koak, 6. artikuluan ezartzen duen epearen barnean; dibidendu horiei bazkideentzat, hauen izaeraren arabera, ezarritako erregimena aplikatuko zaie. Irizpide hau berau aplikatuko da 11/2009 Legeak, urriaren 26koak, bere 2. artikuluko 1. apartatuan aipatzen dituen partaidetzak, beste erakunde batzuetakoak, eskualdatzetik datozen errenten kasuan ere.

d) Aplikatzeko dauden kuotako kenkariak, foru arau honetako VII. tituluan ezarritako baldintzetan kenduko dira.

e) Erakundeen kapitaleko partaidetzak eskualdatzean sortutako errenta, horiei erregimen hau aplikatzerik ez dagoen zergaldietan gauzatua denean eskualdaketa, bazkidearen izaeraren arabera dagokion zergako erregimen orokorrari lotuta egongo da. Aipatua aplikagarria izango da, era berean, erreserben kargura banatutako dibidenduen kasuan, horiek sortu diren ekitaldia dena dela, apartatu honetako aurreko letretako batean ezarria aplikagarria denean izan ezik.

3. Foru arau honetako 104. artikuluko 4. apartatuan ezarriaren ondorioetarako, ulertuko da ezen bat-egite, zatitze, aktibo ekarpen, balio truke eta aktibo eta

pasiboko lagapen orokorrak, titulu honetako X. kapituluan ezarritako erregimen bereziari atxikiak, arrazoi ekonomiko batez egiten direla eragiketa horien helburua erregimen honi atxikitzeko moduko sozietate bat edo batzuk sortzea, edo, bestela, lehendik dauden sozietateak helburu horrexekin egokitzea denean.

119. undecies artikulua. Erregimen berezia galtzea.

Erakundeak erregimen hau galduko du, eta zergaren erregimen orokorraren arabera tributatuko du, ondoren aipatzen diren zertzeladetakoren bat ageri den zergaldian bertan:

a) Merkatu erregulatuetako negoziaketatik kanpo geratzea.

b) Foru arau honetako 119 octies artikuluak aipatzen dituen informazio obligazioen ez-betetze mamizkoa, hurrengo ekitaldiko memorian ez-betetze hori konpontzen denean izan ezik.

c) Dibidenduak osorik edo parte batez banatzeko eta ordaintzeko akordiorik eza, 11/2009 Legeak, urriaren 26koak, 6. artikuluan aipatzen dituen baldintza eta epeetan. Kasu honetan, erregimen orokorraren araberako tributazioa dibidendu horien sorburu diren irabazien ekitaldiari dagokion zergaldian izango da.

d) Erregimen hau aplikatzeari uko egitea.

e) Ez betetzea 11/2009 Legean, urriaren 26koan, eta kapitulu honetan ezarritako baldintzetako beste edozein, ez-betetze horren arrazoia hurrengo ekitaldiaren barnean bideratzen denean izan ezik. Dena den, hartako 3. artikuluko 3. apartatuak aipatzen duen epea ez betetzeak ez du erregimen hau galtzea eragingo.

Erregimena galduz gero, ezin izango da berriro horren aplikazioa aukeratu, harik eta aplikatu ahal izan zen azken zergaldiaren amaieratik gutxienez bost urteko epea igarotzen den arte.

119. duodecies artikulua. Bazkideen zerga erregimen berezia.[250]

1. Higiezinen Merkatuan Inbertitzeko Sozietate Anonimo Kotizatuen erregimena aplikatu den ekitaldietako irabazi edo erreserben kargurako dibidenduak jasotzen dituzten zerga honetako subjektu pasiboek, irabazi edo erreserba horien sorburua 100eko 20ko karga tasa duten errentak direnean, jasotako dibidenduei dagokien sarrera kontabilizatua 100/80z biderka-tze-tik atera-tzen den emai-tza sartuko dute oinarri ezargarrian. Errenta horri ezin izango zaio aplikatu foru arau honetako 33. artikuluan ezar-tzen den zergape-tze bikoi-tza saihesteko kenkaria.

Kasu honetan, oinarri ezargarrian sartutako errentaren 100eko 20 kendu ahal izango da kuotan, edo subjektu pasiboari dagokion karga tasa bestela, hau baxuagoa izanez gero. Kenkari hau ez da aplikatuko aipatu 33. artikuluko 4.

[250] Artikulu hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUAren 2. artikuluaren ordinal bosgarrenaren bost apartatuak erantsi du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean (2010-12-28ko GAO). Nahiz eta aipatu bosgarren ordinaleko aldaketak 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin ezarri, 119 duodecies artikuluak 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan izango du eragina amaierako zedapenaren bigarren paragrafoak dioenaren arabera.

apartatuan ezarritako kasuetakoren bat gerta-tzen denean, apartatu honetako e) letraren salbuespenarekin, horrelakoetan jasotako dibidenduaren 100eko 20koa izango baita kenkaria. Apartatu horrek aipa-tzen duen frogaren ondorioetarako, erakunde bati erosi zaionean partaide-tza, gainbalioen barne zergape-tze bikoi-tza-gatiko kenkari-tzat hartuko da, halaber, artikulu honetan bertan 2. apartatuan ezarritakoa.

Karga tasa orokorrari lotutako errentetatik datozen irabazien kargura banatutako dibidenduei zergaren erregimen orokorra aplikatuko zaie.

2. Higiezinen Merkatuan Inberti-tzeko Sozietate Anonimo Kotizatuen erregimena aukeratu duten sozietateen kapitaletako partaide-tzak eskualda-tze-tik sortutako errentak eskuratu dituzten zerga honetako subjektu pasiboek, kuota osoaren kenkaria aplikatu ahal izango dute, foru arau honetako 33. artikuluaren 5. apartatuan ezarritako baldin-tze-tan, eskualdatutako partaide-tza eduki bitartean sozietateak sortu baina banatu ez dituen irabaziei dagokien gainbalio zatiaren gainean, horrelakorik izanez gero, betiere irabazi horiek karga tasa orokorrari lotutako errentetatik etorriak badira.

Eskualdatutako partaide-tza eduki bitartean sozietateak sortu baina banatu ez dituen irabaziei dagokien gainbalio zatiari dagokionez –horrelakorik izanez gero-, eta irabazi horiek 100eko 20ko karga tasa dagokien errentatik sortu badira, oinarri ezargarrian sartu beharreko errenta kalkula-tzeko irabazi horiek 100/80z biderkatu beharko dira, eta integrazio horretatik atera-tzen den kopuruaren 100eko 20, edo baxuago izanez gero subjektu pasiboari dagokion karga tasa, kendu ahal izango da kuota osotik.

Kenkari hau aplikatu ahal izango da, halaber, foru arau honetako 33. artikuluko 3. apartatuan aipa-tzen diren balizkoetan.

Partaide-tza eskualda-tzean sor-tzen den galera ez da kendu ahal izango, foru arau honetako 16. artikuluan ezarritako bal-din-tze-tan lotutako per-tsona edo erakunde bati erosia denean partaide-tza hori, per-tsona edo erakunde horrek partaide-tza hori eskualda-tzean lortu zuen errenta salbue-tsiaren zenbatekoraino.

3. Erakundeak aukera-tzen badu Higiezinen Merkatuan Inberti-tzeko Sozietate Anonimo Kotizatuen erregimena aplika-tzea, 11/2009 Legeak, urriaren 26koak, eska-tzen dituen baldin-tzak bete gabe ere, baina aplikazio horretarako aukeraren datatik bi urteko epean bete-tzen badira, aurreko apartatuetan xedatutakoa aplikatuko dute subjektu pasiboek, nahiz zergaren autolikidazioa aurkezten duten unean sozietateak, artean, eskatutako baldin-tzak bete ez. Baldin-tza horiek ez badira bete-tzen adierazitako epe horren barnean, subjektu pasiboak autolikidazio osagarria aurkeztu beharko du, zergaren erregimen orokorra aplikatuta; honetaz gain, egoki diren berandu-tza interesak ere sortuko dira.

4. Higiezinen Merkatuan Inberti-tzeko Sozietate Anonimo Kotizatuari aplika-tzeko karga tasa 100eko 20koaz bestelako bat izan baldin bada, aurreko apartatuetan xedatutakoa aplikatuko da, apartatu horiek jaso-tzen dituzten oinarri ezargarriko integrazioa eta kuotako kenkaria kalkulatuta, betiere kontuan hartuta aplikatu den zerga tasa

IX. TITULUA: ZERGAREN KUDEAKETA

I. Kapitulua: Entitateen aurkibidea

120. artikulua. Entitateen aurkibidea.

1. Ogasun eta Finantza Departamentuak entitateen aurkibidea eratuko du Gipuzkoan zergak ordaintzen dituzten entitateak inskribatzeko.

2. Erregelamendu bidez entitateak aurkibidean sartu, izena eman eta ateratzeko jardunbideak ezarriko dira.

121. artikulua. Entitateen aurkibidetik ateratzea.

1. Zerga Administrazioak aurkibidetik behin-behinik ateratzeko erabakia har dezake kasu hauetan, interesatuak entzun ondoren:

a) Entitateak Zerga Administrazioarekin dauzkan zerga zorrak, Gipuzkoako Zergabilketa Erregelamenduaren arabera kobraezintzat hartzen direnean.

b) Entitateak zerga honen aitorpena aurkeztu ez duenean.

2. Behin-behinik ateratzeko erabakia erregistro publikoari jakinaraziko zaio, eta horrek entitateari irekitako orrian albo-oharra idatziko du, adieraziz aurrerantzean ezingo dela entitateari buruzko inolako inskribapenik egin entitateen aurkibidean sartzeko ziurtagiria aurkezten ez bada.

3. Aurkibidetik behin-behinik ateratzeko erabakiak ez du entitatea salbuetsiko bere zerga zorrak ordaintzetik.

122. artikulua. Laguntzeko betebeharra.[251]

Gipuzkoako erregistro publikoen titularrek hilero bidali beharko diote Ogasun eta Finantza Departamentuari aurreko hilean eraketa, kokapena, aldaketa edo amaiera inskribatu duten entitateen zerrenda.

II. Kapitulua: Kontabilitatezko betebeharrak.Kontabilizatu gabeko ondasun eta eskubideak.Borondarezko birbalorazioak

123. artikulua. Kontabilitate obligazioak. Administrazioaren ahalmenak. [252]

1.[253] Zerga honen subjektu pasiboek Merkataritza Kodearen arabera edo beren arauetan ezarritakoari jarraiki eraman beharko dute beren kontabilitatea.

---

[251] Artikulu hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Berrogeita lau zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

[252] Artikulu hau uztailaren 6eko 24/2001 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua eta zerga izaerako beste arau batzuk aldatzen dituenaren 5.artikukuak aldatu du. 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldiei aplikatuko zaie.

[253] 1 apartatu hau, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 FORU ARAUAren bigarren xedapen gehigarriaren 7 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau GAOan (GAO 2004-04-19) argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izango ditu ondorioak. Hala ere, aipatu aldaketak 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietan izango ditu ondorioak

Edozein eratara, foru arau honetako VIII. tituluko XV. kapituluan adierazten diren subjektu pasiboek, salbuetsi gabeko errentei eta ustiapen ekonomikoei dagozkien sarrerak eta gastuak identifikatzeko moduan egingo dute beren kontabilitatea.

2. Bere egiaztapen eta ikerketa lanak egitean, zerga Administrazioak subjektu pasiboaren negozioei lotutako kontabilitatea, liburuak, posta, dokumentazioa eta frogagiriak aztertu ahal izango ditu, kontabilitate programak eta artxibo eta euskarri magnetikoak ere barne direla. Aurreko paragrafoan aipatutako dokumentazioa eta gainerako elementuak ere zuzenean aztertu ahal izango ditu Zerga Administrazioak, bere langileen bitartez egoki jotzen dituen kontabilitatezko idazpenen oharra hartu eta, apartatu honetan aipaturiko edozein datu edo dokumenturen kopia, bai euskarri magnetikoena ere, bere kargura egin.

3.[254] Ikuskaritzak egiaztapen prozeduraren barruan hala eskatzen duenean, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aipatutako sozietate taldeetako entitate nagusiak behartuta daude lurralde espainiarrean egoitzarik ez duten taldeko entitateen galera eta irabazien kontua, balantzea, ekitaldiko ondare garbian izandako aldaketei buruzko egoera eta esku-diruaren fluxuen egoera aurkeztera. Era berean, kontabilitate alorreko dokumentazio horren frogagiriak eta gainerako aurrekariak ere aurkeztu behar dituzte zerga honen ondorioetarako garrantzitsuak izan daitezkeenean.

124. artikulua. Kontabilizatu edo aitortu gabeko ondasun eta eskubideak: errentak lortutzat hartzea.

1. Sujetu pasiboa titularra izanik ere, kontabilitate liburuetan erregistratuta ez dauden ondarezko elementuak aitortu gabeko errentaren kargura eskuratutzat emango dira.

Horrela joko da eskurapen balioa zati batean ezkutatzen denean ere.

2. Kontabilitatean erregistratuta ez dauden ondarezko elementuak sujetu pasiboaren jabetzatzat emango dira horrek halakoak dauzkala erakusten duenean.

3. Aitortu gabeko errentaren zenbatekoa kontabilitate liburuetan erregistratu gabeko ondasun edo eskubideen eskurapen baliotzat emango da, eskurapen hori finantzatzeko izan diren benetako zorrak, era berean kontabilizatu gabeak, kenduta. Inola ere zenbateko garbiak ezingo du negatiboa izan.

Eskurapen balioaren zenbatekoa haren frogagirien bitartez frogatuko da edo, horrela ezinezko bada, Zergen Foru Arau Orokorrak ezarritako arauak erabiliz.

4. Aitortu gabeko errentatzat emango dira inoiz izan ez diren zorrak sujetu pasiboaren kontabilitate liburuetan erregistratu direnean.

---

[254] 3. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 15.Hogeita hamabost artikuluak aldatzen du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

5. Aurreko apartatuetan halakotzat ematearen ondorioz eratorritako errentaren zenbatekoa iraungi gabeko zergaldien artean lehenari egotziko zaio, salbu sujetu pasiboak beste bati edo batzuei dagokiela frogatzen badu.

6. [255] Edozelan ere, aitortu gabeko errenten bitartez eskuratu direla joko da, eta oraindik preskribitu ez duten eta erregulariza daitezkeen zergaldietatik zaharrenari egotziko zaizkio, 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, hamaikagarren xedapen gehigarrian aipatzen zen informazio eginbeharra bete ez eta, horretarako epearen barruan, subjektu pasiboak aitortu gabe utzitako ondasun eta eskubideak.

Hala ere, apartatu honetan xedatzen dena ez da aplikatzekoa izango, baldin eta subjektu pasiboak egoki egiaztatzen badu bere titulartasunaren pean dauzkan ondasun edo eskubideok aitorturiko errentez eskuratu direla edo beste zergaldi batzuetan eskuraturiko errentei dagozkiela, eta orduan ez zela zerga honen zergadun.

7.[256] Aurreko 1.etik 6.era bitarteko apartatuetan aipatzen diren ondare elementuen balioa, behin oinarri ezargarrian sartutakoan, zergaren ondorio guztietarako izango du balioa.

125. artikulua. Borondatezko kontabilitate-birbalorazioak.

1. Oinarri ezargarrian sartu gabeko birbalorazioak burutu dituzten sujetu pasiboek memorian aipatu beharko dute zenbatekoak diren, zer elementuri eragiten dioten eta zer zergalditan burutu diren.

Goiko azalpenak, izan ere, elementu birbalorizatuak sujetu pasiboaren ondarean egon diren ekitaldietako memoria guztietan eta bakoitzean aipatu beharko dira.

2.[257] Aurreko apartatuan ezarritako obligazioa ez betetzea zerga urraketatzat hartuko da.

Behin bakarrik zigortuko da urraketa hori, birbalorazioaren zenbatekoaren %5eko isuna jarriz; isuna ordaintzeak ez du berarekin ekarriko, zerga ondorioetarako, aipatu zenbatekoa birbalorizatutako ondare elementuaren balioari eranstea.

III. Kapitulua: Aitorpena, autolikidazioa eta behin-behineko likidazioa

126. artikulua. Aitorpenak.

---

[255] Apartatu hau 2013ko uztailaren 17ko 5/2013 Foru Arauaren 3. artikuluko zazpi apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Araua, zerga iruzurraren aurkako neurriei, kredituak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzkoa, argitaratu eta beharamunean jarri da indarrean (GAO 2013-07-22). 3. artikuluak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ditu ondorioak.

[256] Apartatu hau 2013ko uztailaren 17ko 5/2013 Foru Arauaren 3. artikuluko zazpi apartatuak gehitu du. Aipatu Foru Araua, zerga iruzurraren aurkako neurriei, kredituak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzkoa, argitaratu eta beharamunean jarri da indarrean (GAO 2013-07-22). 3. artikuluak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ditu ondorioak.

[257] 2. apartatu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako hirugarren xedapenaren 7 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jarriko da indarrean (2005-03-17 GAO).

1.[258] Subjektu pasiboek Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak erabakitako tokian eta moduan aurkeztu eta sinatu beharko dute zerga honi dagokion aitorpena.

Zergaldia amaitu eta hurrengo sei hilabeteen ondorengo 25 egun naturalen barruan aurkeztuko da aitorpena. Zerga Administrazioak, dena den, kasu bereziak izanez gero eta zirkunstantziek horretara bultzatzen badute, aitorpena epe hori baino lehen aurkeztea baimen dezake.

Aitortzeko epea hasten bada eta Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak oraindik ez badu erabaki zein modutan aurkeztuko den zergaldi horri dagokion aitorpena, aurkezteko era finkatzen duen xedapena indarrean sartu ondorengo 25 egun naturalen barruan aurkeztuko da. Hala eta guztiz ere, horrelakoetan, subjektu pasiboari aukera emango zaio aitorpena aurreko paragrafoan aipatzen den epean aurkezteko, baina beti ere aurreko zergaldia aitortzeko ezarri ziren baldintza formalak betez.

2. Foru arau honek 9. artikuluan aipatutako sujetu pasibo salbuetsiak aitortzera behartuta daude.

3.[259] Foru arau honek VIII. tituluko XV. kapituluan aipatzen dituen subjektu pasibo salbuetsiak beren errenta guztiak aitortzera behartuta daude, bai salbuetsiak eta bai salbuetsi gabeak.

Hala ere, subjektu pasibo horiek ez dute aitorpena aurkezteko obligaziorik izango honako baldintzak betetzen dituztenean:

a) Beren urteko sarrera guztiak 100.000 eurokoak baino handiagoak ez izatea.

b) Atxikipenari lotuta dauden salbuetsi gabeko errentengatik urtean 2.000 eurotik gorako sarrerak ez lortzea.

c) Lortzen dituzten salbuetsi gabeko errenta guztiak atxikipenari lotuta egotea.

4. Gipuzkoan ez ezik, Euskal Autonomi Elkarteko beste herrialdeetan edo erregimen amankomuneko lurraldean ere, edo azken bi horietan, jarduten diren entitateek Gipuzkoako Foru Aldundiak exigitutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute, gainerako zerga administrazio eskudunekiko betebeharrak eragotzi gabe.

5.[260] Zergadunek artikulu honen arabera aurkeztu behar duten aitorpenean, zerrenda hauek jaso behar dituzte:

---

[258] Lehenengo apartatu hau uztailaren 6eko 24/2001 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua eta zerga izaerako beste arau batzuk aldatzen dituenaren 6.artikuluak aldatu du. 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldiei aplikatuko zaie.

[259] 3.apartatu hau, zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUAren I Kapituluko 2.artikuluko lehenengo apartatuak aldatu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO 2004-04-16) argitaratu (GAO 2004-04-16) ondorengo egunean sartuko da indarrean eta egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak. Hala ere, aldaketa honek 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak..

[260] 5. apartatu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 16.Bigarrena.Bost artikuluak gehitu du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16.

a) Entitatean kapitalaren %5eko partaidetza edo handiagoa duten bazkide guztien zerrenda bat.

b) Zergadunak kapitalaren %5eko partaidetza edo handiagoa duen entitateen zerrenda izendun bat.

c) Entitatearen administrazio kontseiluko administratzaileen edo kideen zerrenda izendun bat.

127. artikulua. Zerga zorraren autolikidazioa eta ordainketa.

1. Aitorpena aurkeztearekin batera, sujetu pasiboek zorra zehaztuko dute, eta Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak erabakitako tokian eta moduan ordaindu beharko dute.

2.[261] Zerga zorra ondasun hauek emanez ordain daiteke:

a) Euskal Kultur Ondarearen barruan dauden ondasunak, baldin eta Kultur Ondasun Kalifikatuen Erregistroan izena emana badute edo Euskal Kultur Ondasunaren uztailaren 3ko 7/1990 Legeak jasotako Inbentario Orokorrean sartuta badaude.

b) Espainiako Ondare Historikoaren barruan dauden ondasunak, baldin eta Ondasun Higikorren Inbentario Orokorrean edo Kultur Onurako Ondasunen Erregistro Orokorrean izena emana badute, Espainiako Ondare Historikoaren ekainaren 25eko 16/1985 Legeak 73. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ez dira zerga oinarrian sartuko aurreko a) eta b) letretan aipatutako ondasunen ordainez ematean agerian geratzen diren errentak, ez eta Zergen Foru Arau Orokorrak 59. artikuluaren 2 apartatuan aipatutako kasuetan azaleratzen direnak ere.

3.[262] Oinarri ezargarrian edo kuota osoan salbuespenak, kenkariak edo edozein zerga onura izateko eskubideaz gozatu ahal izango da araudi aplikagarriak ezartzen dituen baldintzak betetzen direnean.

Bestelakorik ezartzen ez den bitartean, salbuespena, kenkaria edo zerga onura aplikatu ondoren gertatzen bada haietaz gozatzeko eskubidea galtzen dela, subjektu pasiboa behartuta egongo da, baldintzak bete ez diren zergaldiko kuota ordaintzearekin batera, aurreko zergaldietako kuota osoa edo horietan aplikatutako salbuespen, kenkari edo onurari dagokion zenbatekoa ordaintzera berandutza interesekin batera.

4.[263] Subjektu pasiboek zergaren autolikidazioan erabilitako aukera aldatu ahal izango dute, amortizazio askatasunari, amortizazio azkartuari eta aparteko

---

artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[261] 2. apartatu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako hirugarren xedapenaren 8 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jarriko da indarrean (2005-03-17 GAO).

[262] Hirugarren apartatu hau uztailaren 6eko 24/2001 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua eta zerga izaerako beste arau batzuk aldatzen dituenaren 7. artikuluak gehitu du. 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldiei aplikatuko zaie.

mozkinen berrinbertsiorako salbuespenari dagokienez, behin zerga borondatez aitortzeko epea amaituta, betiere Zerga Administrazioak aurretik errekerimendu bat egin ez badu.

127 bis artikulua. Zergaren kudeaketa, zerga administrazio batean baino gehiagotan ordaintzekotan. [264]

Zerga administrazio batean baino gehiagotan ordaintzen dutenen kasuan, honako arau hauek bete beharko dira:

Lehena. Zergaren likidazioen emaitza administrazio bakoitzaren lurraldean zergaldi bakoitzean lortu duten eragiketa bolumenaren proportzioan egotziko zaie Administrazioei.

Bigarrena. Zergak administrazio batean baino gehiagoetan ordaindu behar dituzten subjektu pasiboek behar diren aitorpen-likidazioak aurkeztu behar dizkiete administrazio horiei, arauetan agindutako epeak eta betebeharrak konplituta. Aitorpen-likidazio horietan, beti ere, aplikatu beharreko proportzioa zein den eta administrazio bakoitzari dagozkion kuotak edo itzulketak zeintzuk diren zehaztu beharko da.

Hirugarrena. Balizko itzulketak direla eta, administrazio bakoitzak bereak egingo ditu, dagokion proportzioan.

128. artikulua. Behin-behineko likidazioa.[265]

Zergak kudeatzeko organoek egin ahal izango dute Zergen Foru Arau Orokorrak III. tituluaren III. kapituluko 2. sekzioan xedatutakoaren arabera bidezkoa den behin-behineko likidazioa, zerga ikuskatzaileek ondoren egiaztatzea eta ikertzea eragotzi gabe.

IV. Kapitulua: Ofiziozko itzultzea

129. artikulua. Ofiziozko itzulketa. [266]

1. Foru arau honek 47. artikuluan aipatutako kopuruen batura autolikidazioaren kuota baino handiagoa denean, Zerga Administrazioa behartuta egongo da

---

[263] Apartatu hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAren 3. artikuluko lehen ordinalaren bost apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean. Aldaketak 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ditu ondorioak (2011/12/27ko GAO).

[264] 127.bis artikulu hau Gipuzkoako zerga araudia Ekonomia Itun berriaren xedapenetara egokitzen duen urtarrilaren 29ko 1/2003 FORU ARAUAren II.Kapituluko 3.artikuluaren bost zenbakiak erantsi du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-02-06).

[265] Artikulu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako hirugarren xedapenaren 9 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jarriko da indarrean (2005-03-17 GAO).

[266] 1998rako Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 7/1997 Foru Arauaren bigarren xedapen gehigarriak artikulu hau aldatu du. 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu.

likidazioa egitera, aitorpena aurkeztutakoan eta aitorpena aurkezteko epea amaitu ondorengo sei hilabeteen barruan

Aitorpena epez kanpo aurkeztuz gero, aurreko parrafoan aipatutako sei hilabeteak aurkezpen egunetik aurrera konputatuko dira

2.[267]Autolikidaziotik edo, hala egokituz gero, behin-behineko likidaziotik ateratako kuota efektiboa benetan atxikitako zenbatekoen, konturako sarreren eta ordainketa zatikatuen batura baino txikiagoa denean, Zerga Administrazioak ofizioz itzuliko du kuota horren gaineko soberakina aurreko apartatuan finkatutako epean, egoki izan daitezkeen behin-behineko zein behin betiko likidazioak gero egitea eragotzi gabe.

3 Soberakina itzultzeko epea Zerga Administrazioari leporatutako arrazoiak direla-eta ordainketa agindu gabe iraganez gero, itzultzeko geratzen den zenbatekoari berandutza interesa gehituko zaio, epe hori amaitu ondorengo egunetik ordainketa agintzen den egunera bitartean. Eta sujetu pasiboak ez du eskatu beharrik izango.

V. Kapitulua: Konturako ordainketak.[268]

130. artikulua. Konturako ordainketak.[269]

1.[270] Zerga honi lotutako errentak ordaintzen dituzten entitateak, baita ondasun komunitateak eta jabe komunitateak ere, erregelamenduz finkatutako kopurua atxikitzera eta kontura ordaintzera behartuta egongo dira konturako ordainketaren kontzeptuan, bai eta horien zenbatekoa Gipuzkoako Foru Ogasunari ordaintzera ere Ekonomia Itunean finkatutako kasuetan eta moduan. Enpresari indibidualak eta profesionalak ere atxikitzera eta kontura ordaintzera behartuta daude, beren jarduera ekonomikoetan ordaintzen dituzten errentak direla-eta. Azkenik, Espainian egoitza ez duten eta establezimendu iraunkor bitartez jarduten diren pertsona fisikoak, juridikoak eta gainerako entitateak ere hala behartuta daude.

---

[267] 2.apartatu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 91.artikuluak aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

[268] V. Kapitulu honen izenburua Gipuzkoako zerga araudia Ekonomia Itun berriaren xedapenetara egokitzen duen urtarrilaren 29ko 1/2003 FORU ARAUAren II.Kapituluko 3.artikuluaren sei zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-02-06).

[269] Artikulu honen izenburua Gipuzkoako zerga araudia Ekonomia Itun berriaren xedapenetara egokitzen duen urtarrilaren 29ko 1/2003 FORU ARAUAren II.Kapituluko 3.artikuluaren zazpi zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-02-06).

[270] Lehenengo apartatu hau Gipuzkoako zerga araudia Ekonomia Itun berriaren xedapenetara egokitzen duen urtarrilaren 29ko 1/2003 FORU ARAUAren II.Kapituluko 3.artikuluaren zortzi zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-02-06).

2. Atxikitzera behartuta dagoen sujetuak Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak finkatutako eredu, epe, modu eta tokietan aurkeztu behar du berari atxikitako kopuruen aitorpena edo, horiek ez badira atxiki, aitorpen negatiboa. Halaber, atxikipenen urteko laburpena aurkeztuko du erregelamenduz finkatzen dena azalduz.

3. Atxikitzera behartuta dagoen sujetuak berari egindako atxikipenaren edo konturako ordainketen ziurtagiria luzatu beharko du erregelamenduz ezarritako baldintzetan.

4. Erregelamenduz zer suposamendutan ez den atxikipenik egingo finkatuko da. Bereziki, honako hauei ez zaie atxikipenik egingo:

a) Foru arau honek 9. artikuluan aipatutako entitateek lortutako errentei.

b)[271]Interes ekonomikoko talde espainiar eta europarrek eta enpresen aldi baterako batasunek banatutako dibidendu eta mozkin-partaidetzei, baldin eta horiek guztiak oinarri ezargarrian egozpena jasan behar duten bazkideei badagozkie, eta horiek lortu diren zergaldietan entitateak foru arau honen VIII. tituluaren IV. eta V. kapituluetako erregimen bereziaren arabera tributatu badu.

c) Sozietate taldeen erregimenean zergak ordaintzen dituen talde bateko sozietateen artean ordaindutako dibidenduei edo mozkinetako partaidetzei nahiz interesei.

d) Foru arau honek 33. artikuluaren 2 apartatuan aipatutako dibidenduei edo mozkinetako partaidetzei.

5. [272]. Ebazpen judizial edo administratiboaren indarrez zerga honen atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errenta bat ordaindu behar denean, ordaindu beharreko kopuru osoaren gainean egingo du atxikipena ordaintzaileak, eta haren zenbatekoa sartu beharko du artikulu honetan jasotakoaren arabera.

6.[273] Zergaren azken aitorpen-likidazioan zehaztutako proportzioa aplikatu beharko dute araudiari jarraituta ordainketa zatikatua lurralde bakoitzean lortutako eragiketa bolumenaren arabera egitera behartuta dauden zergadunek.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa xedatuta ere, subjektu pasiboak beste proportzio bat aplikatu ahal izango du, Ekonomia Ituneko III. kapituluko 2. sekzioan aipatutako Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordea jakinaren gainean jarri ondoren, eragiketa hauek egiten direnean:

---

[271] b) letra hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 92.artikuluak aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

[272] 5. apartatu hau, Gipuzkoako Lurralde Historikorako hainbat zerga neurri onartzen duen otsailaren 12ko 2/2001 Foru Arauaren 4. artikuluko apartatu hamabigarrenak gehitzen du. 2001eko otsailaren 17an sartu zen indarrean.

[273] Seigarren apartatu hau Gipuzkoako zerga araudia Ekonomia Itun berriaren xedapenetara egokitzen duen urtarrilaren 29ko 1/2003 FORU ARAUAren II.Kapituluko 3.artikuluaren bederatzi zenbakiak erantsi du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-02-06).

a) Bategitea, bereizketa, aktibo-ekarpena eta balore-trukea.

b) Lurralde komunean edo foru lurraldean jarduera hastea, jarduerari uztea, hura zabaltzea edo murriztea, baldin eta horren ondorioz nabarmen aldatzen bada apartatu honetako lehenengo paragrafoan azaldutako irizpideari jarraituz kalkulatutako proportzioa.

Beti ere, aldakuntza nabarmena dela uste izango da lurraldeetariko edozeini aplikatu beharreko proportzioak ehuneko 15 gora edo behera, gutxienez, egiten duenean.

7.[274] Gipuzkoako Foru Ogasunari benetan egindako ordainketa zatikatua Gipuzkoako Foru Aldundiari ordaindu behar zaion kuotaren zatitik kenduko da.

131. artikulua. Subjektu pasiboek zerga helbideari buruz dituzten betebeharrak.[275]

Subjektu pasiboek Zerga Administrazioari jakinarazi behar diote zerga helbidearen aldaketa eta, era berean, Administrazioak horren aldaketa bultza dezake Zergen Foru Arau Orokorrak 48. artikuluan xedatutakoaren arabera.

VI. Kapitulua: Administrazioak oinarri ezargarria zehazteko dauzkan ahalmenak

132. artikulua. Administrazioak oinarri ezargarria zehazteko dituen ahalmenak.[276]

Oinarri ezargarria zehaztearen ondorioetarako, foru arau honek 10. artikuluaren 3 apartatuan aipatutako arauak aplikatuko ditu Zerga Administrazioak.

132 bis artikulua. Zergari lotutako ikuskaritza.[277]

1.[278] Gipuzkoako Foru Aldundiak zergaren ikuskaritza lana egiten du, kasu hauetan:

---

[274] Zazpigarren apartatu hau Gipuzkoako zerga araudia Ekonomia Itun berriaren xedapenetara egokitzen duen urtarrilaren 29ko 1/2003 FORU ARAUAren II.Kapituluko 3.artikuluaren bederatzi zenbakiak erantsi du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-02-06).

[275] Artikulu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako hirugarren xedapenaren 10 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jarriko da indarrean (2005-03-17 GAO).

[276] Artikulu hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Berrogeita zazpi zenbakiak aldatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

[277] Artikulu hau otsailaren 11ko 1/2008 FORU ARAUAren 1. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak Gipuzkoako zerga araudia 2007ko urriaren 25eko 28/07 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldaketetara, eta Alderdi politikoen finantzaketari buruzko 2007ko uztailaren 4ko 8/07 Lege Organikoan eta Estatuaren 2008ko Aurrekontu Orokorrei buruzko 2007ko abenduaren 26ko 51/07 Legean jasotako aldaketetara egokitzen du. Aldaketa 2007ko urriaren 27an jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da. (2008-02-15ko GAO).

[278] Apartatu hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUAren 2. artikuluaren ordinal bosgarrenaren sei apartatuak erantsi du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu

a) Subjektu pasiboak Gipuzkoan duenean helbide fiskala, salbu aurreko ekitaldiko eragiketen zenbatekoa 7 milioi euro baino handiagoa izan duten eta, gainera, ekitaldi horretan bai lurralde erkidean beren eragiketa bolumenaren 100eko 75 baino gehiago edo bai, beste kasu batean, beste bi lurralde historikoetako batean Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketen zenbateko osoa gauzatu duten subjektu pasiboen kasuan.

b) Subjektu pasiboak Araba edo Bizkaian duenean helbide fiskala, baldin eta aurreko ekitaldiko eragiketen zenbatekoa 7 milioi euro baino handiagoa izan badu, ekitaldi horretan bere eragiketa bolumenaren 100eko 75 edo gehiago lurralde erkidean gauzatu ez badu, eta, ekitaldi horretan bertan, Euskadin egindako eragiketa guzti-guztiak Gipuzkoan gauzatuak izan badira.

c) Subjektu pasiboak helbide fiskala lurralde erkidean duenean, baldin eta aurreko ekitaldiko eragiketen zenbatekoa 7 milioi euro baino handiagoa izan badu, ekitaldi horretan bere eragiketa guzti-guztiak Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatu baditu eta ekitaldi horretan bertan Gipuzkoan egindako eragiketen bolumenaren proportzioa handiagoa bada beste Lurralde Historikoetako bakoitzean eginarena baino.

2. Ikuskaritza lanak Gipuzkoako zerga araudiari lotuko zaizkio, gainerako administrazioekin elkarlanean aritzea eragotzi gabe.

Ikuskapen lan horien ondorioz, zorren bat jaso edo kopururen bat itzuli behar dela agertzen bada, eta zor edo kopuru hori administrazio batzuei badagokie, Gipuzkoako Administrazioak kobratu edo itzuliko du. Gero dagozkion konpentsazioak emango dizkiote batak besteari, beharrezkoa bada. Organo ikuskatzaileek euren jardunaren emaitzen berri emango diete eragindako gainerako administrazioei.

3. Gipuzkoako Foru Aldundia ez den beste administrazio batek ikuskatzen badu, Gipuzkoako Foru Aldundiari egiaztapen eta ikerketa arloan dagozkion ahalmenak eragotzi gabe ikuskatu dela ulertuko da. Era berean, azken lan horiek ezin izango dute ondorio ekonomikorik izan zergadunengan, administrazio eskudunetako organoen lanen ondorioz egindako behin betiko likidazioei dagokienez.

4. Administrazio eskudunak egiaztapenetan zehaztutako proportzioak bete beharko ditu subjektu pasiboak obligazio likidatuei dagokienez. Horrek ez du esan nahi egiaztapen horien ondoren bi administrazioen artean behin betiko onartzen direnak bete behar ez direnik.

X. TITULUA: ORDENA JURISDIKZIONALA

133. artikulua. Jurisdikzio eskuduna.

Bide ekonomiko-administratiboa amaitu ondoren, administrazioarekiko auzibidea jurisdikzio eskudun bakarra izango da Zerga Administrazioaren eta sujetu pasiboen arteko gertatzezko eta zuzenbidezko auziak erabakitzeko, foru arau honetan araututako edozein gairi buruz.

---

eta hurrengo egunean jarri zen indarrean. Eransketak 2011-1-1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ditu ondorioak. (2010-12-28ko GAO)

XI. TITULUA: ZIGOR ARAUAK.[279]

134. artikulua. Urraketak eta zigorrak.

1. Artikulu honen ondorengo apartatuan eta foru arau honen gainerako xedapenetan jasotakoa eragotzi gabe, Zergen Foru Arau Orokorrak ezarritakoaren arabera zigortuko dira Sozietateen gaineko Zergan egindako zerga urraketak.

2. Zerga urraketa izango da foru arau honek 126. artikuluaren 5. apartatuan jasotako obligazioak ez betetzea. Zerga urraketa izango da aipatu obligazioak datu faltsuak, okerrak edo osagabeak aitortuz betetzea ere.

Urraketa 1.000 euroko diru isun finkoaz zigortuko da jarri gabe utzi, oker jaso edo faltsutu den datu bakoitzeko; datutzat hartuko da foru arau honek 126. artikuluaren 5. apartatuan xedatutakoaren arabera jaso beharreko bazkide, entitate edo administratzaile bakoitza.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Dibidenduen ezarpen bikoitzagatiko kenkaria ez aplikatzea.

Foru Arau honen 33. artikuluan jasotzen den kenkarirako eskubidea honako hauek galtzen dute:

a) Ekainaren 5eko 15/1992 Legeak, Petroleo Sektorea Europako Araudira apurka-apurka egokitzeko Presazko Neurriei buruzkoak, 3. artikuluko 1. atalean aipatzen dituen ondare gehikuntzen ondorioz sortutako erreserben kontura banatzen diren mozkinek.

b) Abenduaren 29ko 22/1993 Legeak, Funtzio Publikoaren eta Langabezi Laguntzaren Erregimen Juridikoa Erreformatzeko Neurri Fiskalak onartzen dituenak, 2. artikuluan ezarritakoari jarraiki hobaritzen diren etekinen kontura banatutako dibidenduek, eta orobat, azaroaren 15eko 12/1993 Foru Legearen 19. artikuluan eta uztailaren 6ko 19/1994 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian ezarritako hobarira bilduta dauden sozietateen etekinetatik nahiz Bizkaiko ekainaren 24ko 5/1993 Foru Arauan, Gipuzkoako ekainaren 26ko 11/1993 Foru Arauan eta Arabako uztailaren 5eko 18/1993 Foru Arauan aurrikusitako salbuespena aplikagarria duten sozietateen etekinetatik datozenek.

Erreserbak banatuz gero, akordio sozialean onartutako izendapenari jarraituko zaio, eta abonaturiko lehen kopuruak erreserba horiei aplikatzen zaizkiela ulertuko da.

Bigarrena. Aktibo finantzarioen eta bestelako balore higigarrien atxikipen, eskualdaketa eta obligazio formalei buruzko arauak.

[279] XI. titulu hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 16.Bigarrena.Sei artikuluak gehitu du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

1. Kapital higigarriaren etekin inplizituak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan atxikitzeko obligazioari dagokionez, honako pertsona edo entitate hauek egingo dute atxikipena:

a) Atxikipena jasatera behartuta dauden etekinak aktibo finantzarioak eskualdatuz edo berreskuratuz lortu direnean, atxikitzailea entitate jaulkitzailea edo eragiketaz arduratzen den finantza erakundea izango da.

b) Etekinak titulutan dokumentatzen ez diren eragiketekin zer ikusia duten eskualdaketak eginez edo finantza erakunde baten eskutan utzitako eskualdaketen bidez lortzen direnean, atxikitzailea eskualdatzailearen izenean diharduen Banketxe, Aurrezki Kutxa edo Entitatea izango da.

c) Aurreko hizkiek aipatzen ez dituzten kasuetan, nahitaezkoa izango da fede-emaile publikoaren esku hartzea dagokion atxikipena egiteko.

2. Etekin inplizituak edukitzeagatik atxikipena jasan behar duten titulu edo aktiboak inorenganatu edo dirua berreskuratzeko, ezinbestekoa izango da horiek eskuratu izana frogatzea lehen aipatu diren fede-emaileek edo finantza erakundeek esku hartuz, eta eragiketaren prezioa kreditatzea.

Eragiketaz arduratzen diren jaulkitzaile edo finantza erakundeek, aurreko parrafoaren arabera, titulu edo aktiboaren edukitzaileari itzulketarik egin behar ez diotenean, kopuru horren pareko gordailua eratu beharko dute eta agintari judizialen esku utzi.

3. Efektu publikoen, baloreen zein edozein motatako titulo eta aktibo finantzarioen jaulkipen, harpidetza, eskualdaketa, truke, kobertsio, kitapen eta itzulketan nahiz horien gaineko eskubide errealekin zer ikusia duten eragiketetan parte hartzen duten edo bitartekari diren fede-emaile publikoek derrigorrez eman beharko diote eragiketa horien berri Zerga Administrazioari. Horrekin batera, eskuhartzen duten subjektuen zerrenda nominala aurkeztu beharko dute horien helbidea eta identifikazio fiskaleko zenbakia, efektu publiko, balore, titulu eta aktiboen kopurua, eta eragiketaren prezioa eta data adieraziz, beti ere Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak erabakitzen dituen epeen barruan eta zehazten duen ereduari jarraiki.

Derrigortasun horretan egongo dira, halaber, kreditu entitate eta erakundeak, balore sozietate eta agentziak, gainerako finantza bitartekariak, eta beste edozein pertsona fisiko edo juridiko ohiko zeregina efektu publikoak, baloreak nahiz aktibo finantzarioen edonolako tituluak edo hauen gaineko indizeak, futuroak eta aukerak merkatuan sartu eta horien bitartekaritza egitea duena; zeregin horien barruan ere konturako oharpen bidez egindako dokumentuen eragiketak sartzen dira, hauen helburua, zuzenean edo zeharka, baliabideak edozein motatako efektu edo baloreen bidez eskuratzea edo merkatuan sartzea denean.

Jakinarazteko obligazio hori inbertsio kolektiboko erakundeak kudeatzen dituzten sozietateei ere ezartzen zaie, erakunde horietan dauden akzio eta partaidetzen berri eman beharko dutelarik.

Aski izango da atxikitzaileen zerrenda aurkeztea, atxikipenen urteko laburpenaren eredu ofizialari jarraituz beti ere, atal honetan atxikipenari lotuak bezala aipatu diren eragiketetan informatzeko obligazioa bete egiten dela ulertzeko.

4. Metal eta harri bitxiak, balio filatelikoko tinbreak edo balio numismatikoko piezak erosten direnean, balio horietan inbertitzea sustatzen duten pertsona fisiko edo juridikoek erosketaren ziurtagiri, ordezkagiri nahiz dokumentu adierazgarriak luzatu izana jakinarazi beharko diote Zerga Administrazioari.

Hirugarren xedapen gehigarria. Kontseiluaren 90/434/EEE Zuzentarauari buruzko aipamenak.[280]

Foru arau honetan eta beste xedapen batzuetan Europako Kontseiluak estatu kide desberdinetako sozietateen artean egindako bat egiteen, bereizketen, bereizketa partzialen, aktibo ekarpenen eta akzio trukaketen zerga araubide erkideari buruz eta europar sozietate baten (ES) edo europar sozietate kooperatibo baten (ESK) helbide soziala estatu batetik beste batera aldatzeari buruz 1990eko uztailaren 23an emandako 90/434/EEE Zuzentarauaren inguruan egindako aipamenak Europako Kontseiluak estatu kide desberdinetako sozietateen artean egindako bat egiteen, bereizketen, bereizketa partzialen, aktibo ekarpenen eta akzio trukaketen zerga araubide erkideari buruz eta ES baten edo ESK baten sozietate helbidea estatu batetik beste batera aldatzeari buruz 2009ko urriaren 19an emandako 2009/133/EEE Zuzentarauan jasota dauden xedapenen ingurukoak direla ulertuko da, haren III. eranskinean horretarako jasotako baliokidetasun taulari jarraituz.

Laugarren xedapen gehigarria. Lege mailako xedapenak eta lehiakortasunaren aldeko araudia betez egindako aktibo eskualdaketen zerga araubidea.[281]

1. Sozietateen gaineko Zergan tratamendu hau emango zaie ondare elementuen eskualdaketei, baldin eta 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera argitaratutako lege mailako xedapenez edo Europako Batzordeak edo Ministro Kontseiluak egun beretik aurrera hartutako erabakien bidez finkatutako obligazioak betez egiten badira, enpresak bateratzeko prozesuetan lehiakortasunaren babeserako arauak aplikatuta:

a) Lortzen den errenta positiboa ez da sartuko oinarri ezargarrian, baldin eta eskualdaketan lortutako zenbateko osoa foru arau honek 22. artikuluan jarritako baldintzetan berrinbertitzen bada.b) Errenta positibo hori sartuko da baloreak eskualdatzen diren edo, beste edozein arrazoi dela medio, berrinbertitutako ondasun eta eskubideak balantzetik kentzen diren zergaldiko oinarri ezargarrian.

Errenta horiek oinarri ezargarrian sartzen diren ekitaldian, ondare elementuak eskualdatzeko obligazioa ezarri zuen araua argitaratutako zergaldian aplikagarria izango zen aparteko mozkinen berrinbertsioagatik oinarri ezargarrian ez sartzea aplikatuko da.

---

[280] Hirugarren Xedapen Gehigarria abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAren 3. artikuluko bigarren ordinalaren bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean, eta aldaketak ere egun horretatik aurrera ditu ondorioak (2011/12/27ko GAO).

[281] Laugarren Xedapen Gehigarria abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAren 3. artikuluko lehen ordinalaren sei apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean. Aldaketak 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ditu ondorioak (2011/12/27ko GAO).

c) Berrinbertsioa gauzatzen den ondare elementuak, errenta positiboa zehaztearen ondorio bakarrerako, eskualdatutako ondasun eta eskubideen balio beraren arabera baloratuko dira. Berrinbertsio partzialaren kasuan, balio horri oinarri ezargarrian sartutako errentaren zenbatekoa gehituko zaio.

d) Subjektu pasiboa xedapen honen interpretazio eta aplikazioari buruzko kontsultak aurkeztu ahal izango ditu, eta horien erantzunak Zerga Administrazioa lotuko du, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 83. eta 84. artikuluetan jasotakoari jarraituz.

2. Ez dira oinarri ezargarrian sartuko Espainiako Erresumak eta Portugaleko Errepublikak energia elektrikoaren merkatu iberiar bat eratzeko 2004ko urriaren 1ean Compostelako Santiagon adostutako Nazioarteko Hitzarmenak 4. artikuluan jasota dagoen eta Espainiako egoiliarra den merkatuaren sozietate kudeatzaileko akzio eta partaidetza sozialen eskualdaketen kasuan agerian jartzen diren errenta positiboak, eskualdaketak merkatu hori sortzeko egiten direnean, betiere eskualdaketa horietan jasotako kontraprestazio osoa edo partziala Portugalen egoiliarra den merkatuaren sozietate kudeatzailean dituen eta 4. artikulu horretan jasota dauden akzioak edo partaidetza sozialak badira.

Errenta positibo horiek beraiek eskualdatzen diren edo, beste edozein arrazoi dela medio, jasotako akzio edo partaidetza horiek balantzetik kentzen diren zergaldiko oinarri ezargarrian sartuko dira edo, bestela, fiskalki kengarria den balioa duen zuzenketa bat azken haietan konputatzen denean, betiere baja edo balio zuzenketa horren zenbatekoaren proportzioan.»

Bosgarrena.[282]. 98/1992 Foru Dekretua, abenduaren 9koa, bategite, zatiketa, aktibo-ekarpen, balore-truke eta sozietate matrize nahiz filialen zenbait alderdi arautzen dituena. Dekretu honekiko erreferentziak. Hiri Izaerako Terrenoen Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren erregimena zenbait eragiketatan.(indargabetua)

Seigarrena. Monetaren koefiziente zuzentzailea 1996rako.

1996. urtean hasten diren zergaldiei dagokienean, Foru Arau honen 15. artikuluko 11. atalean aurrikusten diren koefizienteak honako hauek izango dira:

Urteak	Koefizienteak
1984ko urtarrilaren 1a baino lehen	1,960
1984. urtean	1,780
1985. urtean	1,630
1986. urtean	1,530

[282] 5. xedapen gehigarri hau Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren, xedapen indargabetzaileak indargabetu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

1987. urtean	1,430
1988. urtean	1,370
1989. urtean	1,320
1990. urtean	1,260
1991. urtean	1,200
1992. urtean	1,150
1993. urtean	1,110
1994. urtean	1,070
1995. urtean	1,030
1996. urtean	1,000

Koefizienteak honela aplikatuko dira:

a) Eskurapen prezioa edo produkzio-kostua, ondare elementua zein urtetan eskuratu edo produzitu den kontuan hartuta. Hobekuntzei aplikatu behar zaien koefizientea, horiek egin diren urteari dagokiona izango da.

b) Kontabilizaturiko amortizazioak, egin diren urtea kontuan hartuta.

Zazpigarrena. Europako nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza politikarako laguntzak.[283]

Errenta positiboak ez dira sartuko Sozietateen gaineko Zergaren oinarri ezargarrian, honako arrazoi hauengatik agerian jartzen direnean:

a)[284] Batasuneko nekazaritza politikaren laguntza hauek jasotzea:

1.- Mahastigintza behin betiko uzteko laguntzak.

2.- Sagarrondoak erauzteko prima.

3.- Platanondoak erauzteko prima.

4.- Esne ekoizpena behin betiko uzteko laguntzak.

[283] Zazpigarren Xedapen Gehigarriari Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 4. Artikuluko Berrogeita bederatzi zenbakiak edukin berri bat eman dio, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

[284] Letra hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAren 3. artikuluko laugarren ordinalak aldatu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an jarri da indarrean, nahiz eta 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko den. (2009-12-28ko GAO).

5.- Madariondo, mertxikondo eta nektarinondoen landaketa behin betiko uzteko laguntzak.

6.- Madariondo, mertxikondo eta nektarinondoak erauzteko laguntzak.

7.- Azukre-erremolatxa eta azukre-kanaberaren laborea behin betiko uzteko laguntzak.

b) Europako arrantza politikatik laguntzak jasotzea:

1.- Arrantza behin betiko uzteagatik.

2.- Ontzi batek arrantza behin betiko gelditzeagatik.

3.- Eskualdatzeagatik, hirugarren beste herri batzuetan sozietate mistoak eratzearren edo eratzearen ondorioz.

c) Arrantzontzi bat ordain truke eskualdatzea, erosleak, inorenganatu denetik urtebeteko epean, hondakin bihurtzen badu ontzia eta arrantza gelditzeagatik laguntza jasotzen badu.

d) Laguntza publikoak jasotzea, jarduera enpresarialei lotutako ondare elementuak suntsitu, suak hartu, urak kaltetu edo hondoratu direlako eta haien bitartez konponketak egin behar direlako.

e) Errepide bidezko garraio jarduera uzteko laguntzen araudian ezarritako beharkizunak betetzen dituzten garraiolariei administrazio eskudunak ordaintzen dizkien laguntza horiek jasotzea.

f) Kalte-ordain publikoak jasotzea, abere azienda derrigorrez hiltzearen ondorioz, epidemiak edo gaixotasunak amaitzeko jarduketen barruan.

Letra honetan xedatutakoa ugalketarako animaliei buruzkoa izango da bakarrik.

Oinarri ezargarrian sartuko ez den errenta kalkulatzeko, bi kopuru hartu behar dira kontuan: batetik, jasotako laguntzen zenbatekoa -edo c) letraren kasuan, inorenganaketan lortutako prezioa-, eta bestetik, jarduerei lotutako ondare elementuetan izandako galerak, baldin badaude. Laguntza horien zenbatekoa -edo c) letraren kasuan, jasotzen den kontraprestazioa- aipatu elementuetan izandako galerak baino txikiagoa denean, diferentzia negatiboa oinarri ezargarrian sartu ahal izango da. Galerarik egon ez bada, laguntzen zenbatekoa bakarrik geratuko da kargatu gabe, edo c) letraren kasuan, lortutako prezioa.

Zortzigarrena. Ordainketa zatikatua.

1. 1996 eta 1997ko urrriaren lehen hogeita bost egun naturaletan, subjektu pasiboek konturako ordainketa bat egin beharko dute hil horren lehen egunean indarrean dagoen zergaldiaren likidazioagatik. Ordainketa hori azken ekitaldi itxiagatik ingresatu beharreko kuotaren % 20koa eta % 10ekoa izango da, eta ekitaldia aitortzeko arauzko epeak amaitua egon beharko du.

2. Azken zergaldi amaitua urtebetekoa baino laburragoa denean, aurreko ekitaldietako kuoten zati proportzionala ere hartuko da kontuan, hamabi hilabete osatu arte.

Bederatzigarrena. Balantzeak eguneratzea.

Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta lau hilabeteko epean, Foru Aldundiak Balantzeen Egunerapenari buruzko Foru Arauaren proiektua helaraziko die Batzar Nagusiei, eta bertan aukera emango da Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboek 1996ko abenduaren 31n beren kontabilitatean ageri den ibilgetu materialaren elementuak egunean jar ditzaten.

Hamargarrena. Kanarietako Ekonomia eta Zerga Araubidea. [285]

Gipuzkoako zerga araudiari lotuta dauden zerga honen eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek Kanarietako Ekonomia eta Zerga Araubidearen xedapenetan jasotako neurriak aplikatu ahal izango dituzte, betiere aplikaziozkoak gertatzen bazaizkie, baita autonomia erkidegoaren araudipeko zerga itunduei dagozkienean ere.

Hamaikagarrena. (Edukirik gabe)[286]

Hamabigarrena. (Edukirik gabe)[287]

Hamahirugarrena. [288] Alderdi politikoei bahitutako ondasun eta eskubideak itzultzea edo konpentsatzea.

Ez dira sartuko alderdi politikoen eta horiei lotutako pertsona juridikoen Sozietate Zergaren oinarri ezargarrian, abenduaren 15eko 43/1998 Legeak, 1936-1939 bitarteko erantzukizun politikoei buruzko araudia aplikatuz alderdi politikoei bahitutako ondasun eta eskubideak itzuli eta konpentatzekoak, jasotakoaren arabera, alderdi horiei ondarezko ondasun eta eskubideak itzuli edo diruz konpentsatzearen ondorioz ageri diren errenta positiboak.

Hamalaugarrena. [289] Merkataritzako flota berritzeko zerga pizgarriak.

1. Amortizazio askatasuna izango dute, xedapen honetan jasotakoari jarraiki, beharkizun hauek betetzen dituzten itsasontzi, urontzi eta nabigazio tramankuluek:

---

[285] Martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako hirugarren xedapenaren 11 zenbakiak hamargarren xedapen gehigarri hau utzi du edukirik gabe. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jarriko da indarrean (2005-03-17 GAO).

[286] Martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako hirugarren xedapenaren 11 zenbakiak hamaikagarren xedapen gehigarri hau utzi du edukirik gabe. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jarriko da indarrean (2005-03-17 GAO).

[287]Xedapen gehigarri honi duen edukia, abenduaren 1eko 8/2006 FORU ARAUAk, zerga alorreko zenbait neurri onartzen dituenak, eman dio bere 2. artikuluko bigarren apartatuko zazpi zenbakian. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu (GAO 2006-12-12) ondorengo egunean sartzen da indarrean. Hala ere, aldaketa honek 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izango ditu ondorioak.

.

[288] 13.Xedapen gehigarri hau Zerga Neurriei buruzko apirilaren 27ko 3/1999 Foru Arauaren 3. artikuluak gehitu du. 1999ko maiatzaren 3an sartu zen indarrean.

[289] 14.Xedapen gehigarri hau Zerga Neurriei buruzko apirilaren 27ko 3/1999 Foru Arauaren 3. artikuluak gehitu du. 1999ko maiatzaren 3an sartu zen indarrean.

a) Itsasontzi, urontzi edo nabigazio tramankuluak izatea, baldin eta eskuratzailearen esku utzi badira 1999ko urtarrilaren 1etik 2003ko abenduko 31ra bitartean edo denbora tarte horren barruan hitzartutako kontratua dela-eta egiteko agindu badira, beti ere eskuratzailearen esku jartzeko data 2006ko abenduaren 31aren aurrekoa denean; edo, bestela, hobetu beharreko itsasontzi erabiliak izatea, 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera erosi direnean, baldin eta beren zenbatekoa erosketa balioaren 100eko 25etik gorakoa bada eta 2003ko abenduaren 31 baino lehen egiten badira.

b) Itsasontzi, urontzi edo nabigazio tramankuluak izena eman ahal izatea uztailaren 28ko 1027/1989 Errege Dekretuak, itsasontziak banderapean jarri, matrikulatu eta itsas erregistroan izena ematekoak, 4.1 artikuluan jasotako lehen, bigarren edo bosgarren zerrendan.

c) Subjektu pasibo eskuratzaileak itsasontzia, urontzia edo nabigazio tramankulua bere jarduerari atxikiaz ustiatzea edo, bestela, krosko soilaren bidezko errentamenduaren bitartez, baldin eta azken kasu horretan entitate errentatzailea interes ekonomikoko enpresa talde espainiarra edo europarra bada eta ondoko beharkizun hauek betetzen badira:

a') Errentaria itsasontzi, urontzi edo nabigazio tramankuluen ustiapenean jardun ohi den pertsona fisiko edo juridikoa izatea, eta elementua jarduera horri atxikita edukitzea.

b') Zerga onuraren 100eko 70a, gutxienez, errentatzaileak erabiltzaileari aldatzea.

Ondorio horietarako, zerga onura baloratuko da erregimen hau aplikatu eta aplikatu gabe sortuko ziren zerga sarreren arteko diferentziak, aurrez erabakitzen den tasan, eguneratuz ateratzen den kopuruaren arabera.

c') Entitate errentatzaileko bazkideek partaidetza mantentzea bertan, gutxienez errentamendu kontratuaren epearen bi herenetan.

d') Itsasontzi, urontzi edo nabigazio tramankuluaren erosketa prezioa, finantzazioaren interes tasa eta alokairuaren zenbatekoa alderdi independienteen artean merkatuan izaten diren balio arruntei dagozkienak izatea.

e') Loturarik ez egotea aktiboaren saltzailearen eta horren errentariaren artean.

f') Itsasontzi, urontzi edo nabigazio tramankuluaren erosketa finantzatzeko behar diren baliabideen 100eko 20a, gutxienez, errentatzailearen fondo propioetatik etortzea.

d))[290] (ezabatua)

e)[291] Xedapen honetan jaso den amortizazio prozedura aplikatzeko Foru Aldundiari baimena eskatzea eta horrengandik lortzea, itsasontzia egin edo hobetu aurretik.

[290] d) letra hau uztailaren 5eko 4/2000 Foru Arauak, zenbait zerga neurri onartzen duenaren 3. artikuluko Hamabi apartatuak ezabatzen du. 2000ko uztailaren 13an sartzen da indarrean, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriorekin.

Eskaera subjektu pasiboak aurkeztuko du edo, bestela, hobetu beharreko itsasontziaren jabeak. Eskaera horretan ondoko alderdiei buruzko informazioa emango da gutxienez:

a') Sozietatearen xedea.

b') Baimena eskatu zaien elementuen finantzaketaren deskribapena.

c') Sozietateko partaideen identifikazioa.

d') Baimena eskatu zaien itsasontzi, urontzi edo nabigazio tramankuluak egin, hobetu edo eskuratzean ordaintzea espero den zenbatekoa.

e') Baimena eskatu zaien itsasontzi, urontzi edo nabigazio tramankuluen deskribapena.

f') Itsasontzi, urontzi edo nabigazio tramankuluak eskura emateko espero den data.

g') Hobekuntzen deskripzioa, horrelakoak egiten badira.

Eskaera hiru hilabeteko epean ebatzi behar da gehienez. Epe hori iraganda, eskaera ukatu dela ulertu daiteke.

2. Amortizazioa arau hauei jarraiki egingo da:

a) Amortizazioa itsasontzi, urontzi edo nabigazio tramankulua abian jarri edo hobekuntza egin aurretik egin ahal izango da, ordaindutako zenbatekoen mugapean.

b) Baliogalera efektiboaren zenbatekoa gainditzen duten kopuruen kenkaria ez da galera eta irabazien kontuan kontabilitate egozpena egitearen baldintzapean jarriko. Kopuru horiek oinarri ezargarria gehituko dute kenkaria izan duen elementuaren amortizazio edo eskualdaketa dela-eta.

3. Errentamendu finantzarioaren erregimenean eskuratu diren itsasontzi, urontzi edo nabigazio tramankuluak pizgarri horretara bildu ahal izango dira, baldin eta erosketa aukera gauzatzeko konpromisua hartzen badute.

4. Beharkizunak geroago betetzen ez badira, subjektu pasiboak ordaindu beharko du xedapen honetan jasotakoaren arabera amortizazioak egin dituen ekitaldiei dagozkien kuoten zenbatekoa, bidezko zigor, errekargu eta berandutza interesekin batera.

5. Xedapen iragankor honetan jasotako amortizazio askatasuna bateraezina da foru arau honen 22. eta 52. artikuluetan xedatutakoaren aplikazioarekin, eskualdaketaren zenbatekoa berrinbertitzen den elementuei dagokienez.

---

[291] e) letra hau uztailaren 5eko 4/2000 Foru Arauak, zenbait zerga neurri onartzen duenaren 3. artikuluko Hamabi apartatuak aldatzen du. 2000ko uztailaren 13an sartzen da indarrean, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriorekin.

Hamabosgarrena. Esne kuota saltzearen ondorioz lortutako errentak.[292]

Ez dira sartuko sozietateen gaineko zergaren oinarri ezargarrian Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren organo eskudunak baimendutako behi esnearen erreferentziazko kopuruen salmenta dela-eta agerian jartzen diren errenta positiboak.

Hamaseigarrena. Errentamendu finantzarioaren kuoten urteko zenbatekoa, ondasunaren kostua berreskuratzeari dagokiona. [293]

1. Indarrean dauden errentamendu finantzarioko kontratuetan, urteko iraupeneko epealdiak 2010, 2011 eta 2012ko urteen barnean hasten direnetan, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 7/1996 Foru Arauak, uztailaren 4koak, bere 116. artikuluko 4. apartatuan ezartzen duen baldintza ez zaio exijituko ondasuna berreskuratzeko kostuari dagozkion errentamendu kuoten zatiari.

2. Kuota horien zatiaren urteko zenbatekoa, epealdi horietan, ezin izango da ondasunaren kostuaren 100eko 50etik gorakoa izan ondasun higigarrien kasuan, edo kostu horren 100eko 10etik gorakoa, berriz, ondasun higiezinen edo industri establezimenduen kasuan.

Hamazazpigarrena. Kreditu erakundeek egindako eragiketa jakin batzuei aplikatzeko zerga erregimena.[294]

1. Foru arau honetako VIII. tituluaren X. kapituluan aurreikusitako zerga erregimen berezia, zerga erregimen horretara jotzen duten beste zergetan dituen eraginak barne harturik, aplikatu egingo zaie ondoren datozen aktibo eta pasibo eskualdaketei, baita foru arau honetako 90. eta 101. artikuluetan aipatutako eragiketekin bat ez datozenetan ere, baldin eta emaitza ekonomiko baliokideak badituzte; eskualdaketa hauek dira:

a) Finantza bitartekarien inbertsiokoefizienteei, baliabide propioei eta informazio obligazioei buruzko maiatza-ren 25eko 13/1985 Legeak 8. artikuluaren 3. apartatuko d) letran aipatzen duen babes sistema instituzional bat eratzeko eta handitzeko egindakoak.

b) Kreditu entitateak berregituratzeko prozesuetan egindakoak, baldin eta Bankuen Berregituratze Ordenaturako Fondoak esku hartuta egin badira uztailaren 26ko 9/2009 Errege Lege-Dekretuak, bankuen berregituratze-ari eta

---

[292] Hamabosgarren xedapen gehigarri hau zerga neurri batzuk onartzen dituen urriaren 28ko 10/2005 FORU ARAUAren 3. artikuluaren lau zenbakiak aldatu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean sartzen da indarrean. Hala ere, aldaketa honek 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izango ditu ondorioak (2005-11-03aren GAO).

[293] Xedapen gehigarri hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUAren 2. artikuluaren ordinal lehenaren sei apartatuak erantsi du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean. Aldaketak 2010-1-1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ditu ondorioak. (2010-12-28ko GAO)

[294] Xedapen gehigarri hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUAren 2. artikuluaren ordinal bigarrenak erantsi du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean. Eransketak 2010-07-14tik aurrerako ondorioak ditu. (2010-12-28ko GAO). Hala ere, xedapen iragankorraren 2. apartatuak dioenaren arabera, hamazazpigarren xedapen gehigarri honetan xedatutakoa aplikatuko da dagozkion eragiketak egin diren zergaldietan, eragiketa hauek 2010eko uztailaren 14a baino lehen edo ondoren eginak diren alde batera lagata.

kreditu entitateen baliabide propioak indartze-ari buruzkoak, 7. artikuluan aipatzen duen moduan.

2. Sozietateen gaineko Zergako oinarri ezargarrian sartu gabe geratu ahal izango dira ondare elementuak eskualdatzean sortutako errentak, aurreko apartatuko a) letrak aipatzen duen babes sistema instituzionaleko akordioak betez kreditu erakundeek egindako aktibo eta pasibo truke baten ondoriozkoak. Horretarako baldintza izango da, dena den, erakunde eskuratzaile bakoitzak zerga ondorioetarako baloratzea elementu eskuratuak, hain zuzen hauek erakunde eskualdatzailean eskualdaketa egin aurretik zeukaten balioaz; eta balorazio horixe hartuko da kontuan, geroago elementu horiei loturik sortzen diren errentak zehazteko.

3. 11/2010 Errege Dekretu Legeak, uztailaren 9koak, aurrezki kutxen gobernu organoei eta araubide juridikoaren beste alderdi batzuei buruzkoak, bere 5. artikuluan aurreikusten duenarekin bat aurrezki kutxak zeharka ari baldin badira jarduera finantzarioan, aurrezki kutxak eta honek bere negozio finantzario osoaren ekarpena egiten dion kreditu erakundeak aukera izango dute foru arau honetako VIII. tituluko IX. kapituluan erregulatutako bateratze fiskaleko erregimena aplikatzeko, baldin eta 74. artikuluan horretara begira ezartzen diren eskakizunak ere betetzen badira.

Bateratze fiskaleko erregimena aplikatu ezean, erakundeek Zergaren erregimen orokorra aplikatuko dute. Dena den, hurrengo apartatuan xedatutakora jo beharko da.

4. 11/2010 Errege Dekretu Legeak, uztailaren 9koak, aurrezki kutxen gobernu organoei eta araubide juridikoaren beste alderdi batzuei buruzkoak, xedatzen duenari atxikitako kutxen gizarte ekintzarako zuzkidurak murriztu ahal izango du bankuaren oinarri ezargarria zeharkako jarduera finantzarioaren kasuan, bateratze fiskaleko erregimena aplikatzeke, edo babeseko sistema instituzionalaren erakunde zentralarena, aipatu banku edo erakunde zentral horretatik jasotako dibidenduek kutxaren sarrera guztiekiko egiten duten proportzio berean, foru arau honetako 23. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, eta aipatutako dibidenduen zenbatekoa izaki gehienezko muga.

Horretarako, kutxak aditzera eman beharko dio dibidenduak ordaindu dituen banku edo erakunde zentralari horrela kalkulatutako murriztapenaren zenbatekoa, murriztapen horren zenbatekoari dagokionez aipatu 23. artikuluan xedatutakoari uko egiteko erabakiarekin batera; hala eta guztiz, kutxak aplikatu egin beharko ditu gizarte-ongintzari atxikitako kopuruak, artikulu aipatuan ezarritako baldintzetan betiere. Hau bete ezean, banku edo erakunde zentralari eman beharko zaio aditzera halaber, hain zuzen kendutako kopuruen erregularizazioa egitearren foru arau honetako 127. artikuluko 3. apartatuan ezarritako baldintzetan.

Hemezortzigarrena. Ekarpenak itzuliz eta jaulkipen-prima banatuz gauzatutako kapital murriztapenak, Sozietateen gaineko Zergako karga tasa orokorraren mendean ez dauden kapital aldakorreko inbertsio sozietateek eginak.[295]

[295] Xedapen gehigarri hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUAren 2. artikuluaren ordinal laugarrenak erantsi du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo

1. Foru arau honetako 15. artikuluko 4. apartatuan xedatua hor badago ere, ekarpenak itzuliz egiten diren kapital murriztapenen eta jaulkipen-primaren banaketa kasuetan, inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko 35/2003 Legeak, azaroaren 4koak, erregulatzen dituen eta Sozietateen gaineko Zergako karga tasa orokorraren mendean ez dauden kapital aldakorreko inbertsio sozietateak direnean egileak, integratu beharreko errentak kalkulatzeko honako arau hauek beteko dira:

a) Kapitala ekarpenak itzuliz murrizten den kasuan, kapital murriztapenean jasotako kopuru osoa, akzioen likidazio balioak eskuratu edo harpidetu zirenetik kapital soziala murriztu den unea arte izan duen igoeraren mugaz, integratu egingo da bazkidearen oinarri ezargarrian, kuota osoan inolako kenkaririk aplikatzeko eskubiderik gabe.

b) Jaulkipen-prima banatzeko kasuan, kontzeptu honetan jasotzen den zenbatekoa dena dela, hau bazkidearen oinarri ezargarrian integratuko da, kuota osoan inolako kenkaririk aplikatzeko eskubiderik gabe.

2. 1. apartatuan xedatutakoa aplikatuko zaie beste estatu batean erregistratuta dauden inbertsio kolektiboko erakundeei, kapital aldakorreko inbertsio sozietateen baliokideei alegia, beren akzioak erosi, laga edo berreskuratzeko unean, inbertsiogile-talde murriztuekiko dituzten mugak direnak direla; edonola ere, aplikatu egingo zaie balio higigarrietako inbertsio kolektiboko erakunde jakin batzuei buruzko lege, arau eta administrazio mailako xedapenak koordinatzen dituen Europar Legebiltzar eta Kontseiluaren 2009/65/EE Zuzentarauak, 2009ko uztailaren 13koak, babesten dituen sozietateei.

Hemeretzigarren xedapen gehigarria. Ondasun higiezinen errentamendua ustiapen ekonomikotzat hartzea.[296]

Foru arau honek jasotakoaren ondorioetarako, ulertuko da ondasun higiezinen errentamendua ustiapen ekonomikotzat hartzen dela abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 25. artikuluan jasotako zirkunstantziak gertatzen direnean.

Hogeigarren xedapen gehigarria. Enpresa emakidadunek eraiki edo eskuratutako azpiegituretan egiten diren inbertsioak.[297]

Foru arau honetan xedatutakoaren ondorioetarako, enpresa emakidadunak emakidaren akordiori lotutako zerbitzu publiko bat emateko eraikitako edo erositako azpiegituretan egiten diren inbertsioak beren izaeraren araberako aktibo

---

egunean jarri zen indarrean. Eransketak 2010-11-01etik aurrera egindako kapital murriztapenetarako eta jaulkipen-primen banaketarako ditu ondorioak. (2010-12-28ko GAO)

[296] Xedapen gehigarri hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAren 3. artikuluko lehen ordinalaren zazpi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean. Aldaketak 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ditu ondorioak (2011/12/27ko GAO).

[297] Xedapen gehigarri hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAren 3. artikuluko lehen ordinalaren bederatzi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean. Aldaketak 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ditu ondorioak (2011/12/27ko GAO).

ez-korrontetzat hartuko dira, betiere abenduaren 23ko EHA/3362/2010 Agindua, Kontabilitate Plan Orokorra azpiegitura publikoen enpresa emakidadunei egokitzeko arauak onartzen dituena, indarrean jarri denetik aurrera ibilgetu ukiezin edo aktibo finantzario gisa kontabilizatu badira.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Kontabilitatez kanpoko doiketak erregularizatzea.

Foru Arau honek ondorioak sortu baino lehen hasten diren zergaldien Sozietateen gaineko Zergaren oinarri ezargarriak zehazteko egindako kontabilitatez kanpoko doiketa positibo eta negatiboak beren arau erregulatzaileetan ezarritakoaren arabera hartuko dira kontuan aipatu Foru Araua aplikagarri duten zergaldien oinarri ezargarriak kalkulatzeko.

Errenta bat ezingo da inolaz ere kontuan hartu gabe utzi edo bi aldiz aintzat hartu Sozietateen gaineko Zergaren oinarri ezargarria zehazteko.

Bigarrena. Hidrokarburoen ustiapenari lotutako elementuak amortizatzea.

Foru Arau honek ondorioak sortzerakoan uztailaren 30eko 2362/1976 Erret Dekretuak, hidrokarburoen ikerketa eta ustiapenenari buruzko 1974ko ekainaren 27ko Legearen Erregelamendua onartzen duenak, 47. artikuluko B.1. atalean ezartzen dituen gehienezko amortizazio-koefizienteen arabera amortizatzen ari diren aktiboak koefiziente horiek aplikatuz amortizatu ahal izango dira, baina Foru Araua indarrean sartzen den egunetik hasi eta gehienez hogei urteko epean guztiz amortizaturik egon beharko dute.

Hirugarrena. Agortze faktorearen zuzkiduretan inbertitu gabe gelditu diren saldoak. 21/1974 Legearen bidez araututako hidrokarburoen ikerkuntza eta ustiapen lanak.[298]

1. Hidrokarburoak miatu, ikertu eta ustiatzeko zuzenbide arauei buruzko ekainaren 27ko 21/1974 Legeak eta Meatzaritza Sustatzeko urtarrilaren 4ko 6/1977 Legeak esandakoaren babesean agortze faktorerako gaitzen diren zuzkidurak foru arau hau indarrean jarri baino lehen inbertitu gabe gelditzen direnean, beren legeetan ezarritako baldintzak eta beharkizunak betez inbertitu beharko dira, bere egunean egindako kenkaria kontsolidatzeko.

2. Foru arau honetan hidrokarburoen ikerkuntza eta ustiapen lanei buruz jasotako xedapenak aplikagarriak izango zaizkie ikerketa baimena eta ustiapen emakida dituzten entitateei, baldin eta Hidrokarburoen Ikerketa eta Ustiapenaren Zuzenbide Arauei buruzko ekainaren 27ko 21/1974 Legearen bidez araututa jarraitzen badute.

Laugarrena. Salbuespena berrinbertitzeagatik.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 61/1978 Legean araututako zergaldiei egozten zaizkien ondare gehikuntzak lege horren 15.8 artikuluak berrinbertsioa dela-eta jasotzen duen salbuespenera bilduta

[298] 3.Xedapen iragankor hau Zerga Neurriei buruzko apirilaren 27ko 3/1999 Foru Arauaren 3. Artikuluak aldatu du. 1999ko maiatzaren 3an sartu zen indarrean.

daudenean, artikulu horretan esandakoaren arabera arautuko dira, baita berrinbertsioa Foru Arau honek ondorioak sortu ondoren eginda ere.

Bosgarrena. Birmoldaketa eta berrindustrializazioaren zerga-onurak.

Birmoldaketari buruzko Erret Dekretuen ondorioz ukituta gertatzen diren subjektu pasiboek Birmoldaketa eta Berrindustrializazioaren 27/1984 Legean ezarritako zerga-onurak izango dituzte, aipatu dekretuetan aurrikusten den eran.

Seigarrena. 12/1988, 5/1990 eta 30/1990 Legeen zerga-onurak.

Maiatzaren 25eko 12/1988 Legeak, hots, “Sevilla 1992 Erakusketa Unibertsala”, “Amerikako Aurkikundearen V. Mendeurrenaren Ospakizunak” eta “Bartzelona 1992 Joku Olinpikoak” programei zerga-onurak emateari buruzkoak, Lehen Xedapen Gehigarriaren 2. eta 16. artikuluetan aipatzen dituen entitateak, ekainaren 29ko 5/1990 Legeak, Aurrekontu, Finantza eta Zerga alorreko Neurriei buruzkoak, Bosgarren Xedapen Gehigarrian aipatutakoak, eta abenduaren 27ko 30/1990 Legeak, “Madril 1992 Europako Kulturaren Hiriburua” programari Zerga-Onurak emateari buruzkoak, Laugarren Xedapen Gehigarrian aipatutzen dituenak, behar den denboran jarraituko dute arau horietan ezarritako erregimen tributarioarekin beren likidazioa amaitu arte.

30/1990 Legearen 2. artikuluan aipatzen den entitateak behar den denboran jarraituko du bertan ezartzen den erregimen tributarioarekin, lege horren amaierako bigarren xedapenak dioenaren arabera, likidazioa amaitu arte.

Zazpigarrena. Finantza errentamenduak.

Foru Arau honek ondorioak sortu baino lehen finantza errentamenduko kontratuak hitzartu baldin badira eta kontratu horien ondorioz eman behar diren ondasunak indarrean sartze hori gertatu baino lehen eman bazaizkio erabiltzaileari edo, ondasun higiezinak izanez gero, indarrean jarri eta hurrengo bi urteko epean ematen direnean, aipatu kontratuak uztailaren 29ko 26/1988 Legeak, Kreditu Entitateen Disziplina eta Interbentzioari buruzkoak, zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera arautuko dira osorik bete egin arte.

Zortzigarrena. Foru Arau honek ondorioak sortu baino lehen eskuratutako merkataritza fondoak, markak, traspaso eskubideak eta ibilgetu inmaterialaren beste elementu batzuk.

1.- Foru Arau honen 11. artikuluko 6. atalean jasotakoa Foru Arau honek ondorioak sortu baino lehen eskuratutako merkataritza fondoen, marken, traspaso eskubideen eta ibilgetu inmaterialen beste elementu batzuen eskurapen balioari aplikatuko zaio, baina beti ere oinarri ezargarria zehazterakoan deduzituak izan ez direnean kontabilitate aldetik jada amortizaturik egon arren.

2.- Foru Arau honen 96. artikuluak 3. atalaren bigarren parrafoan aurrikusitakoa abenduaren 9ko 98/1992 Foru Dekretuak, bategite, zatiketa, aktibo-ekarpen, balore-truke eta sozietate matrize nahiz filialen hainbat alderdi arautzekoak, 10. artikuluan aipatzen dituen eragiketetan ere aplikatuko da, nahiz eta kontabilitate ondorioetarako amortizazioa jada egina egon.

3.- Enpresak Bategiteko Zerga-Erregimenari buruzko abenduaren 26ko 76/1980 Legeak babesten dituen eragiketetatik sortutako merkataritza fondoen amortizazioa ez da inoiz gastu kengarritzat joko, non eta merkataritza fondo

horien zenbatekoa oinarri ezargarrian sartu ez den eta dagokion kuota hobaritua izan ez den.

Bederatzigarrena. Abenduaren 26ko 76/1980 Legean, Enpresak Bategiteko Zerga-Erregimenari buruzkoan, sartzen diren bategiteak.

Abenduaren 26ko 76/1980 Legeak, Enpresak Bategiteko Zerga-Erregimenari buruzkoak, ezarritakoaren barruan sartzen diren eragiketetariko bat egin ondoren, ondare elementuak eskualdatzen badira bost urte igaro baino lehen ondasun higiezinen kasuan eta hiru urte igaro aurretik ondasun higigarriak izanez gero, eta eragiketa horien ondorioz ondare elementu horiek errebalorizatu egiten badira, errebalorizazioaren zenbatekoa ez da eskurapen balioan konputatuko non eta eskualdaketan lortutako balio efektiboa Foru Arau honen 22. artikuluak dioenaren arabera berrinbertitzen ez den, bertan ezartzen den erregimena osorik aplikatuko baita orduan.

Hamargarrena. Berrinbertsioagatiko kenkaririk izan ez duten saldoak.

1.- Foru Arau honek ondorioak sortu baino lehenagoko ekitaldietan sortutako zerga-onurei dagozkien eta deduzitu gabe dauden kopuruak beren araudietan eta Foru Arau honen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera aplikatuko dira.

2.- Subjektu pasiboak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen urriaren 15eko 2631/1982 Erret Dekretuak 218.3 artikuluan ezarritakoaz baliatuz, erabakitzen badu inbertsioengatiko kenkaria aktibo finko material berrietan aplikatzea ordainketak egiten diren zergaldien barruan, kenkaria Foru Arau honek ondorioak sortu eta gero hasten diren zergaldien likidazioetan aplikatuko da arau horretan aurrikusten diren baldintzei jarraituz, eta kuota likidoa aurreko parrafoan definitutakoa izango da.

Hamaikagarrena. Foru Arau honek ondorioak sortu baino lehen negatiboak diren oinarri ezargarriak.

Foru Arau hau aplikagarria den zergaldiaren hasieran konpentsatu gabe dauden oinarri ezargarri negatiboak arau horren 24. artikuluko 1. atalean ezartzen den epean konpentsatu ahal izango dira, eta epe hori oinarri ezargarri negatiboak zehaztu eta hurrengo zergaldiaren hasieratik aurrera hasiko da kontatzen.

Hamabigarrena. Estatuaren erregimen tributarioa edo beste edozein entitate salbuetsirena asimilatzeko arau bat dela medio salbuesten diren entitateak.

Foru Arau hau indarrean sartzean gertatzen bada entitate batek, arau bat dela medio Estatuaren erregimena edo beste edozein entitate salbuetsirena aplikagarri duela eta, horren ondorioz, Sozietateen gaineko Zergan salbuetsita dagoela, salbuespen hori gozatzen jarraitu ahal izango du Foru Arau honek ondorioak sortu eta hurrengo hiru urteetan hasten diren zergaldietan.

Hamahirugarrena. Kaudimengabeziari aurre egiteko urriaren 15eko 2631/1982 Erret Dekretuaren 82. artikuluan jasotzen diren hornidura-saldoak.

Foru Arau honek ondorioak sortzerakoan subjektu pasiboek kaudimengabeziari aurre egiteko fondo bat eratua baldin badute Sozietateen gaineko Zergaren

Erregelamendua onartzen duen urriaren 15eko 2631/1982 Erret Dekretuaren 82. artikuluko 6. atalean araututako sistemaz baliatuz, data horretan kobragaitzak diren kredituak estaltzeko erabiliko dute saldoa, eta soberakina egonez gero, geroago sortzen diren krediuei egingo diete aurre osorik kitatu arte. Bitartean, kreditu horiek estaltzeko egiten diren dotazioak ez dira kengarriak izango.

Hamalaugarrena. Aitorpen kontsolidatuaren erregimena.

Foru Arau honek ondorioak sortzerakoan aitorpen kontsolidatuaren erregimena erabiltzen duten sozietate-taldeek erregimen horrekin jarraituko dute, eta Foru Arau honen VIII. tituluaren IX. kapituluan ezarritako arauak aplikatuko zaizkie.

Hamabosgarrena. Onuren erregimen iragankorra finantza eragiketetan.

Beren legeria espezifikoan, abenduaren 27ko 61/1978 Legeak hirugarren xedapen iragankorraren 2. atalean, eta berau garatzen duten arauetan ezarritakoaren arabera, finantzaketa eta berfinantzaketa eragiketak burutzeko 1979ko urtarrilaren 1ean zerga honetan onurak aitortuak zituzten saripeko autobideen sozietate emakidadunek, eskubide hori kontserbatuko dute gaur ere. Oro bat, Foru Arau honek ondorioak sortzen dituen egunean, ondoko lege-testuetan jasotzen den hobaria gozatzen zuten subjektu pasiboek hura aplikatzen jarraituko dute Ekonomia eta Hazienda Ministraritzak hala erabakita. Hona hemen aipatu hobaria jasotzen duten lege-testuak: Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 61/1978 Legearen 25.c) artikulua; Sozietateen gaineko Zergaren kuotak hobaritzeari buruzko maiatzaren 29ko 5/1980 Erret Lege Dekretuaren 1. artikulua, korporazio lokalek, elkarte autonomoek eta estatuak mailegu edo enprestitoengatik ordaindu beharreko interesei buruzkoa; “Sevilla 1992 Erakusketa Unibertsala”, “Amerikako Aurkikundearen V. Mendeurrenaren Ospakizunak” eta “Bartzelona 1992 Joko Olinpikoak” programen Zerga-Onurei buruzko maiatzaren 25eko 12/1988 Legearen 6., 5. eta 20. artikuluak, eta “Madril 1992 Europako Kulturaren Hiriburua” programaren Zerga-Onurei buruzko abenduaren 27ko 30/1990 Legearen 6.5 artikulua.

Hamaseigarrena. Inbertsio kolektiboko erakundeen partaidetzen balio fiskala.

Foru Arau honek 65. artikuluan aipatzen duen likidazio-balioaren soberakina kalkulatzeko, Foru Arau hau aplikagarri den lehen zergaldiaren lehen egunean dagoen likidazio-balioa hartuko da eskurapen balio bezala, subjektu pasiboak egun horretan dituen akzio eta partaidetzei begiratuta beti ere. Akzio edo partaidetzak eskualdatuz edo berreskuratuz lortzen diren errentak zehazterakoan, balio horren eta eskurapen balio efektiboaren arteko diferentzia ez da eskurapen baliotzat hartuko.

Inbertsio kolektiboko erakundeek banatzen dituzten dibidenduak eta mozkin-partaidetzak Foru Arau hau indarrean sartu baino lehen lortu diren mozkinetatik datozenean, bazkide edo partaideen oinarri ezargarrian sartuko dira. Zentzu horretan, banatutako lehen erreserbak irabazi diren lehen mozkinekin ordaintzen direla ulertuko da.

Hamazazpigarrena. Eguneratze kontuak.

1.- Foru Arau hau indarrean sartzen denetik aurrera, honako kontu hauen saldoak, hots, “1979ko Aurrekontuen Legearen Egunerapena”, “Atzerriko aktiboen Egunerapena, 1980ko Aurrekontuen Legea” eta “1983ko Aurrekontuen

Legearen Egunerapena” izenekoak, eta beste arau baterakorretatik datozenak, legezko erreserbara traspasatuko dira, gerakina, baldin badago, libreki erabiltzeko erreserbetara eramango delarik.

2.- Eguneratutako elementuak amortizatzeko arauak beren hartan jarraituko dira aplikatzen elementu horien erabilgarritasun aldia amaitu arte.

Hemezortzigarrena. Kenkaria nazioarteko ezarpen bikoitzagatik.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 61/1978 Legeak 24. artikuluko 4. eta 5. ataletan nazioarteko ezarpen bikoitzagatik ezartzen duen kenkaria jaso ez duten kopuruak Foru Arau honek ondorioak sortzen dituen unetik aurrera hasitako zergaldien likidazioetan aplikatuko dira aipatu artikuluan jasotzen diren baldintzei jarraituz.

Hemeretzigarrena. Entitate gardenen tributatzea.

Foru Arau hau aplikagarri den lehen hiru zergaldietako bakoitzean sozietate gardenei aplikatuko zaien karga-tasa % 0, % 10 eta % 20koa izango da hurrenez hurren. Egozten ez den oinarri ezargarriaren zatia tributatzeko, berriz, tasa orokorra aplikatuko da.

Hogeigarrena. Kenkaria partaidetza-kontuetako dibidenduen ezarpen bikoitzagatik.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 61/1978 Legearen 14 b) artikuluak edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 13/1991 Foru Arauaren 37.1 artikuluak diotenarekin bat etorriz, gestore ez den partaidearen partzaidetza-kontuen emaitzak partaide gestorearen oinarri ezargarrian sartu baldin badira, emaitza horiek dibidenduen ezarpen bikoitzagatiko kenkaria jasotzeko eskubidea sortaraziko dute, edo, bestela, Foru Arau honen 19. artikuluan aurrikusitako salbuespena.

Hogeita batgarrena. Otsailaren 16ko 1/1995 Foru Arauan Produkzio-Inbertsioetarako aurrikusten den Erreserba Berezia gauzatzea.

Otsailaren 16ko 1/1995 Foru Arauan xedatutakoaren ondorioz gertatuko balitz Foru Arau hau aplikagarri bihurtu eta lehen ekitaldian hasieran aipaturiko Foru Arauaren babesean Produkzio Inbertsioetarako dotatzen den Erreserba Berezia gauzatzen dela, eta halaber, Foru Arau honen 37. artikuluan jasotzen den kekaria inbertsio berberetarako aplika daitekeela, kenkari hori dotazioaren unean aplikagarri den karga-tasa gauzatutako inbertsioaren % 40ari aplikatzetik sortzen den zenbatekoa gutxituko zaio.

Hogeita bigarrena. Bategiteak eta zatiketak.

Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu baino lehen erabakitzen diren bategite eta zatiketak abenduaren 9ko 98/1992 Foru Dekretuak, bategite, zatiketa, aktibo-ekarpen, balore-truke eta sozietate matrize nahiz filialen zenbait alderdi arautzekoak, ezarritakora jarriko dira, baina, beti ere, behar diren baldintzak betetzen badituzte eta interesatuek Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabete igaro aurretik eskatzen badute.

Nolanahi ere, interesatuek Foru Arau honetan ezarritako erregimena aukeratu ahal izango dute, zerga administrazioaren organo eskudunari jakinarazi eta gero.

Hogeita hirugarrena. Ganbararen baliabide iraunkorra.

Sozietate gardenen bazkideek ganbararen baliabide iraunkorragatik zenbat ordaindu beharko duten honela zehaztuko da Foru Arau hau aplikagarri den lehen hiru zergaldietan:

1. Sozietate horien oinarriak bazkideei egozten zaizkienean, hauen oinarrietan ere sartuko dira ganbararen baliabide iraunkorraren ondorioetarako, pertsona fisiko edo juridiko gisa duten izaeraren arabera.

2. Aurreko atalean esandakoa aplikatzetik sortzen den kuota, sozietate gardenek kontzeptu horrengatik ordainduriko zenbatekoan gutxituko da.

Hogeita laugarrena[299]. Foru Arau honetan ezartzen diren zerga onura jakin batzuen aplikazioa.

Entitateen zergaldia 1996ko urtarrilaren 1a baino lehen hasi eta egun horren ondoren amaitzen denean, entitate horiek beren esku izango dute 1996ko urtarrilaren 1etik hasi eta zergaldia amaitu arte gertatzen diren egoerei Foru Arau honek VII. tituluaren IV., V. eta VI. kapituluetan jasotzen diren zerga onurak aplikatzea.

Hogeita bosgarrena. Kuota txikiegia izateagatik aplikatu ez diren kenkariak.[300]

Foru arau honek VII. tituluaren IV., V. eta VI. kapituluetan jasotzen dituen kenkariak ez badira aplikatu 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehen zergaldia abiatzen denean, zergaldi horretan indarrean dagoen foru arauak 46. artikuluan ezarritako epean eta baldintzekin aplikatu ahal izango dira, kenkari horiek frogatu diren zergaldia behin amaitu ondoren.

Hogeita seigarrena. Kenkaria esportazio jarduerengatik.[301]

---

[299] 24. xedapen iragankor hau uztailaren 8ko 4/1997 Foru Arauaren 11. artikuluak gehitu du. Sozietateen gaineko Zerga eta Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen dituzten foru arauen hainbat artikulu aldatzen dira aipatu foru arauan eta 1996ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu.

[300] Hogeita bosgarren xedapen iragankor hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 93.artikuluak gehitu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. Hala ere, hogeita bosgarren xedapen iragankor hau 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldiei aplikatuko zaie amaierako laugarren xedapenak dioen moduan.(GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

[301] Xedapen iragankor hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 16.Lehena.Hamazortzi artikuluak gehitu du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

Foru arau honetako 43. artikuluan ezartzen den kenkaria, 2006ko abenduaren 31n indarrean dagoen idazketan jasotakoa, ondoko kenkari portzentajeekin aplikatuko da:

a) 100eko 12, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako.

b) 100eko 9, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako.

c) 100eko 6, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako.

d) 100eko 3, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako.

Xedapen iragankor honetan aipatzen diren esportazio jarduerek ez dute kenkari honetarako eskubiderik emango 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan, baina horrek ez du eragotziko xedapen horretako azken paragrafoan ezarritakoa aplikatzea.

Xedapen iragankor honetan aipatzen den kenkariaren eremutik kanpo egongo dira banaketa-sare bat ezarri eta ustiatzeko jarduerak Ogasun Zuzendaritza Nagusiaren uztailaren 11ko 25/2006 Ebazpenarekin bat; ebazpen hori Europako Batzordeak E 22/2004-Espainia estatu laguntzari buruz 2006ko martxoaren 22ko emandako erabakiaz geroztik Sozietatearen gaineko Zergan esportazio jarduerengatiko kenkaria aplikatzeko ezarritako mugei buruzkoa da.

Xedapen iragankor honetan jasotako kenkaria foru arau honetako IV., V. eta VI. kapituluetan ezartzen diren kenkariekin batera aplikatuko da, betiere kontuan izanik foru arau horretako 46. artikuluak, indarrean duen idazkeraren arabera, xedapen iragankor honetan adierazten diren zergaldi guztietarako xedatutakoa.

Hogeita zazpigarrena. Ondare sozietateen oinarri ezargarri negatiboak eta kentzeko dauden saldoak.[302]

1. Ondare sozietateek ezin izango dituzte konpentsatu 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietako oinarri ezargarriak lehenagoko beste zergaldi - batzuetako oinarri ezargarri negatiboekin.

2. Ondare sozietateek ezin izango dituzte aplikatu 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan lehenagoko beste zergaldi batzuetan egin gabeko kenkariengatik edo horietan sortutako bestelako zerga-onurengatik kendu gabe dauden kopuruak.

Hogeita zortzigarrena. Ondare sozietateen araubide iragankorra. Araubide orokorraren arabera tributatzea.[303]

---

[302] Xedapen iragankor hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 16.Lehena.Hemeretzi artikuluak gehitu du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

[303] Xedapen iragankor hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 16.Lehena.Hogei artikuluak gehitu du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

1. Zergaldia 2006aren barruan hasi eta 2007. urtean amaitzen duten ondare sozietateen oinarri ezargarria bi arau hauek aplikatuz zehaztuko da: Foru Arau hau, 2006ko abenduaren 31n indarrean zegoen testuaren arabera, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 24ko 8/1998 Foru Araua, egun horretan amaitutako zergaldiei aplikatzekoa zaien testuaren arabera.

2. 2007ko urtarrilaren 1a baino lehenago hasitako zergaldietan ondare sozietateen araubide berezia aplikatu izan duten entitateek egun horretatik aurrera hasten diren zergaldietan hala egiteari uzten diotenean, ondoko erregelak aplikatuko dira:

a) Sozietateak ondare sozietateen araubidearen pean tributatu zuen zergaldietan sortzapena izan zuten eta haietako oinarri ezargarrian sartu ez ziren errentak, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehenengo zergaldiari dagokion Sozietateen gaineko Zergaren oinarri ezargarrian sartuko dira. Ondare sozietateen araubidea aplikatuz subjektu pasiboaren oinarri ezargarrian sartu diren errentak ez dira berriro sartuko beren sortzapena gertatzen denean.

b) Ondare sozietateen araubidea aplikatzekoa izan den zergaldietan sortutako oinarri ezargarri negatiboak konpentsatzeke badaude 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehenengo zergaldiaren hasieran, foru arau honen 24. artikuluko 1. apartatuan ezarritako baldintza eta betebeharrekin konpentsatu ahal izango dira.

c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 24ko 8/1988 Foru Arauaren 81. artikuluan azaltzen diren dibidenduen ezarpen bikoitzagatiko kenkariak, ondare sozietateen araubidea aplikatzekoa izan den zergaldietan sortuak, aplikatzeke badaude 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehenengo zergaldiaren hasieran, %50ean edo %100ean egin ahal izango dira, foru arau honen 33. artikuluan ezarritako baldintza eta betebeharrekin.

d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1988 Foru Arauaren 78. artikuluan azaltzen diren kuota osoko kenkariak, ondare sozietateen araubidea aplikatzekoa izan den zergaldietan sortuak, aplikatzeke badaude 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehenengo zergaldiaren hasieran, foru arau honen 46. artikuluan (zergaldi horietarako testuaren arabera) ezarritako baldintza eta betebeharrekin egin ahal izango dira.

3. Ondare sozietateen araubide berezia aplikatzekoa izan den zergaldietan lortutako mozkinak banatzen direnean, edozein delarik ere ondare sozietateek lortutako mozkinak banatzen dituen entitatea, banaketa egiten den garaia edo entitateei garai horretan aplikatzekoa zaien zerga araubidea, jasotako mozkinak betiere oinarri ezargarriaren barruan sartuko dira eta dibidenduen ezarpen bikoitzagatiko kenkaria egiteko eskubidea emango dute, foru arau honetako 33. artikuluko 1. eta 4. apartatuetan ezarritakoaren arabera, baldin eta jasotzailea Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasibo bada, edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergaduna bada eta establezimendu iraunkorra badu.

4.[304] Foru arau honetako 33. artikuluan ezarritakoaren arabera barne jatorriko gainbalioen ezarpen bikoitza ekiditeko kenkaria ezin izango da inoiz ere aplikatu sozietateetako partaidetza eskualdatzean lortutako errentekiko, errenta horiek ondare sozietateen araubidea aplikatzekoa izan den ekitaldietan lortutako mozkinetatik datozen erreserbei badagozkie, edozein entitateren partaidetzak eskualdatzen direlarik ere, eta edozein delarik ere eskualdaketa egiten den garaia edo entitateei garai horretan aplikatzekoa zaien zerga araubidea, baldin eta jasotzailea Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergako zergaduna bada eta establezimendu iraunkorra badu.

Errenta hauek zehazterakoan, konputatu beharreko eskualdatze balioa, gutxienez, itxitako azken balantzetik ondorioztatzen den balio teorikoa izango da, atxiki gabeko aktiboen kontabilitate balioaren ordez Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergarako izango luketen balioa edo, txikiagoa izanez gero, merkatuko balio normala hartu eta gero.

Lehen paragrafoan xedatutakoa foru arau honen 33. artikuluko 3. apartatuan azaltzen diren kasuetan ere aplikatuko da.

5. Araubide berezi honen pean tributatu zuten sozietateek informazio eginbeharrak betetzen jarraitu beharko dute Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretuaren 46 bis artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hogeita hamargarrena. Ondare sozietateen desegitea eta likidazioa.[305]

1. Zenbait baldintza betetzen dituzten sozietateek desegitea eta likidatzea erabaki ahal izango dute, eta, horretarako, xedapen honetan ezartzen den zerga-araubidea aplikatuko da. Baldintzak dira:

a) Sozietateok ondare sozietate izaera izatea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 7ko 7/1996 Foru Arauko VIII. tituluko VIII. kapituluan –indarrean dagoen 2006ko abenduaren 31ko idazketan– ezartzen denarekin bat, 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldi guztietan eta izaera hori sozietateak iraungi arte mantentzea.

b) 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi den lehenengo zergaldiaren lehen hogeita lau hilabeteetan balio osoz hartzea desegitea likidazioarekin egiteko erabakia, eta erabaki horren ondoren eta 2009ko ekainaren 30aren aurretik, beharrezkoak diren egintza eta negozio juridiko guztiak egitea, merkataritzako araudiarekin bat, likidazio-aldian dagoen sozietatearen erregistroko idazpena deuseztatu arte.

2. Sozietateok desegin eta likidatzeak ondoko zerga araubidea izango du:

---

[304] Apartatu hau 10/2012 FORU ARAUAren, abenduaren 18koaren amaierako bigarren xedapenak aldatu du. Aipaturiko Foru Araua Aberastasunaren eta Fortuna Handien Gaineko Zergarena da (2012-12-21 GAO). Aldaketa 2013ko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean.

[305] Xedapen iragankor hau 2008ko uztailaren 9ko 3/2008 Foru Arauaren 16.Lehena.Hogeita bat artikuluak gehitu du. Aipatu Foru Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena, 2008ko uztailaren 11n sartu zen indarrean. Hala ere, bere 16. artilkuluan onartutako aldaketek 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango dituzte. (GAO 2008-07-11).

a) Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik salbuestea, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 18/1987 Foru Arauko 18. artikuluaren 1. apartatuko 1. zenbakiko «sozietateen desegitea» zerga egitatea, «sozietatearen eragiketak» kontzeptua dela eta.

b) Bazkideei hiri ondasun higiezinak esleitzen zaizkienean, ez da Hirilurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga sortuko. Higiezin horiek, ondoren, eskualdatu egiten badira, iraungitzen den sozietateak erosi zituen egunean erositzat joko dira.

c) Desegiten den sozietatearen Sozietateen gaineko Zergaren ondorioetarako, ez da inolako errentarik sortuko Espainiako lurraldeko egoiliar diren bazkideei –pertsona fisiko nahiz juridikoak– ondasun edo eskubideak eratxekitzen zaizkienean.

d) Desegiten den sozietateko bazkideen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako:

1. Desegiten den sozietatearen kapitaleko akzio edo partaidetzen eskuraketa balioa edo, izatekotan, titulartasun-balioa esleitutako zorren zenbatekoan gehituko da eta esleitutako kredituen eta diruaren edo hura ordezkatzen duen zeinuaren zenbatekoan gutxituko da.

2. Aurreko 1. zenbakian deskribatzen diren eragiketen emaitza negatiboa balitz, emaitza hori ondare-errenta edo -irabazitzat joko da, bazkidea pertsona fisikoa edo juridikoa izatearen arabera, hurrenez hurren, nolanahi ere, ondare irabaziak kalkulatzerakoan ez da aplikatuko Pertsona Fisikoen errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauko hamaikagarren xedapen iragankorra ezartzen dena.

Halakoetan, esleitutako krediturez, diruaz edo hura ordezkatzen duen zeinuaz bestelako aktiboko elementuetako gainerako bakoitzaren eskuraketa-balioa zero dela hartuko da.

3. Aurreko 1. zenbakian letra horretan deskribatutako eragiketen emaitza zero edo positiboa bada, ondare errenta edo galera edo irabazirik ez dagoela joko da.

Emaitza hori zero denean, esleitutako krediturez, diruaz edo hura ordezkatzen duen zeinuaz bestelako aktiboko elementuetako gainerako bakoitzaren eskuraketa balioa zero izango da.

Emaitza positiboa bada, esleitutako krediturez, diruaz edo hura ordezkatzen duen zeinuaz bestelako aktiboko elementuetako gainerako bakoitzaren eskuraketa-balioa ondokoa izango da: Emaitza positiboa bazkideen artean iraungitzen den sozietatearen amaierako likidazio-balantzetik ateratzen den merkatu balioaren arabera banatzetik ateratzen den balioa.

4. Bazkideari esleitutako krediturez, diruaz edo hura ordezkatzen duen zeinuaz bestelako elementuak bazkideak sozietateak erosi zituen egunean eskuratu zituela ulertuko da; edozelan ere, ondare-irabaziak kalkulatzerakoan ez da aplikatuko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauko hamaikagarren xedapen iragankorrean ezartzen dena.

3. Likidazio bidezko desegite prozesua amaitu arte bukatzen diren zergaldietan, betiere erregistro deuseztapena xedapen iragankor honen 1. apartatuko b) letran aipatutako epearen barruan egiten bada, ondare sozietateek nahiz horien bazkideek 2006ko abenduaren 31n aplikaziozkoa den arandia aplikatzen jarraituko dute. Zergaldi horietan ez da aplikatuko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauak hamaikagarren xedapen iragankorrean jasotakoa, sozietate horiek akzio edo partaidetzak eskualdatzen dituztenean.

Deuseztatzea epe hori igaro denean eginez gero, araubide orokorra edo ondare sozietateen araubidea izango da aplikatzekoa, kasu bakoitzean dagokiona.

Hogeita hamargarrena. Kentzeko dauden saldoak.[306]

2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehenengo zergaldiaren hasieran aplikatu gabe dauden zenbatekoak, kenkariei eta bestelako zerga-onurei dagozkienak, ezarpen bikoitzaren ziozko kenkariak izan ezik, eta zenbateko horiek egun hori baino lehenagoko zergaldietan badute jatorria, bada, orduan, zenbateko horiek zerga bakoitzaren araudian ezartzen denaren arabera aplikatuko dira, foru arau honen 46. artikuluan zergaldi horietarako zehazten diren betekizunekin; kuota txikia izateagatik kentzen ez diren kopuruak aplikatzeko epeari dagokion betekizuna ez da bete beharko, epe hori hamabost urtekoa izango baita beti.

Hogeita hamaikagarrena. Kenkariak eta beste zerga onura batzuk aldi baterako aplikatzea.[307]

1. 2007ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2011ko abenduaren 31 bitarteko zergaldietan, zergadunek %50eko kenkaria aplikatu ahal izango dute kuota osoan, gehienez langile bakoitzeko 200 euroko mugarekin, enpresen gizarte aurreikuspeneko tresnei zergaldian egindako ekarpenengatik, betiere tresna horiek Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 44. bis artikuluan eta bere erregelamenduzko garapenean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

2. Kenkariaren oinarriaren osagaiak izango dira:

- 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hitzarmen, akordio kolektibo edo antzeko xedapenen ondorioz eratzen diren enpresen gizarte aurreikuspeneko sistemei enpresek egindako kontribuzio edo ekarpen berriak.

- Dagoeneko existitzen diren enpresen gizarte aurreikuspeneko sistemei enpresek egindako kontribuzio edo ekarpen gehikuntzak, langilearen aldetik aurreko ekitaldikoaren aldean ekarpen handiagoa egitea dakartenean, betiere hitzarmen, akordio kolektibo edo antzeko xedapen bidez ezarritako ekarpen konpromisoen ondorio badira.

---

[306] Xedapen iragankor hau abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren 16. artikuluak gehitu du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eta 2007an hasi eta 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera bukatutako zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

[307] Xedapen iragankor hau abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren 17. artikuluak gehitu du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan eta 2007an hasi eta 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera bukatutako zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

Ez dira kenkariaren oinarrian sartuko enplegatzaileak hitzarmen, akordio kolektibo edo antzeko xedapenetan itundutakoen gainetik egindako borondatezko enpresa-kontribuzio edo ekarpenak.

3. Kenkari hau aplikatzeko, foru arau honek 46. artikuluan jasotakoa hartuko da kontuan. Bereziki, ez da zergaren kuota likidoaren %45 baino handiagoa izango artikulu horretan jasotako kenkarien eta xedapen iragankor honetan araututakoaren arteko batura."

4. Xedapen iragankor hau aplikatuko zaie, baita ere, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunei eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergen zergadunei.

Hogeita hamabigarren xedapen iragankorra. Ustezko errenten egozpena. [308]

Foru arau honen 124. artikuluaren 6. apartatuan arautzen den errenta egozpena arau horretan xedatutakoaren arabera dagokion zergaldiari aplikatuko zaio, salbu eta 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako zergaldiren bati egotzi behar izanez gero; halakoetan, data horren ostean hasten den eta erregularizatu daitekeen lehen zergaldiari egotziko zaio.

Hogeita hamahirugarren xedapen iragankorra. Finantza errentamenduko zenbait kontraturen zerga araubidea. [309]

Foru arau honetako 116. artikuluaren 10. apartatuan ezarritakoari jarraituta dagokion administrazio baimena 2013ko urtarrilaren 1a baino lehenago hasitako zergaldiren baten izan duten ondare elementuak 2012ko abenduaren 31n indarrean zegoen araudiaren arabera arautuko dira aipatutako artikuluaren ezarpenari dagokionez.

Hogeita hamalaugarren xedapen iragankorra. Ibilgailu jakin batzuen eskualdaketa. [310]

Foru arau honek 14. artikuluaren 3. apartatuan aipatutako ibilgailuetatik eratorritako errentak kalkulatzeko, baldin eta haiek 2013ko uztailaren 17ko 5/2013 Foru Arauak, zerga iruzurraren aurkako neurriei, kredituak kobratzeko elkarren lagun-tzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzkoak, xedapen hari buruz finkatzen duen ondorio dataren aurretik eskuratu badira, apartatu hartan xedatutakoa bete behar da, berezitasun hauek kontuan hartuta:

---

[308] Xedapen iragankor hau 2013ko uztailaren 17ko 5/2013 Foru Arauaren 3. artikuluko zortzi apartatuak gehitu du. Aipatu Foru Araua, zerga iruzurraren aurkako neurriei, kredituak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzkoa, argitaratu eta beharamunean jarri da indarrean (GAO 2013-07-22). 3. artikuluak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ditu ondorioak.

[309] Xedapen iragankor hau 2013ko uztailaren 17ko 5/2013 Foru Arauaren 3. artikuluko bederatzi apartatuak gehitu du. Aipatu Foru Araua, zerga iruzurraren aurkako neurriei, kredituak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzkoa, argitaratu eta beharamunean jarri da indarrean (GAO 2013-07-22). 3. artikuluak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ditu ondorioak.

[310] Xedapen iragankor hau 2013ko uztailaren 17ko 5/2013 Foru Arauaren 3. artikuluko hamar apartatuak gehitu du. Aipatu Foru Araua, zerga iruzurraren aurkako neurriei, kredituak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzkoa, argitaratu eta beharamunean jarri da indarrean (GAO 2013-07-22). 3. artikuluak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ditu ondorioak.

— Aipatutako apartatuko a).a' letraren bigarren paragrafoan aipatutako kopuru kengarriak zehazteko, kontuan hartuko dira egindako amortizazio fiskalki deduzituak, aurreko paragrafoan aipatu diren ondorio dataren aurrekoak barne.

— Aurreko paragrafoan jasotakoa ere aplikagarria izango da, apartatu horretako b).a' letraren bigarren paragrafoan aipatutako kopuru kengarriak zehazteko.

— Foru arau honek 15. artikuluaren 9. apartatuan aipatutako moneta zuzenketa kalkulatzeko –eskualdaketa horietatik eratorria–, kontuan hartuko dira bai erosketa prezioa edo produkzio kostua eta bai egindako amortizazio fiskalki deduzituak. Horrela kalkulatutako moneta zuzenketa ezingo da izan eskualdaketa harengatik lortutako errenta positiboen mugatik gorakoa.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

1.- Foru Arau hau indarrean behin sartuz gero, harekin bat ez datozen xedapen guztiak indarrik gabe geratzen dira eta, bereziki, honako hauek:

1. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 11ko 3/1990 Foru Arauaren amaierako laugarrena xedapena.

2. Otsailaren 26ko 3/1991 Foru Araua, zenbait finantza-aktiboren zerga araudiari buruzkoa.

3. Interes Ekonomikodun Taldeen zerga-erregimen arautzen duen abenduaren 10eko 84/1991 Foru Dekretuaren 2. artikulua.

4. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 13/1991 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarria, eta Ondasun Higiezinen gaineko Zergan egoiliarrak ez diren entitateei buruz dauden gainerako xedapenak.

5. Dirusarrera tributario okerrak itzultzeko prozedura arautzen duen urriaren 15eko 73/1991 Foru Dekretuaren 2. artikuluko 2. atalaren b) hizkiaren bigarren parrafoa.

6. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen otsailaren 25eko 21/1992 Foru Dekretuaren 66. artikukuko Hiru atala eta 69. artikuluko Bat atalaren g) hizkiaren bigarren parrafoa.

7. Azaroaren 24ko 93/1992 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga-araudia Sozietateen Erregimen eta Inbertsio Higigarrien Fondoei eta Titulazio Hipotekarioko Fondoei buruzko uztailaren 7ko 19/1992 Legeak ezarritakora egokitzen duena, bere 1., 2., 3., 4. eta 5. artikuluetan, Sozietateen gaineko Zergarekin zer ikusirik duen guztian.

8. Bategite, zatiketa, aktibo-ekarpen, balore-truke eta sozietate matrize nahiz filialen zenbait alderdi arautzen dituen abenduaren 9ko 98/1992 Foru Dekretuaren lehen eta bigarren tituluak eta lehen eta bigarren xedapen gehigarriak.

9. Inbertsioari laguntzeko eta ekonomi iharduera bultzatzeko presazko neurri fiskalei buruzko ekainaren 26ko 11/1993 Foru Arauaren lehen xedapen gehigarria.

10. Ganbararen baliabide iraunkorra ezarri eta arautzen duen abenduaren 28ko 22/1993 Foru Arauaren 1. artikuluko 2. atala.

11. Ekainaren 7ko 61/1994 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Elkarrekiko Bermea duten Sozietateen Erregimen Juridikoari buruzko martxoaren 11ko 1/1994 Legera egokitzen duena, 2.artikuluan.

12. Uztailaren 2ko 3/1992 Foru Araua, izaera tributarioko zenbait neurri ezartzen dituena eta Sozietate, Ondorengotza eta Dohaintzen gaineko Zergen eta Terrenoen Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren araudi erregulatzailea eta Inbertsiorako Pizgarri Fiskalen araudia aldatzen dituena, 1. artikuluan.

2.- Aurreko atalean xedatutakoa kontuan hartuta ere, ondoko hauek indarrean egongo dira:

1.- Uztailaren 15eko 7/1988 Foru Araua, Borondatezko Gizarte Aurrezaintzako Entitateen Erregimen Fiskalari buruzkoa.

2. Ekonomi Ihardueren gaineko Zerga, Kooperatiben Erregimen Fiskala eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga hainbat aspektutan arautzen dituen azaroaren 4ko 10/1991 Foru Arauaren lehen xedapen gehigarria.

3. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 13/1991 Foru Arauaren hamargarren xedapen gehigarria.

4. Otsailaren 18ko 19/1992 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia 1992rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 31/1991 Legera egokitzen duena, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergarekin loturan, zerga kontzeptu jakin batzuk Europako Elkarteetako Direktiba eta Arautegiekin bat etortzeko abenduaren 16ko 29/1991 Legean ezarritakora ere moldatzen duena. Bigarren xedapen gehigarria.

5. Inbertsioari lagundu eta ekonomi iharduera bultzatzeko presazko neurri fiskalei buruzko ekainaren 26ko 11/1993 Foru Arauaren 13. eta 14. artikuluak.

6. Otsailaren 1eko 3/1994 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga-araudia Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 29ko 21/1993 Legera eta Funtzio Publikoaren eta Langabezi Laguntzaren Erregimen Juridikoa aldatzeko neurri fiskalei buruzko abenduaren 29ko 22/1993 Legean jasotako zerga-neurrietara egokitzen duena. Lehen xedapen gehigarria.

7. Urtarrilaren 31ko 5/1995 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia 1995erako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 41/94 Legera eta Neurri Fiskal, Administratibo eta Gizarte mailakoak emateari buruzko 42/94 Legera egokitzen duen. Lehen xedapen gehigarria.

8. Ekonomia indartzean laguntzeko zerga-neurriei buruko otsailaren 16ko 1/1995 Foru Arauaren 13. artikulua.

9. Martxoaren 24ko 5/1995 Foru Araua, ekimen pribatuari interes orokorreko ihardueretan parte hartzeagatik zerga-pizgarriak ematekoa.

10. 1996ko Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorren otsailaren 5eko 1/1996 Foru Arauaren bigarren xedapen gehigarria.

11. Martxoaren 12ko 15/1996 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Aseguru Pribatuak antolatu eta ikuskatzeko azaroaren 8ko 30/1995 Legearen zenbait xedapen tributariotara egokitzen duena. 3. artikulua.

3. Foru Arau honen 130. artikuluan aurrikusten den arau-ahalmenaren indarrez emango den erregelamendua indarrean sartu arte, Foru Arau hau indarrean sartzean atxikitzeko obligazioari buruz dauden arauek beren hartan jarraituko dute Sozietateen gaineko Zergaren sujetu pasiboentzat.

4.- 1. atalean aipatu diren xedapenak baliogabetzeak ez ditu Foru Ogasunaren eskubideak kaltetuko haien indarraldian zehar sortu diren betebehar tributarioei dagokienez.

Foru Arau hau indarrean sartu baino lehen hasiak diren eta indarrean sartu eta gero amaitzen diren zergaldien betebehar tributarioak, zergaldi horiek hastean agintzen zuten arauei jarraituz exigituko dira.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa. Martxoaren 24ko 5/1995 Foru Arauak -Fundazioei buruzkoak eta ekimen pribatuari interes orokorreko iharduerетan parte hartzeagatik pizgarri fiskalak emateari buruzkoak- ezartzen duenera bildutako entitateak.

1. Martxoaren 24ko 5/1995 Foru Arauak -Fundazioei buruzkoak eta ekimen pribatuari interes orokorreko iharduerетan parte hartzeagatik pizgarri fiskalak emateari buruzkoak- atariko eta lehen tituluetan aurrikusten dituen baldintzak eta ezaugarriak betetzen dituzten entitateek arau horretan ezarritako erregimen tributarioa izango dute.

2. Ekimen pribatuari interes orokorreko iharduerетan parte hartzeagatik pizgarri fiskalak emateari buruzko martxoaren 24ko 5/1995 Foru Arauaren 15. eta 25. artikuluak honela geratzen dira idatzita:

“15. artikulua. Salbuespena berrinbertitzeagatik.

Ibilgetu material edo inmaterialaren ondare elementuak eta edozein motatako entitateen fondo propioetan dagoen partaidetzaren balore adierazgarriak dirutruk eskualdatzean agerian jartzen diren ondare gehikuntzak salbuetsita egongo dira. Azken kasu honetan kapital sozialean dagoen partaidetzak ez du % 5etik beherakoa izan beharko eta urtebete lehenago eduki beharko da gutxienez. Salbuespena lortzeko, dena dena, ezinbestekoa izango da irabazitakoa salbuetsita dauden iharduerетan inbertsio berriak egiteko erabiltzea.

Inbertsio berriak egiteko epea ondare elementua ematen edo eskura jartzen den egunaren aurreko urtean hasi eta hurrengo hiru urte bitartekoa izango da, eta zazpi urtez mantendu beharko dira entitatearen ondarean, non eta bere erabilgarritasun aldia, subjektu pasiboak Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 11. artikuluko 2., 3., 5. eta 6. ataletan onarturiko amortizazio metodoen artean aukera jakin bat egin duelako, laburragoa ez den.

Inbertsioa esandako epearen barruan egiten ez bada, lortutako errentari dagokion kuota osoa epea amaitzen den zergaldiaren kuotarekin batera ordainduko da, berandutza-interesak barne.”

“25. artikulua. Ondasunak dohaintzan emateagatik lortutako errenten tratamendua.

Foru Arau honek 22. artikuluko 1. eta 2. ataletan aipatzen dituen ondasunak dohaitzan emateagatik lortzen diren errentak, positiboak nahiz negatiboak izan, ez dira Zergari lotuta egongo dohaintza horiek foru arau honen I. tituluaren I. kapituluaren 1. sekzioan jasotzen diren entitateen alde egiten direnean”.

Bigarrena. Abenduaren 27ko 13/1991 Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa, aldatzea.

Bat. Zergak ordaintzeko obligazio errealean egindako aldaketak.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 13/1991 Foru Arauan honako artikuluok aldatu eta berridatzi dira:

1.- 17. artikulua.

“17. artikulua. Salbuespen kasuak.

Honako errentak egongo dira salbuetsita:

a) Ondasun higigarrietatik sortzen diren interesak eta ondare gehikuntzak, baldin eta Europako Batasuneko beste estatu batean egoitza duten pertsona fisikoek lortzen badituzte establezimendu iraunkor baten bitartekaritzarik gabe.

Aurreko parrafoan xedatutakoa ez da entitate baten akzio, partaidetza edo bestelako eskubideak eskualdatzearen ondorioz lortzen diren ondare gehikuntzetan aplikatuko honako kasu hauek gertatzen badira:

a`) Entitate horren aktibo nagusia, zuzenean edo zeharka, lurralde espainiarrean kokaturik dauden ondasun higiezinek osatzen badute.

b`) Eskualdaketa egin aurreko hamabi hilabeteetan subjektu pasiboak, bere ezkontideak edo hirugarren mailara arteko ahaidetasuna duten pertsonek, zuzenean edo zeharka entitate horren kapital edo ondarean gutxienik % 25eko partaidetza izan badute.

b) Zor publikotik sortzen diren interesak eta ondare gehikuntzak, baldin eta Espainian egoitzarik ez duten pertsona fisikoek lortzen badituzte Euskal Herrian kokaturiko establezimendu iraunkor baten bitartekaritzarik gabe.

Paradisu fiskal izaera duten herrialde edo lurraldeen bitartez lortzen diren interesei edo ondare gehikuntzei ez zaie a) eta b) hizkietan xedatutakoa inolaz ere aplikatuko.

c) Kapital higigarriaren etekinak eta ondare gehikuntzak, baldin eta horiek Espainian egoitza ez duten pertsona fisiko nahiz juridikoek Euskal Herrian kokaturiko establezimendu iraunkor baten bitartekaritzarik gabe jaulki dituzten baloreetatik sortuak badira. Ordainketen agente gisa diharduten edo baloreen jaulkipen nahiz eskualdaketan bitartekari lana egiten duten erakunde finantzarioen egoitza non dagoen gutxienekoa izango da.

Hala ere, baloreen titularra Gipuzkoan egoitza duen entitate bat edo Euskal Herrian kokaturiko establezimendu iraunkor bat denean, aurreko atalean aipatu

diren etekinak eta ondare gehikuntzak Zerga honi geldituko dira loturik, baita, hala badagokio, konturako atxekipenen sistemari ere. Konturako atxekipena baloreen gordailuzain gisa diharduen eta bertan egoitza duen entitate finantzarioak egingo du.

d) “Egoiliar ez direnen kontuak”, baldin eta lurralde espainiarrean egoitza ez duten pertsona fisikoei ordaintzen bazaizkie. Espainiako Bankua, Banketxeak, Aurrezki Kutxak, Baserritarren Aurrezki Kutxak, Kreditu Kooperatibak eta erregistraturiko gainerako entitateak direnean establezimendu iraunkorrari ordainketa egiten diotenak, kontu horiek ez dira salbuetsita egongo.

e) Euskal Herrian lortutako etekinak edo ondare gehikuntzak, baldin eta nazioarteko itsas edo aire nabigazioan erabiltzen diren edukiontzi, itsasuntzi edo aireuntziak hutsik errentan eman, lagatu edo eskualdatzeagatik lortuak badira establezimendu iraunkor baten bitartekaritzarik gabe.

2.- 19. artikulua.

19. artikuluko lehen eta hirugarren atalak honela berridazten dira:

“19. artikulua. Kuota tributarioa.

Bat. Aurreko artikuluaren arabera zehaztutako oinarri ezargarriari ondoko karga-tasak aplikatuko zaizkio:

a) % 25a, izaera orokorrez.

b) % 35a, ondare gehikuntzen kasuan.

Euskal Herrian kokaturiko ondasun higiezinak eskualdatzen badira eta eskualdaketa egiten duten subjektu pasiboak, establezimendu iraunkorrik ez edukitzeaz gain, Foru Arau honen 11.1 b) artikuluak aipatzen dituen ez egoiliarrak badira, erosleak kontraprestazioaren % 10a atxiki eta ordaindu beharko du edo dagokion konturako ordainketa egin ondasun horiei dagokien zergaren ordainketa kontzeptupean.

Aurreko parrafoan esandakoa ez da aplikatuko ondasun higiezinak eskualdaketa egin baino 20 urte lehenago erosi eta denbora horretan zehar hobekuntzarik izan ez badute.

c) Urtean 1.600.000 pezetako kopurua gainditzen ez duten pentsio eta hartzeko pasiboak Foru Arau honen 11.1.b) artikuluan aipatzen diren pertsona ez egoiliarrek jasotzen dituztenean, % 8ko tasaz kargatuko dira, jasotzeko eskubidea sorrarazi duen pertsona edozein dela ere.

d) Espainiak atzerrian dituen Misio Diplomatikoetan eta Kontsulatu Ordezkaritzetan aritzen diren pertsona fisiko ez egoiliarrek -Foru Arau honen 11.1.b) artikuluan aipatuek- lortzen dituzten lan etekinak % 8ko tasaz kargatuko dira, beti ere pertsona horiek zergak ordaintzeko obligazio pertsonala duten subjektu pasiboak ez direnean eta estatu espainiarrak parte hartzen duen nazioarteko tratatuetan ezarrita dauden arauak aplikatzerik ez dagoenean”.

“Hiru. Foru Arau honen 11.1.b) artikuluan aipatzen diren subjektu pasibo ez egoiliarrek establezimendu iraunkor baten bitartekaritzarik gabe sortutako etekinen ordaintzaileak, edo establezimendu iraunkor bati lotuta ez dauden subjektu pasibo ez egoiliar horien ondasun nahiz eskubideen gordailutza edo

gestio lana daramanak, erantzukizun solidarioa izango dute ordaindutako etekinengatik edo gordailatu nahiz gestionatu behar dituzten ondasun edo eskubideen errentengatik dauden zor tributarioen ordainketaren aurrean.

Ezin da ulertu pertsona edo entitate batek etekin bat ordaintzen duela, ordainketa batean bitartekaritza lana besterik egiten ez duenean. Kopuru bat hirugarren baten kontura eta honek aginduta egiten denean esango da ordainketa batean bitartekaritza lana egiten dela.

Foru Arau honen 11.1.b) artikuluan aipatzen diren subjektu pasibo ez egoiliarrek establezimendu iraunkorraren bitartekaritzarik gabe sortutako etekinen ordaintzaileari dagokionez, esan behar da zor tributarioa ordaintzeko erantzukizun solidarioa besterik gabe exigitu ahal izango dela, hots, Zergen Foru Arau Orokorrak 37. artikuluko 4. atalean ezartzen duen administrazio-egintza, erantzukizun deribatua aurrez bilatzekoa, eskatu beharrik gabe, eta ondorio horietarako, Zerga-Administrazioaren iharduketak erantzule solidarioarekin zuzenean egiten direla ulertu ahal izango da.

Establezimendu iraunkor bati lotuta ez dauden subjektu pasibo ez egoiliarren ondasun nahiz eskubideen gordailuzain edo gestoreari dagokionez, adierazi behar da erantzukizun solidarioa Zergen Foru Arau Orokorrak 37. artikuluko 4. atalean ezarritakoari jarraiki exigituko dela.

Artikulu honetako lehen atalaren b) hizkiaren bigarren parrafoan aipatzen den atxikipenaren ordainketa egin ez bada, eskualdatutako ondasunak Zergaren pean geratuko dira".

3.- 22. artikulua honela berridatzi da:

"22. artikulua. Ez egoiliarren ordezkaria eta helbide fiskala.

Bat. Establezimendu iraunkor baten bitartekaritzarekin aritzen direnean (18.2 artikuluak aipatzen dituen supostuetan), edo Euskal Herrian lortutako errentaren zenbatekoa eta ezaugarriak ikusita Zerga-Administrazioak hala eskatzen duenean, lurralde espainiarrean egoiliar ez diren subjektu pasiboek Gipuzkoan egoitza duen pertsona fisiko nahiz juridiko bat izendatu beharko dute Zerga hau dela-eta dituzten obligazioetan Administrazioaren aurrean ordezka ditzan.

Subjektu pasiboak edo bere ordezkariak izendapenaren berri eman beharko diote Zerga-Administrazioari, behar bezala kreditaturik, izendapena egin eta bi hilabeteko epean.

Izendapena Ogasun eta Finantza Departamentuko Zuzendari Nagusiari jakinaraziko zaio, eta jakinarazpenarekin batera ordezkaria onartzen dela espreski adieraziko da.

Bi. Merkataritza Erregistroan hala ageri direnak hartuko dira ordezkaritzat, eta halakorik ezean, horien izenean kontratuak egiteko ahalmena dutenak. Pertsona horien egoitza Gipuzkoan ez badago, aurreko atalean xedatutakoa aplikatuko da.

Hiru. Lehen atalean aipatu diren obligazioak ez betetzeak zerga-arauen urrapen arina ekarriko du, eta 25.000 eta 2.000.000 pta. arteko isunaz zigortuko da hori.

Lau. Zerga-obligazioak Gipuzkoan betetzeko, atzerrian bizi diren subjektu pasiboek honako leku hauetan izango dute helbide fiskala:

a) Eragiketak Euskal Herrian egiten dituztenean establezimendu iraunkor baten bitartez, beren negoziak administratzen eta zuzentzen diren lekuan egongo da helbide fiskala, eta lurralde espainiarrean kokaturiko entitateei dagozkien arauak aplikatuko zaizkie bidezkoak direnean.

b) Ondasun higiezinen errentak izanez gero, ondasun higiezina kokaturik dagoen tokian.

c) Gainontzeko kasuetan, erantzule solidarioaren helbide fiskalean, edo hala badagokio, ordezkariarenean."

4.- 45. artikuluko 4. atala honela berridatzi da:

"45. artikulua. Gehikuntza edo urripenen zenbatekoa. Arau orokorra.

Lau. Erabat liberatutako akzioak direnean, hasierako akzioek duten aintzinatasun berbera izango dute."

5.- 48. artikuluko lehen atalaren a) hizkiaren azken parrafoa honela berridatzi da:

"48. artikulua. Arau espezifikoak.

Zati batean liberatutako akzioak direnean, haien erosketa balioa subjektu pasiboak benetan ordaindu duena izango da. Erabat liberatutako akzioak direnean, ordea, hauen erosketa balioa eta hasierako akzioena kalkulatzeko, kostu osoa banatu egin beharko da titulu zahar eta liberatuen kopuruaren artean".

6.- 48. artikulua honela aldatu da:

- a) hizkiari beste parrafo bat gehitzen zaio, ondoko hau hain zuzen:

"a) Balore Merkatuari....

Aurreko parrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, bigarren mailako merkatu ofizialtzat Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legean jasotakoak hartuko dira, bai eta apirilaren 4ko 710/1986 Erret Dekretuan xedatutakoaren arabera bigarren mailakotzat jotzen direnak ere.

Erosketa balioa...."

- Lehen atalaren b) hizkiaren azken parrafoa honela berridatzi da:

"Zati batean liberatutako akzioak direnean, horien erosketa balioa subjektu pasiboak benetan ordaindu duena izango da. Erabat liberatutako akzioak direnean, ordea, hauen erosketa balioa eta hasierako akzioena kalkulatzeko, kostu osoa banatu egin beharko da titulu zahar eta liberatuen kopuruaren artean".

Bi. Sozietateen gaineko Zerga eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga integratzea.

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 13/1991 Foru Arauaren 37.1 artikulua honela geratu da idatzita:

“1. Edozein motatako entitateen fondo propioetan partaidetza edukitzeagatik lortutako etekinak.

Sozietate edo elkarteetako dibidenduak, juntetara joateko primak eta mozkin-partaidetzak kategoria honetan sartzen dira, bai eta bazkide, akziodun edo elkartekide izateagatik entitate batetik jasotako beste edozein onura ere. Estatutarioki edo organo sozialen erabakiz, eta lan pertsonalaren ordainketa ez den arrazoi batengatik, sozietate edo elkarte baten mozkin, salmenta, eragiketa, sarrera edo antzeko kontzeptuetan parte hartzeko ahalmena ematen duen edozein aktibo motatatik datozen etekinak ere sartzen dira hemen, akzio liberatuak ematea izan ezik.

Oinarri ezargarrian integratzerakoan, aurreko parrafoetan aipatzen diren etekinak lurralde espainiarrean egoitza duten sozietate, elkarte edo entitateetatik baldin badatoz, honako portzentaia hauekin biderkatuko dira:

a) % 140arekin, izaera orokorrez.

b) % 125arekin, etekin horiek Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 43/1995 Legeak 26.2 artikuluan aipatzen dituen entitateetatik datozenean.

c) % 100arekin, etekin horiek Sozietateen gaineko Zergari buruz abenduaren 27ko 43/1995 Legeak 29. artikuluko 5 eta 6 ataletan aipatzen dituen entitateetatik, abenduaren 20ko 20/1990 Legeak arautzen dituen kooperatiba babestuetatik eta bereziki babestuetatik, eta aportazioak itzuliz egiten diren kapital murrizpenetik datozenean.”

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 13/1991 Foru Arauaren 78.7.a) artikulua honela geratuko da idatzita:

“Zazpi. Bestelako kenkariak.

a) 37. artikuluko 1. atalaren laugarren parrafoan aipatzen diren etekinak badira eta etekin horiek sozietate garden baten oinarri ezargarrian egotzi badira honako portzentaiak kenduko dira:

- % 40a, izaera orokorrez.

- % 25a, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 29. artikuluko 2. atalean aipatzen dituen entitateetatik datozenean.

- % 0a, Sozietateen gaineko Zergaren Legeak 29. artikuluko 5 eta 6 ataletan aipatzen dituen entitateetatik, abenduaren 20ko 20/1990 Legeak arautzen dituen kooperatiba babestuetatik eta bereziki babestuetatik, eta aportazioak itzuliz egiten diren kapital murrizpenetik datozenean.

Kenkari honen oinarria jasotako zenbateko osoak osatuko du.

Abenduaren 20ko 20/1990 Legeak arautzen dituen kooperatiba babestuen eta bereziki babestuen itzulkinak ezarpen bikoitza dela-eta deduzitzerakoan, lege horren 32. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.”

3. Abenduaren 29ko 22/1993 Legearen 2. artikuluak, Nafarroako azaroaren 15eko 12/1993 Foru Legearen 19. artikuluak, edo uztailaren 6ko 19/1994 Legearen bosgarren xedapen gehigarriak diotenaren arabera hobarituak diren etekinen dibidenduek edo mozkin-partaidetzek, bai eta Gipuzkoako ekainaren

26ko 11/1993 Foru Arauan, Bizkaiko ekainaren 24ko 5/1993 Foru Arauan eta Arabako uztailaren 5eko 18/1993 Foru Arauan aurrikusten den salbuespena aplikagarri duten entitateetatik datozenek ezingo dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 13/1991 Foru Arauaren 78.7.a) artikuluan aurrikusten den kenkaria jaso. Zerga horren oinarri ezargarrian dibidendu eta mozkin-partaidetzen ehuneko ehuna sartuko da.

Aurreko parrrafoan aipatzen diren entitateek erreserbak banatzen badituzte, akordio sozialean onartutako izendapenari jarraituko zaio, eta abonaturiko lehen kopuruak erreserba horiei aplikatzen zaizkiela ulertuko da.

Hiru. Etekin inplizituak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan integratu eta konpentsatzea.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 13/1991 Foru Arauaren 37. artikulua honela geratu da idatzita 2. atalaren a) hizkiaren azken parrafoan:

“Etekin inplizituak konputatu, integratu eta konpentsatzeko honako arau hauek jarraituko dira:

1.- Etekin bakoitzaren konputua banaka egingo da titulu edo aktibo bakoitzeko.

2.- Etekin inplizitu positiboak Zergaren oinarri ezargarrian integratuko dira.

3.- Etekin inplizitu negatiboak ezingo dira integratu.

4.- Erosketak edo salmentak direla-eta gertatzen diren gastuak behar bezala justifikatzen badira hartuko dira kontuan etekina kuantifikatzeko.

Lau. Gardentasun fiskaleko erregimena aldatzea.

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 13/1991 Foru Arauaren 52. artikulua honela geratuko da idatzita:

“52. artikulua. Gardentasun erregimena.

Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 66. artikuluan aipatzen dituen sozietate gardenek egotzitako oinarri ezargarria beren oinarri ezargarrian sartu beharko dute Gipuzkoan bizi diren bazkideek.

Sozietateen gaineko Foru Arauaren 66. artikuluko 3. atalean xedatutakoa kontuan harturik ere, lurralde espainiarrean egoitza duen edozein entitateren fondo propioetan parte hartzeagatik lortzen diren etekinen ondorioz egozten den oinarri ezargarriaren zatiari Foru Arau honen 37. artikuluak 1. atalaren hirugarren parrafoan xedatutakoa aplikatuko zaio.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 13/1991 Foru Arauaren 53. artikulua honela geratuko da idatzita:

“53. artikulua. Beste kontzeptu batzuen egozpena.

Sozietate gardenetako bazkideek, egoitza Espainian dutenean, egozpen hauek egin ahal izango dituzte:

a) Sozietateak berak kuotan jasotzen dituen kenkari eta hobariak. Kenkari eta hobarien oinarriak bazkideen likidazioan sartuko dira eta, hala badagokio, kuota gutxituko dute Zerga honen arauen arabera.

Kenkariak eta hobariak oinarri ezargarri positiboarekin batera egotziko dira.

b) Sozietate gardenaren ordainketa zatikatuak, atxikipenak eta konturako ordainketak.

c) Sozietate gardenak Sozietateen gaineko Zerga dela-eta ordainduriko kuota.”

3. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 13/1991 Foru Arauaren 55. artikulua honela geratuko da idatzita:

“55. artikulua. Errentak indibidualizatzea.

Bat. Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 66. artikuluko 1. atalaren a) eta c) hizkietan aipatzen diren sozietateen oinarri ezargarri positiboak Foru Arau honetan kapital etekinak indibidualizateko ezartzen diren erregela berberak jarraituz egotziko dira.

Bi. Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 66. artikuluko b) hizkian aipatzen diren sozietateen oinarri ezargarri positiboak sozietate horietako bazkideei egotziko zaizkie, baloreen titularitatea amankomuna izan arren.”

4. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 13/1991 Foru Arauaren 100. artikulua honela geratuko da idatzita:

“100. artikulua. Ofiziozko itzulketa.

Bat. Jatorrian atxikitako kopuruak, kontura egindako ordainketak eta gardentasun fiskaleko erregimenpean dauden sozietateek ordainduriko kuotak batzen badira eta emaitzak autolikidazioan ateratzen den kuotaren zenbatekoa gainditzen badu, zerga-administrazioak behin-behineko likidazioa egin beharko du aitorpena aurkezteko epea amaitu eta hurrengo sei hilabeteen barruan.

Bi. Atxikitako kopuruak, kontura egindako ordainketak eta gardentasun fiskaleko erregimenpean dauden sozietateek ordaindutakoa batzen badira eta emaitza behin-behineko likidaziotik ateratzen den kuota baino handiagoa bada, zerga-administrazioak hilabeteko epean itzuli beharko du ofizioz kuota horren gainean soberan jasotakoa.

Hiru. Behin-behineko likidazioa aurreko lehen atalean ezarritako sei hilabeteko epean egiten ez bada, zerga-administrazioak hilabeteko epea izango du autolikidaturiko kuotaren gainean soberan jasotakoa ofizioz itzultzeko, bidezkoak gerta daitezkeen behin-behineko likidazioak geroago egitearen kaltetan gabe.

Lau. Itzulketa egiteko epea amaitu eta berau egin ez bada, subjektu pasiboak berandutza-interesak jasotzeko eskubidea izango du, eta hauek itzulketa egin behar zen egunetik aurrera konputatuko dira legezko interesaren arabera.

Bost. Artikulu honek aipatzen duen ofiziozko itzulketa egiteko prozedura eta ordaintzeko era erregelamenduz zehaztuko dira.”

Bost. Oinarri ezargarri erregularraren murrizketak aldatzea.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 13/1991 Foru Arauaren 71. artikulua honela geratuko da idatzita bere 1. atalaren b) hizkian:

"b) Milioi pezeta urtean."

Sei. Nazioarteko gardentasun fiskala Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan.

Urtarrilaren 31ko 5/1995 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia abenduaren 30eko 41/1994 Legeak -1995erako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzkoak- eta abenduaren 30eko 42/1994 Legeak -Neurri Fiskal, Administratibo eta Gizarte Mailakoei buruzkoak- xedatutakora egokitzen duena, honela geratuko da idatzita 1. artikuluko bat atalaren a) hizkian:

"Bat. Obligazio pertsonala dela-eta zergak ordaindu behar dituzten pertsona fisikoek euren oinarri ezargarrian sartuko dute Espainian egoitza ez duen entitateak lortutako errenta positiboa, errenta hori artikulu honetako 2. atalean aurrikusten direnetako bat denean eta hurrengo baldintza hauek betetzen direnean:

a) Espainian egoitzarik ez duen entitatearen kapitalean, fondo propioetan, emaitzetan edo boto eskubideetan % 50eko partaidetza edo hau baino handiagoa eduki beharko dute entitate horren ekitaldi sozialaren itxiera egunean, dela berak bakarrik, dela Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 16. artikuluaren arabera lotetsiak diren entitateekin batera nahiz obligazio pertsonala dela-eta zergak ordaindu behar dituzten pertsona fisikoekin batera (hauek, beti ere, zuzeneko nahiz zeharkako ahaidetasun harreman batengatik, odolkidekoa nahiz bigarren mailara arteko batengatik egongo dira lotuta).

Egoitzarik gabeko entitate lotetsien partaidetza lurralde espainiarrean egoitza duten pertsona edo entitate lotetsietan zeharka ematen den partaidetzaren zenbatekoaren arabera konputatuko da.

Sartu behar den errenta positiboa zenbatekoa izango den jakiteko, emaitzetan duten partaidetza hartuko da kontuan eta, honen ezean, kapitalean, fondo propioetan edo boto eskubideetan daukatena."

Hirugarrena. Abenduaren 27ko 14/1991 Foru Araua, Ondarearen gaineko Zergari buruzkoa, aldatzea.

Ondarearen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 14/1991 Foru Arauaren 6. artikulua honela geratu da idatzita:

"6. artikulua. Espainian egoiliar ez diren subjektu pasiboen ordezkariak.

Bat. Establezimendu iraunkor baten bitartekaritzarekin aritzen direnean, edo lurralde espainiarrean duten ondarearen zenbatekoa eta ezaugarriak ikusita, Zerga-Administrazioak hala eskatzen duenean, lurralde espainiarrean egoiliar ez diren subjektu pasiboek -aurreko 5. artikuluaren bat ataleko b) hizkian aipatuek-, Gipuzkoan egoitza duen pertsona fisiko nahiz juridiko bat izendatu beharko dute Zerga hau dela-eta dituzten obligazioetan Administrazioaren aurrean ordezka ditzan.

Subjektu pasiboak edo bere ordezkariak izendapenaren berri eman beharko diote Zerga-Administrazioari, behar bezala kreditaturik, izendapena egin eta bi hilabeteko epean.

Bi. Lehen atalean aipatu diren obligazioak ez betetzeak zerga-arauen urrapen arina egitea ekarriko du, eta 25.000 eta 1.000.000 pta. arteko isunaz zigortuko da hori.

Hiru. Edozein modutan, egoiliarrak ez direnen ondasun edo eskubideen gordailuzainak edo gestoreak erantzukizun solidarioa izango dute gordailatu nahiz gestionatu behar dituzten ondasun edo eskubideengatik zerga honetan ordaindu behar den zorrari dagokionean, Zergen Foru Arau Orokorraren 37. artikuluak 4. atalean dioen eran."

Laugarrena. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontuen Foru Araua gaitzea.

Aurrekontuen Foru Arauek honako hau egin ahal izango dute:

a) Karga-tasak aldatu.

b) Muga kuantitatiboak eta portzentaia finkoak aldatu.

c) Salbuespenak aldatu.

d) Sozietate gardenen erregimena aldatu.

e) Behar diren arauak sartu eta aldatu Europako Batasuneko Itunetik eta bere Zuzenbidetik datozen obligazioak betetzeko.

f) Zerga arloko prozedurak eta kudeaketa aldatu.

g) Aitorpenak aurkezteko epeak aldatu.

h) Koefizienteak ezarri Foru Arau honen 11. artikuluan aurrikusitakoa aplikatzeko.

Bosgarrena. Ahalmen arauemailea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak behar diren xedapenak eman ahal izango ditu Foru Arau hau garatu eta aplikatzeko.

Seigarrena. Indarrean sartzea.

1. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean eta 1996ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko ditu ondorioak.

2. Aurreko atalean xedatutakoa kontuan harturik ere, zergaldia 1996ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi eta Foru Arau hau indarrean sartu baino lehen amaitzen duten entitateek Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 43/1995 Legea aplikatzea aukeratu ahal izango dute.

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru arauak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

-

- *Abenduaren 23ko FORU ARAUA, gipuzkoako lurralde historikoaren 1997rako aurrekontu orokorrak onartzeari buruzkoa. (1996-12-31ko GAO)*

    - Bigarren xedapen gehigarriak 2.1c), 39.1.1, lehenengo paragrafoa, 42.3, 49.1 d) eta 49.2d) artikuluak aldatzen ditu.

- *Martxoaren 18ko 26/1997 FORU DEKRETUA, gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 12/1996, 13/1996 eta 14/1996 legeetan nahiz 1/1997 errege-lege dekretuan jasotako zerga neurri batzuetara egokitzen duena. (1997-04-04ko GAO)*

    - 16.2 artikuluak 17.3 artikulua aldatzen du.

- *Maiatzaren 22ko 2/1997 FORU ARAUA, kooperatiben zerga erregimenari buruzkoa. (1997-05-30ko GAO)*

    - Amaierako bigarren xedapenak 29.2c) eta 29.3a) artikuluak ezabatzen ditu, eta 33.7 eta 39.1, lehenengo paragrafoa, artikuluak aldatzen ditu.

- *Maiatzaren 27ko 38/1997 FORU DEKRETUA, gipuzkoako lurralde historikoaren zerga arudia sozietate laboralei buruzko martxoaren 24ko 4/1997 legeak jasotako zerga neurrietara egokitzen duena. (1997-06-04ko GAO)*

    - Bigarren xedapen gehigarriak 11.4b) artikulua aldatzen du.

- *Uztailaren 8ko 4/1997 FORU ARAUA, sozietateen gaineko zerga eta ondasun higiezinen gaineko zerga arautzen dituzten foru arauen hainbat artikulu aldatzen dituena. (1997-07-14ko GAO)*

    - 1. artikuluak 15.3 artikulua aldatzen du.
    - 2. artikuluak 19. artikulua aldatzen du.
    - 3. artikuluak 22.5 artikulua aldatzen du.
    - 4. artikuluak 24.4 artikulua aldatzen du.
    - 5. artikuluak 33 artikulua aldatzen du.
    - 6. artikuluak 41.4 artikulua aldatzen du.
    - 7. artikuluak 46.1 eta 46.5 artikuluak adatzen ditu.

- 8. artikuluak 52.2, 52.4 eta 52.5 artikuluak aldatzen ditu.
- 9. artikuluak 58.4 artikulua aldatzen du.
- 10. artikuluak 129.2 artikulua aldatzen du.
- 11. artikuluak 24. xedapen iragankorra aldatzen du.

- *Azaroaren 18ko 78/1997 FORU DEKRETUA gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia abuztuaren 4ko 38/1997 legearen bitartez euskal ekonomi itunean egindako aldaketara egokitzen duena. (1997-12-03ko GAO).*

  - 9. artikuluak 1. eta 2. artikuluak aldatzen ditu.
  - 10. artikuluak 16.2 eta 17.1 artikuluak aldatzen ditu.
  - 11. artikuluak 53. artikulua aldatzen du.
  - 12. artikuluak 56.2 eta 56.3 artikuluak aldatzen ditu.
  - 13. artikuluak 63.1 eta 65.1 artikuluak aldatzen ditu.
  - 14. artikuluak 66.4 eta 66.5 artikuluak aldatzen ditu.
  - 15. artikuluak 71.3 eta 74.1 artikuluak aldatzen ditu.
  - 16. artikuluak 91.1 artikulua aldatzen du.
  - 17. artikuluak 130.1 artikulua aldatzen du.
  - 18. artikuluak XI. titulua gehitzen du.

- *Gipuzkoako lurralde historikoko 1998rako aurrekontu orokorrak onartzen dtuen abenduaren 22ko 7/1997 FORU ARAUA. (1997-12-31ko GAO).*

  - Bigarren xedapen gehigarriak 129. artikulua aldatzen du.

- *Otsailaren 25eko 1/1998 FORU ARAUA, zerga neurriei buruzkoa. (1998-03-05eko GAO).*

  - 5. artikuluak 37. 5, 57. 2, 62. 2, 96.3., 97. 3, 107. c) lehen parrafoa eta 139. 1 f) artikuluak, 5. xedapen gehigarriaren 3. apartatua eta 7. xedapen gehigarriaren a) letra aldatzen ditu

- *Gipuzkoako lurralde historikoaren 1999rako aurrekontu orokorrak onartzeari buruzko abenduaren 21eko 7/1998 FORU ARAUA. (1998-12-29ko GAO).*

  - Bigarren xedapen gehigarriak 11.6, 12.6, 29.5, 29.6, 29.7, 29.8, 60., 78.2, 96.3 eta 139.1.g) artikuluak aldatzen ditu.
  - Hirugarren xedapen gehigarriak 15.11 artikuluak jasotzen dituen koefizienteak aldatzen ditu.

- *Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 FORU ARAUA. (1998-12-31ko GAO).*

    - 9. Xedapen gehigarriak 24.5, 33.2, 33.3, 33.4, 74.5, 94.3, 95.2 eta 103.1.a).artikuluak aldatzen ditu.

- *Ez egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko apirilaren 26ko 2/1999 FORU ARAUA. (1999-4-30eko GAO).*

    - Xedapen indargabetzaile bakarrak 2. artikuluko 4., 10. eta 12. apartatuak, XI. titulua eta laugarren xedapen gehigarria indargabetzen ditu.

- *Zerga neurriei buruzko apirilaren 27ko 3/1999 FORU ARAUA. (1999-05-03ko GAO).*

    - 3.artikuluak: 7.artikuluaren 1 apartatuari j) letra erantsi dio, 9.artikuluari g) apartatu bat erantsi dio eta 20.artikuluari 8 apartatu bat erantsi dio. 29.artikuluaren 6 apartatua, 38.artikuluaren 2 apartatua eta 59.artikuluaren 1 zenbakia aldatzen ditu. 90.artikuluaren 2 apartatuari c) letra erantsi dio. 90.artikuluaren 4 apartatua, 110, 111, 112 eta 114 artikuluak aldatzen ditu.: hamabigarren xedapen gehigarria eta hamahirugarren xedapen gehigarria erantsi ditu eta hirugarren xedapen iragankorra aldatzen du.

- *Gipuzkoako lurralde historiko zerga neurriei buruzko abenduaren 27ko 4/1999 FORU ARAUA. (1999-12-31ko GAO)*

    - 5. artikuluak 39.artikuluaren 2. apartatua, 40. artikuluaren 1. eta 2. apartatuak, 74. artikuluaren 5. apartatua eta 126. artikuluaren 1 apartatuak aldatzen ditu.
    - Xedapen indargabetzaileak bosgarren xedapen gehigarria indargabetzen du

- *Martxoaren 13ko 3/2000 FORU ARAUA gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia kupoaren batzorde mistoak 2000ko urtarrilaren 18an hartutako erabakietara egokitzen duena. (2000-03-17ko GAO)*

    - 1. artikuluak 19. artikulua aldatzen du, 26. artikulua indargabetzen du, 34. bis artikulu berria sartzen du, 37. artikuluko 1 apartatua aldatzen du,III. kapitulua aldatzen du eta 115. artikuluaren 1. apartatuko c) letra ezabatzen du.

- *Uztailaren 5eko 4/2000 FORU ARAUA, zenbait zerga neurri onartzen duena.(2000-07-12ko GAO)*

    - 3. artikuluak 1. artikulua eta 2. artikuluaren 1). apartatuko a) letra aldatzen ditu. 9. apartatua erantsi dio 20. artikuluari. 27. artikuluaren 2. apartatuari c) eta d) letrak erantsi dizkio. 29. artikuluaren 1. apartatuko b) letra, 41.

artikulua eta 42. artikuluaren 1 eta 2 apartatuak aldatzen ditu. 44. artikuluari 4. apartatua erantsi dio. Idazkera berria eman dio 66. artikuluaren 1 apartatuko a) letraren azken parrafoari eta 3 apartatuari. 91. artikuluaren 1 apartatuko azken parrafoa desagertzen da, horren ordez bi parrafoak sortuz. 99. artikulua aldatzen du. 14. xedapen gehigarriaren 1 apartatuko d) letra desagertu eta e) letra aldatzen du.

- *Gipuzkoako Lurralde Historikorako hainbat zerga neurri onartzen duen otsailaren 12ko 2/2001 FORU ARAUA. (2001-02-16ko GAO)*

    - 4. artikuluak, 11. artikuluaren 6 apartatua, 12. artikuluaren 6 apartatuko hirugarren parrafoa eta 19. artikulua aldatzen ditu. 22.bis eta 37 bis artikuluak gehitzen ditu. 41. artikuluaren 6 apartatua kendu, eta 7 eta 8 apartatuak 6 eta 7 apartatuak bihurtzen ditu. 5 apartatua gehitu dio 44. artikuluari. 46, 53 eta 54. artikuluak eta 59. artikuluaren 1 apartatua aldatzen ditu. 4. apartatua gehitu dio 104. artikuluari, 5. apartatua gehitu dio 130 artikuluari eta e) letra gehitu dio zazpigarren xedapen gehigarriari.

- *Uztailaren 6eko 24/2001 FORU ARAUA, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua eta zerga izaerako beste arau batzuk aldatzen dituena. (2001-07-16ko GAO)*

    - Bere 1.artikuluak 90.2 artikulua aldatzen du, bere 2. artikuluak 94 artikulua aldatzen du, bere 3.artikuluak 103 artikulua aldatzen du, bere 4.artikuluak 104 artikulua aldatzen du, bere 5. artikuluak 123 artikulua aldatzen du, bere 6.artikuluak 126.1 artikulua aldatzen du eta bere 7.artikuluak 127.artikuluari hirugarren apartatu bat gehitzen dio.

- *Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 FORU ARAUA. (2002-05-20ko GAO)*

    - Bere 4.artikuluak 9 artikuluko 4 apartatua; 10 artikulua;.12 artikuluko 2 apartatua; 13 artikuluko 3 apartatua; 19 artikuluko 2 apartatuko azken paragrafoa; 21 artikuluko 3 apartatua; 22 artikulua; 24 artikuluko 1 apartatua; 29 artikuluko 1 apartatuko b) hizkia; 33 artikuluko 4 apartatuko e) hizkia; 33 artikuluko 5 apartatua; 37 artikuluko 4 apartatuko c) hizkia; 37 artikuluko 6 apartatukoo 3. erregela; 39 artikuluko 5 apartatua; 41 artikulua; 49 artikuluko 1 eta 2 apartatuak; 50 artikuluko 4 eta 5 apartatuak; 52 artikulua; 54 artikuluko 2tik 4ra bitarteko apartatuak; 58 artikuluko 2 apartatua; VIII. Tituluko IX. Kapituluko izenburua; 71 artikulua; 72 artikulua; 73 artikulua; 74 artikulua; 75 artikulua; 76 artikulua; 77 artikulua; 78 artikulua; 79 artikulua; 80 artikulua; 81 artikulua; 82 artikulua; 83 artikulua; 84 artikulua; 85 artikulua; 86 artikulua; 87 artikulua; 88 artikulua; 89 artikulua; 101 artikulua; 122 artikulua; 126 artikuluko 3 apartatua; 127 artikuluko 2 apartatuko azken paragrafoa; 132 artikulua; Laugarren Xedapen Gehigarria eta Zazpigarren Xedapen Gehigarria aldatzen ditu, eta 12 artikuluari 8 apartatu bat, 33 artikuluko 4 apartatuko f) hizkia; artikulu 44.Bis eta 116 artikuluari 10 apartatua gehitzen dizkio.

- *Urtarrilaren 29ko 1/2003 FORU ARAUA, Gipuzkoako zerga araudia Ekonomia Itun berriaren xedapenetara egokitzen duena. (GAO 2003-02-06).*

    - Bere 3 artikuluak 2.artikulua aldatu du; 2.bis artikulua erantsi du; 29.artikuluaren 1 apartatuko c) hizkia ezabatu du; 40.artikuluaren 3 apartatua aldatu du; 127.bis artikulua gehitu du; IX tituluaren V kapituluaren izenburua aldatu du; 130.artikuluaren izenburua aldatu du; 130 artikuluaren 1 apartatua aldatu du; 130.artikuluari 6 eta 7 apartatuak erantsi dizkio eta 132.bis artikulua erantsi du.

    -

- *Martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUA, ondoko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen duena: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zerga. (GAO 56 zki.a, 2003-03-24 koa).*

    - Bere Bigarren Kapituluak prezeptu hauek aldatu ditu: 4.artikuluaren 2 apartatua, 6.artikuluaren 1 apartatua, 19.artikuluaren 9 apartatua, 22.artikuluaren 4 apartatua, 36.artikuluaren 2 apartatua, 40.artikuluaren 1 apartatuko b) letraren lehen paragrafoa, 47.artikuluaren 1 apartatua, 53.artikuluaren 1 apartatua, 55.artikulua, 56.artikulua,58.artikulua, 60.artikuluaren 1 apartatuko A) letra, 60.artikuluaren 1 apartatuko B) letraren lehen bi paragrafoak, 60.artikuluaren 2 apartatua, 63.artikuluaren 3 apartatua, 64.artikulua, VIII tituluaren VIII Kapituluaren izenburua, 66.artikulua, 67.artikulua, 68.artikulua, 69.artikulua,70.artikulua, 74.artikuluaren 2 apartatuko e) letra, 101.artikuluaren 1 apartatua, 110 artikulua, 111.artikulua, 115.artikuluaren 10 apartatua, 116.artikuluaren 10 apartatua, 129.artikuluaren 2 apartatua eta 130.artikuluaren 4 apartatuko b) letra.
    - Hauek gehitu ditu: 9.artikuluari f) letra, 16.artikuluari 7 apartatua, 59.artikuluari 5 apartatua, 74.artikuluaren 2 apartatuari f) letra, 63.artikuluari 3 apartatua eta Hogeita bosgarren xedapen iragankorra.
    - Beste hauek sortu ditu: 44 ter artikulua, 57 bis artikulua, 58 bis artikulua eta 58 ter artikulua.
    - Eta 15.artikuluaren 9 apartatua edikirik gabe utzi du.
    - Bere Laugarren Xedapen Gehigarriak 2003.urtean hasten diren zergaldiei aplikatu beharreko koefizienteak ezartzen ditu 15.artikuluaren 11 apartatuan.
    - Bere Lehen eta Bigarren Xedapen Iragankorrak sozietate gardenei aplikatu beharreko erregimen iragankorra ezartzen dute.

    -

- *Abenduaren 15eko 20/2003 FORU ARAUA, izatezko bikoteen zerga erregimenari buruzkoa.(GAO 2003-12-22).*

    - Bere 3.artikuluak 16.artikuluaren 2.apartatua eta 66.artikuluaren 1 apartatuko b) letra aldatu ditu.

- *Zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUA (GAO 2004-04-16).*

    - Bere 2.artikuluak prezeptu hauek aldatu ditu:

        - Bere Lehenengo apartatuak 126. artikuluari 3 apartatua aldatu dio.

        - Bere Bigarrengo apartatuak 11. artikuluaren 6 apartatua; 12. artikuluaren 6 apartatua; 58. artikuluaren 1 apartatua; 68. artikuluaren 2 apartatuko a) letra; 69. artikuluaren 1 apartatuko a) letra eta 96. artikuluaren 3 apartatuak aldatu ditu.

        - Bere Hirugarrengo apartatuak 13. artikuluaren 3 apartatua; 19. artikuluaren 3 apartatuko b) letra; 29. artikuluaren 5 apartatua; 33. artikuluaren 2 apartatua; 41. artikuluaren 1 apartatuko a) letra; 41. artikuluaren 1 apartatuko c) letra; 41. artikuluaren 2 apartatuko b) letra; 42. artikulua; 44 bis artikulua; 54. artikuluaren 1 apartatua; 59. artikulua eta 62. artikuluaren 1 apartatuak aldatu ditu eta 21. artikuluari 4 apartatua eta 115. artikuluaren 1 apartatuari c) letrak gehitu dizkio.

        - Bere Laugarrengo apartatuak 12. artikuluaren 2 apartatuko b) letra eta 74. artikuluaren 4 apartatuko b) letrak aldatu ditu.

- *Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 FORU ARAUA (GAO 2004-04-19).*

    - Bigarren xedapen gehigarriak hurrengo prezeptuak aldatzen ditu: 29. artikuluko 2 apartatuaren e) letra eta 4 apartatua; 38. artikuluko idazpurua eta 1 apartatua; 117. artikuluko a) letra; 118 eta 119. artikuluak eta, azkenik, 123. artikuluko 1 apartaua.

- *Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4eko 7/1996 Foru Arauaren hainbat xedapen aldatzen dituen maiatzaren 24ko 32/2005 FORU DEKRETUA (2005-05-27 GAO).*

    - Bere artikulu bakarrak hurrengo xedapen hauek aldatu ditu: 11. artikulua, 15. artikuluko 11. apartatua, 29. artikuluko 1. apartatuko a) letra eta 37. artikulua.

- *Gipuzkoako Lurralde Historikoko martxoaren 8ko 2/2005eko Zergen FORU ARAU Orokorra (2005-03-17 GAO).*

    - Bere amaierako hirugarren xedapenak hurrengo xedapen hauek aldatu ditu: 6. artikuluko 1. apartatua; 10. artikuluko 2. apartatua; 70. artikuluko 2. apartatua; 77. artikuluko 4. apartatua; 87. artikuluko 1. apartatua; 100. artikuluko 4. apartatua; 125. artikuluko 2. apartatua; 127. artikuluko 2. apartatua; 128. artikulua eta 131. artikulua.

    - Eta hamargarren, hamaikagarren eta hamabigarren xedapen gehigarriak edukirik gabe utzi ditu.

- *Etxebizitzen alokairua sustatzeko zerga neurriei buruzko urriaren 27ko 9/2005 FORU ARAUA (2005-11-03aren GAO).*

    - Bere 1. artikuluak XVI kapitulua gehitu du VIII tituluan, 119 bis eta 119 ter artikuluak barneratuz.

- *Zerga neurri batzuk onartzen dituen urriaren 28ko 10/2005 FORU ARAUA (2005-11-03aren GAO).*

    - Bere 3. artikuluak hurrengo xedapenak aldatu ditu: 22. artikuluko 1. apartatua, 33. artikuluko 4. apartatuaren e) letra eta 116. artikuluaren 10. apartatua.
    - Eta Hamabosgarren Xedapen Gehigarria gehitu du.

- *3/2005 ZERGA ALORREKO PRESAZKO FORU DEKRETU ARAUA, abenduaren 30ekoa, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen duena (2005-12-30eko GAO).*

    - Artikulu bakarrak 29. Artikuluko 1 apartatuaren a) letra aldatu du.

- *8/2006 FORU ARAUA, abenduaren 1ekoa, zerga alorreko zenbait neurri onartzen dituena (2006-12-12ko GAO.)*

    - 2. artikuluak prezeptu hauek aldatzen ditu: 7. artikuluaren 1 apartatuko d) letra; 13. artikuluko 3. apartatua; 29. artikuluko 5. apartatua; 44 bis artikuluko 1 apartatua; 59. artikuluko 1 apartatua; 59 artikuluko 7. apartatua 11. apartatua bihurtzen du: 59. artikuluko 6 eta 7. apartauak aldatzen ditu eta 8.etik 10.erako apartatuak gehitzen ditu eta hamargarren xedapen gehigarriari eman dio edukia.

- *Abenduaren 29ko 3/2007 FORU DEKRETU ARAUA, 1996ko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa, aldatzekoa (2007-12-31ko GAO).*

    - Bere 1. artikuluak 8. artikuluko 3. apartatua aldatu du.
    - Bere 2. artikuluak 15. artikuluko 2. apartatuko azken paragrafoa aldatu du.
    - Bere 3. artikuluak 16. artikulua aldatu du.
    - Bere 4. artikuluak 17. artikuluko 2. apartatua aldatu du.
    - Bere 5. artikuluak 21. artikuluko 3. apartatua aldatu du.
    - Bere 6. artikuluak 27. artikuluko 2. apartatuaren d) letrari azken parágrafo bat gehitu dio.
    - Bere 7. artikuluak 29. artikuluko lehen apartatua, bigarren apartatuaren lehen paragrafoa eta 3. apartatua aldatu ditu.
    - Bere 8. artikuluak 34bis. artikuluko 2. apartatua aldatu du.
    - Bere 9. artikuluak VII tituluko VI kapitulua aldatu du (40, 41, 42, 43, 44bis, 44ter, 45 eta 45bis artikuluak)

- Bere 10. artikuluak 46. artikulua aldatu du
- Bere 11. artikuluak VIII tituluko VIII kapitulua aldatu du (66, 67, 68, 69 eta 70 artikuluak)
- Bere 12. artiukulak VIII tituluko X kapituluko izenburua aldatu du.
- Bere 13. artikuluak 90. artikuluko 2. apartatuaren 1. puntuko b) eta c) letrak eta 5. apartatua aldatu ditu.
- Bere 14. artikuluak 91. artikuluko 1. apartatuaren d) letra aldatu du.
- Bere 15. artikuluak 94. artikuluaren 1. apartatuaren a) letrari bigarren parágrafo bat gehitu dio.
- Bere 16. artikuluak 95. artikuluaren 1. apartatuari bigarren parágrafo bat gehitu dio.
- Bere 17. artikuluak 99. artikulua aldatu du.
- Bere 18. artikuluak 104. artikulua aldatu du.
- Bere 19. artiluak beste xedapen iragankor bat gehitu dio, hogeitaseigarrena.
- Bere 20. artiluak beste xedapen iragankor bat gehitu dio, hogeita zazpigarrena.
- Bere 21. artiluak beste xedapen iragankor bat gehitu dio, hogeita zortzigarrena.
- Bere 22. artiluak beste xedapen iragankor bat gehitu dio, hogeita bederatzigarrena.
- Bere 23. artiluak beste xedapen iragankor bat gehitu dio, hogeita hamargarrena.
- Bere 24. artiluak beste xedapen iragankor bat gehitu dio, hogeita hamaikagarrena.
- Bere xedapen indargabetzeile bakarrak hurrengo xedapenak indargabetu ditu: 22bis. artikulua, 35. artikulua, 36. artikuluaren 1. apartatua, 37bis. artikulua, 38. artikuluaren 4. apartatua eta 52. artikulua.

- *EBAZPENA, 2008ko urtarrilaren 10ekoa, Gipuzkoako Batzar Nagusietako Lehendakaritzarena, honako xedapen hau indargabetzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 3/2007 Foru Dekretu-Araua, abenduaren 29koa, 1996ko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa, aldatzekoa (2008-01-14ko GAO).*

- *Otsailaren 11ko 1/2008 FORU ARAUA, Gipuzkoako zerga araudia 2007ko urriaren 25eko 28/07 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldaketetara, eta Alderdi politikoen finantzaketari buruzko 2007ko uztailaren 4ko 8/07 Lege Organikoan eta Estatuaren 2008ko Aurrekontu Orokorrei buruzko 2007ko abenduaren 26ko 51/07 Legean jasotako aldaketetara egokitzen duena (2008-02-15ko GAO).*

    - 1. artikuluak 2. artikulua eta 132 bis artikulua aldatzen ditu.

- *Uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUA,jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu,sozietateen gaineko zerga kontabilitate erreformara egokitu eta zerga neurriei buruzkoa (2008-07-11ko GAO).*

    - Bere 16. artikuluko lehena apartatuak hurrengo aldaketak onartu ditu, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin:
        - 8. artikuluko 3. apartatua aldatu du.
        - 15. artikuluko 2. apartatuko azken paragrafoa aldatu du.
        - 16. artikulua aldatu du.
        - 17. artikuluko 2. apartatua aldatu du.
        - 21. artikuluko 3. apartatua aldatu du.
        - 27. artikuluko 2. apartatuaren d) letrari azken parágrafo bat gehitu dio.
        - 34bis. artikuluko 2. apartatua aldatu du.
        - 43. artikululua indarabetu du.
        - VIII tituluko VIII kapitulua aldatu du (66, 67, 68, 69 eta 70 artikuluak)
        - VIII tituluko X kapituluko izenburua aldatu du.
        - 90. artikuluko 2. apartatuaren 1. puntuko b) eta c) letrak eta 5. apartatua aldatu ditu.
        - 91. artikuluko 1. apartatuaren d) letra aldatu du.
        - 94. artikuluaren 1. apartatuaren a) letrari bigarren parágrafo bat gehitu dio.
        - 95. artikuluaren 1. apartatuari bigarren parágrafo bat gehitu dio.
        - 99. artikulua aldatu du.
        - 104. artikulua aldatu du.
        - Beste xedapen iragankor batzuk gehitu zaizkio, hogeitaseigarrena, hogaita zazpigarrena, hogeita zortzigarrena eta hogeita bedetatzigarrena.
    - Bere 16. artikuluko bigarrena apartatuak hurrengo aldaketak onartu ditu, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin:
        - 6. artikuluaren 1. apartatua aldatu du.
        - 41. artikuluaren 2. apartatuaren b) letraren 1.- zenbakia aldatu du.
        - 54. artikuluaren 2. apartatuaren b) letra aldatu du.
        - 118. artikuluaren 2. apartatua aldatu du.
        - 126. artikuluaren 5. apartatua aldatu du.
        - Titulu berri bat gehitu du, XI.a.
    - Bere 15. artikuluak hurrengo aldaketak onartu ditu, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin:
        - 11. artikulua aldatu du.
        - 12. artikulua aldatu du.
        - 13. artikulua aldatu du.

- 14. artikuluari 3. apartatua gehitu dio.
- 15. artikuluaren 9. eta 10. apartatuak indargabetu ditu.
- 15. artikuluaren 1. eta 9. apartatuak aldatu ditu.
- 16. artikuluaren 3. apartatuaren azken paragrafoa aldatu du.
- 18. artikulua aldatu du.
- 22. artikuluaren 2. 3. 5. eta 6. apartatuak aldatu ditu.
- 33. artikuluaren 4. eta 5. apartatuak aldatu ditu.
- 34 bis artikuluaren 5. apartatua aldatu du.
- 36. artikuluaren 4. apartatua aldatu du.
- 39. artikuluaren 1. apartatuaren 1.- zenbakia aldatu du.
- 41. artikuluaren 1. apartatua aldatu du.
- 42. artikuluaren 1. apartatuaren horugarren paragrafoa aldatu du.
- 46. artikuluari 7. apartatua gehitu dio.
- 50. artikuluaren 6. apartatua aldatu du.
- 51. artikulua aldatu du.
- 52. artikuluaren 1. apartatua aldatu du.
- 78. artikuluaren 2. apartatua aldatu du.
- 86. artikuluaren 1. apartatua aldatu du.
- 92. artikuluaren 1. apartatua aldatu du.
- 94. artikuluaren 4. apartatua aldatu du.
- 95. artikuluaren 3. apartatua aldatu du.
- 96. artikuluaren 3. apartatua aldatu du.
- 97. artikuluaren 3. apartatua aldatu du.
- 100. artikuluaren 1. apartatua aldatu du.
- 103. artikuluaren 1. apartatua aldatu du.
- 114. artikuluaren izenburua eta 1. apartatua aldatu ditu.
- 115. artikuluaren 8. apartatua indargabetu eta 9.a aldatu ditu.
- 123. artikuluaren 3. apartatua aldatu du.

- *Abenduaren 23ko 8/2008 FORU ARAUA, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzekoa. (2008-12-30ko GAO).*

  - Bere 1. artikuluak 22bis artikulua aldatu du.
  - Bere 2. artikuluak 29. artikuluaren 1. apartatua, 2. apartatuaren lehen paragrafoa, 2. apartatuaren i) letra eta 6. apartatua aldatu ditu.
  - Bere 3. artikuluak 33. artikuluaren 5. apartatua aldatu du.
  - Bere 4. artikuluak VII. tituluko IV. kapituluaren izenburua aldatu du.
  - Bere 5. artikuluak 40. artikulua aldatu du.

- Bere 6. artikuluak 41. artikulua aldatu du.
- Bere 7. artikuluak 42. artikulua aldatu du.
- Bere 8. artikuluak 43. artikulua aldatu du.
- Bere 9. artikuluak 44. artikulua aldatu du.
- Bere 10. artikuluak 44bis. artikulua aldatu du.
- Bere 11. artikuluak 44ter. artikulua aldatu du.
- Bere 12. artikuluak 45. artikulua aldatu du.
- Bere 13. artikuluak 45bis. artikulua gehitu du.
- Bere 14. artikuluak 46. artikulua aldatu du.
- Bere 15. artikuluak 68. artikuluko 1. apartatua aldatu du.
- Bere 16. artikuluak 30. xedapen iragankorra gehitu du.
- Bere 17. artikuluak 31. xedapen iragankorra gehitu du.
- Bere 18. artikuluak letra i) bat gehitu du 11. artikuluko 4. apartatuan.
- Bere 19. artikuluak 13. artikuluaren 1. eta 4. apartatuak aldatu ditu.
- Bere 20. artikuluak 49. artikulua aldatu du.
- Bere 21. artikuluak 96. artikuluaren 3. apartatua aldatu du.
- Bere xedapen indargabetzaile bakarrak 35. artikulua, 36. artikularen 1. apartatua, 37bis artikulua, 38. artikuluaren 4. apartatua eta 52. artikulua indargabetu ditu.

- *Abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUA, zenbait zergatan aldaket jakin batzuk sartzen dituena (2008-12-30ko GAO).*

    - Bere Lehena ordinalak hurrengo aldaketak onartu ditu, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin:
        - Bere 3. artikuluaren Lehena.bat apartatuak 12. artikuluaren 2 eta 6 apartatuak aldatu ditu.
        - Bere 3. artikuluaren Lehena.bi apartatuak 19. artikuluaren 3. apartatuaren b) letraren azken paragragoa eta 6. apartatuaren a) letra aldatu ditu.
        - Bere 3. artikuluaren Lehena.hiru apartatuak 37. artikulua aldatu du.
        - Bere 3. artikuluaren Lehena.lau apartatuak 45. artikuluaren 2. apartatuaren lehen paragrafoa aldatu du.
        - Bere 3.artikuluaren Lehena.bost apartatuak 49. artikulua aldatu du.
        - Bere 3. artikuluaren Lehena.sei apartatuak 88. artikuluaren 1. apartatuaren a) letra aldatu du.
        - Bere 3. artikuluaren Lehena.zazpi apartatuak 115. artikuluaren 1. apartatuaren c) letra indargabetu du.
        - Bere 3. artikuluaren Lehena.zortzi apartatuak 115. artikuluaren 15 apartatua gehitu du.

- Bere 3. artikuluaren Bigarrena ordinalak 29. artikuluaren 5. apartatuaren a) letra indargabetu du, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin.
- Bere 3. artikuluaren Hirugarrena ordinalak 102. artikuluaren 1. apartatuaren lehen paragrafoa aldatu du, 2009ko uztailaren 4tik aurrerako ondorioekin.
- Bere 3. artikuluaren Laugarrena ordinalak Zazpigarren Xedapen Gehigarriaren a) letra aldatu du, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin.

- *Zenbait zerga aldaketa onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUA (2010-12-28ko GAO).*

  - Bere 2. artikuluaren ordinal lehenak hurrengo aldaketak onartu ditu, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin:
    - Bat apartatuak 16. artikuluaren 11 apartatuko a) letra aldatu du.
    - Bi apartatuak 19. artikuluaren 7. apartatua aldatu du.
    - Hiru apartatuak 74. artikuluaren 2. apartatuko b) letra aldatu du.
    - Lau apartatuak 74. artikuluaren 4. apartatuari e) letra erantsi dio.
    - Bost apartatuak 76. artikulua aldatu du.
    - Sei apartatuak xedapen gehigarri bat erantsi du, hamaseigarrena.
  - Amaierako xedapenaren bigarren paragrafoaren arabera, 2. artikuluaren ordinal bosgarrenaren bost apartatuan dagoen 119. duodecies artikuluak, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan izango du eragina.
  - Bere 2. artikuluaren ordinal bigarrenak xedapen gehigarri bat erantsi du, hamazazpigarrena, 2010eko uztailaren 14tik aurrerako ondorioekin.
  - Bere 2. artikuluaren ordinal hirugarrenak 70. artikuluko 4. apartatuko d) letra aldatu du 2010eko irailaren 1etik aurrerako ondorioekin.
  - Bere 2. artikuluaren ordinal laugarrenak xedapen gehigarri bat erantsi du, hemezortzigarrena, 2010eko azaroaren 1etik aurrera egindako kapital murriztapenetarako eta jaulkipen-primen banaketarako ondorioekin.
  - Bere 2. artikuluaren ordinal bosgarrenak hurrengo aldaketak onartu ditu, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin:
    - Bat apartatuak 2. artikuluaren 1. apartatua aldatu du.
    - Bi apartatuak 22. artikuluaren 1. apartatua aldatu du.
    - Hiru apartatuak 29. artikuluaren 5. apartatuko c) letra aldatu du.
    - Lau apartatuak 33. artikuluaren 2. apartatua aldatu du.
    - Bost apartatuak VIII tituluaren bornean beste kaputulu bat, XVII.a, sartu du. Dena den, amaierako xedapenaren bigarren paragrafoaren arabera, kapitulu honen barnean dagoen 119. duodecies artikuluak, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan izango du eragina.
    - Sei apartatuak 132 bis artikuluaren 1. apartatua aldatu du.

- *Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen dituen abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUA (2011/12/27ko GAO).*

- Bere 3. artikuluko lehen ordinalak aldaketa hauek egiten ditu 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ondorioekin:

    - Bat apartatuak 33. artikuluaren 3. apartatua aldatu du.
    - Bi apartatuak 37. artikuluaren 3. apartuko c) letra gehitu du eta 6. apartatuko 1. eta 4. erregelen lehen parrafoak aldatu ditu.
    - Hiru apartuak 74. artikuluko 1. eta 3. apartatuak aldatu ditu.
    - Lau apartatuak 91. artikuluaren 1. apartatuaren azken paragrafoa aldatu du.
    - Bost apartatuak 127. artikuluaren 4. apartatua gehitu du.
    - Sei apartatuak laugarren xedapen gehigarria aldatu du.
    - Zazpi apartatuak hemeretzigarren xedapen gehigarria gehitu du.
    - Zortzi apartatuak 46. artikuluaren 3. apartatuaren lehen paragrafoa aldatu du.
    - Bederatzi apartatuak hogeigarren xedapen gehigarria gehitu du.
- Bere 3. artikuluko bigarren ordinalak aldaketa hauek egiten ditu 2011ko abenduaren 28tik aurrera hasten diren ekitaldietarako ondorioekin:
    - Bat apartatuak 107. artikuluaren f) letra aldatu du.
    - Bi apartatuak hirugarren xedapen gehigarria aldatu du.
- Bere 3. artikuluko hirugarren ordinalak aldaketa hauek egiten ditu 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ondorioekin:
    - Bat apartatuak 44.bis. artikuluaren 1. apartatua aldatu du.
    - BI apartatuak 77. artikuluaren 6. apartatua aldatu du.
    - Hiru apartatuak 68. artikuluaren 1. apartatua aldatu du.
    - Lau apartatuak 45. artikulua aldatu du.
    - Bost apartatuak 46. artikuluaren 1. eta 7. apartatuak aldatu ditu.
    - Sei apartatuak 24. artikuluaren 1. apartatua aldatu du.

- *10/2012 FORU ARAUA, abenduaren 18koa, Aberastasunaren eta Fortuna Handien Gaineko Zergarena (2012/12/21eko GAO).*

    - Bere amaierako bigarren xedapenak 115. artikuluaren 10. apartatua eta hogeita zortzigarren xedapen iragankorraren 4. apartatua aldatu ditu. Aldaketak 2013ko urtarrilaren 1ean jarri diran indarrean.

- *Zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen dituen abenduaren 27ko 13/2012 FORU ARAUA (2012/12/28ko GAO).*

    - Bere 3. artikuluak aldaketa hauek egiten ditu 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ondorioekin:

        - Bat apartatuak 33. artikuluaren 7 apartatua aldatu du.

- Bi apartatuak 49. artikuluaren 1. apartatuko d) letra aldatu du.
- Hiru apartatuak 49. artikuluaren 2. apartatuko d) letra aldatu du.
- Lau apartatuak VIII Tiluluaren VI Kapituluaren izenburua aldatu du.
- Bost apartatuak 60. artikulua edukirik gabe utzi du.
- Sei apartatuak 68. artikuluaren 1. apartatua aldatu du.

- *2013ko uztailaren 17ko 5/2013 FORU ARAUA, zerga iruzurraren aurkako neurriei, kredituak kobra-tzeko elkarren lagun-tzari eta zergen arloko beste aldaketa -batzuei buruzkoa (2013/07/22ko GAO).*

  - Bere 3. artikuluak aldaketa hauek egiten ditu 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako ondorioekin:

    - Bat apartatuak 33. artikuluari 7 eta 8 apartatuak gehitu dizkio.
    - Bi apartatuak 14. artikulua aldatu du.
    - Hiru apartatuak 22. artikuluaren 1. apartatua aldatu du.
    - Lau apartatuak 46. artikuluko 3. apartatua aldatu du.
    - Bost apartatuak 50. artikuluaren 1. apartatua aldatu du.
    - Sei apartatuak 116. artikuluaren 1., 5., 6. eta 10. apartatuak aldatu ditua eta 11. apartatu bat gehitu dio.
    - Zazpi apartatuak 124. artikuluak 6. apatatua aldatu du eta 7. apartatu bat gehitu dio.
    - Zortzi apartatuak hogeita hamabigarren xedapen iragankor bat gehitu du.
    - Bederatzi apartatuak hogeita hamahirugarren xedapen iragankor bat gehitu du.
    - Hamar apartatuak hogeita hamalaugarren xedapen iragankor bat gehitu du.